

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO CURRICULUMA

A1

A2

B1

B2

C1

C2

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO CURRICULUMA

HEOC

Egileak

Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Miranda jn., HABEren Hizkuntzaren Didaktika-zerbitziburua
Lourdes Elozegi Arregi and., Curriculum Garapena atalburua
Hasier Agirre Aranburu jn., Curriculum Garapena ataleko teknikaria
Aitziber Larramendi Muxika and., Curriculum Garapena ataleko teknikaria
Agurtzane Maiz Aginaga and., Curriculum Garapena ataleko teknikaria
Luis Mari Gonzalez de Txabarri Miranda jn., Baliabide Didaktikoak ataleko teknikaria

Argitaraldia: 2.a, 2021eko uztaila

Ale-kopurua: 1.250 ale

© 2021 HABE. Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Autonomiaduna.

Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.

Argitaratzailea: HABE, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Vitoria-Gasteiz, 3

20018 DONOSTIA

Tel.: 943 022600

Internet: www.habe.euskadi.eus

ISBN: 978-84-96769-10-6

Lege-gordailua: D-00747-2021

Inprimatzailea: *Leitzaran Grafikak*, S.L.

Diseinu- eta maketatze-lana: *Zirrimarra* estudio grafikoa (Andoain)

Jabego intelektualari buruz indarrean dagoen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein berregintza, komunikazio publiko edo moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada.

HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO CURRICULUMA (HEOC)



HADE

2021

HABEren Zuzendaritza Batzordeak eta Batzorde Akademikoak onartu zuten HEOCa 2015eko urtarrilaren 30ean eta 2015eko ekainaren 5ean, hurrenez hurren, egindako bileretan.

HABEren Zuzendaritza Batzordea

Cristina Uriarte Toledo and., Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua
Patxi Baztarrika Galparsoro jn., Hizkuntza Politikarako sailburuordea
Jokin Azkue Arrastoa jn., HPS, Euskara Sustatzeko zuzendaria
Gotzon Lobera Revilla jn., HPS, Herri Administrazioetan hizkuntza normalizatzeko zuzendaria
Joseba Erkizia Itoitz jn., HABEren zuzendari nagusia
Eneko Oregi Goñi jn., IVAPEko Euskararen zuzendariordea
Iciar Lamarain Cenitagoya and., Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol foru-diputatua
Ana M. de Castro Rubalcaba and., Bizkaiko Foru Aldundiko Euskararen zuzendari nagusia
Zigor Etxeburua Urbizu jn., Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen zuzendari nagusia
Andres Iñigo Ariztegi jn., Euskaltzaindiko ordezkaria
Ibone Bengoetxea Otaolea and., EUDELEko ordezkaria
Pedro Lonbide Lizarralde jn., Araba eta Bizkaiko udal euskaltegietako irakasleen ordezkaria
Arantxa Ezeiza Trojaola and., Gipuzkoako udal euskaltegietako irakasleen ordezkaria
Esther Isasa Gaskue and., HABEren Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzuko langileen ordezkaria

HABEren Batzorde Akademikoa

Joseba Erkizia Itoitz jn., HABEren zuzendari nagusia
Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Miranda jn., HABEren Hizkuntzaren Didaktika-zerbitzuburua
Joanba Bergara Paskal jn., Prestakuntza atalburua
Luis Mari Gonzalez de Txabarri Miranda jn., Baliabide Didaktikoak ataleko teknikaria
Eli Azpiroz Atxukarro and., Elkarlan eta Batuz euskaltegietako zuzendarien ordezkaria
Benito Fiz Diez jn., AEK-ko euskaltegietako zuzendarien ordezkaria
Imanol Miranda Aranguren jn., IKA euskaltegietako zuzendarien ordezkaria
Marivi Zubiaga Gallastegi and., Barnetegietako zuzendarien ordezkaria
Kepa Dieguez Barahona jn., Bizkaia eta Arabako udal euskaltegien ordezkaria
Teresa Zaldua Legorburu and., Gipuzkoako udal euskaltegien ordezkaria

HITZAURREA

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE) sortu eta euskaltegiak arautzeko azaroaren 25eko 29/1983 Legeak HABEri agintzen dio helduen euskalduntzea sustatzea, eta, horretarako, hainbat eginkizun egozten dizkio; besteak beste, euskararen irakaskuntzarekin zerikusia duten bitartekoak, baliabideak eta metodologia-sistemak ikertu eta hedatzeko eginkizunak garatzea; irakasleen prestakuntza eta birziklatzea bideratzea, eta helduen euskaltegietan garatu beharreko programen koordinazio didaktiko-pedagogikoa egikaritzea.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak 2015eko uztailaren 22ko Agindua eman zuen, indarrean dagoen Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumua ezartzeko. HEOCak helduen euskalduntzearen ikasprozesua Hizkuntzen Europako Markora egokitu eta sei mailatan egituratzen du, elkarreagin soziodiskurtsiboan ardaztuta, hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboan oinarrituta, ekintza komunikatibotan definituta eta euskararen ezaugarri eta egoera soziolinguistikora egokituta. Ekintzan oinarritutako ikuspegia sustatzen du eta ikaslea da hizkuntzaren erabiltzaile aktiboa.

HEOCa euskaltegiei eta irakasleei aurkeztzen zaien oinarrizko lan-marko bat da, elkarri lotuta dauden helburu, eduki, ildo metodologiko eta ebaluazioaz osatua, dagozkion egokitzapenak eginez zehaztu dezan euskaltegi eta autoikaskuntzarako zentro bakoitzak, testuinguru soziolinguistikoa eta irakasleen ahalmenaren arabera, betiere ikasleen komunikagaitasuna abiapuntu izanik. HEOCa herritarrak euskara ahoz zein idatziz erabiltzeari begira dago egituratua, herritar guztiak elebidun izateko bidean tresna eraginkorra izan dadin; alegia, hiztun horiek euskara ahoz jariatasunez zein idatziz trebetasunez erabiltzeko gai izan daitezten.

HEOCa garatze aldera argitaratu zuen HABEk 2016an *Curriculum-langaiak: testu-ereduak (HEOC)*, Helduen Euskalduntzerako Oinarrizko Curriculumean eskainitako langaien jarraipen gisa. Denera, 216 testu. Testu-eredu horiek mailarako eredugarriak dira, eta mailaren adierazgarri izatea dute helburu. Testuaren pedagogia oinarri, ikuspegi holistiko batetik ulertu behar dira testuok; alegia, ekintza komunikatiboak gauzatzen dituzten bloke komunikatibo osoak ez ezik, testuari beste hainbat ikuspegitatik (soziala, testuala, linguistikoa edota estrategikoa) erreparatzeko aukera eskaintzen duten didaktikarako langaiak ere badira. Hau da,

ikasle eta erabiltzaileei, gaitasun komunikatibo arrakastatsua helburu, gaitasun ezberdinetan trebatzeko moduan eskaini nahi lieketen langaiak. Testu-eredu horiek honako ezaugarri hauek dituzte: mailakoak dira, errealak, trebetasunka sailkatuak, luzera eta iraupen egokikoak, motibagarriak, ebaluagarriak eta erabilgarriak.

Helduen euskalduntze-sisteman, euskaltegietao ikasleek hezkuntza-sistema formalean izan duten hizkuntza-eredua da aldagai nagusia. Nagusiki, hiru sarbide bereiz litezke euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetan: a) Oinarrizko erabiltzaileen lerruneko ikasleen artean, euskararen lurraldeetatik kanpora jaiotakoak edota erdarazko hizkuntza-ereduan ikasitakoak dira nagusi, b) Erabiltzaile aurreratuen lerruneko ikasleen artean ere erdarazko hizkuntza-ereduan ikasitakoak dira nagusi, nahiz eta A1-A2 komunikagaitasun-mailetan baino gutxiago izan erdarazko eredueta ikasitakoak, eta c) Erabiltzaile adituaren lerruneko ikasleen artean, gehienak euskal hizkuntza-ereduetatik datozenak dira.

Euskalduntze-prozesuan murgiltzen diren herritar helduen artean badira, alde batetik, araubide orokorreko irakaskuntzan oinarrizko gaitasunak lortu eta euskararen alorrean komunikazio-gaitasuna bereganatu, hobetu edota gaitasun-maila bat egiaztatzen duen agiria lortu nahi dutenak; eta badira, beste alde batetik, guraso-hizkuntza gaztelania zein beste hizkuntza bat izan eta arrazoi bategatik zein beste bategatik euskaldundu nahi dutenak. Eta, herritar horien guztien ahalegina eraginkorra izan dadin, ezinbesteko baliabide didaktikoa da Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC).

Izan ere, ikaskuntza-irakaskuntza prozesu orotan da nahitaezko lanabesa Oinarrizko Curriculum, jardun didaktikoaren gidalerro nagusiak ezartzen baititu. Ikaslearen ikaskuntza ahalbidetzen du, ikaskuntza-plana modu egokian garatzen dela baieztatzeo balio du eta ebaluazio-prozesuaren oinarriak ezartzen ditu, helburuak lortu, kalitatezko ikaskuntza-irakaskuntza prozesua bermatu eta arrakasta ziurtatzeko.

2017ko irailaren 11n eman zen argitara HABEren zuzendari nagusiaren Ebazpena euskaltegi eta autoikaskuntzarako zentro homologatuek Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren araberao Curriculum Proiektuak aurkezteo eta izapidetzeko irizpideak izan zitzaaten. Ondoren, HABE jasotako 99 dokumentuen irakurketa-prozesua burututa, aurkeztutako curriculum-proiektuen balorazioa jaso zuten euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek 2018ko otsailean. HABEren zuzendari nagusiak 2018ko abenduaren 10eko Ebazpenaren bidez onartu zituen euskaltegi eta autoikaskuntzarako zentro homologatuek aurkeztutako Curriculum-proiektuak, ikasleen, irakasleen eta euskaltegiaren beraren ebaluazio-sistema egokiago zehaztu ondoren.

HEOCa bideratzeko ikastaroak aurrez aurreko, tutorizatutako autoikaskuntzako eta jardun biko eredu ezaugarrietara bildu ohi dira euskaltegi eta autoikaskuntzarako zentroetan eta, aurrera begira, euskaltegien eskaintza aberastu eta zabaldu egingo da, ikasleen behar eta premiei egokituta eta IKTek eskaintzen dituzten baliabideak

ikasprozesuan egituratuz, betiere gaitasun komunikatibora eta ekintzara bideratuta. Izan ere, gero eta erabilera zabalagoa dute IKTek euskaltegietan eta gero eta eraginkortasun handiagoz erabili nahi dira.

Etorkizunari begira, helburua da indarguneak sendotzea eta ahuleziak konponbidean jartzea, gaitasun komunikatiboaren ikuspegian sakonduz eta hamasei urtetik gorako pertsona helduen artean euskal hiztunak irabaziz. Era berean, helburu ere bada helduen euskalduntzerako oinarrizko curriculum partekatua ezartzeko proiektuan aurrera egitea: Europako hizkuntzen ikaskuntzarako markoaren egitura zedarritua, euskararen hizkuntza-ezaugarrietara ekarria, euskara ikasi nahi duten herritar helduen behar-premiei erantzun egokia ematera bideratua, ikas-helburuetara iristeko bide-gidari, euskararen tokian tokiko egoera soziolinguistikorako moldatua eta euskararen lurraldeetan eskumena duten administrazio publikoen irizpideen baitan emana.

Azken urteotan, ibilbide oparoa egin du 2015ean argitaratutako HEOCak, eta onarpen zabala jaso du helduen euskalduntzearen alorrean. 2015eko uztailaren 22ko Agindu bidez indarrean jarritako paperezko HEOCa agortu egin denez, eskuen artean duzun alea bigarren argitalpenari dagokiona da, 2015eko lehen argitaraldian atzemandako okerrak zuzenduta eta eguneratuta. Zenbait akats zuzendu, eta HABEren zuzendari nagusiaren 2015eko abuztuaren 3ko Ebazpena, HEOCaren mailen azpimailak zedarritu eta ikas-irakas prozesuen eraketa, jarraipena eta kudeaketa didaktikoaren jarraibideak ezartzen zituena indargabetuta dagoenez, eta horren osagai, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Agindua erantsi da, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze-gintza arautzen dituen eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituen. Aipatu Aginduaren xedea da HABEK kudeatzen dituen helduei zuzendutako euskarazko irakas- eta ikasprozesuen ebaluazioa eta euskararen erabilerarekin loturiko gaitasun- eta atalase-mailak egiaztatzen dituzten ikasleen ziurtagiri ofizialak erdiesteko prozedurak arautzea; eta ebaluazio- eta egiaztatze-prozesu horiek gainditu dituzten euskara-ikasle helduei zuzendutako dirulaguntzen deialdiak egiteko irizpideak finkatzea.

Agindu horrek, besteak beste, HEOCean ezarritako irizpideen baitan xedatzen ditu ebaluaziotzaren eta egiaztatze-gintzaren inguruko zereginen definizio zehatz eta doiak. HEOCa herritarrak euskara ahoz zein idatziz erabiltzeari begira dago egituratuta, eta ikasleen komunikagaitasun-mailak balioesteko, ezinbestekoa da arretaz erreparatzea Euskaltegiko Curriculum Proiektura bildutako eduki eta jarraibideei. Horrela, bada, ebaluaziotzaren euskaltegien ebaluazio-irizpideen arabera bideratzen dute irakasleek, eta egiaztatze-gintza, berriz, ikas-irakasprozesutik kanpo dagoen aditu-talde batek, kanpo-ebaluazioren eremuan balioetsiz ikasleen komunikagaitasun-maila.

Bestalde, eskuen artean duzun HEOCaren 2021eko berrargitalpen honetaz gain, laster plazaratuko da *Curriculum-langaiak: azterketa-laginak* izeneko liburua, curriculumgintzari dagozkion aurreko biak osatzera datorkeena: HEOCean

zedarritutako euskarazko komunikagaitasun-mailak egiaztatzeko deialdietan azterketariak egindako zenbait azterketa bildu dira, kalifikazio-fitxa eta guzti, azterketen gaiaz interesaturik dagoenak eskura izan dezan informazio osoa. Horrela, bada, curriculumgintzarekin loturik lanabes horiek guztiak osatzen dute bere osoan Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak azken urteotan erabilerara begira zabaldutako langai eta gidalerro didaktikoen bilduma.

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren xedea da euskararen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako gidalerro nagusiak ezartzea eta eskaintzea, HABEk bere jarduera osoan eta HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek, helduen euskalduntzegintzaren jardun didaktikoan, bete beharreko gidalerroak eta obligaziozko erreferentzia-markoa izan ditzaten, nor bere mailan moldatu eta erabili ditzan.


HEOCak gaitasun komunikatiboan sakondu eta ikaslea hizkuntza-erabiltzailea bilakatzea du helburu. Horregatik, nahi nuke eguneroko jardun didaktikoan Helduen Euskalduntzearen Curriculumaren erabilera gero eta eraginkorragoa izatea, euskara biziberritzeko prozesuan gero eta herritar elebidun gehiago lortzeko.

Jokin Azkue Arrastoa
HABEren zuzendari nagusia

AURKIBIDEA

Atarikooharra.....	13
HEOC: AGINDUA.....	15
SARRERA	25
• HEOKetik HEOCera	28
• HEOC berria	28
Curriculumaren oinarriak	30
HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN MAILAK	33
Mailen deskribapena	35
HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OSAGIAK	39
HELBURUAK	40
Helburu orokorrak (trebetasunez trebetasun)	41
EDUKIAK	45
I- Gaitasun soziolinguistikoaren garapena	46
• Testuinguruaren ezaugarriak	46
• Gaiak	47
• Kultura-erreferentziak	48
II- Gaitasun testualaren garapena	58
• Testu-generoak	58
• Funtzioak	59
• Adierazpide testualak	59
III- Gaitasun linguistikoaren garapena	63
• Adierazpide linguistikoak	63
IV- Gaitasun estrategikoaren garapena	65
• Komunikazio-estrategiak	66
• Ikasprozesuaren estrategiak	69
EBALUAZIOA	75
Funtzioak	75
Gaitasun komunikatiboaren ebaluazioa	77
Autoebaluazioa eta koebaluazioa	77
Curriculumaren ebaluazioa	78
Ebaluazio-irizpideak eta eskalak	79
ILDO METODOLOGIKOAK	80

HELDUEN EUSKALDUNTZEA MAILAZ MAILA	83
A1 maila: hasierako erabiltzailea	85
A2 maila: oinarrizko erabiltzailea	107
B1 maila: erabiltzaile independentea	135
B2 maila: erabiltzaile aurreratua	169
C1 maila: erabiltzaile gaitua	207
C2 maila: erabiltzaile aditua	249
CURRICULUM-LANGAIK	277
Testu-ereduak	278
EBALUAZIOA ETA EGIAZTATZEGINTZA: AGINDUA	313



ATARIKO OHARRA

Esku artean duzun liburu honek, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailburuaren 2015eko uztailearen 22ko Aginduan indarrean jarritako curriculumak jasotzen du, diseinu landuago eta esanguratsuagoan jaso ere.

Horregatik, ohar honen xedea da liburuaren diseinuan erabilitako zeinu eta koloreen inguruko argibideak ematea.

Koloreak:

a) Maila adierazteko

 A1 maila

 A2 maila




 B1 maila

 B2 maila


 C1 maila


 C2 maila

b) Mailaren ebaluazio-eskala adierazteko


- 1  Trebetasun eta irizpide bakoitzean, mailari dagokion kolorea erabiltzen da 1etik 3rako eskala nabarmentzeko. Trama baten bitartez nabarmendu da
- 2  2 eskala, mailaren gutxienezkoa adierazten baitu.
- 3 


Zeinuak:

 Entzumena

 Mintzamena



 Irakurmena

 Idazmena

 Mailari dagozkion adierazpide berriak.

Estekak:

 Esteka adierazteko

 eta  : Abiapuntura itzultzeko esteka

AGINDUA

AGINDUA, 2015eko uztailaren 22koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma (HEOC) ezartzen duena.

HABEri dagokio, besteak beste, helduak alfabetatu eta euskalduntzeko curriculumak sortzea, diseinatzea eta aplikatzeaz arduratzea, irizpide soziolinguistikoak kontuan hartuz eta plangintza egokiak eginez; izan ere, eskumen hori ematen diote, batetik, azaroaren 25eko 29/1983 Legeak, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortu eta Euskaltegiak Arautzekoak, eta, bestetik, otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuak, HABEren arau organikoak onartzen dituenak.

HABEk sorreratik taxutu ditu euskalduntzeko programak. Hasierakoak izan ziren “Helduen euskalduntzerako programazioa” (HABE, 1981) eta “Helduen euskalduntzea programatzen-84” (HABE, 1983). Ondoren, 1987ko urtarrilaren 7ko Aginduz, ezarri ziren euskalduntzeko lehen zortzi mailetako edukiak eta ebaluaziorako irizpide oinarrizkoak; eta gero 1989ko azaroaren 17ko Aginduak ordezkatu zituen, helduen euskalduntzeko programa ezarri baitzuen, helduen euskalduntzeak zituen hamabi urratsei zegozkien gaitasunak eta hizkuntz edukiak finkatuz.

Hamar urte geroago, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak curriculum berritzeko egin zuen proposamenaren harian, eta euskaltegien beharrak kontuan hartuz, “Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua” onartu zuen Kultura sailburuak, 2000ko urtarrilaren 24ko Aginduaren bitartez, erreferentzia-marko obligaziozkoa izan zezaten HABEk diruz lagundutako euskaltegiek eta autoikaskuntzarako zentro homologatuek. Kurrikulu horrek 1989ko Programa errotik berrikusi zuen, ikuspegi didaktiko berrien ildotik bideratuz.

Lau mailatan banatzen zuen Kurrikuluak euskalduntze-prozesua, eta lau maila horietako helburu orokorrak, metodologia eta ebaluazioa jasotzen zituen. Alabaina, aipaturiko Aginduan lehen hiru mailen edukiak eta ebaluazio-irizpideak garatzen ziren soilik, gerorako utziz laugarren mailari zegozkionak. Hala, Kultura sailburuak 2006ko martxoaren 13an onartu eta indarrean jarri zituen laugarren mailari zegozkion edukiak eta ebaluazio-irizpideak. Eta horren ondorioz, osatua geratu zen Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua.

Bien bitartean, 2001ean, Hizkuntzen Ikaskuntza, Irakaskuntza eta Ebaluaziorako Europako Erreferentzia Marko Bateratua onartu zuen Europako Kontseiluak. Hizkuntzalaritza aplikatuan aditu talde baten lan luze eta zabal baten emaitza da, ahozko zein idatzizko ulermen- eta adierazpen-mailak neurtzeko nazioarteko estandarra izan nahi duena.

Horrela, erreferentziatzeko sei maila jakinetara biltzen ditu Markoak ikasle helduak bigarren hizkuntza ikastean egin behar duen aurrerabidea, sei maila horietako hizkuntzaren erabilera kategoria deskriptiboetan sailkatuz: testuingurua, komunikazio-jarduerak, estrategiak, gaitasunak, prozesuak, testuak eta jarduerak; guztiak komunikazio-gaitasunaren adierazle esanguratsuetan zehaztuta.

Horiek guztiak ahalik eta egokien uztartzea da, helduen euskalduntzearen araubide akademikoaren barruan, Agindu honek indarrean jartzen duen Oinarrizko Curriculumaren egitura eta deskribapen berriaren egitasmoa: helduen euskalduntzearen ikasprozesua, sei mailatan egituratua; elkarreragin soziodiskurtsiboan ardaztua; hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboan oinarritua; ekintza komunikatibotan definitua, eta euskararen ezaugarri eta egoera soziolinguistikora egokitua.

Horren kariaz, 29/1983 Legearen 20. artikulua arabera, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumak HABEren Batzorde Akademikoak 2015eko urtarrilaren 25ean aztertu eta Zuzendaritza Batzordeak 2015eko urtarrilaren 30ean onetsi ondoren, Zuzendaritza Batzordeak berak proposatuta,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.- Helburua.

Agindu honen helburua da Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumak (HEOC) ezartzea, Agindu honetako Eranskinean azaltzen den eran, HABEk, bere jardura osoan, eta HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek, helduen euskalduntzegintzaren jardun didaktikoan, bete beharreko gidalerroak eta obligaziozko erreferentzia-markoa izan ditzaten.

2. artikulua.- Curriculumak.

1.- HEOCa Agindu honen eranskinean zehaztutako helburuek, edukiek, ildo metodologiko nagusiek eta ebaluazio-irizpideek osatzen dute.

Helduei zuzendutako curriculum honek hiru lerrun nagusi ditu: Oinarrizkoa, Aurreratua eta Aditua; eta lerrunok bina maila: Oinarrizko erabiltzailearenak A1 maila (Hasierakoa) eta A2 maila (Oinarrizkoa) biltzen ditu, Erabiltzaile

aurreratuarenak B1 (Independentea) eta B2 (Aurreratua) mailak, eta Erabiltzaile adituarenak C1 (Gaitasunezkoa) eta C2 (Adituarena) mailak.

- 2.- Oinarrizko curriculum honek ezartzen dituen euskararen sei gaitasun-mailak Europako Kontseiluak onartutako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuan zehaztutako A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailen gidalerroetan oinarritzen dira, eta euskararen ezaugarri eta egoera soziolinguistikora egokitu, ikas-irakasteko eduki eta helburuei dagokienez.
- 3.- Euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentroen irakasjarduera, oro har, ikaslearen sei gaitasun-maila horietakoren bat eskuratzera bideratua egongo da; eta iraupen eta trinkotasun desberdineko ikastaro-eskaintza malguaren bitartez antolatuko da, gizarte-behar ezberdinei erantzutearren. Era berean, euskaltegiek xede bereziko ikastaroak ere antolatu ahal izango dituzte, betiere euskara biziberritzeko onartutako plangintza batean txertatuta badaude, nahiz eta arestian aipatutako gaitasun-helburu orokor horiek bete-betean ez aurreikusi.

3.artikulua.- Curriculumaren egitura, ikasprozesuaren mailak, azpimailak eta orduak.

- 1.- HEOCaren egitura hiru lerrun eta sei mailatan sailkatzen da eta maila bakoitzaren ikasprozesurako aurreikusitako ordu-kopuruak ematen dira.

a) Oinarrizko lerruna (A1 + A2): Oinarrizko erabiltzailea.

Oinarrizko lerrunaren xedea da ikasleak eguneroko gaiei buruzko euskarazko testu laburrak ulertzea, eta ahoz zein idatziz –baina gehienbat ahoz–, euskara elkarreraginean erabiltzea, labur eta sinple, baina egoki eta eraginkor.

A1 maila: Hasierako erabiltzailea.

Maila hau burutzean ikaslea gai izango da eguneroko harremanetan eta aurrez aurreko testuinguru ezagunetan beharrezkoak diren hitzak eta esapide sinpleak ulertzeko eta erabiltzeko, eta baita berehalako premiei lotutako galderei (bere buruaren eta besteren aurkezpena, eta helbideari, gauzei eta ezagutzen duen jendeari buruzko oinarrizko informazioa) erantzuteko ere.

A1 Hasierako erabiltzailearen maila lortzeko, 125 irakastorduko prozesua aurreikusten da, betiere, ikaslearen abiapuntua kontuan izanik. Horiez gain, ikasleak bakarlanean eta erabilera askean beste 75 ikastordu jardun beharra aurreikusten da.

A2 maila: Oinarrizko erabiltzailea.

Maila hau burutzean ikaslea gai izango da egoera ezagunetan kideekin (lagun, senide, lankide, etab.) aurrez aurreko elkarreraginean gauzen eta pertsonen deskribapenak eta azalpen errazak egiteko eta ulertzeko, baldin eta bere

esperientzia-esparruarekin loturiko gaietarako buruzko informazio-truke erraza eta zuzena eskatzen badute: bere buruari eta familiari buruzko oinarrizko informazioa, eta erosketei, intereseko lekuei, lanbideei eta abarri buruzkoa.

A2 Oinarrizko erabiltzailearen maila lortzeko, 200 irakastorduko prozesua aurreikusten da, baldin eta A1 mailaren atalasetik abiatuta baldin bada. Horiez gain, ikasleak bakarlanean eta erabilera askean beste 100 ikastordu jardun beharra aurreikusten da.

b) Lerrun aurreratua (B1+B2): Erabiltzaile aurreratua.

Lerrun aurreratuaren xedea da ikasleak ohiko testuinguru, gai eta egoera ezagunetan instrukzioak, kontaketa laburrak eta azalpen-testuak ulertzea, eta, ahoz zein idatziz, euskara zehaztasunez eta eraginkortasunez erabiltzea. Xede ere izango da ikasleak elkarreraginean, bere lan-esparruko gaietarako buruz, alderdi esanguratsuak eta xehetasunak bereiziz, deskribapenak egitea eta azalpenak eta iritziak eraginkortasunez ematea.

B1 maila: Erabiltzaile independentea.

Maila hau burutzean ikaslea gai izango da eguneroko testuinguru ezagunetan eta maila bereko solaskideekin elkarrizketak izateko, gai orokorra eta ohikoa izan eta xedea informazioa trukatzeko denean. Era berean, gai izango da lagunei, senideei eta ikaskideei edo lankideei instrukzioak emateko, pertsonak eta objektuak labur deskribatzeko eta gertaeren kontaketa laburrak egiteko. Gai izango da, baita ere, bere iritziak labur-labur emateko eta bere asmoak azaltzeko.

B1 Erabiltzaile independentearen maila lortzeko, 250 irakastorduko prozesua aurreikusten da, baldin eta A2 mailaren atalasetik abiatuta baldin bada. Horiez gain, ikasleak bakarlanean eta erabilera askean beste 150 ikastordu jardun beharra aurreikusten da.

B2 maila: Erabiltzaile aurreratua.

Maila hau burutzean ikaslea gai izango da aurrez aurre duen solaskideak zein komunikabideetako esatariak, gai orokor nahiz abstraktuei buruz egiten dituen testu gehienak ulertzeko, eta ongi bereiziko ditu ideia nagusiak eta bigarren mailakoak. Gai izango da lagun eta lankideekin, baita euskaldunekin ere, ohiko elkarreraginean jartotasunez aritzeko, besteak jakinaren gainean jarritik, iritzia eskatuz, bere ikuspegia defendatuz, etab. Ohiko gai eta egoera ezagunetan adierazpen argiak egingo ditu. Bere lan-esparruko hainbat gairi buruzko deskribapenak eta azalpenak ere emango ditu alderdi esanguratsuak eta xehetasunak bereiziz, eta bere iritzia ere eraginkortasunez emango du.

B2 Erabiltzaile aurreratuaren maila lortzeko, 350 irakastorduko prozesua aurreikusten da, baldin eta B1 mailaren atalasetik abiatuta baldin bada. Horiez gain, ikasleak bakarlanean eta erabilera askean beste 250 ikastordu jardun beharra aurreikusten da.

c) Adituaren lerruna (C1+C2): Erabiltzaile aditua.

Adituaren lerrunaren xedea da eremu profesional, publiko zein pertsonalean, ikasleak era guztietako informazioa euskaraz trukatzeko gai izatea era landu eta jantzian, ahoz zein idatziz, gaia, solaskidearen jarrera edota euren arteko harreman-maila zeinahi delarik, hizkuntza-adierazleak estrategikoki erabiliz eta hizkeraren maila denotatiboa zein konnotatiboa bereiziz.

C1 maila: Erabiltzaile gaitua.

Maila hau burutzean ikaslea gai izango da lagunarteko, lan-esparruko eta komunikabideetako edozein testu (elkarrizketak, eztabaidak, azalpenak) ulertzeko; baita inguruko herri-hizkeran sortutakoak ere. Eta gai izango da, era berean, lagunarteko elkarreraginean, lan-esparruan eta komunikabideetan ideiak eta iritziak jarriotasunez eta eraginkortasunez adierazteko. Ongi egituraturako eta osatutako testu argiak eta zehatzak idazteko gai izango da, ideia nagusiak eta osagarriak bereiziz, eta, oro har, xedea lortzeko estrategia egokiak aukeratuz. Era berean, bere ikuspuntua luze eta zabal adierazteko gai izango da, ideia osagarriak eta adibide egokiak emanaz.

C1 Erabiltzaile gaituaren maila lortzeko, 400 irakastorduko prozesua aurreikusten da, baldin eta B2 mailaren atalasetik abiatuta baldin bada. Horiez gain, ikasleak bakarlanean eta erabilera askean beste 350 ikastordu jardun beharra aurreikusten da.

C2 maila: Erabiltzaile aditua.

Maila hau burutzean ikaslea gai izango da norbere espezialitateko nahiz gai orokorretako testuak ulertzeko, eta egoerari egokituz, zuzen eta zehatz, arrakastaz ekoizteko. Gai izango da, jarriotasun handiz eta zehaztasunez, gauzak adierazteko, baita konplexutasun handiko egoeretan esanahiaren ñabardura txikiak bereizteko ere.

Maila honetan matrikulatu ahal izateko, C1 mailaren agiria edo baliokidea izan beharko du ikaslegaiak. C2 Erabiltzaile adituaren maila lortzeko, 200 orduko ikastaroa egin beharko du ikasleak. Horiez gain, bakarlanean eta bere espezialitateari dagokion proiektua garatzen eta lantzen ikasleak beste 500 lanordu jardun beharra aurreikusten da.

2.- Azpimailak.

HEOCaren sei gaitasun-mailak eskuratzeko ibilbide didaktikoan azpimailak bereiziko dira, hizkuntza-trebetasun hartzaile eta ekoizleetan ikasleek dituzten gaitasunetan oinarrituta.

Azpimaila horiek HABEren zuzendari nagusiaren ebazpenez ezarriko dira, azpimaila bakoitzaren helburuak adierazita.

4.artikulua.- Ikaslearen aurrerabidea eta ikasprozesuan izandako jarraipena.

Maila bateko ikasprozesuari hasiera emateko, aitzineko mailan zehaztutako helburuak gaindituak behar dira izan, euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentroak dagozkion jarraibide eta epeetan adierazita, edota urterik urte egiten diren egiaztatze-deialdietan aitortuta.

5. artikulua.- Ebaluazio-irizpideak.

Maila bat gainditzeko, trebetasun bakoitzari dagokion ebaluazio-irizpideen balioespen-eskalako tarteko deskripzioa (2) bete behar da, curriculumaren “ebaluazio-irizpideak eta -eskalak” atalean jasotakoaren arabera.

6. artikulua.- Ikastereduak.

HEOCa bideratzeko ikastaroak aurrez aurreko, tutorizatutako autoikaskuntzako eta jardun biko ereduak ezaugarrietara bilduko dira.

7.artikulua.- Euskaltegiaren curriculum-proiektua.

- 1.- HEOC honek ezarritako gidalerroen garapenerako bere izari-ezaugarrien araberako curriculum-proiektua osatu behar du euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzak, une oro bertako jardunbideei norabidea eta koherentzia eskaintzeko, izan ikasgeletan, izan euskaltegian bertan. Horrela, euskaltegiari eta euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzari aitortzen zaion autonomia pedagogiko eta antolatzailearen barruan, irakasle-taldeari dagokio zehaztapen hau burutzea. Horretarako, euskaltegiak inguruko eragileek bizi duten egoera soziolinguistikoari erreparatuko dio, behar bezalako curriculum-egokiera egin dezan, betiere, ikasleen komunikagaitasuna abiapuntu hartuz.
- 2.- HEOCaren ezarpenerako, euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzak bere curriculum-proiektua aurkeztu behar dio HABEren zuzendari nagusiari, jarraian datozen gidalerroak jasoz, curriculum-jarduerarekiko printzipioak eta irizpideak ezarritik, balio-aukerak azalduz eta xedeak zehaztuz:
 - Euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentroak bere egiten dituen hizkuntzaren ikas-irakaskuntzari buruzko printzipio nagusiak.
 - Euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentroak bizi duen egoeraren eta bere inguru sozialaren beharren azterketa eta autoebaluazioa.
 - HEOCak zehazten dituen helburu eta edukien aukera eta

hurrenkera, euskaltegi zein euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzaren eta ikasleen beharretara egokituz.

- HEOCa mailaka egokitzeko proposamena, baita maila nahiz azpimaila bakoitzeko aurreikusten den ordu-kopurua ere.
- Hobetsitako aukera metodologikoak.
- Lehenetsitako ikastereduak.
- Ikasmaterialen eta irakasmaterialen proposamena eta hauek aukeratzeko irizpideak.
- Ikasleak, irakasleak eta euskaltegia bera ebaluatzeko arribideak.

3.- Euskaltegiak eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek bost urtetik behin, gutxienez, eguneratu beharko dute curriculum-proiektua, ikasgeletan zein euskaltegietan nahiz euskararen autoikaskuntzarako zentroetan lortzen dituzten emaitzen baitan, prozesu horretan hizkuntzen ikas-irakaskuntzak eta teknologiak izan ditzaketen aurrerabidea euskaltegien nahiz euskararen autoikaskuntzarako zentrozen errealitate eta ikasleen beharretara egokituz.

8. artikulua.- Curriculum-proiektua erregistratzea.

Euskaltegiak eta euskararen autoikaskuntzarako zentroak igorritako curriculum-proiektua aztertu ondoren, HABEren zuzendari nagusiak proiektua euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentrozen Erregistroan jasotzeko aginduko du, proiektuak dagokion aldeko txostena jaso ondoren.

Nolanahi ere, aurkeztutako proiektua HEOCean xedatutakoarekin edo aplikagarri zaion araudiarekin bat ez baletor, euskaltegiari jakinaraziko dio HABEren zuzendari nagusiak, modu egokian osatua izan dadin Erregistrora bildu aurretik.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

HEOCaren gaitasun-mailak horrela baliokidetzen dira:

- 2000/2006ko Curriculumaren 1. maila eta HEOCaren B1 Erabiltzaile independentea.
- 2000/2006ko Curriculumaren 2. Maila eta HEOCaren B2 Erabiltzaile aurreratua.
- 2000/2006ko Curriculumaren 3. maila eta HEOCaren C1 Erabiltzaile gaitua.
- 2000/2006ko Curriculumaren 4. maila eta HEOCaren C2 Erabiltzaile aditua.

XEDAPEN IRAGANKORRETATIK LEHENENGOA

Agindu hau indarrean sartu ondoren, euskarako gaitasun-mailak egiaztatzeko 2015eko 2. deialdia aurreko Curriculumaren arabera burutuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRETATIK BIGARRENA

Euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek bi urteko epea izango dute Agindu hau indarrean jartzen den egunetik aurrera egun indarrean duten curriculum-proiektua Agindu honetan xedatzen denera ekartzeko.

XEDAPEN IRAGANKORRETATIK HIRUGARRENA

Kultura sailburuaren 2011ko urtarrilaren 19ko Aginduan zehaztutako egiaztatze-prozedura Agindu honetan ezarritakora egokitu bitartean, A1 eta A2 mailak egiaztatzeko inolako berezitasun beharrik ikusiz gero, HABEren zuzendari nagusiak urteroko deialdiak antolatzeko onartzen dituen oinarrietan jaso eta zehaztuko ditu berezitasun horiek.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Indarrrik gabe geratzen da helduen euskalduntzearen arloan Agindu honetan xedatutakoaren aurka dauden maila bereko nahiz beheragoko xedapen guztiak, eta, berariaz, honako hauek:

- Kultura eta Turismo Sailaren Agindua, 1989ko azaroaren 17koa, Helduak Alfabetatzerako Irakaskuntza Programa ezarri zuena, HABE Erakunde Publikoak diruz lagundutako euskaltegiek bete zezaten.
- Kultura sailburuaren Agindua, 2000ko urtarrilaren 24koa, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua onartuz, erreferentzia-marko obligaziozkoa ezarri zuena HABEk diruz lagundutako euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentroentzat.
- Kultura sailburuaren Agindua, 2006ko martxoaren 13koa, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluaren laugarren mailari zegozkion eduki eta ebaluazio-irizpideak onartu zituen.
- Kultura sailburuaren 2011ko urtarrilaren 19ko Aginduaren 3., 4., 5. eta 6. artikulua.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Kultura sailburuaren 2011ko urtarrilaren 19ko Aginduaren aldaketa.

Kultura sailburuaren 2011ko urtarrilaren 19ko Aginduaren 2. eta 7. artikulua honela idatzita gelditzen dira:

2.- artikulua.- Egiazta daitezkeen mailak.

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean jasotzen diren ondorengo mailak egiaztatu ahal izango dira:

- A1 Hasierako erabiltzailea
- A2 Oinarrizko erabiltzailea
- B1 Erabiltzaile independentea
- B2 Erabiltzaile aurreratua
- C1 Erabiltzaile gaitua
- C2 Erabiltzaile aditua

7.- artikulua.- Ebaluazio-irizpideak.

HEOCean ezarritakoari jarraikiz, komunikazio-eraginkortasuna izango da ebaluazio-irizpide nagusia. Azterketariak eskatu zaion ekintza komunikatiboa bete beharko du zuzentasunez eta egokitasunez, xedatutako maila eta trebetasun bakoitzaren zehaztasunetara ekarriz, eta ondoren adierazten direnak kontuan hartuz:

- *Testuinguruarekiko eta testuarekiko egokitasuna: egoerari eta hartzaileari egokitzeko gaitasuna. Erregistroa.*
- *Ideen koherentzia; diskurtsoaren antolaketa eta garapena (konexioa eta kohesioa); testu-generoarekiko egokitasuna. Puntuazioa. Ahozkoan, prosodia.*
- *Erabilitako baliabide linguistikoen zuzentasuna eta aberastasuna. Gramatikarekiko egokiera. Ortografia. Lexikoa.*

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ahalmena ematen zaio HABEren zuzendari nagusiari, berari dagozkion eskumenen eremuan, Agindu honetan ezarritakoa garatzeko eta gauzatzeko.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Agindu honen euskarazko eta gaztelaniazko idazkien arteko edozein interpretazio-auziren aurrean, jatorrizkoa euskaraz idatzitakoa dela kontuan izanik, euskal idazkiari dagokion irakurketak izango du lehentasuna.

AZKEN XEDAPENETATIK LAUGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren, 2015eko urriaren leetik aurrera jarriko da indarrean ondorio guztietarako, 2015-2016 ikasturte berriaren hasieran.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko uztailaren 22an.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua

CRISTINA URIARTE TOLEDO.

SARRERA



Bide luzea egin du helduen euskalduntzeak, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortu eta euskaltegiak araupetzeko azaroaren 25eko 29/1983 Legea indarrean jarri zenetik.

Gizartearen esparru publiko zein pribatuan, oztopoz betetako ibilbidea izan du euskarak gaur egun arte bizirauteko. Bereziki aipatzekoa da hizkuntzaren egoera etsigarria XX. mendearen bigarren erdialdean: erdara hutsezkoa zen eskola eta, oro har, gizartea, ordurako erdarak bereganatuak baitzituen euskara erabiltzeko esparru ia guztiak. Horren ondorioz, bide malkartsua izan dute euskaltegiak (irakaskuntza arautuak bezala) euskara berreskuratzeko langintzan, ez baita berdin hizkuntza normalizatu bat edo normalitze-bidean dagoen bat irakastea edota ikastea.

Euskara biziko bada eta normalizaziorantz urrats sendoak emango badira, gizarteko alor guztietan indartu beharko da: kalean, lan-munduan, aisialdian, hedabideetan, Interneten, irakaskuntzan eta abarretan. Aipatzekoa da dagoeneko hainbat esparru bereganatzen ari dela euskara azken hamarkadetan egindako ahaleginei esker, eta prestigioan ere irabazi duela, batez ere ofizialtasuna aitortu zitzaionetik. Hala ere, lan handia dago oraindik egiteko, normalizazio osoa lor dezan.

Xedea euskal hiztunak sortzea eta hizkuntzaren erabilera bultzatzea izanik, etorkizunean ere, euskaltegien egitekoak erabateko garrantzia izaten jarraituko du gure gizartean. Komeni da, hortaz, haien jarduna herritarren hizkuntza-beharrizan aldarretara egokitzea eta hizkuntza-premia horiei kalitatez eta malgutasunez erantzutea. Egiteko horretan kokatu behar da, beraz, Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Curriculum (HEOC) hau, 1999koa berritu eta egungo eskakizunetara egokitzen dena, alegia.

Horiek horrela, curriculumak aplikatzerakoan, euskaltegiak kontuan hartu beharko dituzte, ezinbestean, gizartearen bilakaerak eragindako aldaketa esanguratsuak; bereziki, ikasle-tipologian izandakoak¹. Izan ere, hiru hamarkada hauetan, nabarmen aldatu dira, batez ere Euskadiko irakaskuntza-sistema arautuan abian jarri diren hezkuntza-egitasmoei esker, euskaltegiak ikasleen ezaugarri psikolinguistikoak, duela hogeita hamar urte ikasten ari zirenekin alderatzen badira, batik bat. Esan nahi baita oso desberdinak direla egungo euskaltegiak ikasle-mota, euskararen ezagutza-, gaitasun- eta trebetasun-mailak eta hizkuntza-erregistroak. Egungo ikasleek hizkuntza-gaitasun zabalagoa dute eta euskararen ezagutza hobea, baina, gehienetan, hizkuntza-trebetasunak nahikoa era asimetrikoan dituzte garatuta:

¹ Ikus Helduen euskalduntzearen azterketa (2007-2008/2012-2013), *Hizpide* 83. Donostia: HADE, 2014.

ikasle gehienak euskararen ahozkoaren zein idatziaren ulermen-trebetasunetan oinarrizko mailaren jabe dira gutxienez, eta horietatik ikasle jakin batzuk iaio aritzen dira mintzamenean, jarioetasun aberatsa erakutsiz.

Gainera, ikasestrategia ezberdinetan oinarritzen dute guzti-guztiek beren ikasprozesua; betiere, kontuan harturik ikasle gisa oinarrizko irakaskuntza-aldian hautatu eta jarraitu duten ikasteredua eta bizi duten testuinguruak dituen ezaugarri demolinguistikoak.

Horrezaz gain, bada ikasleriaren osaketan funtsezko beste ezaugarri bat: etorkinen euskaltegiatzea. Horietako gehienek ez dute euskararen aurrezagutzarik, eta, horrexegatik, euskararen ikasprozesuaren abiaburua oinarri-oinarrizkoa izanik, hurbilpen-ikastaroak egin behar izaten dituzte, irakasprozesu gidatuan eta egituratuan murgildu aurretik.

Bilakaera horrek etenik gabeko egokitzapena eskatu izan dio HABEri curriculumgintzan, eta horren erakusle dira, sorreratik bertatik, hamarkada hauetan taxututako euskalduntzerako programak eta curriculumak:

- 1.- *Helduen euskalduntzerako programazioa* (HABE, 1981) eta *Helduen euskalduntzea programatzen-84* (HABE, 1983).
- 2.- *Euskalduntzeko lehen zortzi urratsetako edukiak eta ebaluaziorako irizpide oinarrizkoak* (Kultura sailburuaren 1987ko urtarrilaren 7ko Agindua).
- 3.- *Helduen euskalduntzeko programa* (Kultura sailburuaren 1989ko azaroaren 17ko Agindua).
- 4.- *Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua* (Kultura sailburuaren 2000ko urtarrilaren 24ko Agindua eta 2006ko martxoaren 13ko Agindua).

Gaur egun ere, euskaltegiatako egungo ikasleriaren ezaugarri jakin horiek euskalduntzegintzarako curriculum-paradigma berria eskatzen dute, ikasleen behar komunikatiboetara erantzun nahi zaien neurrian.

Are gehiago, ezaugarri eta behar komunikatibo horiek errotiko aldaketak ekarri dituzte helduen euskalduntzera: ikaslearen eta irakaslearen ikuskera-modua; ikasgelako zereginen egokitzapena; baliabide teknologikoak eskura izanik, ikasleak bere kontura egin dezakeen garapena... Izan ere, ondo nabarmen aldatu dira, urteotan, helduen euskalduntzean irakasle eta ikasleen egitekoak. Egun, hizkuntza-erabiltzaile gisa hartzen da ikaslea eta ikaskuntzarako burujabea, eta bi ezaugarri horiek oinarri hartuz definitzen da hizkuntza-irakaslearen lana. Era berean, ikasgela komunikaziora eta elkarrengingune moduan hartzeak nabarmen aldatzen ditu inguru fisiko horretako egitekoak, eta ikasleari bakarka zein taldean ikasgelan jasotako oinarrietan nahi lezanean trebatzeko aukera zabalak eskaintzen dizkio, izan aurretik aurreko ikastereduan, izan autoikaskuntza tutorizatuan, izan jardun bikoan.

HEOKetik HEOCera

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua dokumentua plazaratu zuen HABEK 1999an, 1989ko programa errotik berrikusiz, ikuspegi didaktiko berriak baliatuz eta euskaltegien beharrak kontuan hartuz, HABEren Batzorde Akademikoaren aholkuak entzun ondoren eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak curriculuma berritzeko egin zuen proposamenaren harian.

HABEren Zuzendaritza Batzordeak onetsi zuen dokumentu hori, 29/1983 Legearen 20. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Eta, ondoren, Kultura sailburuaren 2000ko urtarrilaren 24ko Agindua onartu eta jarri zuen indarrean, erreferentzia marko obligaziozkoa izan zezaten HABEK diruz lagundutako euskaltegiek eta autoikaskuntzarako zentro homologatuek.

Dokumentuaren izenburuak dioenez, oinarrizko curriculuma zen; lehen zehaztapen maila. Euskalduntzearen helburuak eta edukiak azaltzen zituen oinarrizko curriculumak, hizkuntza-irakaskuntzaren eta ikas-printzipioetan oinarrituta. Lau mailatan banatzen zuen euskalduntze-prozesua, eta, planteamendu orokorra eta oinarriak azaldu ondoren, maila bakoitzerako helburu orokorrak zehazten zituen. Era berean, lau mailetarako bideratzen zituen metodologia eta ebaluazioa. Alabaina, aipaturiko Aginduan lehen hiru mailen edukiak eta ebaluazio-irizpideak garatu ziren soilik, eta gerorako utzi laugarren mailari zegozkion edukiak eta ebaluazio-irizpideak. Gerora, HABEren Zuzendaritza Batzordeak 2006ko martxoaren 1ean hartutako erabakiz, bideratu zen euskalduntzearen 4. maila arautuko zuen Agindua, Kultura sailburuak 2006ko martxoaren 13an onartu eta indarrean jarri zuena, laugarren mailari dagozkion edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehaztuz.

Bien bitartean, 2001ean, Hizkuntzen Ikaskuntza, Irakaskuntza eta Ebaluaziorako Europako Erreferentzia Marko Bateratua onartu zuen Europako Kontseiluak. Hizkuntzalaritza aplikatuan aditu-talde baten lan luze eta zabalaren azken emaitza da, ahozkoaren zein idatziaren ulermen- eta adierazpen-mailak neurtzeko nazioarteko estandar izan nahi duena.

Erreferentzia Markoak sei maila jakinetara biltzen ditu ikasle helduak bigarren hizkuntza ikastea egin behar duen aurrerabidearen nolakoa, eta sei maila horietako hizkuntzaren erabilera kategoria deskriptibotan sailkatzen ditu: testuingurua, komunikazio-jarduerak, estrategiak, gaitasunak, prozesuak, testuak eta jarduerak; guztiak komunikazio-gaitasunaren adierazle esanguratsutan zehaztuta.

HEOC berria

Europako Erreferentzia Marko Bateratua aintzat hartzeak euskalduntzearen curriculumean oinarrizko bi mailak ere deskribatzea dakar, eta lau mailako egituratik sei mailako egiturara igarotzea.

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumua, beraz, **sei mailatan** egituratua aurkezten da; **elkarreragin soziodiskurtsiboan** ardaztua, hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboan oinarritua, **ekintza komunikatibo**tan definitua, eta euskararen ezaugarri eta egoera soziolinguistikora egokitua.

Curriculum honen helburua da euskararen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako gidalerro nagusiak eskaintzea helduen euskalduntzegintzan ari diren euskaltegiei, euskararen autoikaskuntzarako zentroi zein HABEri eta HABErekin lankidetzan arituko diren erakundeei. Helduen euskalduntzea pertsona helduei dago zuzendua: alde batetik, araubide orokorreko irakaskuntzan (hezkuntza-sistema formalean) oinarrizko gaitasunak lortu eta euskararen alorrean komunikazio-gaitasuna bereganatu, hobetu edota gaitasun-maila bat egiaztatzen duen agiria lortu nahi dutenei begirakoa; eta, beste aldetik, guraso-hizkuntza espainiera zein beste hizkuntza bat izan eta arrazoi bategatik zein beste bategatik euskaldundu nahi dutenei begirakoa.

Helduen euskalduntzea ikaslearen komunikazio-gaitasuna garatzera bideratuko da, eta Hizkuntzen Ikaskuntza, Irakaskuntza eta Ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoaren oinarri psikopedagogikoen baitan, ekintza komunikatiboa oinarri harturik, ikuspegi soziokonstruktibista eta ekintzara bideratutakoa hobesten da oinarrizko curriculum honetan.

Eduki eta helburuei dagokienez, oinarrizko curriculum honek indarrean jartzen dituen euskararen gaitasun-mailak Europako Kontseiluak onartutako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuan zehaztutako A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailen gidalerroetan oinarritu dira, eta euskararen ezaugarri eta egoera soziolinguistikora egokitu.

Gaitasun orokor zein komunikazio-gaitasun jakin batzuk lortzearen, zenbait ekintza komunikatibo azaltzen ditu dokumentu honek, maila bakoitzari dagozkion testuinguruak, komunikazio-baldintzak, arloak, gaiak, testuak, atazak eta estrategiak kontuan hartuz eta uztartuz. Izan ere, izaera integratzailea du curriculumak, eta horixe du helburu: ekintza komunikatibo horiek, elkarreraginean, elkarri loturik lantzeko aukera eskaintzea.

Beraz, kontrol-zerrenda da eskaintzen den egitura, mailaz maila ikasleek zer egin dezaketen eta ongi moldatzeko zer jakin beharko luketen azaltzeko —ikasleek zer arlotan parte hartuko duten, nolako jende-motarekin jarriko diren harremanetan, zer eratako harremanak izango dituzten, zer gairi buruz eta zein egoeratan jardungo duten, zer-nolako mundu-ezagutza beharko duten halako ataza osatzeko—; ondoren, bai euskaltegiek curriculum-proiektuak zehaztean, bai irakasleek programazioak osatzean, bai argialetxeek ikasliburuak eratzean, bai ebaluatzaileek azterketak prestatzean, erreferentzia bat izan dezaten curriculumaren garapen eta ebaluazioan.

Oinarrizko curriculum hau izango du HABEk irakasle zein teknikarien prestakuntzarako oinarrizko erreferentzia hiru zehaztاپen-mailetan —oinarrizkoa,

curriculum-proiektua zein ikasgela-programazioa— eta hiru ikastereduetan —aurrez aurre, autoikaskuntza tutorizatuan eta jardun bikoan—. Era berean, oinarrizko erreferentzia izango dute euskaltegi eta autoikaskuntzarako zentroek, beren autonomia pedagogiko eta antolatzailearen ildotik, Euskaltegiaren Curriculum Proiektua diseinatzeko.

Curriculumaren Oinarriak

Bi dira Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren oinarriak: gaitasun komunikatibora eta ekintzara bideratutako ikuspegia, eta ikaslearen autonomia.

Gaitasun komunikatibora eta ekintzara bideratutako ikuspegia

Europako Erreferentzia Markoaren oinarri psikopedagogikoen baitan, eta hizkuntzen ikaskuntzarako metodologietan eragina duten zientzien ekarpenen baitan, curriculum honek ikaskuntzaren ikuspegi komunikatibo, soziokonstruktibista eta ekintzara bideratutakoa du abiapuntu eta ardatz. Ikuspegi horren arabera, ikaslea edota hizkuntzaren erabiltzailea ekintzak burutzen dituen gizarte-eragilea da eta horiek hizkuntza-ekintza komunikatiboen bidez gauzatzen ditu. Ekintzak ikasleen interesekoak izanik, hauek burutzeko beren aurrezagutza eta gaitasun orokor guztiak erabiltzen dituzte ikasleek, jardun komunikatibo esanahiduna eta esanguratsua bultzatuz. Honela dio Europako Erreferentzia Marko Bateratuak:

*Hizkuntzaren erabileraz hitz egitean, pertsonen ekintzaz ari gara. Horiek, gizabanako eta gizarte-eragile izaki, **gaitasun orokor** batzuk dituzte eta, bereziki, **komunikazio-gaitasuna**. **Hizkuntza- ekintzak** gauzatzeko, gaitasun horiek erabiltzen dituzte, **testuinguru**, **baldintza** eta **muga** desberdinen arabera. Hala lantzen (ulertzen eta sortzen) dituzte testuak, **arlotan** espezifiketako **gai** batzuk garatuz, egokien irizten dieten **estrategiak** erabiliz eta **atazak** gauzatuz. Parte-hartzaileek, jarduerak horiek egin ahala, gaitasunak sendotu edo hobetuko dituzte.*

Europako Erreferentzia Markoa, 2005: 29. or. (egokitua)

Ekintza komunikatiboa, ikaskuntzaren abiapuntua eta ardatza

Zer da *ekintza komunikatiboa*? *Ekintza* eta *komunikatiboa*. Bi hitz horiek osatzen dute terminoa. Lehenengoa –ekintza– mundu sozialari dagokio, *eragile soziala* edo giza eragilea baita hizkuntzaren ikasle eta erabiltzaile oro, batetik; eta, bestetik, jarduerak (ez soilik mintzaira-jarduerak) ekintza-esparru baten baitan eta testuinguru jakin batean gauzatzen baitira.

Bigarrena –komunikatiboa– hizkuntzaren munduari dagokio, hizkuntza-ekintzari eta berori gauzatzen duen testuari. Ekintza komunikatiboa gauzatzen duen testua,

ahozkoa zein idatzia, osotasun bat da, hizkuntza bera bezalaxe. Unitate bat, bloke natural bat. Hala ere, unitate oso eta berezko horretan unitate txikiagoak ere bereiz daitezke.

Planteamendu komunikatiboaren arabera, gramatikak bereizitako hizkuntzaren unitate txikiak eta solteek ez baina, benetako komunikazio-unitateek hartu dute tokia ikas-irakaskuntzaren erdigunean. Bloke natural horiek —ekintza komunikatiboak— izango dira hizkuntzaren ikaskuntzako eta irakaskuntzako abiapuntu eta helburu, eta ez unitate txikiak.

Bestalde, *ekintza komunikatiboa* terminoak hizkuntzalaritzaren esparru zehatza gaintitu egiten du. Esaterako, ohartzekoa da nola psikologiak ere —zenbait psikologiak, behintzat (Vygotskyk, adibidez)— ekintzak hartzen dituen objektutzat; zehatzago, zentzua duten ekintzak (frantsesez, *actions sensées*; gaztelaniaz, *acciones con sentido*); ekintza horien bihotzean dago hizkuntza-jarduera, azken batean diskurtsoan gauzatzen den hizkuntza-jarduera; eta diskurtso horiek dira, hain zuzen, hizkuntza-zientzien objektu nagusia.

Beraz, *hizkuntza-ekintza* (*action langagière*; *acción lingüística*) edo, azken batean, *ekintza komunikatiboaren* kontzeptuak bildu nahi ditu psikolinguistika, hizkuntzalaritza, soziologia eta hizkuntzaren filosofia jakin batzuen —HEOCaren planteamendurekin bat datozenen— ekarpenak. Eta, bereganatu ez ezik, sintesi berriak laburbildu.

Hizkuntza —hitz egitea, hizkuntza-ekintza— osotasun bat da, lehen-lehenik. Osotasun hori aztertzean, zenbait elementu eta osagai bereiz daitezke. Baina osotasuna ez da elementu eta osagai horien pilaketa eta batuketaren ondorio.

Neurri berean, ekintza komunikatiboa ere osotasun bat da. Baina osotasun dinamikoa. Hitzunak, hizkuntzaren (euskararen) erabiltzaileak, ekintza gauzatzean testu bat (testu-generoa) sortzen du testuinguru batean. Testua eta testuingurua: elementu dinamikoak dira biak, hitzunak kontuan hartuko dituenak, aldi-aldi, ekintza komunikatiboa zuzen eta egoki gauzatuko badu.

Horren guztiaren arabera, helduen euskalduntzearen helburua da ekintza komunikatibo kontaezinak gauzatzeko trebatzea ikaslea. Baina ikasprozesu batek hasiera eta amaiera izan ohi duenez, eta ezinezkoa denez ekintza komunikatibo guztiak lantzea ikasgelan zein bestelako ikas-sistemetan, ikasle autonomoa eta estrategikoa lortzea du helburu helduen euskalduntzeak; egoera eta era askotako testuingurutan hizkuntza ongi erabiliko duen erabiltzailea, arrakastaz komunikatuko dena.

HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN MAILAK



A1 maila

A2 maila

B1 maila

B2 maila


C1 maila

C2 maila

HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN MAILAK



Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum hau hiru lerrun nagusitan dago banatuta: oinarrizko erabiltzailearena, aurreratuarena eta adituarena. Eta lerrunok bina mailatan: oinarrizko erabiltzailearena, A1 (Hasierakoa) eta A2 (Oinarrizkoa) biltzen dituena; aurreratuarena, B1 (Independentea) eta B2 (Aurreratua) bere baitan hartzen dituena; eta adituarena, C1 (Gaitasunezkoa) eta C2 (Adituarena) mailez osaturik dagoena.



MAILEN DESKRIBAPENA

a. Oinarrizko lerruna. (A1 + A2): Oinarrizko erabiltzailea

Oinarrizko lerrun honen xedea honako hau da: ikasleak eguneroko gaiei buruzko euskarazko testu laburrak ulertzea, eta ahoz zein idatziz —baina gehienbat ahoz— euskara elkarreraginean erabiltzea, labur eta simple, baina egoki eta eraginkor.

A1 maila: Hasierako erabiltzailea

Gai da eguneroko harremanetan eta aurrez aurreko testuinguru ezagunetan beharrezkoak diren hitzak eta esapide sinpleak ulertzeko eta erabiltzeko, baita berehalako premiei lotutako galderei erantzuteko ere (bere buruaren eta besteren aurkezpena, eta ezagutzen duen jendeari, haien helbideei eta gauzei buruzko oinarrizko informazioa).

A1 Hasierako erabiltzailearen maila lortzeko, 125 irakastorduko prozesua aurreikusten da, betiere ikaslearen abiapuntua kontuan izanik. Horiez gain, ikasleak bakarlanean eta erabilera askean beste 75 ikastordu jardun beharra aurreikusten da.

A2 maila: Oinarrizko erabiltzailea

Gai da egoera ezagunetan kideekin (lagun, senide, lankide, etab.) aurrez aurreko elkarreraginean gauzen eta pertsonen deskribapenak eta azalpen errazak egiteko eta ulertzeko, baldin eta bere esperientzia-esparruarekin loturiko gaiei buruzko informazio-truke erraza eta zuzena eskatzen badute: bere buruari eta familiari buruzko oinarrizko informazioa, eta erosketei, intereseko lekuei, lanbideei eta abarri buruzkoa.

A2 Oinarrizko erabiltzailearen maila lortzeko, 200 irakastorduko prozesua aurreikusten da, baldin eta A1 mailatik abiatuta baldin bada. Horiez gain, ikasleak bakarlanean eta erabilera askean beste 100 ordu jardun beharra aurreikusten da.

b. Lerrun aurreratua (B1 + B2): Erabiltzaile aurreratua

Lerrun aurreratuaren xedea honako hau da: ikasleak ohiko testuinguru, gai eta egoera ezagunetan instrukzioak, kontaketa laburrak eta azalpen-testuak ulertzea, eta, ahoz zein idatziz, euskara zehaztasunez eta eraginkortasunez erabiltzea. Xede ere izango da ikasleak elkarreraginean, bere lan-esparruko gaiei buruz, alderdi esanguratsuak eta xehetasunak bereiziz, deskribapenak egitea eta azalpenak eta iritziak eraginkortasunez ematea.

B1 maila: Erabiltzaile independentea 

Gai da eguneroko testuinguru ezagunetan eta maila bereko solaskideekin elkarrizketak izateko, gai orokorra eta ohikoa izan eta xedea informazioa trukatea denean. Era berean, gai da lagunei, senideei eta ikaskideei edo lankideei instrukzioak emateko, pertsonak eta objektuak labur deskribatzeko eta gertaeren kontaketa laburrak egiteko. Gai da, baita ere, bere iritziak labur-labur emateko eta bere asmoak azaltzeko.

B1 Erabiltzaile independentearen maila lortzeko, 250 irakastorduko prozesua aurreikusten da, baldin eta A2 mailatik abiatuta baldin bada. Horiez gain, ikasleak bakarlanean eta erabilera askean beste 150 ikastordu jardun beharra aurreikusten da.

B2 maila: Erabiltzaile aurreratua 

Gai da, gai orokor nahiz abstraktuei buruz aurrez aurre dituen solaskideen zein komunikabideetako esatarien testu gehienak ulertzeko, eta ongi bereiziko ditu ideia nagusiak eta bigarren mailakoak. Gai da lagun eta lankideekin, baita jatorrizko hiztunekin ere, ohiko elkarreraginean jarriz, iritzia eskatuz, bere ikuspegia defendatuz, etab. Ohiko gai eta egoera ezagunetan adierazpen argiak egingo ditu. Bere lan-esparruko hainbat gairi buruzko deskribapenak eta azalpenak ere emango ditu alderdi esanguratsuak eta xehetasunak bereiziz, eta bere iritzia ere eraginkortasunez emango du.

B2 Erabiltzaile aurreratuaren maila lortzeko, 350 irakastorduko prozesua aurreikusten da, baldin eta B1 mailatik abiatuta baldin bada. Horiez gain, ikasleak bakarlanean eta erabilera askean beste 250 ikastordu jardun beharra aurreikusten da.

c. Adituaren lerruna (C1 + C2): Erabiltzaile aditua

Adituaren lerrunaren xedea honako hau da: eremu profesional, publiko zein pertsonalean ikasleak era guztietako informazioa euskaraz trukatzeko gai izatea era landu eta jantzian, ahoz zein idatziz, gaia, solaskidearen jarrera edota euren arteko harreman maila zeinahi delarik, hizkuntza-adierazleak estrategikoki erabiliz eta hizkeraren maila denotatiboa eta konnotatiboa bereiziz.

C1 maila: Erabiltzaile gaitua 

Gai da lagunarteko, lan-esparruko eta komunikabideetako edozein testu (elkarrizketak, eztabaidak, azalpenak) ulertzeko; baita inguruko herri-hizkeran sortutakoak ere. Eta gai da, era berean, lagunarteko elkarreraginean, lan-esparruan eta komunikabideetan ideiak eta iritziak jarriz eta eraginkortasunez adierazteko. Ongi egituraturako eta osaturako testu argiak eta zehatzak idazteko gai da, ideia nagusiak eta osagarriak bereiziz, eta, oro har, xedea lortzeko estrategia egokiak aukeratuz. Era berean, bere ikuspuntua luze eta zabal adierazteko gai da, ideia osagarriak eta adibide egokiak emanaz.

C1 Erabiltzaile gaituaren maila lortzeko, 400 irakastorduko prozesua aurreikusten da, baldin eta B2 mailatik abiatuta baldin bada. Horiez gain, ikasleak bakarlanean eta erabilera askean beste 350 ikastordu jardun beharra aurreikusten da.

C2 maila: Erabiltzaile aditua 

Gai da norbere espezialitateko nahiz gai orokorretako testuak ulertzeko, eta egoerari egokitzuz, zuzen eta zehatz, arrakastaz ekoizteko. Gai da, jariotasun handiz eta zehatzasunez, gauzak adierazteko, baita konplexutasun handiko egoeretan esanahiaren ñabardura txikiak bereizteko ere.

Maila honetan matrikulatu ahal izateko, C1 mailaren agiria edo baliokidea izan beharko du ikaslegaiak. C2 Erabiltzaile adituaren maila lortzeko, 200 irakastorduko prozesua aurreikusten da. Horiez gain, bakarlanean eta bere espezialitateari dagokion proiektua garatzen eta lantzen ikasleak beste 500 ikastordu jardun beharra aurreikusten da.

Mailak: irakastorduk eta ikastorduk

Mailak	A1	A2	B1	B2	C1	C2	Orduak
Irakastorduk	125	200	250	350	400	200	1.525
A1	125						125
A2		A1+200					325
B1			A2+250				575
B2				B1+350			925
C1					B2+400		1.325
C2						C1+200	1.525
Mailak	A1	A2	B1	B2	C1	C2	Orduak guztira
Irakastorduk	125	200	250	350	400	200	1.525
Bakarlanea eta erabilera askea	75	100	150	250	350	500	1.425
Orduak guztira	200	300	400	600	750	700	2.950

HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OSAGIAK



HELBURUAK
EDUKIAK
EBALUAZIOA
ILDO METODOLOGIKOAK

HELBURUAK **ekintza komunikatibotan definituta**



Mailaz maila definitu diren helburuak gaitasun komunikatibo jakin baten adierazpen dira, eta **ekintza komunikatibo** zehatzen bidez adierazi dira curriculum honetan. Hizkuntza-erabiltzailearen gaitasun komunikatiboa **testuinguru** eta baldintza jakinetan adierazten da, eta ekintza komunikatibotan gauzatzen. Horregatik, helburu den gaitasun komunikatiboa definitzean, mailaz maila, zein ekintza gauzatzeko gai izango den zerrendatu da, adieraziz ekintza komunikatiboaren testuingurua (ekintzan parte hartzen dutenen harreman-mota, xedea eta erabilera-esparrua) eta **testu-generoa**.

Beraz, helburuak bi eratarata emanak datoz curriculum honetan: batetik, **helburu orokorrak** daude, mailaz mailako definizio orokor batekin (A1, Hasierako erabiltzailea; A2, Oinarrizko erabiltzailea; B1, Erabiltzaile independentea; B2, Erabiltzaile aurreratua; C1, Erabiltzaile gaitua; eta C2, Erabiltzaile aditua); eta, bestetik, “helburuak” izenburupean, mailaz maila eta trebetasunez trebetasun sailkatuak (mintzamina eta idazmena ekoizpenari dagokionez, eta irakurmena eta entzumenaren trebetasun hartzaileei dagokienez), mailaren amaieran ikaslea zer egiteko gai izango den adieraziz; hau da, ekintza komunikatiboak.

Kontuan hartzekoa da, kopuruari dagokionez, zerrenda mugatua dela; baina gaitasun-mailaren adierazle diren neurrian, adibide esanguratsuak dira. Bestalde, trebetasunen arteko orekari eutsi nahi izan zaio, baina, txikia izanik ere, aldea egon daiteke zenbaitetan; izan ere, alde batetik, zenbat eta gaitasun-maila handiagoa izan erabiltzaileak, orduan eta ekintza komunikatibo ugariago, eta mota ezberdinetakoak burutzeko gaitasuna izango du. Bestetik, erraztasun handiagoz gauzatuiko ditu trebetasun hartzaileak ekoizleak baino; lehenago ikasi eta garatzen baitira hartzaileak; nekezago ekoizleak.

Era berean, elkarreraginezko ekintza komunikatiboak bereizi egin dira erabiltzaile independente, aurreratu, gaitu eta adituen ahozko ekoizpenean. Nahiz eta, oro har, ekintza komunikatibo guztietan erabiltzaileen arteko nolabaiteko elkarreragina egon, haien arteko interakzioa ez da maila berean gauzatzen. Hasierako eta oinarrizko mailan, horrela, mintzameneko ekintza komunikatiboak galde-erantzunen edo elkarrizketen bidez burutzen dira erabat; nolabaiteko bereizketa egin daiteke, ordea, gainerako mailetan: orokorrak, alde batetik, eta berariaz elkarreraginezkoak direnak, bestetik.

HELBURU OROKORRAK **trebetasunez trebetasun eta mailaz maila****ENTZUMENA****A1**

Eguneroko harremanetan, gai izango da ahozko testu laburren gaia eta komunikazio-asmoa identifikatzeko, aurrez aurreko elkarrizketetan hitzak eta esapideak ulertzeko nahiz edukiari buruzko hipotesiak egiteko, baldin eta solaskideak argi eta oso mantso hitz egiten badio erregistro estandarrean. Era berean, berehalako premiei lotutako galderak, argibideak eta oharrak ulertuko ditu, betiere etenaldi, keinu eta irudiz laguntzen badira.

A2

Eguneroko egoera ezagunetan, maila bereko solaskideen arteko elkarrizketak eta jarraibideak ulertzeko gai izango da, baita gai ezagunei buruzko azalpenak ulertzeko ere (familia, erosketak, bizitokia, lanbidea, eguraldia...), baldin eta informazioa zuzena, argia eta poliki ahoskatua bada.

B1

Testuinguru ezagunetan (eskola, aisia, lana...) eta erregistro estandarrean egindako gertaeren kontaketak, azalpenak, deskribapenak, instrukzioak eta elkarrizketak ulertzeko gai izango da, gaiak orokorrak direnean eta xedea informazioa trukatzea denean. Horrez gain, komunikazio-asmoa atzemango du, ideia nagusiak jasoko ditu eta zenbait testuingurutan baita ñabardurak ere (zaratarik eza, abiadura normala, ahoskera garbia, erredundantzia, ikusizko lagungarriak...), betiere azalpenen bat izateko aukera badu.

B2

Aurrez aurre nahiz komunikabideetan, hizkera estandarrean egindako elkarrizketak, azalpenak eta abar ulertzeko gai izango da, batez ere gizarte-harremanen esparrukoak badira. Halaber, gai konplexuetako ideia nagusiak ulertuko ditu, baina zailtasuna izan dezake egitura konplexuekin eta hizkuntzaren esamolde jatorrak erabiltzen direnean.

C1

Lagunarteko, lan-esparruko eta komunikabideetako elkarrizketak, eztabaidak, azalpenak eta abar ulertzeko gai izango da, baita inguruko herri-hizkeran sortutako asko ere. Informazio orokorra eta xehea jasoko du, gai espezializatuetan izan ezik.

C2

Euskara batuan norbere espezialitateko nahiz gai orokorreko testuak ulertzeko gai izango da, bai aurrez aurre, baita hedabideetan entzundakoa ere. Euskalkietako berbaldia ere ulertuko du, zenbaitetan xehetasunak jasotzeko eragozpena badu ere.

MINTZAMENA 

A1

Aurrez aurreko elkarreraginean gai izango da eguneroko bere oinarrizko behar komunikatiboetarako, parte-hartze laburrak, baina egokiak eta ulergarriak egiteko. Horretarako, hitzak eta oinarrizko esapideak baliatuko ditu, baita etenak, keinuak eta birformulazioak ere.

A2

Egoera ezagunetan, kideekin (lagun, senide eta abarrekin) elkarreraginean, gai izango da informazio-truke erraz eta arruntetan moldatzeko, gauzen eta pertsonen deskribapenak egiteko, eta ekintza eta egitarauetarako buruzko azalpen errazak eta iritziak emateko.

B1

Maila bereko solaskideekin elkarrizketak izateko gai da, betiere egoera ezaguna eta gaia orokorra eta arrunta denean, xedea izanik gai konkretu edota abstraktuei buruz informazioa trukatzeko. Era berean, gai da instrukzioak emateko, pertsonak eta objektuak labur deskribatzeko, gertaeren eta bizipenen kontaketa laburrak egiteko eta bere iritzia labur baina eraginkor adierazteko.

B2

Lagunarteko elkarreragin arruntetan jartotasunez aritzeko gai izango da, besteak jakinaren gainean jarriz, iritzia eskatuz, bere ikuspegia defendatuz eta abar. Eraginkortasunez komunikatuko da, eta ohiko gai eta egoera ezagunetan adierazpen argiak egingo ditu. Bere lan-esparruko hainbat gai buruzko deskribapenak eta azalpenak ere emango ditu, alderdi esanguratsuak eta xehetasunak bereiziz.

C1

Lagunarteko elkarreraginean jartotasunez eta zehatz jarduteko gai izango da, eta, era berean, lan-esparruan eta komunikabideetan ideiak eta iritziak zehaztasunez eta eraginkortasunez adierazteko.

C2

Edozein egoera eta esparrutan, norbere espezialitateko nahiz alor orokorreko ezagutzen inguruan, gai izango da elkarrizketa batean parte hartzeko, iritziak eta azalpenak eman eta eztabaidatzeko. Era berean, gai izango da hitzaldiak eman eta mahai-inguru eta abarretan parte hartzeko.

IRAKURMENA ●

A1

Gai izango da eguneroko harremanetan sarri erabiltzen diren testu laburretako gaia eta komunikazio-asmoa identifikatzeko, hitz eta esapide sinpleak ulertzeko eta aurreikus daitekeen informazio zehatza antzemateko; horretarako, testuen (mezu labur, ohar sinple, zerrenda eta kartelen) testuingurua eta irudiak baliatuko ditu.

A2

Eguneroko bizitzarekin lotutako testu labur eta errazetan gai izango da, egoera, testuinguru, formatu eta ezagutza orokorrean oinarrituz, komunikazio-asmoa, gaia, ideia nagusiak eta xehetasun adierazgarriak atzemateko. Gai izango da edukiari buruzko hipotesiak eratzeko eta aurreikus daitezkeen zehaztasunak baieztatzeke; horretarako, zenbaitetan, irudiak lagungarri izango zaizkio.

B1

Ongi egituratutako testu argietan (kronikak, artikulurak, deskribapenak eta argibideak), gai izango da komunikazio-asmoa, gaia, ideia nagusiak, xehetasun adierazgarrienak, diskurtsoaren haria eta ondorioak atzemateko eta ulertzeko, betiere gaiak orokorrak eta ohikoak badira.

B2

Ohiko harremanen esparruan testu gehienak ulertzeko gai izango da, eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiziko ditu. Hiztegi zabala izango du, eta xehetasun asko ulertuko ditu, zailtasuna izan badezake ere hainbat esamolde eta ñabardurarekin. Igorlearen sentimendu eta jarrerak atzemateko gai izango da.

C1

Testu luze eta konplexuak ulertzeko gai izango da, baldin eta gai orokorrekoak badira. Halaber, artikulurak espezializatu eta argibide tekniko luzeak ulertuko ditu, baina bere arlokoak ez badira, lexikoa traba izan daiteke zenbaitetan. Gertaeretan oinarritutako testuak edo literatur testu arruntak ere ulertuko ditu, eta erregistro ezberdinak bereizteko gai izango da.

C2

Euskara batuan zein tokian tokiko euskalkian idatziriko kultura-maila goreneko testuek eta bere arloko testu espezializatuak emandako informazioa jasotzeko gai izango da. Halaber, estilo desberdinen ñabardurez eta esanahi inplizitu nahiz esplizituek jabetuko da.

IDAZMENA

A1

Gai izango da mezu eta testu laburrak idazteko (zerrendak, inprimakiak, ohar laburrak, postalak), testuingurura egokituz eta ereduak oso hurbiletik jarraituz; baliabideen kontrola oso mugatua izango du.

A2

Lagunei, senideei, ikaskideei edo lankideei ohar eta mezu laburrak nahiz postalak, izandako esperientzien kontakizun laburrak eta pertsonen deskribapenak idazteko gai izango da, betiere emandako erduei jarraikiz.

B1

Eguneroko testuinguru ezagunetan esperientziak deskribatzeko, gertaerak kontatzeko eta azalpenak emateko gai izango da, baldin eta gaia orokorra eta arrunta bada.

B2

Bere arloko gaiei buruzko testu argi eta ongi egituratuak idazteko gai izango da, baita hainbat iturritako informazioa erabiltzeko eta bere iritzia emateko ere, aldeko eta kontrako argudioak argi adieraziz.

C1

Ongi egituratutako testu argi eta zehatzak idazteko gai izango da, ideia nagusiak eta osagarriak nabarmenduz. Era berean, bere ikuspuntua luze eta zabal adierazteko gai izango da, zehetasunak eta adibide egokiak emanez.

C2

Era guztietako testuak zuzen, zehatz eta jator idazteko gai izango da, kultura-maila orokorreko nahiz goragoko gai sozialei edo norberaren espezialitatekoari buruz, hizkuntza formalean nahiz informalean arrakastaz eta egoerari egokituz.

EDUKIAK

I. Gaitasun soziolinguistikoaren garapena

- ▶ Testuinguruaren ezaugarriak
- ▶ Gaiak
- ▶ Kultura-erreferentziak

II. Gaitasun testualaren garapena

- ▶ Testu-generoak
- ▶ Funtzioak
- ▶ Adierazpide testualak

III. Gaitasun linguistikoaren garapena

- ▶ Adierazpide linguistikoak

IV. Gaitasun estrategikoaren garapena

- ▶ Komunikazio-estrategiak
- ▶ Ikasprozesuaren estrategiak

I. Gaitasun soziolinguistikoaren garapena



TESTUINGURUAREN EZAUGARRIAK

Ekintza komunikatibo orok ditu testuinguru-ezaugarriak, testuari dinamikotasuna ematen diotenak eta hori antolatzeko erari eragiten diotenak. Curriculum honetan aipatzen diren ezaugarri edo faktore horiek bi multzotan sailka daitezke: adierazpen edo mundu fisikoa da bata, eta mundu soziala zein subjektiboa bestea.

Lehenari dagokionez, testu oro da hizkuntz adierazpen jakin baten emaitza, espazio-denboretan arduztutako ekoizle edo eragile batek gauzatzen duena. Testuinguru fisiko hori lau parametroren arabera definitzen da:

- ▶ Testua ekoizten den lekua.
- ▶ Testua ekoizten den unea: testu-ekoizpenaren iraupen edo denbora.
- ▶ Ekoizle/igorlea: testua fisikoki gauzatzen duen pertsona; hala testu idatzia, nola ahozkoa izan daiteke.
- ▶ Hartzailea: testua jasotzen duen pertsona edo pertsonak.

Ekoizpena ahoz gertatzen denean, hartzaileak espazio-denborak partekatzen ditu, oro har, ekoizlearekin, eta, era horretan, berari zuzenean erantzuteko moduan da. Ekoizlekidetzat edo solaskidetzat jo daiteke, nolabait ere. Ekoizpena idatzizkoa denean, ostera, hartzaileak ez ditu, oro har, denbora-espazioak partekatzen ekoizlearekin. Zenbaitetan, ordea, urruneko hartzaile horrek erantzun diezaioke ekoizleari, eta beraren solaskide bihurtzen da (gutunak trukatzean, esaterako). Beste batzuetan, berriz, hartzaileak ez du ekoizleari erantzuteko modurik, eta ez da solaskide.

Mundu sozial eta subjektiboari dagokionez, esparru sozial jakin batean gauzatzen da testu oro; preseskiago esanda, mundu soziala (arauak, balioak...) eta subjektiboa barne hartzen dituen elkarreragin komunikatibo baten baitan. Eta testuinguru sozio-subjektibo hori, era berean, lau parametro nagusik osatzen dute:

- ▶ Erabilera-esparrua edo esparru soziala: zer baldintza sozialetan edo, bestela esanda, zer elkarreragin-motaren arabera ekoizten da testua? Pertsonen arteko harreman hurbilekoak eta harreman espezifikokoak bereizten dira hemen: lehenari dagozkio, esaterako, senitarteko, lagunarteko edo aisialdiko esparruak; eta bigarrenari esparru akademikoa, administraziokoa, literarioa edota tekniko-zientifikoa.

- ▶ Enuntziatzailearen kokapen soziala; hau da, abian den elkarreraginean jokatzeko duen rol soziala: irakaslearena, aitarena, bezeroarena, hierarkian gorago dagoen batena...
- ▶ Enuntziatarioaren kokapen soziala; alegia, testuaren hartzaileak betetzen duen rola: ikaslearena, semearena, saltzailearena, mendekoarena...
- ▶ Xedea; alegia, elkarreraginaren helburu edo helburuak: enuntziatzaileak, testuaren bidez, enuntziatarioarengan lortu nahi duen eragina (informazioa ematea eta eskatzea; iritziak, ezagutzak eta jarrerak adieraztea eta egiaztatzea; sentimenduak, hunkipenezko jarrerak/egoerak adieraztea eta egiaztatzea; eta abar).

Bukatzeko, esan gabe doa testuaren mailak, ez beti baina askotan, eragina duela goiko lau parametroen osaketan.



Komunikazio-ekintza zehatzen arretaguneak dira gaiak, eta era askotara sailka daitezke. Curriculum honetan, gaien zerrenda egitean euskaldunduko den helduaren bereizgarriak eta interesak hartu dira oinarritzat. Hainbat gai zerrendatzen dira eta gai bakoitzaren barruan, aldi berean, azpikategoria ugari daude. Hona hemen adibide batzuk:

Gaia: Aisia

Azpikategoriak: kirola, jolasa, zaletasunak, bidaiak, oporrak, denbora-pasak, ikuskizunak, elkarte kulturalak, elkarte gastronomikoak eta abar.

Gaia: Ingurumena

Azpikategoriak: kutsadura, birziklapena, garapena, ingurumenaren babesa, energia, naturaren aldaketak eta abar.

Gaia: Zientzia eta teknologia

Azpikategoriak: garapena eta berrikuntza, ikerketa, teknologia berriak, ingeniariak eta abar.

Dena den, jakina da gisa honetako zerrendek mugak dituztela; zerrenda ezin izan daiteke osoa, ikasleen komunikazio-beharren arabera lantzekoa baizik. Gaiak aukeratzean, beraz, oso aintzat hartuko dira ikasleen premia, motibazioa, ezaugarriak eta baliabideak.

Hortaz, garrantzitsua da aurreikustea, egoeraren arabera, ikaslea zer gaitan trebatu, nola trebatu, gai horri dagokionez zer eskatu eta gai bakoitzaren barruan zein azpikategoria landu.



► KULTURA-ERREFERENTZIAK

Curriculum honetan, kultura-erreferentzien atalean, bi azpiatal edo multzo bereizi nahi izan dira: lehen azpiatalean, “Ezagutza orokorrak”, “Gertakariak eta protagonistak” eta “Kultura-ekoizpenak”; bigarren azpiatalean, berriz, “Ezagutza eta portaera soziokulturalak” aztertzen dira, eta horren baitan “Gizarte-eraketa” eta “Harremanak” izenburupean adierazitako erreferentziak.

Lehen azpiatalean, besteren artean, euskararen lurraldeen ezaugarri geografiko, ekonomiko eta politikoak aipatzen dira, eta baita gertakari eta errealitate kulturalak ere; hortik ezagutza orokorrekoak deitu izana. Bigarren azpiatalean, “Ezagutza eta portaera soziokulturalak” izenekoa, aurreko azpiatalari lotuak dauden bizi-baldintzak, konbentzio sozialak, balioak edota sinesmenak biltzen dira.

Kontuan izan behar da bi azpiataletan aipatzen diren alderdi kulturalak ez direla, beren horretan, linguistikoak, baina harreman zuzena dutela hizkuntzarekin komunikagarritasunari dagokionez. Aipatutako alderdi kultural horien jabe izateak, ezbairik gabe, errealitate berri baten jakitun egingo du ikaslea, eta, horrezaz gainera, kultur arteko gaitasuna garatzeko beharko dituen ezagutza eta trebetasunak eskainiko dizkio.

Helburu horrekin, euskal gizartearen izaera historiko eta soziala biltzen duten oinarriko alderdi batzuk eskaintzea da atal honen egitekoa, ezinezkoa baita gertakari historiko eta kulturalak osotasunean aurkeztea. Hori dela-eta, hein handi batean, beharrezkoa gertatu da orokortasunari erreparatzea. Nabarmendu beharrezkoa da, horrenbestez, atal honetan aurkezten direnak curriculumaren lehen zehaztapen-mailari dagozkiola, eta, ondorioz, bere mugak dituela. Ikasleen interesak eta tokian tokiko alderdi soziokulturalak aintzat hartuta, ezinbestekoa izango da, kasuak kasu, bigarren edo hirugarren mailako zehaztapenak gitea.

KULTURA-EZAGUTZA ETA -EKOIZPENAK

1. EZAGUTZA OROKORRAK

- Ezaugarri geografikoak:
 - Mendilerroak: Pirinioak, Aralar, Urbasa...
 - Mendiak: Gorbeia, Aratz, Anboto, Udalaiz, Aizkorri, Txindoki, Beriain, Abodi, Auñamendi...
 - Ibaiak: Aturri, Errobi, Bidasoa, Oria, Ibaizabal, Ebro, Zadorra...
 - Kantauri itsasoa
- Klimak: atlantikoa, mediterranea
- Hizkuntzak: euskara (eta euskalkiak), gaztelania eta frantsesa
- Egitura politikoa: bi estatu, bi autonomia-erkidego, departamendua, euskal

hirigune elkargo bat, lurraldeak

- ▶ Lurralde-antolaketa:
 - Eskualdeak, kuadrillak, kantonamenduak
 - Hiriburuak erkidegoetan eta lurraldeetan
 - Leku esanguratsuak: Bardeak, Kakueta, BAB-Donostia, Gernika...
- ▶ Jai bereziak: San Fermin, hiriburuetako Aste Nagusiak...
- ▶ Kultura- eta kirol-ekitaldiak eta ospakizunak: zinema-jaialdiak, jazzaldiak, hiru behien ordaina, ihauteriak, estropadak...
- ▶ Ekonomia eta industria: kooperatibak...
- ▶ Hezkuntza-sistemak:
 - Sare publikoa, pribatua (ikastolak...)
 - Unibertsitate publikoak eta pribatuak
- ▶ Euskal hedabideak:
 - Euskal Telebista, Hamaika Telebista, tokian tokiko telebistak...
 - Irratiak: orokorrak eta tokian tokikoak (Euskadi Irratia, Euskalerrria Irratia...)
 - Euskarazko prentsa: Berria egunkaria, Hitza, tokian tokiko egunkariak...
 - Aldizkariak: Elhuyar, Argia, tokian tokikoak
- ▶ Garraioak:
 - Aireportuak: Foronda, Hondarribia, Loiu, Iruñea eta Miarritze
 - Trenbide-sare nagusiak: EuskoTren, Renfe, Sncf, Metroa eta AHTa
 - Itsas portuak: Baiona, Bilbo, Pasaia
 - Errepide-sare nagusiak
 - Hiri-garraioa, hiriarteko garraioa eta ibilbide luzeko garraioa
- ▶ Hizkuntza-politika:
 - Hizkuntza ofizialak euskal lurraldeetan
 - Hezkuntza-sistemen hizkuntza-ereduak
 - Euskaltzaindia
 - Helduen euskalduntzea: HABE, Euskarabidea, Euskararen Erakunde Publikoa, euskaltegiak (publikoak, pribatuak)
 - Euskara sustatzeko erakundeak: Kontseilua, UZEI, Labayru, Elhuyar, UEMA, Euskara Elkarateak (Topagunea)...
 - Hainbat ekimen: Korrika, Mintzalaguna, Kilometroak, Ibilaldia, Nafarroa Oinez, Araba Oinez, Herri Urrats

2. GERTAKARIAK ETA PROTAGONISTAK

- ▶ Gertakariak
 - Orreagako bataila: euskaldunek Karlomagno garaitu (778)
 - Euskarazko lehen testu idatzia, Donemiliagako kodize batean (964)
 - Gaztelak Nafarroa konkistatu (1512)
 - Elkanok munduari bira (1522)

- Ignazio Loiolakoak Jesusen Lagundia sortu, Frantzisko Xabierkoarekin batera (1534)
 - Euskaraz inprimatutako lehen liburua (Etxepare, 1545)
 - Euskarazko lehendabiziko gramatika (Larramendi, 1729)
 - Gerra karlistak (1833-1840, 1846-1849 eta 1872-1876)
 - Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko foruak indargabetu (1876)
 - Arturo Campionek Euskara-elkartea sortu (1886)
 - Lehen ikastolaren sorrera (1914)
 - Euskaltzaindiaren sorrera (1919)
 - Gernikaren bonbardaketa (1937)
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua (1979)
 - Nafarroako Foru Hobekuntza Legea (1982)
- **Pertsonaiak**
- Eneko Arista (770-850): Iruñeko lehen erregea
 - Elkano, Juan Sebastian (1476-1526)
 - San Ignazio Loiolakoa (1491-1556): Jesusen Lagundiaren sortzailea, eta san Frantzisko Xabierkoa (1506-1552): misiolaria
 - Albret, Joana (1528-1572): Nafarroako erregina
 - Axular, Pedro (1556-1644): euskal literaturan idazle nagusienetako bat (*Guero*)
 - Erauso, Katalina (1585-?): emakumezko militarra
 - Gaxen, Inesa (1566-?): sorgin akusaziopean mugaren bi aldeetan jazarritakoa
 - Oihenart, Arnaut (1592-1667): idazle eta abokatua
 - Ravel, Maurice (1875-1937): musikaria (Bolero)
 - Maria de Maeztu (1881-1948): pedagogoa
 - Aita Barandiaran (1889-1991): euskal antropologo, etnologo eta arkeologoa
 - Andurain, Marga (1893-1948): abenturazale eta espioia
 - Ibarruri, Dolores (1895-1989): politikari komunista
 - Oteiza, Jorge (1908-2003): eskultorea
 - Zipitria, Elbira (1906-1982): lehen ikastolaren sortzailea
 - Agirre, Jose Antonio (1904-1960): Eusko Jaurlaritzaren aurreneko lehendakaria
 - Mitxelena, Koldo (1915-1987): hizkuntzalaria eta idazlea
 - Pasaban, Edurne (1973-): munduko hamalau zortzimilakoak igo dituen lehen emakumea

3. KULTURA-EKOIZPENAK

- **Literatura**
- Euskarazko literatura zaharra (XVI.-XIX. mendeak): Lazarraga, Oihenart, Etxepare, Axular, Larramendi, Bizenta Mogel, Iztueta...
 - Gerra aurreko euskal literatura: Tene Mujika, Lizardi, Julene Azpeitia, Lauaxeta, Aitzol...
 - Literatura garaikidea: Itxaro Borda, Bernardo Atxaga, Arantxa Urretabizkaia, Anjel Lertxundi, Karmele Jaio, Ramon Saizarbitoria...
 - Ahozko literatura: Bertsolaritza

- ▶ Musika
 - Klasikoa: Juan Crisóstomo Arriaga, Pablo Sarasate, Julian Gaiarre, Maurice Ravel, Pablo Sorozabal, Jesus Guridi, Ainhoa Arteta...
 - Herrikoia: irrintzia, txalaparta, txistua, trikitia, maskaradak, abesbatzak...
 - Ez dok hamairu: Mikel Laboa, Lurdes Iriondo, Benito Lertxundi, Xabier Lete...
 - Gaur egungo abeslari eta taldeak: Gatibu, Zea Mays, Berri Txarrak...
- ▶ Antzerkia
 - Tradizionala: Pastoralak...
 - Gaur egungoa
- ▶ Dantza
 - Lucia Lakarra, Itziar Mendizabal, Igor Yebra...
 - Euskal dantzak: arin-arina, fandangoa, aureskua, ezpata-dantza...
- ▶ Arkitektura
 - Trikuharriak
 - Kobazuloak: Santimamiñe, Ekain, Isturitze, Zugarramurdi
 - Euskal baserria
 - Loiolako basilika, Arantzazu, Guggenheim...
- ▶ Pintura
 - Aurelio Arteta, Ignacio Zuloaga, Mentxu Gal, Agustin Ibarrola, Jose Luis Zumeta...
- ▶ Eskultura
 - Jorge Oteiza, Eduardo Txillida, Nestor Basterretxea, Koldobika Jauregi...
- ▶ Museoak
 - Euskal museoa (Baiona), Guggenheim, Bilboko Arte Ederretako museoa, Artium, San Telmo, Oteiza museoa...

4. EUSKAL MUNDU-IKUSKERA HIZKUNTZAN

- ▶ “Omen” partikularen berezitasuna
- ▶ Jabetza adierazteko “gure” tasunaren erabilera, “nire” tasunaren kaltetan: gure aitona, gure alaba...
- ▶ “Nork-nor” erabilera eguraldiaren berri emateko: euria egin du, epeltzera joko du...
- ▶ Ergatiboaren berezitasuna
- ▶ Aditz trinkoaren berezitasuna

EZAGUTZA ETA PORTAERA SOZIOKULTURALAK

1. GIZARTE-ERAKETA

- ▶ Izen-abizenak
 - Euskal onomastika
 - Ezizenak: norberarenak, familiakoak
 - Txikigarriak: Xabi, Eli...
 - Euskal abizenen jatorria: baserria (Urrutikoetxea)

- ▶ Nortasun-agiriak
 - Ofizialak: NA, familia-liburua, pasaportea, gazte-txartela
 - Ez-ofizialak: ENA
 - Nortasun-agirian jasotzen diren datuak: NA zenbakia, izen-abizenak, helbidea, telefono-zenbakia, posta-kodea, jaiotze-data...

- ▶ Familia: kontzeptua eta egitura
 - Etxea, etxeakoak
 - Lotura-motak: ezkontza zibila, elizazkoa...
 - Familia-motak: bizpahiru belaunaldikoak, guraso bakarrekoak, izatezkoak, familia ugariak...
 - Ahaidetasunak
 - Maiorazkoa edo premu-eskubidea

- ▶ Egutegia (jai-egunak) eta ordutegiak
 - Jai nagusiak: estatuaren arabera, erkidegoaren arabera, lurraldearen arabera, herriaren arabera...
 - Oporraldiak: eskolan, lanean...
 - Lanaren iraupena eta ordutegia: ordutegi jarraitua eta zatitua, lanaldi murriztua, atsedendialdiak eta etenak.
 - Jatorduak: gosari, bazkari eta afarien ordutegiak...
 - Leku publikoen ordutegiak: irekitzeko eta ixteko ordutegia, ordutegi jarraitua eta zatitua, neguko eta udako ordutegiak
 - Garraioen ordutegiak
 - Eskola-egutegi eta -ordutegiak

- ▶ Jan-edanak
 - Otordu nagusiak (gosari, bazkari eta afaria) eta bestelakoak: hamarretakoa, hamaiketakoa eta afari-merienda
 - Dietako jaki ohikoenak
 - Menua eratzeko konbentzioak eta jateko ordenak: sarrerak, lehen eta bigarren platerak, postrea...
 - Jakiak egiteko modua: egosi, gisatu, erre, frijitu; plantxan, parrilan, labean...
 - Erabiltzen diren belar eta gozagarriak: oliba-olioa, baratxuria, tipula, perrexila, piper-hautsa, piper-mina, ozpina, gatza, limoia...
 - Esapideak: *on egin!*

- Mahaiaren inguruan biltzeko ospakizunak: jaiotzak, jaunartzeak, ezkontzak, lagunen bazkari-afariak, lehengusuen bazkari-afariak, Gabon eta Urtezaharretako bazkari-afariak, jaietako herri-bazkariak...
- ▶ Hezkuntza eta kultura
 - Zentro-motak: publikoak, itunpekoak, pribatuak
 - Heziketaren etapak: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa, Batxilergoa, unibertsitatea...
 - Hezkuntzaren derrigortasuna eta doakotasuna (3 urtetik 16 urtera bitartean)
 - Liburutegien zerbitzu nagusiak: irakurgelak, maileguak, fonoteka, ordenagailu-gelak
 - KZ guneak
 - Museo-motak, ordutegiak eta prezioak
- ▶ Lana eta ekonomia
 - Lan-ordutegiak, atsedanak eta oporrak
 - Lan-sektoreak:
 - Lehena: nekazaritza, abeltzaintza, arrantza, meatzaritza
 - Bigarrena: industria, eraikuntza
 - Hirugarrena: merkataritza, finantzak, garraioa, turismoa, administrazioa eta zerbitzu publikoak
 - Kokalekuak: industrialdeak, parke teknologikoak, hiri eta herrien zonalde jakinak
 - Biztanleak lan-merkatuaren arabera: langilea, langabea, jubilatua
 - Kontratu-motak: langile finkoa, aldi baterakoa...
- ▶ Euskal mitologia
 - Basajaun, jentilak, Mari...
- ▶ Aisialdia, ohiturak eta zaletasunak
 - Jarduerarik ohikoenak
 - Musikarekin (abesbatzak, otxoteak, musika-taldeak...), zinemarekin, kontzertuekin, antzerkiarekin... lotutakoak
 - Aisiarekin lotutakoak: mahai-jokoak, denbora-pasak, bildumak...
 - Kirolarekin lotutakoak: kirola egitea, kirol-ikuskizunetara joatea...
 - Naturarekin lotutakoak: txangoak, mendi-ibilaldiak...
 - Gastronomiarekin lotutakoak: elkarteak, txokoak, upeltegiak...
 - Ikuskizun-motak: antzerkia, kontzertuak, herri-kirolak, bertso-saioak...
 - Ikuskizunen ordutegiak eta sarrerak eskuratzeko bideak: txarteldegian, telefonoz, telekutxa eta antzekoak, Internet...
 - Gehien egiten diren kirolak: futbola, pilota, txirrindularitza, mendia, arrauna, igeriketa, saskibaloia...
 - Kirola egiteko guneak: pilotalekuak, kiroldegiak, gimnasioak, hondartzak, ikastetxeak...

- ▶ Hedabideak
 - Prentsa idatzia, edizio digitalak
 - Irrati-telebistak: programak (albistegiak, filmak, lehiaketak, kirol-emanaldiak...), entzule eta ikusle gehieneko ordutegiak
 - Internet

- ▶ Etxebizitza
 - Etxe-mota ohikoenak herri eta hirietan: egituraren arabera (pisuak, baserriak...)
 - Etxebizitzen batez besteko neurria eta altzari-mota ohikoenak
 - Etxebizitzetan ohikoak diren instalazio eta zerbitzuak: ur-hornidura (hotz eta beroa), berogailua, igogailua, garajea, telefonoa, Internetarako lotura, gas-hornidura...
 - Etxebizitzetako gelak (komuna, sukaldea, logelak, terraza, egongela, balkoia...)
 - Etxebizitza eskuratzeko bideak: jabegoa, alokairua...

- ▶ Zerbitzuak
 - Kirol-instalazioak: kirola egiteko instalazio publikoak (atletismoko pistak, igerileku estaliak, tenis-zelaiak, kiroldegiak...) eta kirol profesionala egin edo ikusteko instalazioak (futbol-zelaiak eta estadioak, kiroldegiak...)
 - Parkeak eta berdeguneak: Bertiz, Pagoeta, Artikutza, Urkiola, Urdaibai Biosfera Erreserba...
 - Garbitasuna: hondakinak, zabor-bilketa eta birziklatzea; kale-garbitzaileak, lorezainak...

- ▶ Erosketak
 - Dendak eta saltoki-motak: janariak, dendak, kaleko azokak, arropari lotutakoak (jantzi-denda, azoka txikia...), merkataritza-gune handiak (supermerkatuak, hipermerkatuak...)
 - Kontsumo-ohiturak: unitate-neurriak (pisua, kilotan; likidoak, litrotan...), erosketak ugaltzen diren urteko sasoiak (merkealdiak, Gabonak, udako oporrak, eskolako itzulera...), produktu-kategoriak (jakiak, oinetakoak, garbigarriak, jantziak...), oinarritzko produktuak (ogia eta laboreak, esnekiak, olio eta koipeak, frutak, barazkiak, etxetresnak, norberaren garbitasunekoak...), Internet bidez erostea.

- ▶ Osasuna eta higieena
 - Osasun publikoa: norberaren higiearen kontzeptua eta osasuna zaintzarekin lotutako portaerak (kirola egitea, dieta zaintzea, estresa zaintzea...)
 - Osasun-zentroak: ospitaleak, anbulatorioak, eguneko zentroak..., non dauden, ordutegiak, zerbitzuak, etab. Osasun-prestazioak (doako sorospena, anbulatorioak eta medikuak esleitzea, etxez etxeko mediku-zerbitzua...)

- ▶ Bidaiak, ostatuak eta garraioak
 - Bidaiak: prestaketarekin eta garapenarekin zerikusia duten portaerak (erreserba egiteko eta txartelak erosteko moldeak, bidaiak egiteko urte-sasioak, oporraldiak eta bidaien arteko lotura...), euskaldunen toki gustukoenak (...)
 - Hotelak eta ostatuak: motak, kategoriaren eta zerbitzuaren arabera (hotelak, ostatuak...), hotelen instalazioak, jatetxeak, tabernak...
 - Aireportuak, portuak, trenbideak eta errepideak: txartel-motak, txartelak erosteko bideak (geltokiko leihatilan, bidaia-agentzietan, telefonoz, Internet bidez...), aireportuetako instalazio eta zerbitzuak, eta errepideetakoak...
 - Hiriko garraioa: garraibide nagusiak, aldiriko trenen eta metroaren egitura (geltokiak, sareak...), txartel-motak, txartelak erostea, instalazio eta zerbitzuak metroan. Metroa duten hiriak (Bilbo), garraio publikoari loturiko portaerak, erabilgarri izatearen adierazgarriak, ordainketa-moduak...
- ▶ Ekologia eta ingurunea
 - Natur parkeak eta ibilbideak: parke-motak (babestutako gunek, natur erreserbak, biosfera-erreserbak...), ibilbide-motak (turistikoak, artistikoak, kulturalak, historikoak...)
- ▶ Gizarte-zerbitzuak eta laguntza-programak
 - Adinekoen zaintza: erretirorako adina, erretiratuen onurak
 - Etorकिनen artapena: etorkinen jatorri nagusiak, etorkinen harreragune nagusiak
 - Baliabiderik gabekoen artapena: zerikusia duten lekuak (babes-etxeak, gobernuz kanpoko erakundeak, *Cáritas*, udaletako gizarte-zerbitzuak...), erakunde publikoek eskainitako laguntzak (dirulaguntzak, aterpeak, osasun-zerbitzuak...)
 - Adingabekoen babesa
 - Berdintasunerako planak
- ▶ Emakumearen rola euskararen transmisioan

2. HARREMANAK

- ▶ Arlo pertsonal eta publikoan
 - Sentimenduzko harremanak, familiakoak eta lagunartekoak: lagunaren eta ezagunaren kontzeptuak; lagun eta familiartekoen harreman-ohiturak, adinaren, sexuaren eta harremanaren arabera; lagunekin geratzea; jendaurreko adiskidetasun-adierazpena (noiz, nola...); familia bereko kideen arteko harremana, adinaren eta erlazioaren arabera (aldeak hirian eta herrian, hizkuntza-erregistroetan, tratamenduan, ahots-tonuan...)
 - Harremanak klase sozialen, belaunaldien eta sexuen artean
 - Bizilagunen arteko harremanetako arauak eta usadioak
 - Harremanak Administrazioarekin eta Agintaritzarekin

- Hartu-emanak ezezagunekin: ezezagunen arteko agurrak leku publikoetan, ezezagunei arreta eskatu edo haiei zuzentzeko ohiturak

► Lan-arloan

- Harremanak lankideekin: lankideekin batera burutzen diren ekintzak (kafea hartzea atsedendietan, bazkaltzea, lanera autoz joatea elkarrekin...), nagusien eta mendekoen arteko harremanak
- Harremanak bezeroekin

3. NORTASUN KOLEKTIBOA ETA BIZI-MOLDEA

► Gizarte-mailako partaide izatea ulertzeko modua

- Nortasun kolektiboaren egituraketa: laguntzen duten aldagaiak (hizkuntza, ohiturak, paisaia, historia bateratua, festak...), hizkuntza ofizialak (euskara sustatzeko erakundeak...)
- Gizartean parte-hartzea eta aniztasuna: gizartean parte hartzeko bideak (gobernuz kanpoko erakundeak, elkarteak, sindikatuak...), partaidetza politikorako bideak (botoa emateko eskubidea, militantzia alderdi politikoetan...)
- Gehiengo eta gutxiengo soziokulturalak

► Tradizioa eta aldaketa soziala

- Ohiturekin lotutako ikurrak, zeinuak eta objektuak: sanjoan-loreak; eguzki-lorea, lizarra, erramua; Gabon-kantak; Santa Ageda; San Joan suak; urte-amaierako kanpaiak; erromeriak; San Blas; San Tomas...
- Aisialdia erabiltzeko modu berriak: bidaiatzea, kirola egitea, landetxeak ezagutzea, arriskuko kirolak egitea...

► Espiritualtasuna eta erlijioa

- Erlijio eta sinesmen nagusiak
- Fededunen bilguneak: elizak (parrokiak, ermitak), meskitak, sinagogak, tenpluak...

► Emigrazioa

- Emigrazio ekonomikoa, politikoa, erlijiosoa...
- Euskaldunak etorkin: Estatu Batuetan, Hego Amerikan, Parisen...

► Immigrazioa

Atzerriko kulturen presentzia eta integrazioa

- Eleaniztasuna eta Kultura-aniztasuna. Elkarbizitza.
- Integrazioarako egitasmoak (Auzoko, AISA, Laguna Bazkaltzera...)
- Eskuratu daitezkeen atzerriko kultura-produktuak, inguruaren arabera (liburuak, aldizkariak, egunkariak, musika, zinema, telebista, antzerkia...)
- Atzerriko janaria eskaintzen duten jatetxeak, inguruaren arabera.

- ▶ Festak, zeremoniak eta ospakizunak
 - Festa herrikoi nagusiak: herriko festak, Aste Nagusiak, Gabonak, ihauteriak...
 - Ospakizun eta oroitzapenak: urtebetetzea ospatzeko ohitura, urteurrenak...
 - Hileta-zeremoniak.

II. Gaitasun testualaren garapena



TESTU-GENEROAK

Idatziz nahiz ahoz osatutako komunikazio-unitatea da testua. Testu-generoa, berriz, testu estereotipatua da; hau da, erabiliaren erabiliaz finkatua eta komunikazio-egoera beretan maiztasun jakin batez errepikatzen dena. Testu-generoak hiztunek partekatzen dituzten molde ezagunak dira, eta, betiere, duten kanpo-formatuagatik eta testuinguruagatik atzemateko modukoak. Testu-genero ororen egitekoa da komunikazio-asmo jakin bati behar bezala erantzutea.

Testu-generoa, belaunaldiz belaunaldi, hiztun-komunitate baten baitan garatuz eta onduz joan izan da gizarte- edo lanbide-esparru batean, eta, informazioa modu berean antolatzeaz gain, erabiltzaileek hizkuntz baliabide berberak ere partekatzen dituzte (erregistroa, fraseologia eta abar). Konbentzionala izan ohi da testu-genero batean baliatzen diren ezagutza linguistiko eta diskurtsibo ohikoen erabilera; alegia, estandarizatua dago eta tradizioak berak finkatzen du. Ezagutza linguistiko eta diskurtsibo horiei esker bereizten ditugu, esaterako, merkataritza-gutuna eta bilera-akta, albisteak, errezetak, hitzaldiak, eztabaidak, erreportajeak, txostenak, irrati-elkarrizketak eta abar.

Curriculum honetan, mailaz maila zerrendatu dira testu-generoak, eta bi multzo nagusitansailkatu: ahozkoak, alde batetik, eta idatziak, bestetik. Eta multzo bakoitzean ulermen- eta ekoizpen-mailakoak ere zerrendatu dira. Halaber, elkarreaginezko testu-generoak bereizi dira ekoizpenekoen artean, goi-mailetan, bereziki, testuak ezaugarri jakinak izaten baititu erabiltzailea zuzeneko elkarreaginean ari bada.

Nolanahi ere, asmo komunikatiboa gero eta zabalagoa edo aberatsagoa izango da ikaslearen mailak gora egin ahala. C1 mailako ikasle batek, esaterako, B2ko ikasle batek ekoizten edo ulertzen dituen testu-generoek gain, beste batzuk ere ekoitzi edota ulertuko ditu.

FUNTZIOAK

Hizkuntzen didaktikan, hizkuntz funtzioak erabat lotuak daude hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboarekin, hizkuntzaren bitartez nahi edo behar duguna egin edo lortzearekin. Curriculum honetan, hizkuntza-erabiltzaileak izango dituen komunikazio-asmoak edo xede komunikatiboak zehaztu dira, J. Searle-ren “hizkuntz egintzen” teoria oinarri hartuta.

Bost multzo nagusitan sailkatu dira, mailaz maila, funtzioak:

- ▶ **Giza harremanak eta konplimenduzkoak:** agurtzea, mesedeak eskatzea, eskerrak ematea...
- ▶ **Informazioa ematea eta eskatzea:** jabetza adieraztea, zerbitzu baten berri galdetu edo erantzutea, datu pertsonalei buruzko informazioa eskatu eta ematea...
- ▶ **Iritziak, ezagutzak eta jarrerak adieraztea eta egiaztatzea:** zerbitzuei buruzko balioespen orokorra egitea, adostasuna/desadostasuna eskatu edo ematea, ezintasuna adieraztea...
- ▶ **Sentimenduak, hunkipenezko jarrerak/egoerak adieraztea eta egiaztatzea:** ezustea adieraztea, gustukoa den edo ez jakinaraztea...
- ▶ **Solaskidearengan eragitea:** egiteko bat proposatzea, aginduak ematea edo plan eta asmoak jakinaraztea, debekuak jartzea, erregutzea, limurtzea...

Nahiz eta funtzioak mailaz maila eman, gehigarria da mailakatze hori; alegia, mailaz goragoko erabiltzaileak mailaz behetik dagoenaren funtzio guztiak, gehi beste batzuk, baliatzen jakingo du.

Bestalde, goi-mailetan behe-mailetatik berritzen diren funtzioak, oro har, baliabide gehiago erabiliz (testualak, gramatikalak, estrategikoak eta abar) eta egoera nahiz erregistro desberdinetara egokituz gauzatuko dira.

ADIERAZPIDE TESTUALAK

Komunikazioaren eta ekintzaren ikuspegitik bideratutako ikasprozesuan, ikasleak, besteak beste, gaitasun testuala eskuratu behar du, gaitasun komunikatiboaren helburua lortuko badu eta ekintza komunikatibo zuzen eta egokiak gauzatuko baditu. Gaitasun testualak edo diskurtsiboak testuak taxutzen eta interpretatzen

estrategia egokiak erabiltzeko gaitasuna adierazten du. Alegia, testuinguru jakin batean eta egoera jakin bati erantzunez, ahozko eta idatzizko testu bat ekoitzi edota ulertzeko gaitasuna izatea, hitz, egitura eta baliabideak hautatu, ordenatu, antolatu, osatu eta sortzeko.

J.P. Bronckart-ek landutakoari jarraikiz, hiru maila bereizten dira testuaren barne-eraketan:

1. Testuaren egitura orokorra
 - plan orokorra
 - sekuentziak
 - interaktibotasuna
2. Testualizatzeko-mekanismoak (loturak)
 - konexioa: testu-antolatzaileak
 - izen-kohesioa
 - aditz-kohesioa
3. Ardura enuntziatiboaren mekanismoak
 - ahots enuntziatzaileak
 - modalizazioa

Testuaren azpiegitura dago lehen mailan; alegia, zer oinarritzko hiru erabaki hartzen ditugun ekintza komunikatiboa testu zehatz batean (ahozkoan nahiz idatzian) gauzatzeko.

- **Plan orokorra.** Lehen erabakia eduki tematikoaren antolaketari edo egiturari dagokio. Azken batean, eskeman gauzatzen da. Testuinguruaren hainbat aldagaik (generoak, gaiak berak, enuntziatzailearen xedeak...) baldintzatzen dute testuaren plan orokorra.
- **Sekuentziak.** Jakina da nekez aurkitzen dela testurik testu-mota bakar batez osatua. Horregatik, testu batean aurkitzen diren testu-zati ezberdinei sekuentzia esan ohi zaie. Testu-zati horiek ez dira soilik zati; batik bat zerbait egiten duten zati dira: kontatu, azaldu, preskribatu edo esaten dutena egin. Eta, hain zuzen ere, testu-eraketaren lehen maila honetan erabaki beharko da zein sekuentzia baliatu eta nola lotu elkarrekin eta nola ordenatu eta uztartu sekuentzia horiek.
- **Interaktibotasuna.** Testuak (testu-sekuentziak), oro har, bi multzotan bana daitezke: enuntziatzailea enuntziatuan dutenak (“lehen pertsona” idatziak) eta enuntziatzailea kanpoan dutenak (“hirugarren pertsona” idatziak).
 Testua lehen pertsonan ala hirugarren pertsonan idazteak ondorio jakin batzuk izango ditu. Izan ere, “lehen pertsona” idatziek, NIaren marka ez ezik, bestelako deiktikoena ere (lekuzkoak eta denborazkoak) izango dute. “Hirugarren pertsona” idatziek, berriz, ez dute deiktikorik izango.

Testu-eraketaren bigarren mailan, testuari berari erreparatzen zaio, testu osoaren lotura edo joskerari. Lotura horiek konexioaren, izen-kohesioaren nahiz aditz-kohesioaren bidez gauzatzen dira.

- **Konexioa.** Testu-antolatzaileek gauzatzen dute testu baten osagaien arteko lotura lineala, esaldiz esaldi, testu-zati handiak nahiz txikiak elkarrekin josiz. Lau sailetan banatu daitezke testu-antolatzaileak: 1) testu-markatzaileak (lokailuak barnean direla), 2) juntagailuak, 3) menderagailuak eta 4) zenbait adberbio-sintagma eta izen-sintagma.
- **Izen-kohesioa.** Izen-kohesioak testu bateko informazioa du gai; bereziki, nola aurkezten den informazio berria eta nola berreskuratzen den ondoren. Izen-mailako unitateek egiten dute funtzio hori.
Adibidez, normalean, *bat* edo *batzuk* mugatzaileak erabiltzen dira, euskaraz, elementu berri bat aurkezteko (gizon bat); informazio hori berreskuratzeko, aldiz, *a* artikulua baliatuko da (gizona), edo anafora (gizon hura), edo ordezkapen lexikala (laguna)...
Testu batean, kate anaforikoak osatzen dituzte gai berari dagozkion izen-kohesiozko formek.
- **Aditz-kohesioa.** Hiru funtzio betetzen ditu aditzak ohiko gramatikaren arabera: denbora markatu, aspektua markatu eta modalizazioa gauzatu.
Baina aditza ikuspegi diskurtsibo-testualaz aztertzean, funtzio horiek bestelako dimentsioa hartzen dute: *denboratasuna*, *kontrastea* eta *modalizazioa*.
Adibidez, denboratasuna eta kontrastea ongien kontaktetan nabarmentzen dira: denboratasuna, istorioaren baitako gertaerak ez ezik, gertaerak baino lehenagokoak eta ondorengoak ere bereiziz; eta kontrastea, kontaktaren lehen planoa eta bigarren planoa bereiziz.

Testu-eraketaren hirugarren mailan, azkenik, zein ahotsek eta nola gauzatzen duten enuntziazioa aztertzen da. Azken batean, dena delako hitzunak edo idazleak rol bat edo bestea har baitezake eta modu estrategikoan erabili: dioena indartzeko, osatzeko, leuntzeko eta abarretarako.

- **Ahots enuntziatzaileak.** Enuntziatzailearen ahotsa egiten da testu batean esandakoaren erantzule.
Baina, zenbaitetan, bestelako hotsak ere baliatzen ditu hizkuntz erabiltzaileak, dela berak dioena indartzeko, osatzeko, leuntzeko...; dela besteri esanaraziz berak esan nahi duenik (edo ez dagoelako seguru, edo gogorregia iruditzen zaiolako...).
- **Modalizazioa.** Enuntziatzaileak adierazpen objektibo bati ezartzen dion eraspen subjektiboa da. Enuntziatzailea ez da mugatzen zerbait esatera; aldi berean, besterik ere eransten dio esaten duenari: iruzkin bat edo balioespen bat. Horrela, *badirudi*, *uste dut*, *agian*, *omen*, *esango*

nuke, egin beharko litzateke... eta antzeko formak erabiltzen dira esandakoa leuntzeko eta gozatzeko, dela ziurtasun eza adierazteko, edo esandakoa gogorregia delako, edo esaten denaz urruntzeko...; azken batean, enuntziazioa modalizatzen.

Atal honetan zerrendatutako adierazpideak testuaren barne-eraketan bereizten diren hiru mailen arabera emanak daude. Azken finean, hizkuntza-baliabideak beste ikuspegi batetik sailkatuak eta emanak datoz, eta testua egoki eraikitzen estrategiak edo bitartekoak diren aldetik, hots, testuari kohesioa, koherentzia, aberastasuna... emateko baliabideak diren aldetik, ezin dira ekintza-ikuspegiaren eta ikuspegi komunikatiboaren esparrutik kanpo ulertu.

Aipatzekoa da, bestalde, mailan gora egin ahala, baliabideak ugariagoak direla eta, ondorioz, testuak aberatsagoak. Horrexegatik, A1eko erabiltzaileak sortzen dituen testuak, batez ere, hitz eta esaldi-mailakoak izanik, maila horretan ez da adierazpide testualik zerrendatzen.

III. Gaitasun linguistikoaren garapena

ADIERAZPIDE LINGUISTIKOAK

Euskalduntzearen helburu den gaitasun komunikatiboaren azpigaitasunetako bat da gaitasun linguistikoa. Eta adierazpide linguistikoak dira gaitasun linguistikoa erdiesteko beharrezko baliabideak; araei jarraituz osa daitezkeen eta beren esanahi konbentzionala duten adierazpen egokiak eta zuzenak sortu eta interpretatzeko gaitasuna eskuratzeko beharrezkoak.

Komunikazioaren eta ekintza-ikuspegiaren baitan aurkezten eta zehazten dira mailaz mailako adierazpide linguistikoak. Baliabide horiek, nahiz eta, laburtze aldera, guztiak jarraian eskema baten arabera aurkeztu, ez dira aipatutako eskema horren ildotik programatu behar, ezta landu behar ere, baizik eta adierazten dituzten funtzio komunikatiboen arabera. Izan ere, adierazpide linguistikoak ez dira curriculum, ezta euskalduntzearen berariazko helburu ere; helburu den gaitasun komunikatiboranzko bitarteko baizik.

Horrez gain, betiere mailaren arabera, aurreikusitako ekintza eta funtzio askok ez dute gramatika-lanik eskatzen, baizik eta, soil-soilik, ekintza horiek bete ahal izateko beharrezkoak diren hizkuntza-formez eta esaldi egokiez jabetzea. Ikasprozesuak bere dituen kontzeptualizazioak baztertu gabe, kontua ez da ikasleak hausnarketa metalinguistiko edo ikaskuntza formal batera soilik bideratzea, baizik eta baliabide horien erabilera testuinguratu eta integratu batera eramatea. Komeni da gutxienezkoa eta alibait argigarriena izatea ikasgelan baliatuko den gramatika-nomenklatura.

Mailaz mailako zehaztapenetan eskaintzen dira adierazpide linguistikoaren erreferenteak, honako eskema honi jarraituz:

1. Alderdi fonologikoa
2. Alderdi ortografikoa
3. Lexikoa eta alderdi semantikoa
4. Alderdi morfosintaktikoa
 - izen-sintagma
 - aditz-sintagma
 - sintaxia

Adierazpide linguistikoen hautaketa helburu diren ekintza komunikatiboen arabera egin behar da, forma eta esaldi errazekin hasi eta mugarik gabeko luzera eta egitura konposatuekin bukatu. Hala ere, formula konplexu batzuk goiz ikas daitezke; adibidez, hainbat ekintza komunikatibo gauzatzeko erabiltzen diren zenbait egitura finko.

IV. Gaitasun estrategikoaren garapena

► GAITASUN ESTRATEGIKOA

Ikaslearen gaitasun estrategikoaren garapena, autonomia areagotzeko bitartekotzat hartuta, erronka bilakatu da irakaslearen egunerokoan. Izan ere, etenik gabeko ikaskuntzan (*lifelong learning*), ikasestrategien eta komunikazio-estrategien garapena, bere horretan helburu ez bada ere, lagungarri da ikaslearen gainerako gaitasunak indartzeko, hobetzeko eta areagotzeko.

Hiru dimentsiotatik azter daiteke estrategia ikasgelako jardunean: psikologikotik, eragiketa konplexuak burutzeko aurreikuspenak edo planak dira estrategiak; dimentsio didaktikotik, ikasleak modu kontzientean edo ez horren kontzientean aurreikusitako jarduera-modu gisa kontsideratzen dira estrategiak, jarreretan positiboki eragiten dutenak; eta dimentsio tekniko-kulturaletik, informazioa kudeatzeko teknikak dira estrategiak, ikasleak gizarteratze-prozesuan lortu eta garatuak.

Horrela, helburu jakin bat lortzearren, bat egiten duten ekintza zehatzak dira estrategiak, berariazkoak, komunikazioa hobetzeko eta emaitza optimoa lortzeko, subjektuaren hausnarketa abiaburu hartuz indarrean jartzea eskatzen dutenak. Estrategia erabiltzeko asmoa da, hain zuzen, ezaugarriarik aipagarriena: ikasi nahia, beharra sumatzea eta aurrera egiteko erabakia hartzea.

Psikologia kognitiboak ikasleak ikasprozesuan duen rola azpimarratzen du, baita ikasleak ikasprozesuan duen inplikazioa ere. Horretarako, oso garrantzitsua da ikasleak baliabide guztiak ahalik eta eraginkorren erabiltzeko trebezia izatea.

Argi geratzen da, beraz, harreman estuan daudela, batetik, estrategiak eta horien erabilera, eta, bestetik, ikasleen arteko ezberdintasunak (hizkuntzak ikasteko gaitasuna, motibazioa, aldagai kognitiboak eta afektiboak, adina, ikas-estiloa, eta norberaren eta ikasten ari denari buruzko irudikapenak). Ondorioz, sustatu/erabili beharreko ikasestrategiak ez dira, beren horretan, egokiak edota ez-egokiak, izan edo bidera lezaketen eraginkortasun-mailaren arabera baizik, ikas-estiloak eta burutu beharreko atazen ezaugarri zehatzak kontuan hartuz.

Hein berean, ohartu behar da ikasgelan eta ikasgelatik kanpo erabiltzen diren estrategiak ez direla berberak, besteak beste, lehenengo kasuan badirelako kontuan hartzen diren zenbait aldagai bitzta errealean aurreikuspen didaktiko hori ez

duzenak; hala nola ikasegoera, gaia, ikasleen ezaugarriak, ikasle bakoitzaren beharrak eta aurrezagutzak, burutu beharreko ataza, baliabideak eta irakasleak aurreikusitako hizkuntza-ekoizpena. Beraz, galdera da nola egokitu ikasgelako jarduna estrategia eraldagarriak sustatu eta lantzeko, gerora, ikasgelaz kanpoko egoera komunikatiboetara era egokian transferigarriak izan daitezen.

Ikaslearen estrategiak, horrenbestez, ikasprozesuen eta komunikazio-prozesuen emaitzak hobetzeko ekintza-planak dira, norberak indarrean jarriz, jarduerak egokitzea, kontrolatzea eta ebaluatzea deituak, eta garapen pertsonala areagotzea bideratuak, ikasle zein hizkuntza-erabiltzaileen mailan.

► ESTRATEGIAK

Curriculum honek komunikazio-estrategiak eta ikasestrategiak bereizten ditu, ikasleak indarrean jar ditzakeenak bere baitan hartuz. Lehen multzoan zerrendatzen dira ahozkoaren eta idatziaren ulermenerako estrategiak, ahozkoaren eta idatziaren adierazpenerako estrategiak, eta fonema eta zeinuak ezagutu eta horiek ekoiztekoak. Bigarren multzoan, berriz, ikasprozesuan ikasleak baliatuko dituen ikasestrategiak; hala nola hizkuntzaren ikasprozesuaz kontzientziatzea, motibazioa eta elementu afektiboaren kontrola, zereginen plangintza, hipotesiak egitea eta abar.

1. KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIAK

1.1. AHOZKOAREN ETA IDATZIAREN ULERMENERAKO ESTRATEGIAK

- Plangintza
 - Komunikazio-testuingurua kokatzea (testuingurua, solaskideak...)
 - Norberaren ezagutzak eta esperientziak abian jartzea, zer irakurri edo entzun behar den aurreikusteko.
 - Edukiaren inguruan hipotesiak egitea, egoeratik, gaitik edo testuingurutik abiatuta.
 - Arrakastarako prestutasuna izatea, mezuak ulertzeko garaian.
- Gauzatzea
 - Lehenik eta behin, komunikazio-asmoa atzematen ahalegintzea, eta, ondoren, alderdi konkretu garrantzitsuagoei erreparatzea.
 - Hitz bakoitzean geratu beharrean, enuntziatu osoak atzematen ahalegintzea.
 - Testua aztertu eta datu konkretuak soilik aztertzea, helburua hori bada.
 - Bilatzen den informazioan giltzarri diren hitzak atzematuko arreta jartzea.
 - Testuko ideiak progresiboki aurkitzea, ondoren alderatuko diren hipotesiak eginez.
 - Testua berriro irakurri edo entzutea, ulermenean gerta daitezkeen hutsune konkretuak betetze aldera.

- Elementu linguistiko eta ez-linguistikotan (irudiak, egoera, intonazioa, keinuak, tonua eta abar) arreta jartzea, ulermena bizkortzeko.
- Lexikoa:
 - Hitz ezezagunen esanahia asmatzen ahalegintzea, gaitik, egoeratik edo beste hizkuntzen ezagutzatik abiatuta.
 - Norberaren estrategiak baliatzea: ezagutzen ez dituen hitz giltzarriak azpimarratzea, ondoren haietara bueltatzeko; hitz giltzarrien zerrendak osatzea...
 - Hiztegia erabiltzea, hitz ezezagunen esanahiaren inguruan hipotesiak egin eta gero.
- ▶ Ebaluatzea
 - Ongi ulertu den alderatzea eta egiaztatzea.
 - Ulertzen ez duena azaltzea.
 - Mezua argitzen ahalegintzea, hainbat erataraz.
 - Hitz eta esamolde berriak atxikitzea eta, horien erabilera egiaztatze aldera, erabiltzea.
 - Ulertu ez den zerbait atxikitzea, ondoren argitzeko.
 - Irakurritako edo entzundako testuak premiak zenbateraino asetzen dituen balioestea.
 - Norberaren aurrerapena balioestea, ahozkoaren eta idatziaren ulermenean.

1.2. AHOZKOAREN ETA IDATZIAREN ADIERAZPENERAKO ESTRATEGIAK

- ▶ Plangintza
 - Beste hizkuntza batean espresatzen hastearen garrantziaz jabetzea, komunikazio-beharrak asetze aldera eta hizkuntzarekin entseatzeko aldera.
 - Ikaskideekin eta euskal hiztunekin ahoz eta idatziz komunikatzeko interesa agertzea.
 - Behar dena aurreikustea, mezua arrakastaz emateko.
 - Ereduak bilatzea.
 - Elkartrukeak prestatzea.
 - Ohiko esaldiak oroimenean iltzatzea.
 - Alderdi garrantzitsuak komunikatzeko modua entseatzeko.
- ▶ Gauzatzea
 - Aurretiko ezagutza guztiak baliatzea (orokorrak, beste hizkuntza batzuen gainekoak edota euskararen gainekoak).
 - Ereduei erreparatu eta jarraitzea.
 - Oroimenean iltzatutako esaldiak baliatzea.
 - Zailtasunak estrategia sozialak baliatuz saihestea: solaskideari laguntza eta kooperazioa eskatzea, hobeto ez hitz egin edo idazteagatik barkamena eskatzea, keinu edo galdera-ikurrak baliatzea, imintzio edo marrazkien bidez seinالاتu edo adieraztea.
 - Hizkuntzan trebatuz, arriskuak hartzea: errutinak baliatzea, hitzak egokitzea,

hizkuntzaz aldatzea berau nabarmenaraziz.

- Beharrezko diren hizkuntza-baliabideei erreparatu eta horiek praktikan jartzea.
- Ebaluatzea eta zuzentzea
- Elkarreraginean, ulertua izan den kontrolatzea (keinu, erreazio edo erantzunen arabera).
 - Gaizki-ulertuak zuzentzeko laguntza eskatzea.
 - Ahozkoaren adierazpidean mezu laburrak grabatzea, ondoren, kanpokoan laguntzaz, mezuaren transmisioa egiaztatzeko eta zailtasunen jakitun izateko.
 - Adierazpen idatzian mezuak berrirakurtzea, ondoren, kanpokoan laguntzaz, idatzitakoaren egokitasuna eta egindako hutsegiteak balioesteko.
 - Testua zuzendu, berridatzi edo birgrabatzea, begiz jotako zailtasunak gainditzeko ahaleaginean.

1.3. FONEMA ETA ZEINUAZ EZAGUTU ETA HORIEK EKOIZTEKO ESTRATEGIAK

Estrategien atal hau ahozko edo idatzizko ikuspegi ekoizleari zein hartzaileari dagokie.

- Ahoskera
- Euskararekin hartu-eman ahalik eta handiena izatea, izan jakinaren gainean, izan oharkabea.
 - Soinuak eta hitzak askotan entzutea.
 - Soinu berriak atzematen trebatzea, bitarteko ezberdinak baliatuz.
 - Soinu horiek non eta nola ahoskatzen diren ulertzea.
 - Errepikatu, grabatu eta ahoskera alderatzea.
 - Abesti, jolas, grabazio eta aho-korapiloekin praktikatzea.
 - Soinuen eta talde fonikoen konbinazioak ulertu eta praktikan jartzea.
 - Ahoskera gogorarazten lagunduko duten erlazioak asmatzea.
 - Hitz eta esaldi ohiko eta baliagarriekin praktikatzea.
 - Lehenik eta behin, komunikazioa eragozten duten distortsioak zuzentzea; maiz erabiltzen diren hitzetan, bereziki.
- Intonazioa
- Arretaz entzutea, tonu eta intonazio ezberdinak bereizteko.
 - Ohiko esamoldeetan trebatzea; baita ludikoki ere.
 - Aldaera horiek gehien lagundu dezaketen eran irudikatzea.
 - Zentzumen guztiak abian jartzea, ikaskuntza hobetze aldera.
 - Norberaren hizkuntza-moduekin edota ezagun dituen beste batzuekin alderatzea.
- Ezagutzaren mekanika eta zeinu ezberdinen transkripzio grafikoa
- Kode idatziaren oinarriko trazuak bereiztea.

- Zeinuen oinarrizko trazuetan trebatzea.
- Zeinuekin jokatzea barneratu ahal izateko (marrazkiak, bingoak, lehiaketak eta abar).
- Hitz adierazgarriak transkribatzea, eta kaligrafia garbiz egiten ahalegintzea.

2. IKASPROZESUAREN ESTRATEGIAK

Hizkuntzaren ikasprozesua errazteko, eduki estrategiko hauek prozesu honen urratsei jarraikiz antolatzen dira, horietako bakoitzean *estrategia kognitibo*, *metakognitibo*, *sozial eta afektibo* aproposak txertatuz. Estrategia horietako asko ikasleak hizkuntza kontzienteki edo inkontzienteki ikasteko duen moduaren parte izan daitezke; nolana ere, komeni da praktikan jartzea, beroriez jabetzea eta nahita erabiltzea, ikaskuntza bizkortze aldera.

2.1. HIZKUNTZAREN IKASPROZESUAZ JABETZEA

Urrats hau prestaketa bat da ikaskuntza aktibo eta arduratsu baterako, eta estrategia horiek abian jartzea beti da errentagarri; hala ere, premiazkoagoa izan ohi da autonomiaren bidean, oraindik, mendeko diren ikasleen kasuan:

- Hizkuntzaren ikaskuntzan, oro har, eta, baita beste hizkuntza batzuetakoan ere, esperientzia positiboak eta negatiboak aztertu eta alderatzea.
- Aurrera egiten duten ikasleek nola ikasten duten jakiteko interesa agertzea.
- Norberak hizkuntza ikasteko moduz “uste” duena gainerakoekin alderatzea; baita ikaslearen eta irakaslearen rolaz eta hutsegiteen ondorioez ere.
- Euskara ikastea, norberaren behar eta interesak finkatzea.
- Beste hizkuntza-ikasle batzuekin alderatzea norberaren interesak.
- Jardueretako bakoitzak zertarako balio duen baloratzea, bai hasieran, bai ondoren ere, progresiboki.
- Ikasliburuen eta material didaktikoen egiturari erreparatzea.
- Norberaren ikasteko eraz ohartzen hastea, galdeketen laguntzaz.
- Euskara ikastea motibazioak duen garrantziaz hausnartzea.

Jarduteko modu hau barneratu eta abian jartzeko, komeni da ikastaro-hasieran bere tarte eskaintzea. Ondoren, gauza bera egin daiteke unitate didaktiko bakoitzean edo premia dagoenean.

2.2. MOTIBAZIOA. ELEMENTU AFEKTIBOEN KONTROLA

- Norberaren konfiantza akuilatzea, euskara ikasteko gaitasunari begira.
- Kulturen arteko ezberdintasunez ohartzea.
- Euskara ikasteko motibazioa adieraztea.
- Bideak bilatzea, hasiberria izanik ere, euskaraz benetan komunikatzeko.
- Euskara, gelan, komunikazio-tresnatzat hartzea eta, beraz, sustatzea.

- Komunikazioan arriskuak hartzea, norberak dituen baliabide guztiak abian jartzeko.
- Akatsak egiteko lotsa galtzea, ikasteko bidean beharrezko direla konturatuz.
- Hobetu nahia izatea, horretarako bitartekoak jarritz.
- Hizkuntza berri bat ikasteak bere dituen antsietatea eta frustrazio-sentsazioa kontrolatzea.
- Ondo egindako lanak ematen duen pozaz jabetzea.
- Hizkuntza-baliabide urriak izateak eragindako zailtasuna gainditzeko interesa agertzea, eskura dauden ezagutza eta estrategia komunikatiboak ahalik eta gehien baliatuz.
- Ikaskideen izaera ezberdinak errespetatu eta baloratzea, eta giro ona sortzea lankidetzeta eta talde-lana errazteko.
- Ikaskideekin euskaraz gertatzen den elkarreragina baloratzea, eragingarria baita hizkuntza erabiltzeko, trebatzeko eta ikaskuntzari begira, talde gisa, erantzunak aurkitzeko.

Komeni da ikasleek zerrenda hori eskura izatea, une bakoitzean egokiena aukeratzeko.

2.3. ZEREGINEN PLANGINTZA. HELBURUAK LORTZE ALDERA TEKNIKA ETA PROZEDURA ERAGINGARRIENAK ATZEMATEA

Ikastaroaren plangintza egitean, baita aldien edo unitateena ere, kontuan izatekoak:

- Norberaren ikaskuntza-premia eta interesak adieraztea.
- Euskara ikasiz gauzatu daitezkeen “ekintza” interesgarriak proposatzea.
- Jarduera ezberdinen helburuez jabetzea.
- Denbora kudeatzea ikaskuntza-premien gorabeheran.
- Euskara erabiltzeko abaguneak bilatu eta planifikatzea.
- Baliabideak aurkitzeko informazioa eskatzea: komikiak, telebista-programak, komunikabideak, teknologia berriak, Internet, hartu-emanak, irakurgai errazak, testu-liburuak, gramatikak eta abar.

2.4. BERRIA ATZEMANEZ: HIPOTESIAK FORMULATZEKO PROZESUA

Ikaskuntza-egoera berri bakoitzerako:

- Aldez aurreko ezagutza eta esperientziak (orokorrak, beste hizkuntza batzuetakoak eta xede-hizkuntzakoak) abian jartzea, haien gainean eraiki ahal izateko.
- Gogoeta egitea eta testuinguratzen ahalegintzea, mezuen esanahiaren inguruan, solaskide jakin baten hizkuntza-erreakzio posibleen inguruan eta zerbait transmititzeko moduaren inguruan.
- Hipotesiak egitea, beharko diren edo ikasiko diren baliabideen inguruan.
- Baliabide posibleak erlazionatu, alderatu, asmatu eta deduzitzea; betiere, norberaren ezagutza abiaburu.

2.5. BILAKETA ETA ARRETA SELEKTIBOA, AURKIKUNTZA ETA HIPOTESI-ALDERAKETA

- Ikasi beharrekoarekin zerikusia duten ahozko eta idatzizko ereduak erreparatzea.
- Eredu horietan erreparatzea, era berean, behar diren datuei.
- Hizkuntzaren funtzionamendua deskubritzea, progresiboki, puntu jakin bakoitzean.
- Aurrez planteaturiko hipotesiak alderatu, zuzendu edo egiaztatzea.
- Kontsulta-materialak erabiltzea.
- Jatorrizko hizkuntzarekin eta ezagutzen diren beste hizkuntza batzuekin alderatzea.
- Elementu berriak atzemateko norberaren ahalegina kontrolatzea.
- Azalpen edo argibideak eskatzea.

2.6. JARDUN FUNTZIONALAK ETA FORMALAK. ASIMILATzea, ATXIKITzea ETA BERRESKURATzea

Bai jardun funtzionalak, bai formaleko estrategiak aurkezten dira hemen, eta irekita uzten da zerrenda beste hauetarako: ikasleen, egoeren eta ekintzen aniztasuna. Komunikazioan bertan aktibatzen diren estrategiek ere erraztu egiten dute komunikazioa.

- Jarduera, teknika eta prozedura eragingarriak probatu eta aukeratzea, euskara erabiltzeari eta barneratzeari begira:
 - Ikaskideekin edo bakarka praktikatzea.
 - Trebetasunetako bakoitza praktikatzea.
 - Komunikazio-entseguak egitea.
 - Ikasitakoa maiz erabiltzeko, egoerak sortzea.
 - Praktikatzeko abaguneak sortu eta baliatzea.
 - Koaderno pertsonal bat edukitzea oharretarako.
 - Eskema, zerrenda edo laburpenak egitea.
 - Kopiatzea, errepikatzea, memorizatzea, marrazkiak egitea, jolasak asmatzea, azpimarratzea, koloreztatzea.
 - Lotura soinuzkoak, bisualak, kinetikoak, testualak, formalak, semantikoak sortzea.
 - Abesti, testu, poema edo esaldiak oroimenean iltzatzea.
 - Autokontrol-jarduerak gauzatzea.
 - Norberaren hutsegiteak kontrolatzea: “hutsegiteak zuzentzeko koadernoak” osatzea, gaitzaren zergatia eta modua bertan jasoz.
 - Sistematikoki gainbegiratzea.

2.7. KONTZEPTUALIZAZIOA

Deskubriturikoa definitu edo horretaz kontzientziatzeko garaia da, aurretiko eskemak berregituratzeko; era horretan, horien asimilazioa eta osteko berreskurapena erraztuz.

- Sintesi, arau, abisu, ohar eta abarren bidez, ezagutza edo lorpen berrien jakitun izatea.
- Ikasitakoa beste kasu batzuetara orokortzeko aukera baloratzea.
- Xede-hizkuntzaren beste ezagutza batzuekin alderatzea, baita jatorrizko hizkuntzakoekin eta beste hizkuntza batzuetakoekin ere.

2.8. EBALUAZIOA, AUTOEBALUAZIOA ETA GAINDITZEA

- Autoebaluazio-taulak aplikatzea, helburuen lorpen-maila, ikaskuntza-interesa, talde-laneko parte-hartzea eta norberaren interesekiko gogobetetasuna adieraziz.
- Arrakastak balioestea, baita arrakasta lortzeko lagungarri izan diren bitartekoak ere.
- Zailtasunak izendatzea, baita beroriek gainditzeko moduak ere.
- Norberaren hutsegiteak kontrolatu eta gainditzeko prozedurak finkatzea.
- Komunikazioan egindako aurrerapenak egiaztatzea.
- Norberari zein ikaskideei aplikatzeko ebaluazio-probak prestatzea.
- Gelan, irakasle eta ikaskideekin, jarduera edo ekintza bakoitzerako ebaluazio-irizpideak erabakitzea.
- Aipatutako irizpideak abiaburu, norberaren eta ikaskideen ekoizpenak ebaluatzea.
- Autozuzenketa (irakaslearen laguntzaz, ikaskideenaz edota material didaktikoa erabilia).
- Azterketa-formatuetara ohitzea eta hainbat jarduera-mota gauzatzen trebatzea.

Gaitasun estrategikoaren garapen-maila

Estrategietan trebatzeak xede du ekintza komunikatiboak gauzatzeko autonomia areagotzea, honako helburuok bere baitan hartuz:

- Ikasleen interesa suspertzea, euren ikasprozesuei buruzko ezagutza izan dezaten.
- Estrategien bidez ikasprozesuen garapenean parte hartzera motibatzea; prozesuaren ardura euren gain hartzera bultzatzea.
- Jada erabiltzen dituzten estrategiak azalratzea, dituzten baliabideei buruzko hausnarketa bideratzeko eta modu eraginkorrean indarrean jartzeko.
- Estrategia-taxonomia zabala eskaintzea, ikasleen beharretara egokitua.
- Hautatutako estrategiak praktika gidatuaren bidez balioesteko aukerak

ematea.

- Ikasgelatik kanpoko komunikazio-egoeretan balia daitezkeen estrategien praktika erraztea eta suspertzea.

Baina gaitasun estrategikoak alderdi kognitiboa (ezagutzari dagokiona), metakognitiboa (ikasleak duen gaitasuna ikasprozesua modu kontzientean bideratzeko eta zuzentzeko) eta sozio-afektiboa (motibazioa eta norberari, xede-hizkuntzari eta atazari buruzko usteak) biltzen dituenek, badira, estrategien eremua garatzeko lan-metodologia ezartzeko garaian, kontuan izateko moduko aldagaiak:

- Ikasleen arteko ezberdintasunak.
- Ama-hizkuntzatik egin dezaketen gaitasun estrategikoaren transferentzia.
- Hizkuntza-inputaren egituraketa didaktikoa.
- Estrategien ezagutza eta prozedurak uztartzea; erabilgarritasuna bermatzea.
- Alderdi metakognitiboa garatzen doan heinean, zenbait ikasle prest egon ez arren, prozesuaren ardura pixkanaka-pixkanaka beren gain hartzea.

Horrela, gaitasun estrategikoaren garapena areagotzeak errealitate ezberdinetara egokitzea eskatuko du, ikasle eta gaitasun jakinak kontuan izatea eta azaleratzen diren beharren arabera jokatzeko.

Gaitasun estrategikoaren ebaluazioa

Gaitasun estrategikoaren garapenak prozedurei buruzko ezagutzaren lanketa du oinarri (kognitiboak, metakognitiboak eta sozio-afektiboak) ikaslearen jardunean eragiteko: prozedurak hizkuntzaren erabileraren zerbitzura.

Egun, eta modu zabalean onartua da, onuragarria da estrategien transmisioa ikaslearentzat, eta horrexegatik txertatzen da osagai estrategikoa hizkuntzen ikaste- eta irakaste-prozesuaren curriculumetan. Galdera da nola ebaluatu beharko litzatekeen gaitasun komunikatiboaren osagai hori, betiere kontuan izanik estrategien erabilera ez dela beti begi-bistakoa eta ez direla maila berean erabilgarri estrategia guztiak ikasle ororentzat. Horrek eskatzen du, batetik, ikaslea bere ebaluatzaile bilakatzea (autoebaluazioa) eta ebaluazioa pertsonalizatua izatea.

Gaitasun estrategikoaren ebaluazioa burutzeko ez da proposatzen jarduera berezirik egitea, osagai hori bereziki neurtzera zuzenduak, hain zuzen. Izan ere, ikasleari proposatutako atazek eskatu beharko diote strategiak indarrean jartzea, burutu beharreko ekintza komunikatiboaren baitan. Hasieran, ataza zehatzetatik abiatuz izango da; ondoren, trebetasunetara nola transferitzen den behatuz; eta, azkenik, maila metakognitiboan eta sozio-afektiboan zer eragin izan duten balioetsiz.

Horrela, gaitasun estrategikoaren ebaluazioa deskribatzaile hauetan oinarrituz bideratuko da:

- Ikaslearen estrategia-errepertorioaren zabalera-maila.
- Burutu beharreko ekintzarekiko erabilitako estrategien egokiera-maila.
- Eraginkortasun-maila estrategien erabileran.
- Ikaslearen kontzientziazio-maila estrategien erabileran.

Ondoren, estrategien automatizazioa lortu ahalean, letorke aztertzea ikasgela barruko ekintzetatik ikasgelaz kanpoko ekintzetara horien erabilera zer mailatan lortzen den transferitzea; gaitasun estrategikoaren lanketaren helburuetako bat ikaslearen autonomia sustatzea baita.

EBALUAZIOA



Ikaste- eta irakaste-prozesuaren baitan sortzen den informazioaren bilketa sistematikoa da ebaluazioa; batetik, prozesu horren alderdi guztien deskribapen osoa eta zehatza emanez, eta, bestetik, deskribapenari buruzko epai eta irizpen arrazoitua eskainiz, betiere hobekuntzara begira.

Ikaste- eta irakaste-jarduera orotan dago presente ebaluazioa, prozesua era zabalean ebaluatzen delako, baina ez beti nahita edota modu kontzientean eginda; ebaluatzeak planifikazioa eskatzen baitu: une jakin batean zer datu jaso nahi diren halako informaziora iristeko, zer balioespen egin daitekeen jasotako informazioaren azterketatik, eta zer erabaki har daitekeen balioespen horretan oinarrituta. Alegia, erabaki behar da zer lortu nahi den (datuak → informazioa → ezagutza), nola burutuko den (estrategiak eta erremintak) eta noiz burutuko den (aitortu zaion funtzioaren arabera), ebaluazioa baliagarri izan dakien ikasleari eta irakasleari helburu dutena lortzeko.

Horrela, giltzarri bilakatzen da ebaluazioa, ikaskuntzaren eta irakaskuntzaren eremuan, jarduera hezitzailea berritzeko. Izan ere, eragin zuzena du, bai helburuetan, bai edukietan, bai metodologian eta, zer esanik ez, ebaluazioan bertan. Izaera horrek eskatuko du, emaitzez gain, diseinua, prozesuak eta testuingurua bera ere ebaluatzea.

Bi funtzio: ikaste- eta irakaste-prozesua bideratzea eta lortutako emaitzak ezagutzea

Emaitzak ezagutzeaz gain, badu ebaluazioak beste balio nagusi bat: formatiboa; jasotako informazioan oinarrituta, gerora indarrean jarriko den ikaste- eta irakaste-prozesuari orientabideak eskaintzea. Alegia *gauzatutakoa*-ren ebaluazioa, lehena, eta *gauzatuko dena*-ri begirakoa, bigarrena.

Alderdi formatibotik, ikaste- eta irakaste-prozesua erregulatzea da ebaluazioaren egiteko nagusia, moldatzea, egokitzea, doitzea. Prozesuan txertatuta, gauza behar du izan lortutako garapena eta azaleratutako zailtasunak aztertu eta unean uneko irtenbideak eskaintzeko. Horretarako, ezinbesteko bilakatuko zaio irakasleari zer gertatzen ari den ulertzea, ondoren, behar adinako tresnak eta estrategiak eskainiz, ikasleari laguntzeko ikasprozesuan arrakasta izan dezan.

Funtzio hau bideratzeko lehen urratsa ikaslearen gaitasuna azalerratztea da: jakin zein diren harrera-estrukturak (aurretiko ezagutzak eta eskarmentua, ikasketari buruzko jarrerak eta ohiturak, estrategiak eta atazei begirako irudikapenak). Ebaluazio diagnostikoa, ikaslea baitu sistemak ardatz.

Jarraipena da bigarren urratsa. Ikaslea irakaslearen eraginpean jartzen da, eskaintzen zaizkion sekuentzia didaktikoak direla medio. Lan-marko konplexuak dira, non ikasleek eta irakasleak ekintza komunikatibo baten inguruan elkarrengaitan duten ikas-helburuak lortzeko, gaitasun komunikatiboa areagotzeko, besteak beste. Horrek eskatzen du (komunikazio) arazoan aurrean ezagutzak era integratuan erabiltzen jakitea (edukiak, prozedurak, jarrerak, estrategiak...), ezagutza hori funtzionala izatea (erabilerari begirakoa) eta ikasten ikasteko eta emankortasunez aritzeko autonomia.

Ebaluazio hezitzailea, lorpenekin batera, ikasleak ikasprozesuan izan ditzakeen zailtasunak azalerratzera bideratua da, ondoren, behar adinako erregulazio-prozesuak egokitu eta egituratzeko. Ebaluazio-irizpideen jabe izanik, ebaluazioak ikaslea gaitu nahi du bere ikasprozesua auto-erregulatzen, akats eta errorean kudeaketa-moduak eskainiz (gatazka kognitiboak).

Ezaugarri hauek ditu ebaluazio formatiboak:

- ▶ Ikaslearen ikasprozesuan eta irakasleak egituratutako irakasprozesuan ardatzua.
- ▶ Ikaslea eta horren ikasprozesua hartzen ditu aztergune, norbanakoaren behar/premiei begirako prozesua baita.
- ▶ Malgutasuna nagusitzen da ikasprozesua programatzeko garaian: lekua egiten zaio kontestu eta subjektuekiko egokierari.
- ▶ Ikasketeki dagozkien estrategien eta gaitasunen azterketa hartzen du abiaburu.
- ▶ Azken emaitzaz gain, errendimendua balioestean, ikaslearen abiapuntua eta prozesua ere kontuan hartzen dira.
- ▶ Izaera sistemikoa eta prozesuala aitortzen zaio ebaluazioari, curriculumaren dimentsioa ere kontuan hartuz.
- ▶ Funtzio nagusia pedagogikoa da, eta ez da egiaztatze gintzari begirakoa (ez da horren alternatiba bat). Funtzio hezitzailea du eta, ezinbestez, interaktiboa da.

Molde hau indarrean jartzeak ekarriko du ikerketa, partaidetza, hausnarketa eta berrikuntza bultzatzea, ezin izango baitira ikaste- eta irakaste-erak eta ebaluatze moduak bereiztu. Izan ere, ebaluazio formatiboaren funtzioa ikasgelako *hemen* eta *orain*-ari, lekuari eta uneari, erantzutea baita.

Bestelakoa da ebaluazio sumatiboaren funtzioa: emaitzak ezagutzea eta ezagutaraztea, eta programen eraginkortasun-maila egiaztatzea. Ebaluazioaren alderdi soziala da; izan ere, publikoki adierazi behar du irakasleak ikasle jakin bat

ezarritako helburuetara iritsi den ala ez, maila jakin bat lortu duen ala ez, edota zer eman duen indarrean jarritako programak. Une puntuala da, gehienetan, ikasprozesu baten amaieran eta kanpoko erakunde batek aldez aurretik ezarritako mugarritan oinarritua: azpimailak, mailak, hizkuntza-eskakizunak... Nota batean edo maila batean laburbiltzen du izandako probetxua ikastaroaren amaieran.

Horrela, prozesua da, lehenik; jarduera puntuala, bigarrenik. Halere, zenbaitetan, ebaluazio formatiboa ezin zurituzko moduan erabili izan da, aitzakia gisa, emaitzen berri ez emateko edota ebaluazio sumatiboaren alternatiba gisa aurkezteko. Baina praktikan ebaluazio sumatiboaren beharra du ebaluazio formatiboak balioa edota meritua adierazteko.

Gaitasun komunikatiboaren ebaluazioa

Gaitasuna edo kompetentzia: ikasleak (ikasten ari den) jarduera bat burutzeko behar duen ahalmen-multzoa. Bi osagai ditu, ezagutza eta ezagutza hori erabiltzeko trebezia, benetako komunikazioa ekintza batean partaide denean. Ezagutzak, era kontzientean edo ez-kontzientean, hizkuntzari eta hizkuntzaren erabilerari buruz subjektuak dakienari egiten dio erreferentzia; trebeziak, berriz, komunikazio errealean ezagutza horren erabileraren egokiera-mailari. Beraz, dinamikoa da izaeraz gaitasuna, testuinguru batean gauzatzen delako eta, produktuari ez ezik, prozesuari ere badagokiolako, esanahiaren negoziazioa hartzen baitu aintzat.

Gai izatea ez da bakarrik ikasitako atazak eta gela-jarduerak gauzatzean trebea izatea. Ikuspegi zabalagoa eskatzen du: barneratutako abileziak oinarri hartuta, ekintza berriei aurre egiteko gauza izatea. Ikasitakotik haratago joatea, alegia.

Baina ez dago gaitasuna ebaluatzerik gauzatzen den ekintza komunikatiboaren baitan ez baldin bada; komunikagaitasuna baita ebaluagai, bere horretan behagai ez dena, ikasleak burutzen dituen ekintzetatik ondorioztatzea eskatuko duena. Alegia, inor zerbaitetarako gai den ala ez ebaluatzea ikasitakoa berrantolatzeke gauza den aztertzea da, eta zer neurritan egoera eta testuinguru berrietara transferitzeko gai balioestea.

Autoebaluazioa eta koebaluazioa

Autoebaluazioa eta koebaluazioa dira ebaluazio-motarik hezitzaileenak, ikasprozesuan ardatzen direlako, ikasten ikasteko gaitasuna areagotzen dutelako eta areagotu egiten duelako ikaslearen ahalmena ikasprozesuaren ardura hartzeko.

Elkarreragin zuzena eskatuko du ikasleen eta irakaslearen artean. Izan ere, ikasleari hitza ematen zaio, baina bermatu behar da ebaluatzeke irizpideak izango dituela (esplizituak eta operatiboak) eta prozedura jakinak, ebaluazioak zentzu osoa izan dezan eta ikaslearen motibazioan eragin. Zer ebaluatu, nola, zeren arabera eta arrakasta-irizpideak.

Ikasleen helburu pertsonalekin batera, ataza, sekuentzia edota unitate didaktikoen helburuekin bat egin behar dute adierazleok, irakaslearen eskutik, modu egingarrian, denboran segida batean eskainiak. Izan ere, ebaluazio formatiboaren egitekoa da ikaslea kontziente bilakatzea —maila kognitibo, metakognitibo zein sozio-afektiboan— eta, komunikazioa bitarteko hartuz, ikasten ikasteko gaitzea. Entrenamendua, ardura eta konfiantza dira ezinbesteko osagaiak, besteak beste, ebaluazioa bera ez delako helburu, pixkana-pixkanaka ikasprozesuan autonomo izatea baizik.

Curriculumaren ebaluazioa

Curriculumaren ebaluazioa heziketa-prozesua (ikasprozesua) aztertzea eta balioestea da, osotasun gisa harturik. Proiektuaren balioaren ikerketa da, praktikara ekartzarena. Horrenbestez, garapena diseinuarekiko zein neurritan datorren bat egiaztatzea baino gehiago, praktikan gerta daitezkeen aldaketak argitu beharko ditu ebaluazioak, eta, bidenabar, ahalbidetu diseinuaren eta garapenaren arteko egokierak eta aurreikusi gabeko dinamikak eta emaitzak.

Hori bideratzeko, ezinbestekoa da, batetik, adierazleak izatea eta, bestetik, horiekin neurketa-sistema bat osatzea; neurtzen dena egin, egiten baita. Informaziora heltzeko bidea eskainiko dute datuek, eta informazioa baliatuz sistemaren ezagutza sendoagoa izateko aukera izango da; alegia, curriculum-prozesuen sendotasunak eta ahuleziak, eta ondorengo aurrera begirako hobekuntza-prozesuak.

Duen izaera formatibotik, erakundearen autoebaluazioa da praktikatik gertuen dagoen eta informaziorik zehatzena eskainiko duen ebaluazio-mota: barne-ebaluazioa. Euskaltegiak euskaltegirako burututako ebaluazio-prozesua, azaleratutako behar/premiei aurre eginez, barne-prozesuen hobekuntzara zuzendua. Izan ere, euskaltegia bera da ikas-irakas prozesuen hobekuntzaren ardatz eta giltzarri, oinarritzko unitatea.

Kanpo-ebaluazioa, berriz, eraikitako sistemak ematen dituen emaitzak aztertzeaz gain, ikaste- eta irakaste-prozesuak sendotzeko euskarriak eskaintzera bideratua da. Izan ere, euskaltegietatik jasotako informazioa oinarri harturik, irakasleentzat zein euskaltegiarentzat beharrezko aldaketak eta hobekuntzak ahalbidetuko dituzten lan-ildoak eskaini beharko ditu, hobekuntza eta emankortasuna oinarri hartuz, ikaste- eta irakaste-sistemaren kalitatea areagotzeko.

Horrela, kanpo-ebaluazioak hobekuntza-prozesuetan eragin ahal izateko, lehentasunezko baldintza bilakatzen da barne-ebaluazioa; barneko prozesuen ezagutzak eta horren gaineko hausnarketak areagotu egiten baitute informazioaren kalitatea. Horrexegatik, nekez lortuko da kanpo-ebaluazioko txosten batek euskaltegiaren prozesuetan eragitea, euskaltegiak autoebaluatzen tresnarik ez bada eta horretarako hausnarketa-dinamikarik eraikitzen ez bada.

Ikuspegi honetatik, kanpo- zein barne-ebaluazioak ez dira uztartu ezineko aukerak, beharrezko eta osagarri diren prozesuak baizik.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA -ESKALAK

Euskalduntzearen ebaluagaia komunikagaitasuna da, baina gaitasun hori, bere horretan, behagai ez denez, ekintza komunikatiboaren gauzatze-maila aztertzen eta balioesten da. Azken finean, ikaslearen gaitasun soziolinguistiko, testual, linguistiko eta estrategikoaren maila baloratzen eta neurtzen da. Horretarako, ikasleak ulermen-eta ekoizpen-ekintzak (elkarreraginezkoak barne) burutu beharko ditu, eta horiek ebaluazio-irizpide batzuen arabera ebaluatuko dira.

Ebaluazio-irizpideak trebetasunez trebetasun (entzumena, mintzamina, irakurmena eta idazmena), eta irizpidez irizpide (egokitasuna, koherentzia, kohesioa, jarioetasuna, aberastasuna eta zuzentasuna) antolatu dira, letik 3rako eta behetik gorako balioespen-eskala eskainiz. Maila bat gainditzeko balioespen-escalako tarteko deskripzioa (2) izango da atalase-maila edo gutxieneko gaitasun-maila.

Sailkapen horren helburua, beraz, ebaluaziorako ahalik eta erreferente egokiena izatea da; betiere, errealitatea eta curriculuma garatzen den gizarte-testuingurua kontuan izanda. Horri esker erabaki ahal izango da erabiltzaileari edo azterketariari zer balioespen dagokion.

ILDO METODOLOGIKOAK

Ikaslearengan eta ikasprozesuan ardaztutako curriculum batean metodologia osotasun bakarraren zati bat besterik ez da, ikuspegi, helburu, eduki eta ebaluazioarekin batera.

Curriculum hau axioma honetan oinarritzen da: “hitz egitea hitzen bidez gauzak egitea da, eta eginez ikasten da egiten”. EGIN da axioma horretan hitz gakoa. Egitea da helburua. Hona helburu nagusia, beraz: ikasleak zer bait egitera heldu behar du ikasprozesua amaitzean.

Eta axioma eta helburu horren eragile nagusia, berriz, ekintza komunikatiboa da. Izan ere, gaitasun komunikatiboa ekintza komunikatibotan gauzatzen da.

Ildo metodologiko nagusiak:

1. Curriculum honek bi ikuspegi nagusi ditu: ikuspegi komunikatiboa eta ekintza-ikuspegia. Beraz, ikasprozesua xede-hizkuntzaren erabileran oinarrituko da, betiere, ikasleentzat beharrezko eta interesgarriak diren ekintzen erabileran. Ikasprozesuan
 - ikasestrategiak eta estrategia komunikatiboak baliatuko ditu ikasleak;
 - lau hizkuntz trebetasunen garapena integratuko da;
 - ekintzak testuinguru jakin batean landuko dira;
 - ikasleak ekintza gauzatzeko beharrezko dituen baliabide linguistikoak eskuratzea bideratuko da ikasprozesua.
2. Ahozkoaren zein idatziaren ulermen- eta ekoizpen-ekintzak xede edo funtzio jakin batekin gauzatu dira.
3. Baliabide linguistikoak gauzatu beharreko ekintza komunikatiboaren baitan eskuratuko dira.
4. Ikasgelako dinamikak ikasleen zein irakasle-ikasleen arteko elkarreragina bultzatuko du, eta ezinbestekoa izango da harreman-sarea, lan-giroa, lankidetzeta, enpatia, begirunea eta interesa sortzea.
5. Ikaslearen interes eta behar komunikatiboetatik abiatuz, ikaslea, batez ere, bide induktibotik jardutera bideratuko da. Horretarako, garrantzitsua

da egoera komunikatiboa sortzea, xede-hizkuntzan zer baliabide diren ezinbesteko zehaztea, baliabide horiek zenbait testutan aurkitzera bideratzea eta horiek landuz behar komunikatiboa asetzea.

6. Lan-modu honek ikasten ikastea ahalbideratzen du. Irakasleak ikasestrategia eta komunikazio-estrategiak erabiltzera etengabe bultzatuko ditu ikasleak, komunikatzera animatuz, bideratuz eta baliabideak eskainiz.
7. Ikas-jarduera ekintza komunikatibotan antolatzea lehenetsiko da. Aukeratutako ekintza izango da abiapuntu eta helburu, unitate edo sekuentzia didaktikoa antolatzeko, eta horren baitan aukeratuko dira beharrezko diren baliabide linguistiko, testual, estrategiko eta abar. Honako sekuentzia hau antola daiteke:
 - Ekintza komunikatiboaren aukera eta motibazio-aldia.
 - Azken ekintzaren zehaztapena.
 - Helburuak definitzea (zer jakin eta ikasi behar da ekintza gauzatu ahal izateko?).
 - Edukiak zehaztea: soziolinguistikoak, testualak, linguistikoak eta estrategikoak.
 - Eduki soziokulturalak erabakitzea (gaia, alderdi kulturala).
 - Ebaluazioa eta autoebaluazioa.
 - Materiala: ahozko testuak eta testu idatziak; ikasliburuak; material digitala...
 - Iraupena aurreikustea.
8. Curriculum honetatik erator daitezkeen ikasliburuak eta materialak zabalkunde-elementu gisa hartu behar dira, eta izan dezaketen edozein izaera preskribatzailetatik urrunduz, curriculum honetan ezarritako irizpideetara eta ikastaldera egokituko dira.
9. Ebaluazioa curriculumaren helburu, eduki eta ikuspegiarekin bat etorriko da. Irakasleak, autoebaluazioa bultzatzeaz gain, informazioa etengabe jasoko du ikastaroan zehar, eta horren berri emango dio ikasleari, horrek bere aurrerabidea balioetsi eta aztertu dezan.
10. Maila baten amaieran ikasleak bere gaitasun komunikatiboa egiaztatu ahalko badu ere, horrek ez du baldintzatuko ikaslearen motibazioa. Ikasprozesuaren helburua xede-hizkuntzan komunikagaitasuna areagotzea izango da.

HELDUEN EUSKALDUNTZEA MAILAZ MAILA



A1 maila

A2 maila

B1 maila

B2 maila

C1 maila

C2 maila



HASIERAKO
ERABILTZAILEA

HELBURUAK

Ekintza komunikatiboetan zerrendatzen diren helburuak mailako gaitasun komunikatiboaren adierazpen dira (*ikus 30. orrialdea*).

ENTZUMENA

Eguneroko harremanetan, gai izango da ahozko testu laburren gaia eta komunikazio-asmoa identifikatzeko, aurrez aurreko elkarrizketetan hitzak eta esapideak ulertzeko nahiz edukiari buruzko hipotesiak egiteko, baldin eta solaskideak argi eta oso mantso hitz egiten badio erregistro estandarrean. Era berean, berehalako premiei lotutako galderak, argibideak eta oharrak ulertuko ditu, betiere etenaldi, keinu eta irudiz laguntzen badira.

Maila honen amaieran, ikaslea gai izango da

- ▶ lagunartean nahiz ekitaldi formaletan erabiltzen diren ohiko formulak ulertzeko: agurtzea, aurkeztea, arreta eskatzea, eskerrak ematea, barkamena eskatzea eta zoriontzea.
- ▶ lagunekin edo senideekin dituen solasaldi sinpleetan hainbat hitz eta oinarrizko esapide ulertzeko: egunak, egunaren atalak, hilabeteak, koloreak, zenbakiak, prezioak, datak, orduak, denbora-erreferentziak eta abar.
- ▶ solaskideak argi eta mantso emandako argibide errazei eta laburrei jarraitzeko; adibidez, oinez edota garraioa erabiliz leku batetik bestera joateko.
- ▶ lagunek edo senideek, helburua zerbait eskatzea, proposatzea edo agintzea denean, ematen dizkieten instrukzio errazak ulertzeko.
- ▶ lagun edo hurbilekoen kontakizun sinpleetan oinarrizko ideia batzuk identifikatzeko: gaia, tokia, pertsonaiak...
- ▶ ohiko zerbitzuak eskatzean informazio nagusia ulertzeko; esaterako, erosketak egitean, ikastaro baterako izena ematean, hotel batean izena ematean eta abarretan.
- ▶ komunikabideetako iragarki eta mezu sinpleen gaia identifikatzeko.
- ▶ lagunek edota senideek adostasuna eskatuz egiten dizkieten aisialdirako gonbidapen eta proposamenak ulertzeko.
- ▶ lagunek edo hurbilekoek, hitz edota esaldi sinpleak erabiliz, eguneroko kontuen inguruan egindako mesede-eskaera bat ulertzeko.
- ▶ lagunek edo senideek, esapide sinpleak erabiliz eta adostasuna edo desadostasuna eskatuz, eguneroko gai arruntei buruz esaten diotena ulertzeko.
- ▶ lagunek edo senideek, esaldi sinpleak erabiliz, norbaiten edo zerbaiten inguruan duen interesaz, gustuaz edo iritziaz galdetzen diotena ulertzeko.
- ▶ ezagunek zerbaiti edo norbaiti buruz egiten dizkieten deskribapen sinpleak ulertzeko: norbait nolakoa den, zerbait non dagoen...
- ▶ (...)

MINTZAMENA

Aurrez aurreko elkarreraginean gai izango da eguneroko bere oinarrizko behar komunikatiboei erantzuteko, parte-hartze laburrak baina egokiak eta ulergarriak egiteko. Horretarako, hitzak eta oinarrizko esapideak baliatuko ditu, baita etenak, keinuak eta birformulazioak ere.

Maila honen amaieran, ikaslea gai izango da

- ▶ lagunartean nahiz senideen artean bere buruaren eta bestearen aurkezpena egiteko: izena, herria, adina, helbidea, telefonoa, lanbidea...
- ▶ ezagunekin topo egitean esaldi sinpleak erabiliz konplimenduzko solasaldietan parte hartzeko, norbait agurtuz, eskerrak emanez, norbait nola dagoen galdetuz, zorionduz, barkamena eskatuz/emanez eta abar.
- ▶ ezagunekin dituen konplimenduzko solasaldietan zer eguraldi egiten duen esateko edo iragarpenaz galdetzeko.
- ▶ senideei edota lagunei agindu errazak emateko, helburua izanik eskatzea, agintzea...
- ▶ ezagunen artean, informazioa emateko asmoz, pertsonen eta gauzen deskribapen erraz eta sinpleak egiteko: zerbait edo norbait nolakoa den, non dagoen...
- ▶ lagunartean eta eguneroko harremanetan, jakin-mina asetzeko asmoz, galdera errazak egiteko eta erantzuteko: halako ezagutzen ote duen, non bizi den, nora doan, halakoa norena den eta abar.
- ▶ lagunei edo senideei ospakizunetarako edo aisialdirako gonbidapenak eta proposamenak egiteko eta, esapide sinpleen bidez, beroriei labor erantzuteko, proposatutakoa onartuz edo baztertuz.
- ▶ lagun, senide nahiz ikaskideekin aisialdirako plana adostean, hitzordua finkatzeko edo adostutakoa bertan behera uzteko.
- ▶ lagunartean, hitz edo esapide sinpleak baliatuz, zerbaitekin ados dagoela edo ez esateko, azalpen eta xehetasunetan sartu gabe.
- ▶ lagunei edo senideei, norbaiti edo zerbaiti buruz duen interesa, gustua edo iritzia galdetzeko eta erantzuteko.
- ▶ senideei nahiz lagunei, xedea norberaren premiak asetzea denean, eguneroko bizitzako kontuekin zerikusia duten mesedeak eta gauzak eskatzeko eta eskaintzeko.
- ▶ saltoki edo leku publikoetan, eguneroko erosketetan, eskaerak egitean eta abarretan, zerbitzu errazak eskatzeko eta galdetzen zaionari erantzuteko, keinuz lagunduta edo eskuz adierazita.
- ▶ lagun edo senideek egindako kontakizunari erantzunez, ezustea, pena edo poza adierazteko, esaldi sinple eta bakunak erabiliz.
- ▶ ezagunen artean esapide jakinak erabiltzeko, solaskideari ulertu ez diola adierazteko.
- ▶ (...)

IRAKURMENA ●

Gai izango da eguneroko harremanetan sarri erabiltzen diren testu laburretako gaia eta komunikazio-asmoa identifikatzeko, hitz eta esapide sinpleak ulertzeko eta aurreikus daitekeen informazio zehatza antzemateko; horretarako, testuen (mezu labur, ohar sinple, zerrenda eta kartelen) testuingurua eta irudiak baliatuko ditu.

Maila honen amaieran, ikaslea gai izango da

- ▶ lagunek edo senideek asmoen berri ematean edo zerbait jakinaraztean, hitz eta esapide laburrak erabiliz idatzitako ohar labur eta errazak ulertzeko: postalak, mezu elektronikoak (SMS mezuak, posta elektronikoak...).
- ▶ tokia, data eta ordua zehaztuz, lagunek egiten dizkioten gonbidapen-oharrak ulertzeko.
- ▶ lagunek emandako argibide laburrak ulertzeko, baldin eta irudiz lagunduta eta argi eskaintzen badizkiote: leku batetik bestera nola joan, ariketa fisikoa nola egin eta abar.
- ▶ eskolan, kiroldegian, ikastaro batean edota udaletxean, fitxa edo inprimakiak betetzean, oinarrizko jarraibideak ulertzeko, baita bere buruari buruzko datu pertsonalak ematean galde-sorta bat ulertzeko ere.
- ▶ eguneroko bizitzako zenbait egoeratan (kutzazainetako eta aparkalekuetako eragiketak, programa informatikoen agindu nagusiak...) oinarrizko hitz eta esaldi sinplez osatutako jarraibide errazak ulertzeko.
- ▶ testu erraz eta laburretan, eskuliburu edo publizitate-orrietan, informazio adierazgarria ulertzeko.
- ▶ eguneroko eginkizunetarako erabil daitezkeen zerrendetatik informazioa eskuratzeko, asmo bat burutu edo kontsulta bat egitearren: telefono-gidak, eginkizunen zerrenda, hiztegiak...
- ▶ herritarrei informazioa jakinarazten zaienean, leku publikoetan erabiltzen diren hitz eta esapideak ulertzeko: “ez erre”, “salgai”, “zaborra hemen”, “aparkalekua”, “irteera”...
- ▶ (...)

IDAZMENA

Gai izango da mezu eta testu laburrak idazteko (zerrendak, inprimakiak, ohar laburrak, postalak), testuingurura egokituz eta erduei oso hurbiletik jarraituz; baliabideen kontrola oso mugatua izango du.

Maila honen amaieran, ikaslea gai izango da

- ▶ norberarentzat edo lankide, senide nahiz lagunentzat zerrendak osatzeko: erosketak egiteko, eginkizunak sailkatzeko, zerbait gogorarazteko eta abar.
- ▶ lagunei edo senideei instrukzio laburrak emateko: “erosi ogia”, “berotu bazkaria mikrouhin-labean”...
- ▶ lagunei edo senideei ohar eta mezu labur eta errazak idazteko, asmoen berri eman edota zerbait eginarazteko.
- ▶ lagunei edota senideei, hitz edo esaldi sinpleak erabiliz, mezu bat idazteko horiek eskatutako informazio bati erantzunez: norbait nolakoa den, tokiren bat non dagoen eta abar.
- ▶ lagun edota ezagunen artean proposamen edo gonbidapen sinpleak egiteko, edo horiei hitz edo esapide laburren bidez erantzuteko (posta elektronikoez, SMS mezuen bidez, ohar laburren bidez eta abar).
- ▶ zerbait egin edo lortzeko asmoz, hitz eta ohiko esapideen bitartez, lagunei edo senideei laguntza edo mesedea idatziz eskatzeko, mezu elektronikoetan, txatetan, oharretan eta abar.
- ▶ postaletan, ohar laburretan, SMS mezuetan, zorion-txarteletan edo posta elektronikoetan lagunak eta familiakoak agurtzeko, eskerrak edo zorionak emateko edota barkamena eskatzeko, esapide soilen bidez eta eskainitako erduei jarraituz.
- ▶ postaletan, posta elektronikoetan, txat mezuetan eta oharretan bere buruaz eta besteez oinarritzko informazioa (bizitokia, ohiturak, zaletasunak eta abar) eskatzeko eta emateko ezagunei eta ezezagunei.
- ▶ ezagun edo ezezagunei ekitaldi, bilera eta abarri buruzko oinarritzko informazioa eskatzeko eta emateko: data, ordutegia, tokia, prezioa...
- ▶ toki publikoetan informazioa emateko asmoz, bere datu pertsonalak galde-sorta edo inprimaki batean jartzeko: izena, herria, adina, helbidea, lanbidea, zaletasunak...
- ▶ (...)

EDUKIAK

I. Gaitasun soziolinguistikoaren garapena

- ▶ Testuinguruaren ezaugarriak
- ▶ Gaiak
- ▶ Kultura-erreferentziak

II. Gaitasun testualaren garapena

- ▶ Testu-generoak
- ▶ Funtzioak
- ▶ Adierazpide testualak

III. Gaitasun linguistikoaren garapena

- ▶ Adierazpide linguistikoak

IV. Gaitasun estrategikoaren garapena

- ▶ Gaitasun estrategikoa

I. Gaitasun soziolinguistikoaren garapena

TESTUINGURUAREN EZAUGARRIAK

Ekintza komunikatibo guztiak testuinguru jakinetan gauzatzen dira; maila bakoitzean ezaugarri zehatzak dituzten testuinguruetan, alegia (*ikus 36. orrialdea*).

ENUNTZIATZAILEA- ENUNTZIATARIOA	XEDEA	ERABILERA- ESPARRUA
<p>Solaskidearen rolak:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Senide-senide – Lagun-lagun <p>Solaskideen arteko harremana:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Berdinen artekoa edo gertutasunezkoa 	<p>Giza harremanak edo konplimenduak:</p> <ul style="list-style-type: none"> – agurtzea – aurkeztea – mesedeak eskatzea – eskerrak ematea – ... <p>Informazioa ematea/eskatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – datu pertsonalei buruzko informazioa eskatzea eta ematea – leku, ordutegi, data, prezio, neurri, kopuruei buruz galdetzea eta erantzutea – ... <p>Iritziak, ezagutzak eta jarrerak adieraztea eta egiaztatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – zerbait baieztatzea edo ezeztatzea – adostasuna adieraztea – ... <p>Sentimenduak, hunkipenezko jarrerak/egoerak adieraztea eta egiaztatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – proposatutakoa onartzea/ez onartzea – poza edo tristura adieraztea – ... <p>Solaskidearengan eragitea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – agindu laburrak ematea – gonbidapenak egitea – ... <p style="text-align: center;">Ikus <i>Funtzioak</i> atala</p>	<p>Pertsonen arteko harremanean eta solaskideen hurbileko munduan:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Senitartekoa – Lagunartekoa

▶ GAIAK

Mailako ekintza komunikatiboak gauzatzeko, gai-zerrenda bat proposatzen da jarraian, irekia eta ikasleen premietara egokituko dena (*ikus 37. orrialdea*).

- | | |
|--|--|
| <p>▶ DATU PERTSONALAK: Izena, helbidea, adina, sexua, egoera zibila, lanbidea, jaioteguna...</p> | <p>▶ HERRIA ETA HIRIA: Herria, hiria, kaleak, eskualdea, eraikuntzak, zerbitzuak...</p> |
| <p>▶ NORBERAREN EZAUGARRIAK: Familia, gustuak, izaera, itxura...</p> | <p>▶ EROSKETAK: Kopuruak, prezioak, gustuak, dendak, opariak...</p> |
| <p>▶ ETXEA: Etxebizitza-motak, gelak, altzariak, etxeko tresnak eta apaingarriak, etxeko animaliak...</p> | <p>▶ ELIKADURA: Janaria, edariak, ordutegiak, menuak...</p> |
| <p>▶ OHIKO JARDUERAK: Eguneroko eginkizunak, etxeko lanak...</p> | <p>▶ ZERBITZUAK: Informazioguneak...</p> |
| <p>▶ AISIALDIA: Kirola, jolasa / jokoak, musika, zaletasunak, bidaiak...</p> | <p>▶ INGURUMENA: Eguraldia...</p> |
| <p>▶ LEKUA ETA NORABIDEA: Ibilbideak, norabideak zehaztea, tokiak deskribatzea...</p> | <p>▶ EUSKAL HERRIA: Lurraldeak, eskualdeak, hiriak...</p> |
| <p>▶ GIZA HARREMANAK ETA HARREMAN SOZIALAK: Lagunak, senideak, auzokideak...</p> | <p>▶ GARRAIOA: Bizikleta, autobusa, tren, autoa, hegazkina, geltokiak, aireportuak...</p> |
| <p>▶ GORPUTZA ETA OSASUNA: Gorputz-atalak, zentzumenak, gaixotasuna, higiena, egoera fisikoa...</p> | <p>▶ LANA: Lanbideak, lan-tresnak...</p> |
| <p>▶ HEZKUNTZA: Ikasketak, ikasgela, ikastetxea, irakaslea, ikaslea, gurasoak...</p> | <p>▶ OSTALARITZA: Tabernak, jatetxeak...</p> |
| | <p>▶ OSPAKIZUNAK: Festak, gonbidapenak, urtebetetzeak...</p> |
| | <p>▶ KULTURA: Zinema, liburuak, musika...</p> |
| | <p>▶ HEDABIDEAK: Egunkariak, irrati eta telebistak, komunikabide digitalak...</p> |

KULTURA-ERREFERENTZIAK

Hizkuntzaren barneratze-prozesuan ezinbestekoa da, alderdi linguistikoez gain, euskal gizartearen izaera historiko eta sozialaren berri ematea, ikaslea gure errealitatean eta mundu-ikuskeran kokatuz (*ikus 38. orrialdea*).

II. Gaitasun testualaren garapena

TESTU-GENEROAK

Estandarizatuta eta tradizioz finkatuta dagoen moldean antolatzen du informazioa erabiltzaileak, gizarte- edo lanbide-esparru batean (*ikus 48. orrialdea*).

AHOZKOAK

Ulermena:

- ▶ Aurrez aurrekoak:
 - Hitz eta esapide errazak: zenbakiak, prezioak, denbora-erreferentziak...
 - Jarraibideak: toki batetik bestera nola joan, gauza bat non dagoen...
 - Mezuak eta azalpen labur-laburrak zerbitzuetan
- ▶ Grabatuak eta komunikabideetatik jasotakoak:
 - Aurreikusita dauden komunikabideetako ohar eta iragarkiak
 - Testuinguru jakinetan aurreikusita dauden erantzungailuetako mezu laburrak
 - Irudi bidezko iragarkiak (ikus-entzunezkoak)

Ekoizpena elkarreraginean:

- Pertsonen aurkezpen laburra: nor den, non bizi den, lantokia, helbidea, telefonoa, gustuak...
- Agindu sinple eta laburrak
- Adeitasunezko hitz eta esapide errazak: aurkezteko, agurtzeko, zoriontzeko...
- Galde-erantzun errazak: non bizi den, nora doan, zer gustatzen zaion...
- ...

IDATZIAK

Ulermena:

- Leku publikoetako ohiko seinaleak, kartelak...
- Oinarrizko jarraibideak, inprimakiak edota fitxa bat betetzean, galde-sorta bati erantzutean...
- Publizitate- eta informazio-orriak...
- Ohar eta mezu pertsonal laburrak
- Argibide edota oinarri-oinarrizko arau erraz eta laburrak
- Bidaia-txartelak, sarrerak, fakturak, etiketak, katalogoak...
- Pertsonen deskribapen sinpleak
- Formulario sinpleak

Ekoizpena:

- Inprimakiak, txantiloak (bete)
- Zerrendak
- Oharrak

Ekoizpena elkarreraginean:

- Mezu laburrak (posta elektronikoa, SMS mezuak, postalak, oharrak)

FUNTZIOAK

Erabiltzaileak hizkuntza zerbait komunikatzeko erabiltzen du, zerbait egin edo lortzeko. Ekintza komunikatibo guztietan dago xede bat (*ikus 49. orrialdea*).

Hauek dira maila honen amaieran ikasleak bete ahal izango dituen funtzioak:

Giza harremanak edo konplimenduak

- Agurtzea.
- Nork bere burua aurkeztea.
- Mesedeak eskatzea (*mesedez, faborez...*).
- Zoriontzea.
- Barkamena eskatzea.
- Eskerrak ematea.
- ...

Informazioa ematea eta eskatzea

- Datu pertsonalei buruzko informazioa eskatzea eta ematea.
- Leku, ordutegi, data, prezio, neurri, kopuruei buruz galdetu eta erantzutea.
- Zerbait dagoen edo baden galdetu eta erantzutea.
- Pertsonak, lekuak eta gauzak deskribatzea: zerbait nolakoa den, non dagoen...
- Jabetza adieraztea.
- ...

Iritziak, ezagutzak eta jarrerak adieraztea eta egiaztatzea

- Zerbait baieztatu edo ezeztatzea.
- Adostasuna adieraztea.
- Ezintasuna adieraztea.
- ...

Sentimenduak, hunkipenezko jarrerak/egoerak adieraztea eta egiaztatzea

- Ezustea adieraztea.
- Proposatutakoa onartzea / ez onartzea.
- Poza edo tristura adieraztea.
- ...

Solaskidearengan eragitea

- Laguntza, gauzak eskatzea.
- Agindu laburrak ematea.
- Gonbidapena egitea.
- Zerbait debekatzea.
- ...

ADIERAZPIDE TESTUALAK

Ekintza komunikatiboak egoki gauzatzeko, erabiltzaileak testuak ongi taxutzen eta interpretatzen jakin behar du, baliabide egokien bidez (*ikus 49. orrialdea*).

Maila honetan ez da deskriptorerik ematen.

III. Gaitasun linguistikoaren garapena

ADIERAZPIDE LINGUISTIKOAK

Ekintza komunikatiboa egoki gauzatzeko, adierazpide linguistikoak beharrezko baliabideak dira (*ikus 53. orrialdea*).

1.- Alderdi fonologikoa

- ▶ Euskararen bokalak eta kontsonanteak
- ▶ Euskararen fonema txistukariak: /tz/, /tx/, /ts/, /z/, /s/, /x/
- ▶ Diptongoak: /ai/ aizu, /ei/ zein, /oi/ goi, /au/ auzo, /eu/ euri
- ▶ Hiatoak
- ▶ Aldaketa fonetikoak:
 - Bustidura
 - Gortze-prozesua: bdg/ ptk
 - Intonazioa: izen-abizenak, leku-izenak... Perpaus bakunaren intonazioa

2.- Alderdi ortografikoa

- ▶ **Ortografia**
 - Euskararen alfabetoa
 - -r-ren aurrean bokala mailegu zaharretan: *arropa, errege, erloju...*
 - *nb* eta *np* grafiak
 - Absolutuan deklinatutako orduak nola idatzi
 - Euskararen fonema txistukariak: /tz/, /tx/, /ts/, /z/, /s/, /x/
 - Maileguen egokitzapena: *funtzionario, erresistentzia...*
- ▶ **Puntuazioa**
 - > Galde- zein harridura-ikurra
 - Hainbat esapidetan: *Hau hotza! Zer berri?*
 - > Bi puntuak
 - Zerrendatzeko: *Erosketak: ogia, esnea...*
 - Mezuen abiaburuan: *Arreba maitea:*
 - Ordua emateko: *07:15ean dator autobusa.*
 - > Puntua
 - Esaldi eta esapide sinpleen bukaeran: *Aitor naiz.*
 - > Etenpuntuak
 - Esaldia bukatu gabe utzi dela adierazteko: *Erosketak: ogia, esnea...*
 - > Koma
 - Elkarren kideko zatiak zerrendatzeko: *Ogia, esnea, dilistak...*
 - Datak: *Donostian, 2003ko uztailaren 2an.*
 - Baldintzazko perpausen atzetik: *Iristen bada, joango gara.*

3.- Alderdi semantikoa eta lexikoa

- ▶ Lantzen diren funtzioetan maiz erabiltzen diren adierazleak
- ▶ Lantzen diren egoeretako ohiko lexikoa
- ▶ Sarri erabiltzen diren sinonimo eta antonimoak

4.- Alderdi morfosintaktikoa

4.1.- Izen-sintagma

▶ Deklinabidea

Mugatu singularra, mugatu plurala eta mugagabea

Absolutua	NOR
Ergatiboa	NORK
Partitiboa	ZERIK
Datiboa	NORI
Inesiboa	NON
Genitibo edutezkoa	NOREN
Adlatiboa	NORA
Ablatiboa	NONDIK
Soziatiboa	NOREKIN
Genitibo leku-denborazkoa	NONGO
Adlatibo bukatuzkoa	NORAINO
Destinatiboa	NORENTZAT
Instrumentala	ZERTAZ

▶ Izena

- Arruntak eta bereziak
- Bizidunak eta bizigabeak

▶ Galdetzaileak

- Nor (nork, nori, noren, norekin)
- Zer (zerk, zer ordutan, zer ordutatik zer ordutara)
- Non (nongoa, nora, nondik)
- Noiz
- Nola
- Zenbat (zenbatek)

▶ Izenordainak

- Pertsona-izenordainak: ni, zu, gu...
- Erakusleak: hau, hori, hura, hauek, horiek, haiek
- Izenordain mugagabeak:
 - Zerbait, norbait, zerbaitek, norbaitek, zerbaiti, norbaiti
 - Inor ez, ezer ez, inork ez

▶ **Izenlagunak:**

- Noren eta Nongo

▶ **Determinatzaileak**> **Mugatzaileak**• **Artikuluak:**

- Zehaztuak (-a/ -ak)
- Zehaztugabeak (bat/ batzuk)

- Erakusleak: hau, hori, hura, hauek, horiek, haiek

> **Zenbatzaileak**

- Zehaztuak
 - Zenbakiak: (0-100)
 - Ordinalak: (lehena, bigarrena...)
 - Kopuru-adierazpenak: kilo bat, lau ordu...
 - Orokorrak: oso, guztia, dena
- Zehaztugabeak: asko, gutxi, batzuk, nahiko(a), pixka bat

▶ **Adjektiboa**> **Motak**

- Bakunak: eder, polit, itsusi...
- Graduatzailak: oso, nahiko...
- Errepikapenaren bidezkoa: txiki-txikia...

▶ **Adberbioak**

- Leku-adberbioak: hemen, hor, han...
- Denbora-adberbioak: gaur, atzo, bihar, etzi, orain, gero, lehen...
- Modu-adberbioak: gaizki txarto, ondo, poliki...
- Graduatzailak: batere, ia-ia, guztiz, izugarri, ikaragarri

Postposizioen bidez osatuak:

- Nor edo partitiboa eskatzen dutenak: -rik gabe
- Noren eskatzen dutenak: -(r)en gainean, azpian, aurrean, atzean, barruan, kanpoan...

▶ **Hitz-sortzaileak**> **Elkarketa**

- Seme-alabak, aitona-amonak, patata-tortilla...

4.2. - Aditza▶ **Ezaugarriak**> **Aditz iragangaitzak eta iragankorrak**

- *Jon sartu da*
- *Jonek sartu du autoa*

> **Jokatuak eta jokatugabeak**

- Etorri naiz, egin dut...
- Etortzea, egiteko

> **Aditz perifrastikoak**

- Joango naiz, etorri da, eramango du

> **Aditz trinkoak**

- Dago, dauka

▶ **Aspektua**

Orainaldi burutua:	joan naiz
Orainaldi ez burutua:	joaten naiz
Gertakizuna:	joango naiz
Puntuakaria:	ikasten ari naiz, dago, dauka
Aditz-lokuzioen aspektua:	bizi izan, ari izan, behar izan, balio izan, nahi izan, ahal izan eta ezin izan

▶ **Modua**

> **Indikatiboko orainaldia**

NOR:	izan, egon
NOR-NORK:	ukan, eduki
NOR-NORI:	zait, zaizkit... (3. pertsona)
ZER-NORI-NORK:	diot, didazu...

> **Indikatiboko lehenaldia**

NOR:	izan
NOR-NORK:	ukan, eduki

> **Ahalera**

- Ahal izan
- Ezin izan

> **Agintera**

- Partizipio burutua: *Etorri! Segi!*
- NOR: izan (*zaitez, zaitzte*)
- NOR-NORK: ukan (*ezazu, itzazu*)

> **Bestelako erabilerak**

- Eguraldia: *euria / elurra... ari du. Haizea dabil...*

4.3.- Sintaxia

▶ **Perpau bakuna**

> **Galderazko perpausa.** Galdegaia galderazko perpausetan

> **Adierazpen-perpauak**

- Baiezkoak. Galdegaia baiezko perpausetan
- Ezezkoak. Galdegaia ezezko perpausetan

> **Harridura-perpauak**

- Erakusleen bidez osatuak: *Hau hotza!*
- Galdetzailen bidez:
 - ZER / ZEIN itsusia (*den!*)
 - NOLAKO aurpegia (*duen!*)
 - ZENBAT dituen!

> Aginte-perpausak

- Geldi hor!
- Ez egin hori!

► Perpaus elkartuak**> Juntadura**

- Emendiozkoak: eta, ere
- Hautakariak: ala, edo
- Aurkaritzakoak: baina

> Menderakuntza

- Izen-funtziazko menderakuntza
-tzea
Agindua edo debekua: -tzeko
- Baldintzazko perpausak (errealak):
-ba, baldin ba- (*ostiralean bada, joango naiz...*)

IV. Gaitasun estrategikoaren garapena

► GAITASUN ESTRATEGIKOA

Ikasleak ekintza komunikatiboa egoki gauza dezan, bere aurrezagutza eta gaitasun orokor guztiak erabiliko ditu, egokien irizten dien komunikazio-estrategiak eta ikasestrategiak erabiliz (*ikus 55. orrialdea*).

EBALUAZIOA

Ebaluazioa egiteko, informazio-bilketa egitea ezinbestekoa da, ikasprozesu osoa deskribatu eta, hobekuntzara begira, deskribapen horri buruzko epai eta irizpen arrazoitua eskainiz (*ikus 65. orrialdea*).

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA EBALUAZIO-ESKALAK

Ekintza komunikatiboen gauzatze-maila ebaluazio-irizpide jakinen arabera neurtu eta balioetsiko da (*ikus 69. orrialdea*).

ENTZUMENA

- 1 Elkarreraginezko eguneroko harremanetan eta testuinguru oso ezagunetan, bere buruaz, familiaz eta inguruko gauzez hitz arruntenak eta oinarrizko esapideak ulertzen dituzan, erabiltzaileak solaskideari behin eta berriz eskatzen dio errepikatzeko eta argitzeko. Bestelako baliabideak ere behar izaten ditu (keinuak, onomatopeiak eta abar) esaten zaionaz jabetzeko.
- 2 Elkarreraginezko eguneroko harremanetan eta testuinguru oso ezagunetan, bere buruaz, familiaz eta inguruko gauzez hitz arruntenak eta oinarrizko esapideak ulertzen ditu erabiltzaileak. Hala ere, zenbaitetan, errepikapena eta argibideak eskatu behar izaten dizkio solaskideari, edota bestelako baliabideak (keinuak, onomatopeiak eta abar), esaten zaionaz jabetzeko.
- 3 Elkarreraginezko eguneroko harremanetan eta testuinguru oso ezagunetan, erabiltzaileak aise ulertzen ditu bere buruaz, familiaz eta inguruko gauzez entzundako hitz arrunt eta oinarrizko esapideak. Oso noizbehinka, errepikatzeko eskatu behar izaten dio solaskideari, eta gehienetan gai da esaten zaionaz jabetzeko.

EGOKITASUNA

- 1 Erabiltzaileari kosta egiten zaio esan nahi duena solaskideari ulertaraztea, eta haren menpe dago erabat. Buruz ikasitako hitz eta esapideak ez ditu, gehienetan, dagozkion testuinguruan egoki erabiltzen.
- 2 Erabiltzaileak hitz eta esapide jakin batzuen bidez erantzuten dio solaskideari, nahiz eta haren menpe egon esan nahi duena ulertarazteko. Estrategikoki, beste baliabide batzuk erabiltzen ditu komunikazioa aurrera eramateko. Esate baterako, ulertzen ez duenean, argibideak eta azalpenak eskatzen ditu.
- 3 Erabiltzaileak hitz eta esapide jakin batzuen bidez erantzuten dio solaskideari, eta, tarteka, haren menpe dago adierazi nahi duena ulertarazteko. Egoerari dagokion oinarritzko lexikoa erabiltzen du. Beste baliabide batzuk ere behar izan ditzake, zenbaitetan, egoerari aurre egiteko.

KOHERENTZIA ETA KOHESIOA

- 1 Erabiltzailea esapide bakartuetara mugatzen da, derrigor, eta eragozpenak ditu, oraindik ere, juntagailu oinarritzkoenak (*eta, ala*) erabiltzeko. Keinuak etengabeak dira, komunikatzeko ezintasunaren ondorioz.
- 2 Solaskideari hitz eta esapide bakartuen bidez erantzuten dio erabiltzaileak, eta oinarritzko juntagailu batzuk (*eta, ala*) ere erabiltzen ditu, nahiz eta, zenbaitetan, isiluneak egiten dituenetan, zeinuak eta bestelako komunikazio-estrategiak erabili diskurtsoari koherentzia emateko.
- 3 Erabiltzaileak hitz eta esapide bakartuen bidez erantzuten dio solaskideari, eta oinarritzko juntagailu batzuk (*eta, ala...*) erabiltzen ditu; tarteka, isiluneak egiten dituenetan, zeinuak nahiz bestelako komunikazio-estrategiak erabiltzen ditu diskurtsoari koherentzia emateko.

JARIOTASUNA

- 1 Erabiltzaileak galderei erantzutean, behin eta berriz etenak egiten dituenek eta ahoskatzea asko kostatzen zaionez, ez du arrakastarik lortzen komunikazioan.
- 2 Erabiltzaileak eten asko egiten ditu hitz edo esapide egokia aurkitzeko edota ongi ahoskatzeko, baina komunikatzea lortzen du galde-erantzunen bidez. Ohikoak dira zalantzak eta esaldi amaitu gabeak.
- 3 Batzuetan, etenak egiten ditu erabiltzaileak hitz edo esapide egokia aurkitzeko edota ongi ahoskatzeko, baina arrakastaz komunikatzea lortzen du galde-erantzunen bidez. Zalantzak eta esaldi amaitu gabeak tartekatzen ditu.

ABERASTASUNA

- 1 Ez da deskriptorerik ematen.
- 2 Ez da deskriptorerik ematen.
- 3 Ez da deskriptorerik ematen.

ZUZENTASUNA

- 1 Erabiltzaileak ez ditu egitekoa betetzeko beharrezkoak diren hitzak eta esapideak zuzen erabiltzen. Komunikazioa oztopatzen duten gabezia nabarmenak ditu, eta akatsak sistematikoak dira. Hitzen ahoskerarekin ere maiz tratatzen da.
- 2 Erabiltzaileak buruz ikasitako esaldi batzuk erabiltzen ditu, eta, zenbaitetan, akatsak egin arren, eraginkor komunikatzea lortzen du. Fonologia-mailan, eragozpenak ditu fonema jakin batzuk ahoskatzeko.
- 3 Erabiltzaileak erraz erabiltzen ditu buruz ikasitako esaldiak, nahiz eta aldi berean behin akatsen bat egin: komuntadura, aditzaren aspektua eta abar. Fonologia-mailan, izan dezake eragozpenik hitzen bat edo beste ahoskatzeko.

IRAKURMENA

- 1 Erabiltzaileari kosta egiten zaio oinarrizko hitz eta testuak (ohar laburrak, mezu elektronikoak...) ulertzea, eta nahiz eta testuinguruaren, irudien eta ezaugarri grafikoaren laguntza izan, askotan ez da esanahiaz jabetzen.
- 2 Erabiltzaileak oinarrizko hitz eta testuak (ohar laburrak, mezu elektronikoak...) ulertzen ditu, nahiz eta sarritan testuinguruaren, irudien eta ezaugarri grafikoaren laguntza behar izaten duen, esanahiaz jabetzeko.
- 3 Erabiltzaileak oinarrizko hitz eta testuak (ohar laburrak, mezu elektronikoak...) berehalakoan ulertzen ditu, nahiz eta testuinguruaren, irudien eta ezaugarri grafikoaren laguntza behar izan batzuetan, esanahiaz jabetzeko.

EGOKITASUNA

- 1 Erabiltzaileak aukeratutako hitz eta esapideak ez dira egokiak, ez testuinguruari, ez ekintzari dagokionez. Ereduen aukeraketan huts egiten du.
- 2 Erabiltzaileak aukeratutako baliabideak egoki lotzen zaizkie testuinguruari eta ekintzari; informazioa ulergarria eta eraginkorra da komunikazio-asmoarekiko, horretarako hartzaileak birritan-edo irakurri behar badu ere.
- 3 Erabiltzaileak hitz eta esapideak arrakastaz baliatzen ditu, eta ez du eragozpenik esan nahi duena egoki esan eta xedea lortzeko.

KOHERENTZIA

- 1 Esan nahi duena adierazteko erabiltzaileak aukeratutako hitz eta esapide gehienek ez dute loturarik, ez gaiarekin, ezta ekintzarekin ere.
- 2 Ideiak koherenteak dira elkarren artean eta xede komunikatiboarekin. Erabiltzaileak eskaintzen duen informazioa adierazgarria, behar adinakoa eta garrantziaren arabera antolatuta dago.
- 3 Erabiltzaileak ez du eragozpenik hitz eta esapide jakinen bidez testua ongi antolatzeko.

KOHESIOA

- 1 Erabiltzaileak hitz eta esapide jakin batzuk erabiltzen ditu, baina ez du inongo loturarik egiten horien artean.
- 2 Erabiltzaileak hitzez eta perpaus bakunez osatzen du diskurtsoa, eta horien arteko lotura lineala izan ohi da. Izenordeen erreferenteak antzematen dira, eta denbora-komuntadura egoki gauzatzen du.
- 3 Erabiltzaileak hitzez eta perpaus bakunez osatzen du diskurtsoa, eta gehienetan elkarren arteko loturak ere egiten ditu.

ABERASTASUNA

- 1 Ez da deskriptorerik ematen.
- 2 Ez da deskriptorerik ematen.
- 3 Ez da deskriptorerik ematen.

ZUZENTASUNA

- 1 Hitzak eta esapideak idaztean, akatsak sistematikoak dira: komunztadura, aditzaren denbora eta aspektua eta gisakoak. Ortografia-akatsak ere ohikoak dira.
- 2 Buruz ikasitako baliabide linguistiko gutxi batzuen oso kontrol mugatua du, eta esaldiak osatzeko baliabide eta adierazpide sinple batzuk baliatzen ditu erabiltzaileak. Hitz eta esaldi horietan ortografia zuzena du; hala ere, osatzen dituen esaldietan, akatsak egiten ditu zenbaitetan: komunztadura, aditzaren aspektua, jatorrizko hizkuntzarekiko interferentziak eta abar.
- 3 Buruz ikasitako hitzak eta adierazpide sinpleak idaztean, oso tarteka egiten ditu akatsak: komunztadura, aditzaren aspektua... Ortografia-akatsen bat edo beste ere egiten du.



OINARRIZKO
ERABILTZAILEA



HELBURUAK

Ekintza komunikatiboetan zerrendatzen diren helburuak mailako gaitasun komunikatiboaren adierazpen dira (*ikus 30. orrialdea*).

ENTZUMENA

Eguneroko egoera ezagunetan, maila bereko solaskideen arteko elkarrizketak eta jarraibideak ulertzeko gai izango da, baita gai ezagunei buruzko azalpenak ulertzeko ere (familia, erosketak, bizitokia, lanbidea, eguraldia...), baldin eta informazioa zuzena, argia eta poliki ahoskatua bada.

Maila honen amaieran, ikaslea gai izango da

- ▶ ezagunen arteko elkarrizketa batean, helburua informazioa jasotzea denean (erosketez, bizitokiaz, lanaz, osasun-egoeraz, bidaiez...), ideia garrantzitsuenak ulertzeko.
- ▶ toki publikoetako mezu eta iragarkietan ideia nagusia atzemateko: tren-geltokiko ohar errazak, trafiko-aholkuak, irratiko agendak...
- ▶ hedabideetako albisteen mezu nagusia ulertzeko, batez ere irudien laguntza badu: gertaerak, bitxikeriak, txutxu-mutxuak, kirol-kontuak, eguraldiaren iragarpena...
- ▶ lagunek eta hurbilekoek emandako argibideak ulertzeko: eguneroko tresnen erabilera, errezeta errazak, helbide eta norabideetako xehetasunak, mapen gainean emandako jarraibideak eta abar.
- ▶ lagunek, xedea bera jakinaren gainean jartzea denean, egiten dizkieten kontaketen ideia nagusiak ulertzeko: eguneroko bizimoduari buruzko gertaeraren bat, berriren bat...
- ▶ lagunak entretenitzeko asmoz, solaskideek kontaktzen dituzten pasadizo laburren ideia nagusiak ulertzeko.
- ▶ lagun, lankide edo senideek, adostasuna edo desadostasuna eskatzeko asmoz, egindako planen eta proposamenen inguruko azalpenak ulertzeko.
- ▶ lagun edo senideek pertsoneri eta tokiei buruz egindako deskribapenak ulertzeko: norbaiten aurkezpena, zaletasunak, pertsonen eta etxebizitzien deskribapen soilak...
- ▶ lagun edo senideek erantzungailuan utzitako ohartarazpenak ulertzeko.
- ▶ ezagunen artean jasotako zerbitzu baten inguruko kexa ulertzeko, baita bestelako balorazioa ere.
- ▶ lagunek nahiz ezagunek eguneroko jardunean gustukoa dutena, ez dutena edota hobesten dutena ulertzeko.
- ▶ lagunek edo hurbilekoek eguneroko kontuen inguruan egindako mesede-eskaera ulertzeko.
- ▶ (...)

MINTZAMENA

Egoera ezagunetan, kideekin (lagun, senide eta abarrekin) elkarreraginean, gai izango da informazio-truke erraz eta arruntetan moldatzeko, gauzen eta pertsonen deskribapenak egiteko, eta ekintza eta egitaraueri buruzko azalpen errazak eta iritziak emateko.

Maila honen amaieran, ikaslea gai izango da

- ▶ lagunartean zein senideen artean ibilgailuen, gauzen, lekuen, paisaien eta eguraldiaren deskribapen xume eta objektiboak egiteko, oinarrizko konparazio simple batzuk eginez.
- ▶ lagunartean norberaren, senitartekoen edota ezagunen deskribapen soila egiteko (bizimodua, ikasketak, lana...), esaldi eta esapide bakun eta errazak erabiliz.
- ▶ ezagun nahiz ezezaguneri argibide errazak eman eta eskatzeko: toki batetik bestera nola joan, zerbait nola egin... baita, mapa eta planoetan oinarrituta, bidea galdetzeko edo adierazteko ere.
- ▶ lagunartean, aurrez aurreko harremanetan edo telefonoz, galdera errazak egiteko eta erantzuteko, oinarrizko informazio-trukea eginez: norbaitek zer bizimodu duen galdetu, elkarren berri eman, ingurukoez galdetu eta abar.
- ▶ lagunartean eta senideen artean, eta zenbaitetan keinuen laguntzaz, osasun-egoeraz galdetzeko edota erantzuteko; baita ingurukoei aldarkez galdetzeko ere.
- ▶ ezagun nahiz ezezagunekin interesatzen zaion informazioa jasotzeko asmoz, galderak simple egiteko eta erantzuteko: autobusa non dagoen, turismo-bulegoa, hotela, helbide jakin bat...
- ▶ aurrez aurre edo telefonoz, adetasunezko informazio-trukeak egiteko: bizimoduaz galdetu, barkamena eskatu, goraintziak eman, zoriondu, topa egin, gauza onak opa...
- ▶ ezagunen artean eta aurrez aurre, jasotako zerbitzuaren inguruko iritzia eman, balioespen simple bat egiteko eta, behar izanez gero, horri buruzko kexa adierazteko.
- ▶ lagunartean nahiz senideen artean, eguneroko jardunean, gustuko duena eta ez duena edota hobesten duena adierazteko, besteak jakinaren gainean jartzeko asmoz.
- ▶ ezagunekin edota lagunekin aurrez aurre nahiz telefonoz, planak adosteko: hitzordua finkatu, asmoak adierazi eta abar.
- ▶ lagunartean, helburua besteak jakinaren gainean jartzea denean, esaldi sinpleak erabiliz, gertatu edo ikusitako zerbaiten kontakizun laburra egiteko: pasadizoak, oporrak, festak, filmak...
- ▶ lagun edo senideekin elkarrizketa labur bat burutzeko, irteera edo bidaiari bat egiteko proposatuz eta gainerakoen iritzia eskatuz.
- ▶ eguneroko erosketak egiteko saltokietan eta zerbitzu errazak eskatzeko.
- ▶ (...)

IRAKURMENA ●

Eguneroko bizitzarekin lotutako testu labur eta errazetan gai izango da, egoera, testuinguru, formatu eta ezagutza orokorrean oinarrituz, komunikazio-asmoa, gaia, ideia nagusiak eta xehetasun adierazgarriak atzemateko. Gai izango da edukiari buruzko hipotesiak eratzeko eta aurreikus daitezkeen zehaztasunak baieztatzeko; horretarako, zenbaitetan, irudiak lagungarri izango zaizkio.

Maila honen amaieran, ikaslea gai izango da

- ▶ asmo komunikatiboa ezagutuz, eguneroko bizitzan erabiltzen diren testu arruntak ulertzeko: izena emateko orriak, formularioak, eskariak eta abar.
- ▶ mezu elektroniketan eta gutunetan lagunek edo senideek idatzitako mezu sinpleak ulertzeko, xedea denean zerbait egiteko eskatzea, plan baten xehetasunak ematea edo kontu pertsonalak galdetzea.
- ▶ eguneroko bizitzako material idatzian (iragarkietan, prospektuetan, jatetxeetako menuetan, zerrendetan, ordutegietan eta abarretan) informazio espezifikoa eta aurreikus daitekeena aurkitzeko.
- ▶ lagun edo ezagunek posta elektronikoa, SMS eta abarren bidez bidalitako proposamen eta gonbidapenak ulertzeko.
- ▶ ezagun edo hurbilekoek, laguntza edo mesede bat eskatuz, ohar edo mezu elektronikoen (txat mezuaren, posta elektronikoen) bidez bidaltzen dizkieten mezu laburrak ulertzeko.
- ▶ eguneroko zereginen inguruko argibide erraz batzuk ulertzeko, bereziki esaldi sinplez osatuak badira: autoaren aparkalekuko txartela nola ordaindu, kutxazaina nola erabili, tren-geltokiko makineta billetea nola erosi...
- ▶ jakin-mina asetzeko asmoz, gertaera baten, ipuin eta film errazetako erreferentzia nagusiak identifikatzeko: gaia, tokia, pertsonaiak.
- ▶ toki publikoetan (herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuetan), jokamoldeei buruzko arau erraz eta sinpleak ulertzeko: ohartarazpenak, arrisku-oharrak eta abar.
- ▶ gida komertzial eta turistikoetako informazio nagusia ulertzeko.
- ▶ zerbitzu publiko zein erakunde batek web-orrietan, iragarki-tauletan, esku-orrietan eta abarretan emandako informazio praktikoa eta espezifikoa aurkitzeko.
- ▶ jakin-mina asetzeko helburuz, egunkarietako berri laburren informazio nagusia ulertzeko.
- ▶ eguneroko testuinguruetan (eskolan, elkarteetan, auzoan...) zerbait jakinaraziz bidalitako mezu elektronikoa laburrak ulertzeko.
- ▶ (...)

IDAZMENA

Lagunei, senideei, ikaskideei edo lankideei postalak nahiz ohar eta mezu laburrak, izandako esperientzien kontakizun laburrak eta pertsonen deskribapenak idazteko gai izango da, betiere emandako erodei jarraikiz.

Maila honen amaieran, ikaslea gai izango da

- ▶ ezagun eta ezezagunei gutun edo mezu elektroniko batean bere burua edo beste norbait labur aurkezteko: familia, ikasketak, bizimodua, lana, aisia, zaletasunak...
- ▶ lagun, senide edo lankideei instrukzio eta jarraibide errazak emateko ohar eta mezu elektronikoetan: arau errazak, berak zerbait nola egin ohi duen, errezeta labur eta sinpleak...
- ▶ ezagun eta ezezagunei ohar, gutun eta mezu elektronikoetan, galderak eta proposamenak egiteko, baimena eskatzeko, barkamena eskatzeko edota oinarrizko informazioa eskaintzeko, esaldi labur eta sinpleak erabiliz.
- ▶ lagunei, mezu bidez, eguneroko kontuei buruzko proposamen bati adostasuna edo desadostasuna labur-labur adierazteko, baita beste proposamen bat egiteko ere.
- ▶ lagunari, oinarrizko argibide batzuk emanaz, gonbidapen-ohar bat egiteko xedea gonbidapena onartua izatea denean; baita jasotakoei erantzuteko ere, beharrezko denean, sinple eta labur arazoituz.
- ▶ lagunei gertaera bat (istripu bat, esperientzia pertsonal bat...) kontatzeko, esaldi labur eta sinpleen bidez.
- ▶ (...)

EDUKIAK



I. Gaitasun soziolinguistikoaren garapena

- ▶ Testuinguruaren ezaugarriak
- ▶ Gaiak
- ▶ Kultura-erreferentziak

II. Gaitasun testualaren garapena

- ▶ Testu-generoak
- ▶ Funtzioak
- ▶ Adierazpide testualak

III. Gaitasun linguistikoaren garapena

- ▶ Adierazpide linguistikoak

IV. Gaitasun estrategikoaren garapena

- ▶ Gaitasun estrategikoa

I. Gaitasun soziolinguistikoaren garapena

TESTUINGURUAREN EZAUGARRIAK

Ekintza komunikatibo guztiak testuinguru jakinetan gauzatzen dira, maila bakoitzean ezaugarri zehatzak dituzten testuinguruetan, alegia (*ikus 36. orrialdea*).

ENUNTZIATZAILEA - ENUNTZIATARIOA	XEDEA	ERABILERA-ESPARRUA
<p>Solaskidearen rolak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Senide-senide - Lagun-lagun + Ezagun-ezezagun <p>Solaskideen arteko harremana:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Berdinen artekoa edo gertutasunezkoa 	<p>A1 mailakoez gain,</p> <p>Giza harremanak edo konplimenduak</p> <ul style="list-style-type: none"> + interesa adieraztea + goraintziak ematea + ... <p>Informazioa ematea/eskatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> + pertsonak, lekuak eta gauzak deskribatzea + zerbait badagoen, baden edo dakien galdetzea eta erantzutea + ... <p>Iritziak, ezagutzak eta jarrerak adieraztea eta egiaztatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> + norbaiti buruz edo zerbaiti buruz iritzia eskatzea eta ematea + adostasuna/desadostasuna eskatzea eta ematea + ... <p>Gustuak, sentimenduak adieraztea</p> <ul style="list-style-type: none"> + aldarkez, osasun-egoeraz galdetu eta informazioa ematea + zerbait gustukoa den ala ez adieraztea + ... <p>Solaskidearengan eragitea</p> <ul style="list-style-type: none"> + planak eta asmoak adieraztea + gonbidapena onartzea/gaitzestea + ... <p style="text-align: center;"><i>Ikus Funtzioak atala</i></p>	<p>Pertsonen arteko harremanean eta solaskideen hurbileko munduan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Senitartekoa - Lagunartekoa + Zerbitzuguneak: dendak, informazio-bulegoak...

GAIAK

Mailako ekintza komunikatiboak gauzatzeko, gai-zerrenda bat proposatzen da jarraian, irekia eta ikasleen premietara egokituko dena (*ikus 37. orrialdea*).

- ▶ **DATU PERTSONALAK:** Izena, helbidea, adina, sexua, egoera zibila, lanbidea, jaioteguna, jatorria...

- ▶ **NORBERAREN EZAUGARRIAK:** Gustuak, izaera, itxura, aldartea...

- ▶ **ETXEA:** Etxebizitza-motak, gelak, altzariak, etxeko tresnak eta apaingarriak, etxeko animaliak...

- ▶ **OHIKO JARDUERAK:** Eguneroko eginkizunak, etxeko lanak...

- ▶ **AISIALDIA:** Kirola, jolasa / jokoak, musika, zaletasunak, bidaiak, oporrak...

- ▶ **LEKUA ETA NORABIDEA:** Ibilbideak, norabideak zehaztea, tokiak deskribatzea...

- ▶ **GIZA HARREMANAK ETA HARREMAN SOZIALAK:** Familia, lagunak, ikaskideak, lankideak, auzokideak, elkarreak...

- ▶ **GORPUTZA ETA OSASUNA:** Gorputz-atalak, zentzumenak, sentimenduak, gaixotasuna, higiena, ospitaleak, egoera fisikoa...

- ▶ **HEZKUNTZA:** Eskola, lanbide-eskola, unibertsitatea, ikasketak, ikasgela, ikastetxea, irakaslea, ikaslea, gurasoak...

- ▶ **HERRIA ETA HIRIA:** Herria, hiria, kaleak, eskualdea, eraikuntzak, zerbitzuak...

- ▶ **EROSKETAK:** Eroslekuak, kantidadea eta pisu-neurriak, kopuruak, prezioak, gustuak, dendak, opariak...

- ▶ **ELIKADURA:** Janaria, edariak, ordutegiak, menuak, prestatzeko moduak...

- ▶ **HERRI-ZERBITZUAK:** Informazioguneak, udal-zerbitzuak, postetxea, banketxea, larrialdi-zerbitzuak...

- ▶ **INGURUMENA:** Eguraldia, klima, landareak eta animaliak...

- ▶ **EUSKAL HERRIA ETA BESTE HERRIALDEAK:** Lurraldeak, eskualdeak, hiriak, nazioak...

- ▶ **GARRAIOA:** Bizikleta, autobusa, trena, autoa, hegazkina, geltokiak, aireportuak...

- ▶ **LANA:** Lanbideak, lan-tresnak, lantokiak, soldatak, lan-baldintzak...

- ▶ **OSTALARITZA:** Tabernak, jatetxeak, hotelak, egoitzak...

- ▶ **OSPAKIZUNAK:** Festak, gonbidapenak, urtebetetzeak...

▶ **KULTURA:** Zinema, liburuak, musika...

▶ **HEDABIDEAK:** Egunkariak, irrati eta telebistak, komunikabide digitalak...

+ ▶ **TURISMOA:** Ibilbide eta txangoak, jendea, toki interesgarriak, monumentuak, bidaietako gorabeherak...

+ ▶ **EUSKAL INSTITUZIOAK:** Udalak, Foru Aldundiak, Jaurlaritza

▶ KULTURA-ERREFERENTZIAK

Hizkuntzaren barneratze-prozesuan ezinbestekoa da alderdi linguistikoez gain, euskal gizartearen izaera historiko eta sozialaren berri ematea, ikaslea gure errealitatean eta mundu-ikuskeran kokatuz (*ikus 38. orrialdea*).

II. Gaitasun testualaren garapena

TESTU-GENEROAK

Estandarizatuta eta tradizioz finkatuta dagoen moldean antolatzen du informazioa erabiltzaileak, gizarte- edo lanbide-esparru batean (*ikus 48. orrialdea*).

AHOZKOAK

Ulermena:


- ▶ Aurrez aurrekoak:
 - Hitz eta esapide errazak: zenbakiak, prezioak, denbora-erreferentziak...
 - Jarraibideak: toki batetik bestera nola joan, gauza bat non dagoen...
 - Mezuak eta azalpen labur-laburrak
 - + • Balorazio, iritzi edo kexu simple eta labur bat: zerbitzuren bati buruzkoa...
 - Elkarrizketa sinpleak
 - Kontaketak: gertaerak...
- ▶ Grabatuak eta komunikabideetatik jasotakoak:
 - Aurreikusita dauden komunikabideetako ohar eta iragarkiak
 - Testuinguru jakinetan aurreikusita dauden erantzungailuetako mezu laburrak
 - Irudi bidezko iragarkiak (ikus-entzunezkoak)
 - + • Albiste laburrak
 - Komunikabideetako ohar eta iragarkiak
 - Eguraldi-iragarpenak

Ekoizpena elkarreraginean:


- Pertsonen aurkezpen laburra: nor den, non bizi den, lantokia, helbidea, telefonoa, gustuak...
- Agindu simple eta laburrak
- Adeitasunezko hitz eta esapide errazak
- Galde-erantzun errazak: non bizi den, nora doan, zer gustatzen zaion...
- + • Argibideak, jarraibideak: toki batetik bestera nola joan, bidea galdetu...
- Elkarrizketa sinpleak
- Gauzen, tokien, eguraldiaren eta pertsonen deskribapen errazak
- Kontakizun sinpleak: oporrak...

IDATZIAK


Ulermena:

- Leku publikoetako ohiko seinaleak, kartelak...
- Oinarrizko jarraibideak, inprimakiak edota fitxa bat betetzean, galde-sorta bati erantzuteko...
- Publizitate- eta informazio-orriak...
- Ohar eta mezu pertsonal laburrak
- Argibide edota oinarri-oinarrizko arau erraz eta laburrak
- Bidaia-txartelak, sarrerak, fakturak, etiketak, katalogoak...
- Formulario sinpleak
-  • Deskribapen sinpleak
- Gida komertzialak
- Iragarki laburrak
- Toki publikoetako araudiak
- Pasadizoak / kontaketa sinpleak

Ekoizpena:

- Inprimakiak, txantiloiak (bete)
- Zerrendak
- Oharrak
-  • Gonbidapen-oharrak / proposamenak
- Jarraibide eta arau sinpleak
- Postalak

Ekoizpena elkarreraginean:

- Mezu laburrak (posta elektronikoak, SMS mezuak, postalak, oharrak).
-  • Galde-erantzunak informazio pertsonala trukatzeko
- Gutun pertsonalak
- Ohar eta jakinarazpenak
- Proposamen laburrak
- Kontaketa laburrak

FUNTZIOAK

Erabiltzaileak hizkuntza zerbait komunikatzeko erabiltzen du, zerbait egin edo lortzeko. Ekintza komunikatibo guztietan dago xede bat (*ikus 49. orrialdea*).

Hauek dira maila honen amaieran ikasleak bete ahal izango dituen funtzioak:

Giza harremanak eta konplimenduak

- Agurtzea.
- Nork bere burua eta besterena aurkeztea.
- Mesedeak eskatzea (*mesedez, faborez...*).
- Barkamena eskatzea.
- Eskerrak ematea.
- Zoriontzea.
- + • Interesa adieraztea.
- Goraintziak ematea.
- Topa egitea.
- Gauza onak opa izatea.
- ...

Informazioa ematea eta eskatzea

- Datu pertsonalei buruzko informazioa eskatzea eta ematea.
- Leku, ordutegi, data, eguraldi, prezio, neurri, kopuruei buruz galdetzea eta erantzutea.
- Zerbait dagoen, baden edo dakien galdetu eta erantzutea.
- Pertsonak, lekuak eta gauzak deskribatzea: zerbait nolakoa den, non dagoen...
- Jabetza adieraztea.
- + • Informazioa ematea eta eskatzea eguneroko kontuez.
- Denboran zehar gertatutako ekintzak kontatzea.
- Zerbitzu bat eskatzea eta eskaintzea.
- Zerbitzu baten berri galdetzea eta erantzutea.
- Iraganeko ekintzak eta ohiturak oso labur deskribatzea.
- Argibideak, jarraibide sinpleak ematea eta eskatzea.
- ...

Iritziak, ezagutzak eta jarrerak adieraztea eta egiaztatzea

- Zerbait baieztatzea / ezeztatzea.
- Adostasuna/desadostasuna eskatzea eta ematea.
- Ezintasuna adieraztea.
- + • Zerbitzuei buruzko balioespen orokorra egitea.
- Proposamen bati buruzko iritzia modu laburrean ematea.

- Norbaiti buruz edo zerbaiti buruz iritzia eskatzea eta ematea.
- Aisialdiko planak onartzea / ez onartzea.
- Gonbidapena onartzea / ez onartzea.
- ...

Sentimenduak, hunkipenezko jarrerak/egoerak adieraztea eta egiaztatzea

- Ezustea adieraztea.
- Poza / tristura adieraztea.
- + • Aldarteaz, osasun-egoeraz galdetzea eta informazioa ematea.
- Gustukoa den ala ez den adieraztea.
- ...

Solaskidearengan eragitea

- Laguntza eskatzea eta eskaintzea.
- Aginduak ematea.
- Gonbidapena egitea.
- Zerbait debekatzea.
- Erregutzea.
- + • Egiteko bat proposatzea.
- Planak eta asmoak adieraztea.
- Baimen-eskaera egitea eta erantzutea.
- Aholkuak ematea eta eskatzea.
- ...

ADIERAZPIDE TESTUALAK

Ekintza komunikatiboak egoki gauzatzeko, erabiltzaileak, baliabide egokien bidez, testuak ongi taxutzen eta interpretatzen jakin behar du (*ikus 49. orrialdea*).

Hauek dira, besteak beste, maila honetan erabiltzaileak baliatuko dituen adierazpideak:

1. Plan orokorra

- ▶ Ahozkoak. Idatziak.
- ▶ **Gaia:** egunerokoa, ezaguna, harremanen mundukoa batez ere. Mundu errealekoa, fisikoa edo konkretua.
- ▶ **Egitura:** galdera-erantzunak. Enuntziatu sinpleak.

2. Interaktibotasuna

- ▶ Deiktikoak:
 - Pertsonalak (aditzaren lehen eta bigarren pertsonak, izenorde pertsonalak: *ni, zu, gu, zuek*)
 - Denborazkoak (denbora-adberbioak: *orain, gero, gaur, atzo, bihar...*)
 - Espazialak (leku-adberbioak: *hemen, hor, han...*)
- ▶ Galderak

3. Sekuentziak

- ▶ Elkarrizketa
- ▶ Preskripzioa (instrukzioa, agindua...)
- ▶ Kontaketa

4. Konexioa

- ▶ **Testu-antolatzaileak** (ahozko testuetan eta testu idatzietan)
 - Hizketa-antolatzaileak: *ze...; eta bueno...; ba...; zera...; bale, ezta?*
 - Emendiozkoak: *eta, ere, bestalde*
 - Aurkaritzakoak: *baina, ordea*
 - Denbora-antolatzaileak: *goizean, arratsaldean, orduan, gero, baino lehen, ondoren, -(e)nean, garai hartan...*
 - Hautakariak: *bestela, ala*
 - Ordena-adierazleak: *lehenengo, ondoren, gero, amaitzeko, bukatzeko, alde batetik, bestetik, azkenik...*
 - Zehatzaileak edo adibide ematekoak: *adibidez*
- ▶ **Puntuazioa**

Oinarrizko erabiltzaileak, bereziki ahozko adierazpidera jotzen badu ere, testu idatzietan perpaus bakunak ez ezik elkartuak ere baliatzen ditu (denborazkoak, kontzesiozkoak...). Maila honetan, honako puntuazio-marka hauek erabiliko ditu:

 - Galde- zein harridura-ikurra hainbat esapidetan
 - Bi puntuak: zerrendatzeko, mezuen abiaburuan, orduak emateko
 - Puntua: esaldi eta esapide sinpleen bukaeran; ordinaletako "garren" ordezkatzeko; milatik gorako zenbakietan
 - Etenpuntuak: esaldia bukatu gabe utzi dela adierazteko
 - Koma: elkarren kideko zatiak zerrendatzeko, datak emateko, deikiak adierazteko edota perpaus elkartu batzuen atzetik (denborazkoak, kontzesiboak...)
 - Testu-antolatzaileen ondoren (ondoren, adibidez, atzo...)

5. Izen-kohesioa

- ▶ Kate anaforikoak osatzen dituzten errepikapenezko testu-baliabideak:

- Erreferentziak (anafora: izenordainak)
- Ordezkapen lexikala (sinonimoak, hiperonimoak)
- Elipsia
- Definizioa: mugatzaileak

6. Aditz-kohesioa

- ▶ Azalpen- eta kontaketa-adizkiak
 - Bigarren planokoak
 - > Azalpenetan
 - orain puntuala (“dator”)
 - orain ez-burutua (“etortzen da”)
 - > Kontaketetan
 - iragan puntuala (“zeterren”)
 - iragan ez-burutua (“etortzen zen”)
 - Lehen planokoak
 - > Azalpenetan
 - orain burutua (“etorri da”)
 - > Kontaketetan
 - iragan burutua (“etorri zen”)
- ▶ Ekintza-adizkiak
- ▶ Aginte-adizkiak (jokatu gabea eta jokatua)
- ▶ Orain geroa (“etorriko da”)
- ▶ Bestelako adizkiak

7. Ahots enuntziatzaileak

Testuan ageri diren ahotsek esandakoak adierazteko baliabideak: estilo zuzena

8. Modalizazioa

- > Adizkiak: *uste izan, pentsatu, jakin, iruditu*
- > Iritzi-adberbioak: *agian, ziur, seguru, jakina*
- > Adjektiboak; graduatzaileak (indargarriak zein leungarriak)
- > Adizkiak: aditz-lokuzioak (*behar izan, nahi izan, nahiago izan...*)
- > Esamolde adjektibodunak: adjektiboa + -t(z)ea
- > Aditza: *gustatu, poztu, damutu, lotsatu, maite izan, beldur izan...*
- > Adberbioak-eta: *agian, zorionez, zoritxarrez, tamalez...*
- > Adjektiboak: *ederra, polita, txarra, itsusia, -garri atzizkia...*
- > Esapideak: harridura-perpauak eta *Nire ustez...*

III. Gaitasun linguistikoaren garapena

ADIERAZPIDE LINGUISTIKOAK

Ekintza komunikatiboa egoki gauzatzeko, adierazpide linguistikoak beharrezko baliabideak dira (*ikus 53. orrialdea*).

1.- Alderdi fonologikoa

- ▶ Euskararen bokalak eta kontsonanteak ezagutu eta ahoskatu.
- ▶ Euskararen fonema txistukariak: /tz/, /tx/, /ts/, /z/, /s/, /x/
- ▶ Prozesu fonologikoak
 - + • Palatalizazioa (/is/ > (ix): isilik > (ixilik), /in/ > (iñ): mina > (miña)...)
 - Bokal-epentesia: /e/ Kontsonante-epentesia: /r/ (hirurehun, lauretan...)
 - Asimilazioak eta elipsiak: (ez dira/ (eztira), ez naiz/ (enaiz)
- ▶ Diptongoak: /ai/ aizu, /ei/ zein, /oi/ goi, /au/ auzo, /eu/ euri.
- ▶ Hiatoak
- ▶ Aldaketa fonetikoak:
 - Bustidura
 - Gortze-prozesua: bdg/ ptk
 - Intonazioa: izen-abizenak, leku-izenak... Perpaus bakunaren intonazioa
- + • Euskararen hitz luzeen azentu bikoitza: (*osásuná, emákumedá...*)

2.- Alderdi ortografikoa

- ▶ **Ortografia**
 - Euskararen alfabetoa
 - -r-ren aurrean bokala mailegu zaharretan: *arropa, errege, erloju...*
 - *nb* eta *np* grafiak
 - Absolutuan deklinatutako orduak nola idatzi
 - Euskararen fonema txistukariak: /tz/, /tx/, /ts/, /z/, /s/, /x/
 - Maileguen egokitzapena: *funtzionario, erresistentzia...*
- ▶ **Puntuazioa**
 - > Galde- zein harridura-ikurra
 - Hainbat esapidetan: *Hau hotza! Zer berri?*
 - > Bi puntuak
 - Zerrendatzeko: *Erosketak: ogia, esnea...*
 - Mezuen abiaburuan: *Arreba maitea:*
 - Orduak emateko: *07:15ean dator autobusa.*

> Puntua

- Esaldi eta esapide sinpleen bukaeran: *Aitor naiz.*

- + • Ordinaletako “garren” ordezkatzeko: *XX. mendean...*

> Etenpuntua

- Esaldia bukatu gabe utzi dela adierazteko: *Erosketak: ogia, esnea...*

> Koma

- Elkarren kideko zatiak zerrendatzeko: *Ogia, esnea, dilistak...*

- Data emateko: *Donostian, 2003ko uztailaren 2an.*

- + • Perpaus elkartuetan menpeko esaldien atzetik (denborazkoak, kontzesiboak...): *Etortzen denean, esango diogu.*

- Deikia: esaldi-hasieran zein -tartean doanean: *Ekarri, Idoia, eskuan daukazuna! Jon, etorri hona!*

- Testu-antolatzaileen ondoren (ondoren, adibidez, atzo...): *Atzo, auzoko tabernan...*

> Komatxoak

- + • Ezizenak eta animalien izenak emateko edota atzerriko hizkuntzetako hitzak transkribatzeko: *“Kide” izena du gure behorrak. “Car” hitza autoa da ingelesez.*

3.- Alderdi semantikoa eta lexikoa

- ▶ Lantzen diren funtzioetarako maiz erabiltzen diren adierazleak.
- ▶ Lantzen diren egoeretako ohiko lexikoa.
- ▶ Sarri erabiltzen diren sinonimo eta antonimoak.

4.- Alderdi morfosintaktikoa

4.1.- Izen-sintagma

▶ **Deklinabidea**

Mugatu singularra, mugatu plurala eta mugagabea

Absolutua	NOR
Ergatiboa	NORK
Partitiboa	ZERIK
Datiboa	NORI
Inesiboa	NON
Genitibo edutezkoa	NOREN
Adlatiboa	NORA
+ Adlatibo norabidezkoa	NORANTZ
+ Motibatiboa	ZERGATIK, NORENGATIK
Ablatiboa	NONDIK
Soziatiboa	NOREKIN
Genitibo leku-denborazkoa	NONGO

Adlatibo bukatuzkoa
Destinatiboa
Instrumentala

NORAINO
NORENTZAT
ZERTAZ

► **Orduen deklinabidea**

- Zer ordutan? Ze(r) ordutatik ze(r) ordutara? Ze(r) ordu arte?

► **Izena**

- Arruntak eta bereziak
- Bizidunak eta bizigabeak
- Zenbakarriak eta zenbakaitzak

► **Galdetzaileak**

- Nor (nork, nori, noren, norekin)
- Zer (zerk, zer ordutan, zer ordutatik zer ordutara, zergatik,)
- Non (nongoa, nora, nondik)
- Noiz (noiztik, noizko, noiz arte)
- Nola
- Zenbat (zenbatek)
- Zertan

► **Izenordainak**

- Pertsona-izenordainak: ni, zu, gu...
- Erakusleak: hau, hori, hura, hauek, horiek, haiek
- Izenordain mugagabeak:
 - Zerbait, norbait, zerbaitek, norbaitek, zerbaiti, norbaiti...
 - Inor ez, ezer ez, inork ez...

► **Izenlagunak**

- Noren eta nongo

► **Determinatzaileak**

> **Mugatzaileak**

- Artikuluak:
 - Zehaztuak (-a/-ak)
 - Zehaztugabeak (bat/batzuk)
- Erakusleak: hau, hori, hura, hauek, horiek, haiek

> **Zenbatzaileak**

- Zehaztuak
 - Zenbakiak: (0-100; ➤ 0-1.000...)
 - Ordinalak: (lehena, bigarrena...)
 - Kopuru-adierazpenak: kilo bat, lau ordu...
 - Orokorrak: oso, gutzia, dena
- Zehaztugabeak: asko, gutxi, batzuk, zenbait, nahiko(a), pixka bat, ➤ horrenbeste

► Adjektiboa

> **Motak**

- Bakunak: eder, polit, itsusi...
- + • *Huts* izenondoa (kafe hutsa, alkohol hutsa, poltsa hutsa...)

> **Graduatzaileak**

- Askea (oso, nahiko, izugarri, samarra, hutsa...)
- Errepikapenaren bidezkoa: txiki-txikia...
- + • Atzizki bidezkoa: -egi, -ago

> **Izenlagunak**

- + • Nominalizazioa + -(e)ko: zuloak egiteko gailua...

> **Aposizioa**

- + • Aposizio ez-murrizgarria, aposizioa NOR IS denean (*Julian Gaiarre, Erronkariko tenorea, euskalduna zen...*).

► Adberbioak

- Leku-adberbioak: hemen, hor, han...
- Denbora-adberbioak: gaur, atzo, bihar, etzi, orain, gero, lehen...
- Modu-adberbioak: gaizki, txarto, ondo, poliki...
- + • Zalantza-adberbioak: agian, badaezpada, dudarik gabe, noski...
- Graduatzaileak: batere, erabat, guztiz, ia-ia, izugarri, ikaragarri
- Mesedez, faborez...

Postposizioen bidez osatuak:

- Nor edo partitiboa eskatzen dutenak: -rik gabe
- Noren eskatzen dutenak: aurre, atze, azpi, barru, gain, ondo, alde, arte, aurka, inguru
- + • Nori eskatzen dutenak: esker, buruz

+ ► **Zenbait adierazpen:** gutxi gorabehera

► Adierazkortasun-maila

- + • Graduatzaileak: oso, nahiko, erabat...
- Errepikapena: poliki-poliki, txiki-txiki...
- Hitz-jokoa: plisti-plasta, tipi-tapa...

► Hitz-sortzaileak

> **Elkarketa**

- Seme-alabak, aitona-amonak, patata-tortilla...
- + • Hitz-elkarketak: -toki, -alde, -leku...

> **Eratortzaileak:** atzizkiak

- + • -ari (kirolari...)
- -gailu (garbigailu...)
- -garren (zortzigarren...)
- -garri (interesgarri...)
- -gile (etxegile...)
- -ka (korrika...)
- -keria (kirtenkeria...)

- -le (idazle...)
- -ro (astiro, berriro...)
- -tar (zarauztar...)
- -tasun (edertasun...)
- -tegi (barnetegi...)
- -ti (kakati...)
- -txo (loretxo...)
- -tzaile (zulatzaile...)
- -zain (kutxazain...)

4.2. - Aditza

► Ezaugarriak

> Aditz iragankorrek eta iragangaitzak

- Jon sartu da / Jonek sartu du autoa

> Jokatuak eta jokatu gabek

- Etorri naiz, egin dut...
- Etortzea, egiteko, eramanda, ikusita

> Aditz perifrastikoak

- Joan da, etorri da, eramán du

> Aditz trinkoak

- Dago, dauka
- + • Doa, dator, darama

► Aspektua

Orainaldi burutua:

joan naiz

Orainaldi ez burutua:

joaten naiz

Gertakizuna:

joango naiz

+ *Iragan burutua:*

joan nintzen

Iragan burutu gabek:

joaten nintzen

Puntukaria:

ikasten ari naiz, dago, dauka

+ *Lehenaldiko puntukaria:*

egiten ari nintzen

Trinkoak:

nabil, zabilta, nenbilen, zenbiltzan...

Aditz-lokuzioen aspektua:

bizi izan, ari izan, behar izan, balio izan,

nahi izan, ahal izan eta ezin izan

+ *Zenbait aditz-lokuzio:*

logura naiz / logurak nago, gose naiz /

goseak nago...

► Modua

> Indikatiboko orainaldia

NOR:

izan, egon, joan, ibili, etorri

NOR-NORK:

ukan, eduki, jakin, eramán

NOR-NORI:

zait, zaizkit... (3. pertsona)

ZER- NORI- NORK:

diot, didazu...

> Indikatiboko lehenaldia

NOR:

izan, + egon, joan, ibili, etorri

- NOR-NORK: ukan, eduki, + jakin
- + NOR-NORI: zitzaidan, zitzaizkidan...
- NOR-NORI-NORK: nion, nizkion...
- > **Ahalera**
 - Ahal izan
 - Ezin izan
- > **Agintera**
 - Partizipio burutua: *Etorri! Segi!*
 - NOR: izan (zaitez, zaitezte) eta + trinkoak (zoaz, zoazte, zatoz, goazen, zatozte...)
 - NOR-NORK: ukan (ezazu, itzazu...)
 - + • ZER-NORI-NORK: *galdeiozu, esaiozu...*
- > **Aditz-izena**
 - + • -t(z)ea espero (*harekin joatea espero dugu...*)
 - + • -t(z)ea ahaztu (*ogia erostea ahaztu zait*)
- > **Bestelako erabilerak:**
 - Eguraldia: *euria / elurra... ari du. Haizea dabil...*

4.3.- Sintaxia

► Perpaus bakuna

> Galderazko perpausa

- Galdegaia galderazko perpausetan
- + • “AI” partikula: aditz nagusiaren eta laguntzailearen artekoa (*berak egin al zuen?...*)

> Adierazpen-perpausak

- Baiezkoak. Galdegaia baiezko perpausetan
- Ezezkoak. Galdegaia ezezko perpausetan

> Harridura-perpausak

- Erakusleen bidez osatuak: *Hau hotza!*
- Galdetzaileen bidez:
 - ZER / ZEIN itsusia (*den*)!
 - NOLAKO aurpegia (*duen*)!
 - ZENBAT dituen!

- + • **Baiezkoak:**
 - BAI polita (*dela*)!
 - BAIETZ etorri!

- **Ezezkoak**
 - EZTA pentsatu ere!
 - EZETZ irabazi!

- **Eskerrak!**

> Aginte-perpausak

- Zatoz azkar! Geldi hor!
- Ez egin hori!

► Perpaus elkartuak

> *Juntadura*

- Emendiozkoak: eta, ere + (baita ere, ezta ere)
- Hautakariak: ala, edo
- Aurkaritzakoak: baina, + baizik

> *Menderakuntza*

- Izen-funtziozko menderakuntza
 - t(z)ea
 - + -t(z)en (*sagar-tarta egiten dakit*)
 - Konpletiboak: -(e)la
 - Zehar-galdera: -(e)n
 - Agindua edo debekua: -tzeko
- + • Erlatibozkoak
 - Erreferentetun deklinatua: NOR, NORK, NORI, NOREN... (janaria erosten duen mutikoa/mutikoari...)
- Konparaziozkoak:
 - Berdintasuna: bezala / bezalako
 - Desberdintasuna: baino... -ago, baino... gehiago / gutxiago
 - Superlatiboa: -rik... -enak
- Baldintzako perpausak (errealak):
 - ba, baldin ba- (*ostiralean bada, joango naiz...*)
- + • Denborazkoak
 - Aldiberekotasuna: -nean (*etorri naizenean hemen zegoen*)
 - Aurrekotasuna: baino lehen, aurretik
 - Ondokotasuna: ondoren, eta gero
 - Iraupena adieraztekoak: -arte, bitartean
- Helburuzkoak: ...-t(z)era, ...-t(z)eko
- Kausazkoak: ...-(e)lako
- Kontzesiozkoak: Nahiz eta jokatu gabeko aditzekin (*Nahiz eta hori jakin, oporretara joan da.*)

IV. Gaitasun estrategikoaren garapena

► GAITASUN ESTRATEGIKOA

Ikasleak ekintza komunikatiboa egoki gauza dezan, bere aurrezagutza eta gaitasun orokor guztiak erabiliko ditu, egokien irizten dien komunikazio-estrategiak eta ikasestrategiak erabiliz (*ikus 55. orrialdea*).

EBALUAZIOA

Ebaluazioa egiteko, informazio-bilketa egitea ezinbestekoa da, ikasprozesu osoa deskribatu eta, hobekuntzara begira, deskribapen horri buruzko epai eta irizpen arrazoitua eskainiz (*ikus 65. orrialdea*).

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA EBALUAZIO-ESKALAK

Ekintza komunikatiboen gauzatze-maila ebaluazio-irizpide jakinen arabera neurtu eta balioetsiko da (*ikus 69. orrialdea*).

ENTZUMENA

- 1 Eguneroko bizitzako esperientzia-esparruen barruan, kosta egiten zaio solaskidearen adierazpena ulertzea, eta errepikatzeko edo birformulatzeko eskatu behar izaten dio behin eta berriz.
- 2 Eguneroko bizitzako esperientzia-esparruen barruan, antzematen ditu komunikazio-asmoa eta gaia, eta ulertzen du solaskideak emandako informazio adierazgarria, nahiz eta tarteka, informazioaz ondo jabetzeko, errepikatzeko edo birformulatzeko eskatu behar izaten dion.
- 3 Eguneroko bizitzako esperientzia-esparruen barruan, aise ulertzen du solaskidearen adierazpena, eta apenas eskatzen dion errepikatzeko edo birformulatzeko.

MINTZAMENA

EGOKITASUNA

- 1 Testuinguru eta egoera jakin eta ezagunetan erabiltzaileari ezinezkoa egiten zaio baliabideak egoki erabiltzea, eta huts egiten du elkarrizketan.
- 2 Testuinguru eta egoera jakin eta ezagunetako elkarrizketak gauzatzeko erabiltzaileak aukeratzen dituen baliabideak egoki lotzen zaizkie bai solaskideari, baita ekintzaren xedeari ere. Zenbaitetan zalantzak adierazten baditu ere, arrakastatsua izaten da komunikazioa.
- 3 Testuinguru eta egoera jakin eta ezagunetako elkarrizketak gauzatzeko erabiltzaileak aukeratzen dituen baliabideak egoki lotzen zaizkie bai solaskideari, baita ekintzaren xedeari ere, eta ez du zalantzarik erakusten bere diskurtsoan.

KOHERENTZIA ETA KOHESIOA

- 1 Elkarreraginean, askotan ez dago informazio-trukerik, eta, azalpen laburra eman behar duenean ere, erabiltzaileak zailtasuna du informazioa era koherentean antolatzeko. Bere jarduna antolatzeko erabiltzen dituen testu- antolatzaileak ere, gehienetan, nahasi egiten ditu. Lotura-marka horiek, maiz, solaskideak deduzitu egin behar izaten ditu.
- 2 Elkarreraginean eta azalpen labur-laburretan, nahikoa informazio eskaintzen du erabiltzaileak; ideiak ordenatuta daude eta eskema bati jarraitzen diote. Ez dira errepikatzen. Bere jarduna antolatzen duten testu-antolatzaileak erabiltzen ere badaki, eta erreferentea argi uzten saiatzen da. Hala ere, tarteka, solaskideak kohesio-erlazioak deduzitu egin behar izaten ditu. Bestalde, estrategia egokiz eta eraginkorrez baliatzen da, elkarrizketan parte hartu (txanda hartu, utzi, etab.) eta ulertzen ez duena adierazteko.
- 3 Elkarreraginean eta azalpen labur-laburretan, ideiak egoeraren eta xedearen arabera ordenatzen ditu erabiltzaileak, eta eskema bati jarraitzen diote. Bere jarduna antolatzen duten testu-antolatzaileak ere arazorik gabe txertatzen ditu ahozko diskurtsoan. Solaskideak nekez deduzitu behar izaten ditu kohesio-erlazioak, eta guztiz eraginkorrak izaten dira baliatzen dituen estrategiak.

JARIOTASUNA

- 1 Eguneroko harremanetako elkarrizketetan, erabiltzaileak esan nahi duena nekez adierazten du ulertzeko moduan, eta etenak eta geldialdiak ohikoak dira. Zalantzak ditu esamolde egokiak aurkitzeko, askotan esaldiak bukatu gabe uzten ditu eta kostatzen zaio hariari eusten.
- 2 Eguneroko harremanetako elkarrizketa laburretan esan nahi duena ulertzeko moduan adierazten du erabiltzaileak, nahiz eta batzuetan jardunaren abiadura moteldu behar izan. Parte-hartze luzeagoetan, birformulazioak eta errepikapenak egin behar izaten ditu, baina komunikazioa ez da eteten; badaki berriz hariari heltzen.
- 3 Eguneroko harremanetako elkarrizketetan esan nahi duena oso argi adierazten du erabiltzaileak, eten askorik egin gabe eta hariari jarraituz. Batzuetan, zalantzaren bat izan dezake esamolde egokia aurkitzean, baina, kasu horietan ere, asmatzen du berriz ere hariari heltzen.

ABERASTASUNA

- 1 Egoera ezagunetan gai arruntei buruz elkarrizketan aritzeko lexiko murriztegia duenez gero, erabiltzaileari kostatzen zaio informazioa ematea.
- 2 Egoera ezagunetan gai arruntei buruz elkarrizketan aritzeko adinako baliabideak ditu erabiltzaileak, eta lortzen du informazioa ematea. Bere jarduneko hutsuneak

keinuen bidez edo ordezkapen lexikalaren bidez betetzen ditu, forma orokorragoak erabiliz (astoa<animalia, giltza<gauza...).

- 3 Egoera ezagunetan gai arruntei buruz hitz egiteko baliabide anitz ditunez, eraginkortasunez helarazten du erabiltzaileak informazioa, nahiz eta inoiz keinuetara edo forma orokorragoetara jo behar izan.

ZUZENTASUNA

- 1 Erabiltzaileak ez du mezua helaraztea lortzen, ez baitauka behar bezain barneratua eguneroko egoerekin lotutako egitura-multzoa. Gaizki-ulertuak gerta daitezke, ahoskera eta doinuera ez direlako egokiak. Akats sistematikoak ohikoak eta askotarikoak dira: aditz-denborak nahastea, subjektuaren eta aditzaren arteko komuntadura, atzizkiak eta partikulak ezabatzea, jatorrizko hizkuntzaren zein beste hizkuntza baten interferentzia etengabeak eta abar.
- 2 Erabiltzaileak mezua helaraztea lortzen du. Zuzen erabiltzen du eguneroko egoerekin lotutako egitura-multzoa. Ahoskera eta doinuera egokiak dira, nahiz eta zenbaitetan errepikatzea eskatu behar zaion. Bestalde, batzuetan, adierazpenean akats sistematikoak egiten ditu: aditz-denborak nahastea, subjektuaren eta aditzaren arteko komuntadura, atzizkiak eta partikulak ezabatzea, jatorrizko hizkuntzaren zein beste hizkuntza baten interferentziak eta abar.
- 3 Erabiltzaileak mezua eraginkortasunez helaraztea lortzen du. Zuzen erabiltzen du eguneroko egoerekin lotutako egitura-multzoa. Ahoskera eta doinuera egokiak dira. Hala ere, oso tarteka, akatsak egiten ditu: aditz-denborak nahastea, subjektuaren eta aditzaren arteko komuntadura, atzizkiak eta partikulak ezabatzea, interferentziak eta abar.

IRAKURMENA

- 1 Eragozpen handia du maila honetako formularioak, eskariak, mezuak, oharrak eta jarraibideen ideia nagusiak ulertzeko.
- 2 Maila honetako eskariak, mezuak, oharrak eta jarraibideak zailtasun handirik gabe ulertzen ditu, baldin eta testuak laburrak eta ongi egituratuak badaude. Ideia nagusiak erraz antzematen ditu. Bestalde, hitz ezezagunei buruzko hipotesiak egiten ditu, hipotesi horiek beti berresten ez badira ere.
- 3 Aise ulertzen ditu eskariak, mezuak, oharrak eta jarraibideak, eta ideia nagusiak eta hainbat xehetasun ere bereizi egiten ditu.

EGOKITASUNA

- 1 Lekuz kanpo erabiltzen ditu ekintza komunikatiboa gauzatzeko eskainitako ereduak, eta nekez lortzen du komunikazio arrakastatsua, testua ez baitzaie hartzaileari eta xedeari lotzen.
- 2 Oro har, ongi erantzuten dio ekintza komunikatiboaren testuinguruari, eta komunikazioa arrakastatsua da, nahiz eta tarteka ez duen erregistroa behar bezala bereizten.
- 3 Eraginkor erantzuten dio ekintza komunikatiboaren testuinguruari, egoki heltzen dielako hartzaileari, xedeari eta gaiari. Erregistroak bereizten ditu gehienetan.

KOHERENTZIA

- 1 Behar adinako informazioa ematen badu ere, ideien garapena ez da egokia. Testuak ez du antolaketa onik, eta ez zaio eskatutako testu-generoari egokitzen. Zailtasun handia du iragan-orainaren koherentziari eusten.
- 2 Ideia edo informazio nagusia ondo ulertzen da, zenbait xehetasun ematean gaizki-ulerturen bat egon arren.
- 3 Testu-generoaren egiturara eta formatura egokitzen da testua. Informazio asko ematen du, eta ideia nagusiak eskema argi baten arabera daude ordenatuta eta garatuta.

KOHESIOA

- 1 Esaldiak lotzeko eragozpena du, oinarritzko testu-antolatzaileak gaizki baliatzen baititu. Oinarri-oinarritzko puntuazioa ere ez du menderatzen, eta aipatutako informazio baten erreferenteak zein diren ez da argi antzematen.
- 2 Oinarritzko testu-antolatzaileak eta denbora-erreferentzia sinpleenak erabiltzen ditu esaldi errazak lotzeko. Batzuetan, ordea, ez du asmatzen, eta irakurleak testuinguruaren laguntzaz deduzitu behar izaten du informazioa. Testuan aurkeztutako informazioa berreskuratzean, erreferentea argi geratzen da. Oinarri-oinarritzko puntuazio-markez baliatzen da loturak egiteko.
- 3 Esaldiak lotzean oinarritzko testu-antolatzaileak eta denbora-erreferentzia sinpleak egoki erabiltzen dituzenez, irakurleak apenas deduzitu behar izaten duen informazioa. Testuan aurkeztutako informazioa berreskuratzean, erreferentea argi geratzen da. Horrez gain, oinarri-oinarritzko puntuazio-markak egoki baliatzen ditu loturak egiteko.

ABERASTASUNA

- 1 Ez du erakusten ekintza komunikatiboa gauzatzeko baliabide edota estrategia nahikorik duenik; lexiko mugatua du, eta, muga horiek gainditzeko, errepikapenetara jotzen du oso maiz.
- 2 Ekintza komunikatiboa gauzatzeko baliabide edota estrategia nahikoak ditu, eta horiei erantzuteko adinako lexikoa du, nahiz eta sarritan mezua egokitu eta hitzak bilatu behar izaten dituen. Batzuetan, menpeko esaldiak ere erabiltzen ditu.
- 3 Eskura dituen baliabide linguistikoak eraginkortasunez erabiltzen ditu, bai lexiko-mailakoak, bai sintaxi-mailakoak.

ZUZENTASUNA

- 1 Maila morfosintaktikoan, lexikoan eta ortografian egiten dituen hutsegiteen zenbatekoak eta nolakoak oztopatu egiten dute mezua ulertzea.
- 2 Maila morfosintaktikoan eta lexikoan, zenbait akats egiten ditu (aditz-denborak nahastea, subjektuaren eta aditzaren arteko komunztadura eta abar), baina ez dute esanahia eragozten. Bestalde, zuzen erabiltzen ditu mailari dagozkion egoera eta gaien inguruko lexikoa eta esapideak.
- 3 Erabiltzen dituen baliabide linguistiko eta lexikalak, oro har, zuzen erabiltzen ditu; baina, tarteka, akatsak egiten ditu: aditz-denborak nahastea, subjektuaren eta aditzaren arteko komunztadura eta abar.



ERABILTZAILE
INDEPENDENTEA

HELBURUAK

Ekintza komunikatiboetan zerrendatzen diren helburuak mailako gaitasun komunikatiboaren adierazpen dira (*ikus 30. orrialdea*).

ENTZUMENA

Testuinguru ezagunetan (eskola, aisia, lana...) eta erregistro estandarrean egindako gertaeren kontaketak, azalpenak, deskribapenak, instrukzioak eta elkarrizketak ulertzeko gai izango da, baldin eta gaiak orokorrak badira eta xedea informazioa trukatzea bada. Horrez gain, komunikazio-asmoa atzemango du, ideia nagusiak jasoko ditu eta, zenbait testuingurutan, baita ñabardurak ere (zaratarik eza, abiadura normala, ahoskera garbia, erredundantzia, ikusizko lagungarriak...), betiere azalpenen bat izateko aukera badu.

Maila honen amaieran, ikaslea gai izango da

- ▶ lagunei zein senitartekoei, aurrez aurre nahiz telefonoz, ohiko prozedurei buruzko argibideak zehatz ulertzeko (ohiko tresnen erabilera, bizikidetzarako aholkuak, errezeta laburrak, zerbitzu batzuen erabilera eta abar).
- ▶ ezagun nahiz ezezagunek egoera jakin bat konpontzearen ematen dizkieten jarraibideak ulertzeko.
- ▶ lagun edo senitarteko bati, aurrez aurre nahiz telefonoz, gai ezagun bati buruzko aholkuak ulertzeko (erretzeari nola utzi...).
- ▶ lagun edo senitartekoekin aurrez aurre nahiz telefonoz, gai ezagunei buruzko elkarrizketak ulertzeko: familia, zaletasunak, lana, bidaiak, egungo gertakariak eta abar.
- ▶ ezagun nahiz ezezagunen artean, bat-bateko elkarrizketetan gaia eta ideia nagusiak antzemateko.
- ▶ bidaiata batean (tokiren batean ostatu hartzean, leku jakin bati buruz galdetzean eta abarretan) elkarrizketa arruntak ulertzeko.
- ▶ lagunartean zein familiarrean, ezagunei buruz ematen den informazioa nahiz deskribapenak ulertzeko: norbaiten aldarteaz, izaeraz, zurrumurruez eta abarrez.
- ▶ solaskide ezagun nahiz ezezagun batek egindako toki baten deskribapena ulertzeko, xedea toki horretara joatea denean.
- ▶ lagunek, ezagunek edo senideek aurrez aurre nahiz telefonoz kontatzen dizkieten bizipenak ulertzeko.
- ▶ lagunek edo senideek bere intereseko gaiei buruz (zinemari, musikari, kirolari buruz eta abarri buruz) egiten dizkieten azalpenak ulertzeko.
- ▶ lagunek edo senideek gai orokor eta ezagunei buruz adierazten dituzten ikuspegi eta iritziak ulertzeko.

- ▶ lagunek edo senideek gai ezagun baten inguruan izandako eztabaiden haria ulertzeko.
- ▶ telebistako, irratiko edo beste komunikabideetako albiste laburrak, berriak, elkarrizketa informalak, agenda, errepideen egoera, kirol-emanaldiak eta abar ulertzeko.
- ▶ film eta telesailen hari nagusia ulertzeko, baldin eta istorioa bera erraza bada eta hizketa argi eta estandarrean kontatua.
- ▶ ezagunek kontatutako nahiz komunikabideetan entzundako gertaerak ulertzeko.
- ▶ lan-esparruan lankideek zein nagusiek emandako instrukzio eta aurkezpen errazak eta argiak ulertzeko. Baita ohiko bileretako azalpenen, eztabaiden... hariari jarraitzeko ere, nahiz eta zenbaitetan argibideren bat eskatu beharra izan.
- ▶ (...)

MINTZAMENA

Maila bereko solaskideekin elkarrizketak izateko gai izango da, betiere egoera ezaguna eta gaia orokorra eta arrunta denean, xedea izanik gai konkretu edota abstraktuei buruzko informazioa trukatzeko. Era berean, gai da instrukzioak emateko, pertsonak eta objektuak labur deskribatzeko, gertaeren eta bizipenen kontaketa laburrak egiteko eta bere iritzia labur baina eraginkor adierazteko.

Maila honen amaieran, ikaslea gai izango da

- ▶ lagun zein senitartekoein ezagutzen dituen hainbat gai ez elkarrizketak burutzeko (familia, zaletasunak, lana, bidaiak eta gaurkotasuneko gertakariak...).
- ▶ lagun edo senitarteko batekin, aurrez aurre zein telefonoz, gai ezagun bati buruzko aholkuak elkarri emateko (erretzeari nola utzi...).
- ▶ lagun eta senitartekoei aholkuak emateko eta horien aldeko eta kontrako alderdiak azaletik deskribatzeko, xedea arazo/auzi/aukeraketan laguntzea denean.
- ▶ lagunartean zein familiarartean, ezagunei, ingurukoei zein familiakoei buruzko deskribapenak zehatz samar egiteko, zurrumurruen berri emanez.
- ▶ lagunartean zein familiarartean, gauzei eta gertaerei buruzko deskribapenak zehatz samar egiteko.
- ▶ ezagunen eta lagunen artean asmoak eta planak zehatz azaltzeko, baita ametsak eta nahiak adierazteko ere.
- ▶ lagunei zein senitartekoei, aurrez aurre zein telefonoz, eguneroko prozedurei buruzko argibideak zehatz emateko: ohiko tresnen erabilera, bizikidetzarako aholkuak, errezeta laburrak, zerbitzuen erabilera...
- ▶ eguneroko bizitzako egoeretan (bidaietan, dendetan, udaletxeetan, kultur etxeetan, elkarteetan, bankuetan...), zalantzak, iritzia eta jarrerak adierazteko, gaiak teknikoak izan ez eta helburua zerbitzua lortzea denean.
- ▶ ezagunen edo lagunen artean eztabaidatzeko, adostasuna zein desadostasuna agertuz, oniritzia edo gaitzespena adieraziz edota informazioa alderatuz.
- ▶ arazo bat konpontze aldera bere iritzia emateko, besteena kontuan izanik.
- ▶ auzi/arazo baten gaineko iritzia eman eta hori xume-xume arrazoitzeko besteena kontuan izanda, xedea denean bere jarrera adieraztea edota hartzailea konbentzitzea.
- ▶ lagunartean filmen eta iritzien gaineko iritzia emateko.
- ▶ ezagunei -lagun, senide, ikaskide zein lankideei- gertaera bat kontatzeko, helburua zerbait zuritzeko denean.
- ▶ lagun zein senitartekoen jakin-mina asetze aldera, senide baten biografia kontatzeko, ezaugarriak eta bizipenak deskribatuz eta pasadizoen berri emanez.
- ▶ lagun zein senideren bat jakinaren gainean jartzeko asmoz, bizipen bat kontatzeko (pasadizoa, ustekabea, bizipena, albistea...) eta solaskideak eskatutako azalpenei erantzuteko.

- ▶ lagunartean zein familiarartean, albisteak kontatzeko, helburua izanik besteak jakinaren gainean jartzea, iritzia eskatzea edota harridura, ustekabea, gaitzespena... adieraztea.
- ▶ lagunei zein familiartekoei egindako irteerak eta bidaiak edo ikuskizunak kontatzeko, helburua izanik ikusitakoa deskribatzea, irrika sortaraztea, proposamenak egitea edota, besterik gabe, jakin-mina asetzea.
- ▶ ezagunen edo lagunen artean bere barne-sentimenduak eta emozioak adierazteko.
- ▶ eguneroko bizitzan (bidaietan, dendetan, udaletxeetan, kultur etxeetan, elkarteetan, bankuetan...), kexa edo erreklamazioak egiteko, eta argibideak sinple eskatzeko eta emateko, helburua egoera jakin bat konpontzea denean.
- ▶ lan-esparruan eta ezezagunekin telefonoz hitzordua adosteko, asmoen berri eskatzeko, nahia azaltzeko eta adostasunera iristeko.
- ▶ (...)

IRAKURMENA ●

Ongi egituratutako testu argietan (kronikak, artikulua laburrak, deskribapenak eta argibideak), gai izango da komunikazio-asmoa, gaia, ideia nagusiak, xehetasun adierazgarrienak, diskurtsoaren haria eta ondorioak atzemateko eta ulertzeko, betiere gaiak orokorrak eta ohikoak badira.

Maila honen amaieran, ikaslea gai izango da

- ▶ etxetresna baten edo prozedura baten argibideak ulertzeko, baita ordenagailu-programen argibide sinpleak ere.
- ▶ lagunek emandako aholkuak ulertzeko (osasu-gomendioak, nola eta nora bidaiatu, zer eta nola erosi...).
- ▶ lagun edo senitartekoek zerbait jakinaraziz, asmoen berri emanaz edo mesede bat eskatuz, idatzitako mezu elektronikoak (posta elektronikoa edo SMS) ulertzeko.
- ▶ lagun zein senitartekoek, jakin-mina asetze aldera, gai kulturalen inguruan bidaltzen dizkieten gutunak (musikari edo filmei buruzkoak) ulertzeko.
- ▶ berak egindako eskaera bati erantzunez, lagun batek inguruko ezagun edo herritar bati buruz egindako biografia laburra ulertzeko.
- ▶ lagunek idatzitako kontaketa eta pasadizo errazak ulertzeko; batez ere, garapen lineala daukatenak.
- ▶ lagun, lankide edo senitartekoek idazten dizkieten mezu eta gutunetan, gertaera, sentipen eta nahien deskribapena ulertzeko.
- ▶ lagunek zein gertuko pertsonak, eskutitz edo foro batean, toki edo gauzei buruz idatzitako deskribapenak ulertzeko.
- ▶ ezagun zein ezezagunek egoerak adieraziz eta arrazoiak zehaztuz, egindako eskaera-gutunak ulertzeko.
- ▶ gaiak ezagunak edo arruntak badira, egunkarietako azalpen laburren ideia nagusiak ulertzeko, hala erreportaje edo artikuluetan, nola elkarrizketetan.
- ▶ informazioa eskuratze aldera, kontsulta-liburuetako azalpen laburrak, entziklopedia digitaletako definizioak edota web-orriak ulertzeko.
- ▶ toki publikoetako araudia ulertzeko.
- ▶ ohar-tauletan zerbait saltzeko edo zerbitzuren bat eskaintzeko jartzen diren iragarkiak ulertzeko.
- ▶ gutun, katalogo edota agiri ofizial laburretan garrantzizko informazioa aurkitzeko eta ulertzeko.
- ▶ kasuan kasuko informazioa eskuratze aldera, elkarte, ikastetxe edota erakundeetatik jasotako ohar edota eskutitzak ulertzeko.
- ▶ egunkari, foro edo blogetako argudio-testuen iritzi nagusiez jabetzeko; betiere, gaia ezaguna bazaio.
- ▶ ipuin, liburu eta filmen laburpenak eta eguneroko bizimoduko pasadizo sinpleak ulertzeko; betiere, egitura linealekoak badira.
- ▶ lantokiko ohiko idazki labur eta sinpleen mezu nagusia eta xedea ulertzeko.
- ▶ (...)

IDAZMENA

Eguneroko testuinguru ezagunetan esperientziak deskribatzeko, gertaerak kontatzeko eta azalpenak emateko gai izango da, baldin eta gaia orokorra eta arrunta bada.

Maila honen amaieran, ikaslea gai izango da

- ▶ lagun nahiz ezezagunei jarraibideak idatziz emateko (leku batera nola joan, jaki bat nola prestatu, tresna bat nola erabili, zerbitzu bat nola eskatu...), zer egin jakin dezaten.
- ▶ lagun edo senitartekoei aholkuak labur emateko: medikuaren gomendioak, erretzeari nola utzi...
- ▶ lagunei edo familiakoei ohar edo gutun pertsonalak idatzeko, informazioa eskatuz edo emanaz, helburua jakinaren gainean jartzea edota beharrak asetzea denean.
- ▶ lagunei, familiakoei edo lankideei mezu bidez, informazioa eskatzeko eta arazoak azaltzeko.
- ▶ lagunei edota gertukoei gai arrunten inguruan bere ikuspuntuak eta iritziak emateko, mezu elektroniko edo foro batean; esate baterako, zerbitzu bati buruz (ostatua edo garraioa), ekitaldi bati buruz edota gertaera bati buruz.
- ▶ lagunei edo familiakoei, gutun bidez, musikari, zinemari edo antzerkiari buruzko iritziak emateko.
- ▶ lagunei eta gertukoei, xedea plan bat egitea denean, eskutitz edo foro batean tokiak eta objektuak deskribatzeko.
- ▶ ezagun zein lagunei arazoren bati konponbidea ematearren eskaera-gutun bat egiteko, egoera zein den adieraziz eta eskaeraren arazoak argituz.
- ▶ lagunari norabait joateko gonbidapen-gutun bat egiteko, tokia edo dena delakoa deskribatuz.
- ▶ lagunei, zalantzak argitzeko asmoz, gai bati buruzko azalpenak emateko.
- ▶ lagunei edo familiakoei, gutun bidez, bere bizipenak kontatzeko.
- ▶ lagun bati inguruko ezagun edo herritar baten biografia laburra egiteko, pertsonaia ezagutaraziz eta honen bizipenak kontatuz.
- ▶ curriculum vitae osatzeko, erakundeetan bere berri emanaz lana topatze aldera.
- ▶ ohar-taula batean edota web-orri batean salgai duen edo eskaintzen duen zerbait iragartzeko, objektuaren edo zerbitzuaren informazioa azalduz.
- ▶ erakundeei eta lankideei, gutun edo mezu elektroniko bidez, informazioa eskatzeko, xedea zalantzak argitzea denean.
- ▶ lan-esparruan, ereduei jarraikiz, bilera-deiak eta baimen-eskaerak egiteko.
- ▶ (...)

EDUKIAK



I. Gaitasun soziolinguistikoaren garapena

- ▶ Testuinguruaren ezaugarriak
- ▶ Gaiak
- ▶ Kultura-erreferentziak

II. Gaitasun testualaren garapena

- ▶ Testu-generoak
- ▶ Funtzioak
- ▶ Adierazpide testualak

III. Gaitasun linguistikoaren garapena

- ▶ Adierazpide linguistikoak

IV. Gaitasun estrategikoaren garapena

- ▶ Gaitasun estrategikoa

— * —

⊕ B1 mailan adierazpide berria

I. Gaitasun soziolinguistikoaren garapena

TESTUINGURUAREN EZAUGARRIAK

Ekintza komunikatibo guztiak testuinguru jakinetan gauzatzen dira, maila bakoitzean ezaugarri zehatzak dituzten testuinguruetan, alegia (*ikus 36. orrialdea*).

ENUNTZIATZAILEA- ENUNTZIATARIOA	XEDEA	ERABILERA- ESPARRUA
<p>Solaskidearen rolak:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Senide-senide – Lagun-lagun + Ikaskide-ikaskide + Ezezagun-ezezagun + Ikasle-irakasle <p>Solaskideen arteko harremana:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Berdinen artekoa edo gertutasunezkoa + Urruntasunezkoa 	<p>A2 mailakoez gain,</p> <p>Giza harremanak edo konplimentuak</p> <ul style="list-style-type: none"> + doluminak ematea + arreta eskatzea <p>Informazioa ematea/eskatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> + gertaera edo albiste baten kontaketa egitea... + deskribapen fisiko zein psikologikoak egitea... + ... <p>Iritziak, ezagutzak eta jarrerak adieraztea eta egiaztatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> + gai bati buruzko azalpena egitea zerbait argudiatuz + ideiak, pertsonak, objektuak, lekuak eta egoerak alderatzea + ... <p>Sentimenduak eta jarrerak adieraztea</p> <ul style="list-style-type: none"> + ustekabea, zalantza eta harridura adieraztea + maitasuna adieraztea + ... <p>Solaskidearengan eragitea</p> <ul style="list-style-type: none"> + baimen-eskaera egitea eta erantzutea + norbait konbentzitzea + ... <p style="text-align: center;"><i>Ikus Funtzioak atala</i></p>	<p>Pertsonen arteko harremanean eta solaskideen hurbileko munduan:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Senitartekoa – Lagunartekoa – Zerbitzuguneak: dendak, informazio-bulegoak... + Aisialdikoa + Lanekoa + Akademikoa

GAIAK

Mailako ekintza komunikatiboak gauzatzeko, gai-zerrenda bat proposatzen da jarraian, irekia eta ikasleen premietara egokituko dena (*ikus 37. orrialdea*)

- ▶ **DATU PERTSONALAK:** Izena, helbidea, adina, sexua, egoera zibila, lanbidea, familia, pertsonen ezaugarriak, elkar ezagutzea, curriculum...

- ▶ **NORBERAREN EZAUGARRIAK:** Gorputza, jarrerak, mugimenduak, sentimenduak, irudipenen deskribapena, izaera...

- ▶ **HIRIA:** Herriak, bizilekua, kaleak, eraikuntzak, etxebizitza (gelak, altzariak eta apaingarriak), materialak, toki interesgarriak, jendea, pertsonaia ezagunak, gizartea...

- ▶ **OHIKO JARDUERAK:** Eguneroko eginkizunak, egoerak, etxeko lanak, ohiturak, etxeko konponketak...

- ▶ **AISIALDIA:** Kirola, jolasa/ jokoak, musika, literatura, zaletasunak, oporrak, denbora-pasak, zinea, telebista, ikuskizunak...

- ▶ **BIDAIAK ETA BISITAK:** Ibilbide baten prestakuntza, norabideak zehaztea, tokiak deskribatzea, herriak, hiriak, jendea, inguruak, trafikoa, ekipajea, bidaietako gorabeherak...

- ▶ **GIZA HARREMANAK ETA HARREMAN SOZIALAK:** Izaerak, gustuak, familia, lagunak, ikaskideak, auzokideak, lankideak, eguneroko kontuen trataera...

- ▶ **OSASUNA ETA GORPUTZA ZAINTZA:** Sintomak, aholkuak, bizitza osasuntsua, gaixotasuna, egoera fisikoa, medikuaren kontsulta, osasun-zentroak, botikak...

- ▶ **HEZKUNTZA:** Ikasgela, ikastetxea, irakaskuntza, irakaslea, ikaslea, gurasoak, ikasketak, unibertsitateak, lan-irteerak...

- ▶ **HIZKUNTZAK:** Euskara eta euskalkiak, atzerriko hizkuntzak...

- ▶ **KULTURA:** Zinema, literatura, musika, museoak, artistak, kultur ekitaldiak...

- ▶ **ELIKADURA:** Janaria, edariak, jateko/edateko ohiturak, ordutegiak, menuak, jantokiak, merkatuak...

- ▶ **GARRAIOA:** Bizikleta, autobusa, trena, autoa, hegazkina, geltokiak, aireportuak...

- ▶ **KLIMA ETA INGURUMENA:** Tokien deskribapena, natura, naturaren aldaketak, eguraldia, ingurugiroaren babesa, birziklapena...

- ▶ **OSPAKIZUNAK:** Festak, gonbidapenak, zoriontzea, urtebetetzeak, omenaldiak, tradizioa...

▶ **HEDABIDEAK:** Egunkariak, irрати eta telebistak, aldizkariak, komunikabide digitalak, sare sozialak...

▶ **LANA:** Lanbideak, lan-tresnak, soldatak, curriculumak, lan-baldintzak...

▶ **OSTALARITZA:** Tabernak, jatetxeak, hotelak, egoitzak...

➤ **ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA:** Instrukzioak, gauzen eta programen erabilera, teknologia berriak, zientzialariak...

➤ **EKONOMIA ETA MERKATARITZAKO JARDUERAK:** Kopuruak, prezioak, gustuak, dendak, eguneroko gauzak, opariak, moda, erosketak, eskaintzak, kalitatea, ordainketa-baldintzak...

➤ **ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK:** Informazioguneak, turismo-bulegoak, erakundeak, gizarte-zerbitzuak...

▶ KULTURA-ERREFERENTZIAK

Hizkuntzaren barneratze-prozesuan ezinbestekoa da alderdi linguistikoez gain euskal gizartearen izaera historiko eta sozialaren berri ematea, ikaslea gure errealitatean eta mundu-ikuskeran kokatuz (*ikus 38. orrialdea*).

II. Gaitasun testualaren garapena

TESTU-GENEROAK

Estandarizatuta eta tradizioz finkatuta dagoen moldean antolatzen du informazioa erabiltzaileak, gizarte- edo lanbide-esparru batean (*ikus 48. orrialdea*).

AHOZKOAK

Ulermena:

- ▶ Aurrez aurrekoak:
 - Hitz eta esapide errazak: zenbakiak, prezioak, denbora-erreferentziak...
 - Jarraibideak: toki batetik bestera nola joan, gauza bat non dagoen...
 - Mezuak eta azalpen labur-laburrak zerbitzuetan
 - Balorazio, iritzi edo kexu sinple eta labur bat: zerbitzuren bati buruzkoa...
 - Elkarrizketa sinpleak
 - Kontaketak: gertaerak...
 - + Aholkuak (medikuaren gomendioak...)
 - Azalpen laburrak
 - Deskribapenak
 - Errezetak
 - Ezezagunen adierazpen sinpleak
 - Ipuin klasikoak
- ▶ Grabatuak eta komunikabideetatik jasotakoak:
 - Aurreikusita dauden komunikabideetako ohar eta iragarkiak
 - Testuinguru jakinetan aurreikusita dauden erantzungailuetako mezu laburrak
 - Irudi bidezko iragarkiak
 - Albiste laburrak
 - Komunikabideetako ohar eta iragarkiak
 - Toki publikoetako iragarki laburrak
 - Eguraldi-iragarpenak
 - + Erantzungailuetako mezuak
 - Komunikabideetako albiste laburrak
 - Kontaketak

+ Ekoizpena:

- Agindu laburrak
- Azalpen laburra

- Gauzen eta tokien deskribapenak
- Kexa edo erreklamazioa
- Pertsonen deskribapen fisiko eta psikologikoak
- Prozedurei buruzko argibideak: tresnen erabilera, zerbitzuena...
- Argudiozko adierazpen laburra

Ekoizpena elkarreraginean:

- Pertsonen aurkezpen laburrak: nor den, non bizi den, lantokia, helbidea, telefonoa, gustuak...
- Agindu sinple eta laburrak
- Adeitasunezko hitz eta esapide errazak: aurkezteko, agurtzeko, zoriontzeko...
- Galde-erantzun errazak: non bizi den, nora doan, zer gustatzen zaion...
- Argibideak, jarraibideak: toki batetik bestera nola joan, bidea galdetu...
- Elkarrizketa sinpleak eta errazak
- Galde-erantzunak
- Gauzen, tokien, eguraldiaren eta pertsonen deskribapen errazak
- Kontakizun sinpleak: oporrak...
- + • Aholkuak, argibideak eta jarraibideak
- Balorazio eta kexuak: zerbitzu bati buruzko iritzia emateko...
- Familia eta lagunarteko eztabaidak
- Familia eta lagunarteko solasaldiak

IDATZIAK ▾

Ulermena:

- Leku publikoetako ohiko seinaleak, kartelak...
- Oinarrizko jarraibideak, inprimakiak edota fitxa bat betetzean, galde-sorta bati erantzuteko...
- Publizitate- eta informazio-orriak...
- Ohar eta mezu pertsonal laburrak
- Argibide edota oinarri-oinarrizko arau erraz eta laburrak
- Bidaia-txartelak, sarrerak, fakturak, etiketak, katalogoak...
- Formulario sinpleak
- Deskribapen sinpleak
- Gida komertzialak
- Iragarki laburrak
- Leku publikoetako ohiko seinaleak, kartelak
- Publizitate- eta informazio-orriak, triptikoak...
- Toki publikoetako araudiak
- Pasadizoak / kontaketa sinpleak
- + • Gonbidapenak (merienda batera, bazkari batera...)

- + • Bidaia-txartelak, sarrerak, jatetxeetako kartak eta mezuak, fakturak, etiketak, katalogoak...
- Senitarteko eta lagunarteko gutunak
- Errezetak
- Horoskopoa
- Komikiak
- Kronikak (kirol-kronikak...)
- Egitarauak (festak...)
- Turismo-gidak
- Gertaera, sentipen eta nahien deskribapenak
- Kultur gaietako buruzko aipamenak (liburu bat, musika-lan bat...)
- Ipuin eta kontaketa errazak
- Elkarretako edo ikastetxeetako gutunak
- Gai ezagunetako argudio-testuak

Ekoizpena:

- Inprimakiak, txantiloiak (bete)
- Zerrendak
- Oharrak
- Gonbidapen-oharrak / proposamenak
- Jarraibide eta arau sinpleak
- Postalak
- + • Gutun pertsonalak
- Errezetak
- Curriculum vitae
- Eskari-gutunak
- Ohar-taula baterako iragarkia
- Pertsona ezagun baten biografia laburra
- Pertsonen, tokien eta gauzen deskribapenak
- Aholkuak eta gomendioak
- Proposamenak
- Argudio-testu laburrak

Ekoizpena elkarreraginean:

- Mezu laburrak (mezu elektronikoak, postalak, oharrak)
- Galde-erantzunak informazio pertsonala trukatzeko
- Gutun pertsonalak
- Ohar eta jakinarazpenak
- Proposamen laburrak
- Kontaketa laburrak

FUNTZIOAK

Erabiltzaileak hizkuntza zerbait komunikatzeko erabiltzen du, zerbait egin edo lortzeko. Ekintza komunikatibo guztietan dago xede bat (*ikus 49. orrialdea*).

Hauek dira maila honen amaieran ikasleak bete ahal izango dituen funtzioak:

Giza harremanak eta konplimenduak

- Agurtzea
- Nork bere burua eta besterena aurkeztea
- Mesedeak eskatzea
- Interesa adieraztea
- Barkamena eskatzea
- Eskerrak ematea
- Zoriontzia
- Goraintziak ematea
- Topa egitea
- Gauza onak opa izatea
- + • Doluminak ematea
- Arreta eskatzea
- ...

Informazioa ematea eta eskatzea

- Datu pertsonalei buruzko informazioa eskatzea eta ematea
- Leku, ordutegi, data, eguraldi, prezio, neurri, kopuruei buruz galdetzea eta erantzutea
- Zerbait dagoen, baden edo dakien galdetzea eta erantzutea
- Pertsonak, lekuak eta gauzak deskribatzea: zerbait nolakoa den, non dagoen...
- Jabetza adieraztea
- Informazioa ematea eta eskatzea eguneroko kontuez
- Denboran zehar gertatutako ekintzak kontatzea
- Zerbitzu bat eskatzea, eskaintzea edota horri buruz galdetzea eta erantzutea
- Iraganeko ekintzak eta ohiturak oso labur deskribatzea
- Argibideak, jarraibideak ematea eta eskatzea
- + • Aurkezpen laburrak egitea
- Hurbilekoen deskribapen fisiko zein psikologikoak egitea
- Gertaera edo albiste baten kontaketa egitea: zerbait zurrizteko, solaskideak eskatutako azalpenei erantzuteko, harridura adierazteko edo irrika sortzeko
- ...

Iritziak, ezagutzak eta jarrerak adieraztea eta egiaztatzea

- Zerbait baieztatzea ala ezeztatzea
- Norbaiti buruz edo zerbaiti buruz iritzia eskatzea eta ematea
- Zerbitzuei buruzko balorazio orokorra egitea
- Proposamen bati buruzko iritzia modu laburrean ematea
- Adostasuna/desadostasuna eskatzea edota ematea
- Ezintasuna adieraztea
- Gonbidapena onartzea / gaitzestea
- Aisialdiko planak onartzea / ez onartzea
- + • Iritzia adieraztea arrazoi laburrak emanez
- Gai bati buruzko azalpena egitea zerbait argudiatuz
- Jarreraren berri ematea
- Gaitasuna edo gaitasunik eza adieraztea
- Ideiak, pertsonak, objektuak, lekuak eta egoerak alderatzea
- Zalantza adieraztea
- ...

Sentimenduak, hunkipenezko jarrerak/egoerak adieraztea eta egiaztatzea

- Aldarteaz, osasun-egoeraz galdetzea eta informazioa ematea
- Ezustea adieraztea
- Poza / tristura adieraztea
- Gustukoa dena eta ez dena adieraztea.
- + • Harridura adieraztea
- Maitasuna adieraztea
- Beldurra edo kezka adieraztea
- Etsipena adieraztea
- Zerbaiten esperantza adieraztea
- Haserrea adieraztea
- ...

Solaskidearengan eragitea

- Laguntza eskatzea eta eskaintzea
- Egiteko bat proposatzea
- Planak eta asmoak adieraztea
- Gonbidapena egitea
- Erregutzea
- Aginduak ematea
- Baimen-eskaera egitea eta erantzutea
- Zerbait debekatzea
- Aholkuak ematea eta eskatzea
- + • Norbait konbentzitzea
- ...

ADIERAZPIDE TESTUALAK

Ekintza komunikatiboak egoki gauzatzeko, erabiltzaileak testuak ongi taxutzen eta interpretatzen jakin behar du, baliabide egokien bidez (*ikus 49. orrialdea*).

Hauek dira, besteak beste, maila honetan erabiltzaileak baliatuko dituen adierazleak:

1. Plan orokorra

- ▶ Ahozkoak. Idatziak.
- ▶ **Gaia:** ezaguna, gertaeren mundukoa, gertukoa enuntziatzaile zein hartzailearentzat, bai denboraz eta baita ezagutzaz ere. Mundu errealekoa, fisikoa edo konkretua.
- ▶ **Egitura**

2. Interaktibotasuna

- ▶ Deiktikoak:
 - Pertsonalak (aditzaren lehen eta bigarren pertsonak, izenorde pertsonalak, + plural hurbila: -ok)
 - Denborazkoak (denbora-adberbioak: *orain, gero, gaur, atzo, bihar*, + *iaz, hurrengoan, datorren urtean*)
 - Espazialak (leku-adberbioak: *hemen, hor, han*, + *hementxe, hortxe, hantxe*)
- ▶ Galderak

3. Sekuentziak

- ▶ Elkarrizketa
- ▶ Preskripzioa (instrukzioa, agindua...)
- + Azalpena (deskripzioa, esplikazioa...)
- + Kontaketa (narrazioa)

4. Konexioa

- ▶ **Testu-antolatzaileak** (lokailuak, etab.) ahozko testuetan eta testu idatzietan
 - Hizketa-antolatzaileak: *ze...; eta bueno...; bada...; zera...; bale, bueno, ezta?*
 - Lokailuak:
 - Emendiozkoak: *eta, ere*, + *baita... ere, bai eta... (ere), ezta... ere, ez eta... (ere), behintzat, gainera*
 - Hautakariak: *bestela, ala*
 - Aurkaritzakoak: *baina, ordea*, + *aldiz, dena den (dela), hala ere, berriz*
 - + Ondoriozkoak: *-eta, hau dela eta, hortaz, beraz, horrela, bada, horregatik*
 - Kausazkoak: *zeren, izan ere*

- Denbora-antolatzaileak:
 - *goizean, arratsaldean, orduan, gero, baino lehen, ondoren, garai hartan,*
 - + *behin batean, gaur egun, halako batean, gaurkoz, oraingoan, azkenean, bitartean, harrezkero, aurretik, eta gero, geroztik, handik aurrera...*
- Birformulatzaileak:
 - + - *Esplikatiboak: alegia, hau da*
 - *Zuzentzaileak: hobeto esan*
 - *Laburbiltzaileak: ondorioz, azken batean*
- Zehatzaileak edo adibide ematekoak: *adibidez,* + *esaterako*
- Ordena-adierazleak: *lehenengo, ondoren, gero, amaitzeko, bukatzeko, alde batetik, bestetik, azkenik,* + *lehenik, jarraian, bestalde*

► Puntuazioa

Erabiltzaile independenteak maiz joko du azalpenera eta kontaktetara; gero eta testu-antolatzaile gehiago (hautakariak, ondoriozkoak, kausazkoak...) baliatu beharko ditu, eta aberatsago idatziko du (gero eta adberbio eta adjektibo gehiago...). Horrek guztiak esaldien joskera zailduko du.

- Galde- zein harridura-ikurrak
- Bi puntuak: zerrendatzeko, mezuen abiaburuan, orduak emateko, + esaldiaren lehen zatia argitzeko, frogatzeko edo laburbiltzeko, hitzez hitzeko aipamenean aurrean
- Puntua: esaldi eta esapide sinpleen bukaeran; ordinaletako “garren” ordezkatzeko; + milatik gorako zenbakietan; hainbat laburduratan
- Etenpuntuak: esaldia bukatu gabe utzi dela adierazteko
- Koma:
 - elkarren kideko zatiak zerrendatzeko, datak emateko, perpaus elkartu batzuen atzetik (denborazkoak, kontzesiboak...), edota deikiak adierazteko
 - testu-antolatzaileen ondoren (ondoren, adibidez, atzo...)
- + - tartekiak

5. Izen-kohesioa

- Kate anaforikoak osatzen dituzten errepikapenezko testu-baliabideak:
 - Erreferentziak (anafora eta + kataforak)
 - Ordezkapen lexikala (sinonimoak, hiperonimoak)
 - Elipsia
 - Definizioa (mugatzzaileak)

6. Aditz-kohesioa

- Azalpen- eta kontaketa-adizkiak
 - Bigarren planokoak
 - > Azalpenetan
 - orain puntuala (“dator”)

- orain ez-burutua (“etortzen da”)
 - > Kontaketetan
 - iragan puntuala (“zeterren”)
 - iragan ez-burutua (“etortzen zen”)
 - Lehen planokoak
 - > Azalpenetan
 - orain burutua (“etorri da”)
 - > Kontaketetan
 - iragan burutua (“etorri zen”)
- ▶ Ekintza-adizkiak
- ▶ Aginte-adizkiak (jokatu gabea eta jokatua)
- ▶ Orain geroa (“etorriko da”)
- ▶ Bestelako adizkiak

7. Ahots enuntziatzaileak

Testuan ageri diren ahotsak esandakoak adierazteko baliabideak: estilo zuzena,

- + zehar-estiloa eta zehar-estilo librea
 - + • Menderakuntza
 - > Izen-funtziazko menderakuntza
 - > Konpletiboak: -(e)la, -(e)nik, -(t(z))eko
 - > Zehar galdera: -(e)n
 - Alderdi ortografikoa
 - > Marra luzea
 - > Komatxoak
 - Esapideak
 - > *Urliak* dioenez, *Yk* esaten duen bezala
 - > *Urliaren* arabera

8. Modalizazioa

Adizkiak: *uste izan, pentsatu, jakin, iruditu*

Iritzi-adberbioak: *agian, beharbada, ziur, seguru, jakina, noski*

- + “Omen”, “ote” partikulak
 - Adjektiboak: gradu-markak eta graduatzaileak (indargarriak zein leungarriak)
 - Adizkiak: aditz-lokuzioak (*behar izan, nahi izan, nahiago izan...*)
 - Esamolde adjektibodunak: adjektiboa + -t(z)ea
 - Adizkiak: aditz-lokuzioak (*ahal/ezin izan, nahi izan...*)
- + KE orain aspektugabea (*etor daiteke*)
 - Aditza: *gustatu, poztu, damutu, lotsatu, atsegin izan, gogoko izan, maite izan, beldur izan, lotsa izan, + estimatu, merezi izan, damu izan...*
 - Adberbioak: *zorionez, zoritxarrez, tamalez...*
 - Adjektiboak: *ederra, polita, txarra, itsusia...*
 - Atzizkia: *-garri...*
 - Esapideak: *harridura-perpauak eta Nire ustez...*

III. Gaitasun linguistikoaren garapena

ADIERAZPIDE LINGUISTIKOAK

Ekintza komunikatiboa egoki gauzatzeko, adierazpide linguistikoak beharrezko baliabideak dira (*ikus 53. orrialdea*).

1.- Alderdi fonologikoa

- ▶ Euskararen bokalak eta kontsonanteak ezagutu eta ahoskatu.
- ▶ Euskararen fonema txistukariak: /tz/, /tx/, /ts/, /z/, /s/, /x/
- ▶ Prozesu fonologikoak
 - Palatalizazioa (/is/ > (ix): isilik > (ixilik), /in/ > (iñ): mina > (miña)...
 - Bokal-epentesia: /e/ Kontsonante-epentesia: /r/ (hirurehun, lauretan...)
 - Asimilazioak eta elipsiak: (ez dira/ (eztira), ez naiz/ (enaiz)
- ▶ Diptongoak: /ai/ aizu, /ei/ zein, /oi/ goi, /au/ auzo, /eu/ euri.
- ▶ Hiatoak
- ▶ Aldaketa fonetikoak:
 - Bustidura
 - Gortze-prozesua: bdg/ptk
 - Intonazioa: euskararen intonazioa
 - Euskararen hitz luzeen azentu bikoitza: (*osásuná, emákumeda...*)

2.- Alderdi ortografikoa

- ▶ **Ortografia**
 - Euskararen alfabetoa
 - -r-ren aurrean bokala mailegu zaharretan: *arropa, errege, erloju...*
 - -nb eta np grafiak
 - Absolutuan deklinatutako orduak nola idatzi
 - Euskararen fonema txistukariak: /tz/, /tx/, /ts/, /z/, /s/, /x/
 - Maileguen egokitzapena: *funtzionario, erresistentzia...*
 - Izen eta adjektiboetan bustidura adierazteko: -dd-, -ll-, -tt-
 - *h* grafia (*hau, harri, ahal...*)
 - Atzerriko ohiko izenen idazkera (*Erroma, Bartzelona, Madril, Pirinioak...*)
 - Zenbakien (bi kilo eta erdi), ordinalen (8.a...) eta daten idazkera (2008ko...)
 - Letra larriak eta xeheak nola erabiltzen diren
 - Ortografiatzeko zalantzak (-e)z gero...
- ▶ **Puntuazioa**
 - > Galde- zein harridura-ikurra

- Hainbat esapidetan: *Hau hotza! Zer berri?*
- > Bi puntuak
 - Zerrendatzeko: *Erosketak: ogia, esnea...*
 - Mezuen abiaburuan: *Arreba maitea:*
 - Orduak emateko: *7:15ean dator autobusa.*
 - + • Esaldiaren lehen zatia argitzeko, frogatzeko edo laburbiltzeko: *Jendea berokia jantzita dabil: hotz egiten du.*
 - Hitzez hitzeko aipamenen aurrean: *Maisuak zera esan zion: isildu!*
- > Puntua
 - Esaldi eta esapide sinpleen bukaeran: *Aitor naiz.*
 - Zenbakiz adierazitako ordinaletako “garren” ordezkatzeko: *XX. mendean...*
 - + • Milatik gorako zenbakietan: *5.654*
 - Hainbat laburduran: *or. (orrialdea); etab. (eta abar)*
- > Etenpuntuak
 - Esaldia bukatu gabe utzi dela adierazteko: *Erosketak: ogia, esnea...*
- > Koma
 - Elkarren kideko zatiak zerrendatzeko: *Ogia, esnea, dilistak...*
 - Datak emateko: *Donostian, 2003ko uztailaren 2an.*
 - Perpaus elkartuetan menpeko esaldien atzetik (denborazkoak, kontzesiboak...): *Etortzen denean, esango diogu.*
 - Deikia: esaldi-hasieran zein -tartearen doanean: *Ekarri, Idoia, eskuan daukazuna! Jon, etorri hona!*
 - Testu-antolatzaileren ondoren (ondoren, adibidez, atzo...): *Atzo, auzoko tabernan...*
 - + • Banakariak (bai..., bai...; ez..., ez... eta abar): *Guk bai ardoa, bai sagardoa edan genituen.*
 - Tartekiak koma artean idatzi ohi dira: *Kontu honek, noski, hankaz gora jarri du proiektua. Bihar, lagunekin batera, mendira noa.*

3.- Alderdi semantikoa eta lexikoa

- ▶ Lantzen diren funtzioetarako maiz erabiltzen diren adierazleak
- ▶ Lantzen diren egoeretako ohiko lexikoa
- ▶ Sarri erabiltzen diren sinonimo eta antonimoak

4.- Alderdi morfosintaktikoa

4.1.- Izen-sintagma

▶ Deklinabidea

Mugatu singularra, mugatu plurala eta mugagabea

Absolutua	NOR
Ergatiboa	NORK
Datiboa	NORI
Inesiboa	NON

Genitibo edutezkoa	NOREN
Adlatiboa	NORA
Adlatibo norabidezkoa	NORANTZ
Motibatiboa	ZERGATIK, NORENGATIK
Ablatiboa	NONDIK
Soziatiboa	NOREKIN
Genitibo leku-denborazkoa	NONGO
Adlatibo bukatuzkoa	NORAINO
Destinatiboa	NORENTZAT
Instrumentala	ZERTAZ

► Bizidunen deklinabidea (singularra, plurala eta mugagabea)

- + • Inesiboa: NORENGAN (*Maiterengan, haurraren, haurraren...*)
- Adlatiboa: NORENGANA (*ama(ren)gana, lagunengana...*)
- Ablatiboa: NORENGANDIK (*amarengandik, lagunarengandik...*)
- Adlatibo bukatuzkoa: NORENGAINO (*alabarengaino, Ikerrengaino...*)
- Adlatibo norabidezkoa: NORANTZ/NORAT/NORENGANTZ

► Izena

- Arruntak eta bereziak
- Bizidunak eta bizigabeak
- Zenbakarriak eta zenbakaitzak
- + • Plural hurbila: -ok

► Galdetzaileak

- Nor (nork, nori, noren, norekin, norengan...)
- Zer (zerk, zertaz, zeri buruz, zertan, zer ordutan, zer ordutatik zer ordutara, zergatik, zertarako)
- Non (nongoa, nora, nondik)
- Noiz (noiztik, noizko, noiz arte)
- Zenbat (zenbatek)
- + • Nola, nolakoa
- Zerez, zerezko
- Zein (zeinek, zeini...)
- Zeren aldeko, zeren kontrako, zeri buruzko, zein egunetako...

► Izenordainak

- Pertsona-izenordainak: ni, zu, gu...
- Erakusleak: hau, hori, hura, hauek, horiek, haiek
- Izenordain mugagabeak:
 - Zerbait, norbait, zerbaitek, norbaitek, zerbaiti, norbaiti...
 - Inor ez, ezer ez, inork ez...
- + • Izenordain zehaztugabeak: edozein, edozeinek, edonor, edonork, edozer...
- Bihurkariak:
 - NOREN + BURUA (*ez du bere burua onartzen...*)

- + – ELKAR absolutuan, datiboan, sozietiboan eta genitiboan: *elkar* ikusi dugu; *elkarrekin* etorri gara; *elkarren* ondoan eseri gara...

► Determinatzaileak

> Mugatzaileak

• Artikuluak:

- Zehaztuak (-a/-ak)
- Zehaztugabeak (bat/batzuk)
- Erakusleak: hau, hori, hura, hauek, horiek, haiek, + honengana, hauengana, honengan, hauengan...

> Zenbatzaileak

• Zehaztuak

- Zebakiak: (0-100; 0-1.000...); + zatikiak: bosten bat, bost seiren...; ehunekoak eta portzentajeak.
- Ordinalak: lehena, bigarrena...
- Kopuru-adierazpenak: *kilo bat, kilo bat eta erdi, lau ordu...*
- Orokorrak: oso, guztia, dena

- + – Banatzaileak: -NA (*bana, bina...*); -NAKA (*seinaka etorri dira...*); -KO (*liburu bakoitzeko...*)

- Zehaztugabeak: asko, gutxi, batzuk, zenbait, nahiko(a), horrenbeste, pixka bat, + makina bat, hainbat...

► Adjektiboa

> Motak

- Bakunak: eder, polit, itsusi...
- Nola eta Nolakoak bereizi.
- Huts izenondoa (*kafe hutsa, alkohol hutsa, poltsa hutsa...*)

- + • Esamoldeak: -arena egin

> Graduatzaileak

- askea: oso, nahiko, izugarri, samarra, hutsa...
- errepikapenaren bidezkoa: txiki-txikia...
- atzizki bidezkoa: -egi, -ago, + -en

> Izenlagunak

- Nominalizazioa: -t(z)eko: *zuloak egiteko gailua...*

- + • Zenbatzailea + izena + -(e)ko: *bi urteko umea...*

> Aposizioa

- Aposizio ez-murrizgarria, aposizioa NOR IS denean

- + • Aposizio ez-murrizgarria, aposizioa perpausa denean, batez ere NOR kasuan (*Amaia, nirekin bizi dena, gaixotu egin da...*)

► Adberbioak

- Leku-adberbioak: hemen, hor, han...
- Denbora-adberbioak: gaur, atzo, bihar, etzi, orain, gero, lehen, + noizean behin, behin...
- Modu-adberbioak: gaizki, txarto, ondo, poliki...
- Iritzi-adberbioak: agian, badaezpada, dudarik gabe, noski...

- Graduatzaileak: batere, erabat, guztiz, ia-ia, izugarri, ikaragarri, zeharo
- Zalantza-adberbioak: agian, badaezpada, dudarik gabe, noski, + antza, dirudienez, itxuraz, zalantzarik gabe, ziur asko
- Postposizioen bidez osatuak:
 - Nor edo partitiboa eskatzen dutenak: -rik gabe, ezean
 - Noren eskatzen dutenak: aurre, atze, azpi, barru, gain, ondo, alde, arte, aurka, inguru, + pare, esker, menpe, orde
 - Nori eskatzen dutenak: esker, buruz
 - + – Nondik eskatzen dutenak: kanpo
 - Instrumentalarekin: (zerez) gain(era), bestalde(an).
 - Denbora adieraztekoak (hemendik aurrera, handik aurrera, barru...)
- Zenbait adierazpen: gutxi gorabehera
- + • Beste maila batzuk: erdi, benetan

► Adierazkortasun-maila

- Hitz-jokoa: plisti-plasta, tipi-tapa...

► Hitz-sortzaileak

> Elkarketa

- Izena + izena: seme-alabak, aitona-amonak, patata-tortilla...
- + • Izena+ adjektiboa: sudurluze, ipurterre...
- Hitz-elkarketak: toki, alde, leku, + aldi, gabe, zain

> Eratorpena:

- Atzizkiak
 - ari (kirolari...)
 - + -aro (urtaro...)
 - dun (txapeldun...)
 - gailu (garbigailu...)
 - garren (zortzigarren...)
 - garri (interesgarri...)
 - gile (etxegile...)
 - ka (korrika...)
 - keria (kirtenkeria...)
 - le (idazle...)
 - + -men/pen (laburpen...)
 - ro (astiro, berriro...)
 - tar (zarautzar...)
 - tasun (edertasun...)
 - tegi (barnetegi...)
 - ti (kakati...)
 - txo (loretxo...)
 - tzaile (zulatzaile...)
- + • Aurrizkiak: aurre-, kontra-, ez-
- + • Maileguak (bioklima, termometro...)

4.2. - Aditza

► Ezaugarriak

> **Aditz iragankorrak eta iragangaitzak**

- Jon sartu da / Jonek sartu du autoa

> **Jokatuak eta jokatuagabeak**

- Etorri naiz, egin dut...
- Etortzea, egiteko, eramanda, ikusita

> **Trinkoak eta perifrastikoak**

- Doa, dator, darama
- Joan da, etorri da, eraman du

► Aspektua

Orainaldi burutua:	joan naiz
Orainaldi ez burutua:	joaten naiz
Gertakizuna:	joango naiz
Iragan burutua:	joan nintzen
Iragan burutuagabea:	joaten nintzen
Puntukaria:	ikasten ari naiz, dago, dauka
Lehenaldiko puntukaria:	egiten ari nintzen
Trinkoak:	nabil, zabilta, nenbilen, zenbiltzan...
Aditz-lokuzioen aspektua:	bizi izan, ari izan, behar izan, balio izan, nahi izan, ahal izan eta ezin izan
Zenbait aditz-lokuzio:	logura naiz / logurak nago, gose naiz / goseak nago...

► Modua

> **Indikatiboko orainaldia**

NOR:	izan, egon, joan, ibili, etorri
NOR-NORK:	ukan, eduki, jakin, + eraman, ekarri, esan (nioen), iruditu (zirudien)
NOR-NORI:	zait, zaizkit...
ZER-NORI-NORK:	diot, didazu...

> **Indikatiboko lehenaldia**

NOR:	izan, egon, joan, ibili, etorri
NOR-NORK:	ukan, eduki, jakin eraman, + ekarri, esan (nioen), iruditu (zirudien)
NOR-NORI:	zitzaidan, zitzaizkidan...
NOR-NORI-NORK:	nion, nizkion...

> **Ahalera**

- Ahal izan
- Ezin izan

- + Ahalezko orainaldia: naiteke, zaitzake...
- + NOR-NORK laguntzailea, NOR 3. pertsona (dezakegu, ditzakegu...)

> **Agintera**

- Partizipio burutua: *Etorri! Segi!*
- NOR: *izan (zaitez, zaitetzte) eta trinkoak (zoaz, zoazte, zatoz, goazen, zatozte...)*
- NOR-NORK: *ukan (ezazu, itzazu...)*
- ZER-NORI-NORK *galdeiozu, esaiozu...*
- + → 3. pertsonako agintera (doala, dagoela...)

> **Aditz-izena**

- -t(z)ea espero, erabaki, pentsatu (harekin joatea erabaki dugu...)
- + → -t(z)eko prest, gogo, beldurra, asmoa (*joateko prest, egiteko gogo...*)
- -t(z)en utzi, (*etxeko lanak egiten utzi dugu...*)
- -t(z)eak, -t(z)eari (*hori esateak sutan jartzen nau...; erretzeari utzi dio...*)
- -t(z)earen, -t(z)earekin, -t(z)eaz (*egitearen garrantziaz, egitearekin batera, egiteaz...*)

> **Bestelako erabilerak**

- Eguraldia: *euria / elurra ari du. Haizea dabil...*

4.3.- Sintaxia

► **Perpaus bakuna**

> **Galderazko perpausa**

- Galdegaia galderazko perpausetan
- “AI” partikula: aditz nagusiaren eta laguntzailearen artekoa (*berak egin al zuen?...)*

> **Adierazpen-perpausak**

- Baiezkoak. Galdegaia baiezko perpausetan
- Ezezkoak. Galdegaia ezezko perpausetan

> **Harridura-perpausak**

- Erakusleen bidez osatuak: *Hau hotza!*
- Galdetzaileen bidez:
 - *ZER / ZEIN itsusia (den)!*
 - *NOLAKO aurpegia (duen)!*
 - *ZENBAT dituen!*

• **Baiezkoak:**

- *BAI polita (dela)!*
- *BAIETZ etorri!*

• **Ezezkoak**

- *EZTA pentsatu ere!*
- *EZETZ irabazi!*

> **Aginte-perpausak**

- *Zatoz azkar! Geldi hor!*
- *Ez egin hori!*

- + → “Omen”, “ote” partikulak

► **Perpauk elkartuak**> **Juntadura**

- Emendiozkoak: eta, ere, + ez bakarrik... ere (*ez bakarrik Mikel, beste guztiak ere...*)
- Hautakariak: ala, edo, + bestela
- Aurkaritzakoak: baina, baizik, ordea
- + • Banatzaileak: bai... bai (*bai ostiralean, bai larunbatean...*); ez... ez (*ez bihar, ez etzi...*); (alde) batetik... bestetik

> **Menderakuntza**

- Izen-funtziozko menderakuntza:
 - Konpletiboak: -(e)la
 - Zehar-galdera: -(e)n
 - Agindua edo debekua: -tzeko
 - -t(z)ea; + -t(z)ea...
- Erlatibozkoak
 - Erreferentia eta erreferentia deklinatua
 - + - Erreferente gabea eta erreferente gabea deklinatua
- Konparaziozkoak:
 - Berdintasuna: bezala / bezalako, + bezain, adina
 - Desberdintasuna: baino...-ago, baino...gehiago / gutxiago
 - Superlatiboa: -rik...-enak
 - + - Erromanikoa: gero eta...-ago (*gero eta gazteago zaude...*); hain, hainbeste (*Ez dira hain onak. Ez dugu hainbeste jan behar...*)
- Baldintzazko perpausak:
 - ba, baldin ba- eta + ezean (*ostiralean bada, joango naiz...; ikusiko banu, ezagutuko nuke. Ikusi banu, ezagutuko nuen; etorri ezean, ez duzu ikusiko*)
 - + - Aditza jokatu gabe: - (e)z gero (*nahi izanez gero*)
- Denborazkoak
 - Aldiberekotasuna: -nean; + -(e)n guztietan, gehienetan, bakoitzean, -t(z)ean, bezain laster
 - Aurrekotasuna: baino lehen; aurretik; + -t(z)erakoan
 - Ondokotasuna: ondoren; eta gero; + partizipioa + orduko
 - Iraupena adieraztekoak: -arte; bitartean; + -(e)netik
- Helburuzkoak: ...-t(z)era, ...-t(z)eko; + -t(z)eko asmotan
- Kausazkoak: ...-(e)lako; + dela-eta; -t(z)eagatik...; -(e)nez gero;
- Kontzesiozkoak:
 - Nahiz eta; + nahiz eta... -en;
 - + - Partizipioa + -TA ERE (*Mesedez eskatuta ere...*)
 - Partizipioa + ARREN (*Etorri arren, ez zuen ikusi...*)
- Moduzkoak:
 - + -(e)n bezala / -(-(e)n)bezalakoa
 - (e)n neurrian
 - (e)n moduan; -(e)n eran, -(e)nez, -(e)naren arabera

IV. Gaitasun estrategikoaren garapena

► GAITASUN ESTRATEGIKOA

Ikasleak ekintza komunikatiboa egoki gauzatu dezan, bere aurrezagutza eta gaitasun orokor guztiak erabiliko ditu, egokien irizten dien estrategiak erabiliz, komunikazio-estrategiak eta ikasestrategiak (*ikus 54. orrialdea*).

EBALUAZIOA

Ebaluazioa egiteko, informazio-bilketa egitea ezinbestekoa da, ikasprozesuaren deskribapen osoa emanez eta, hobekuntzara begira, deskribapen horri buruzko epai eta irizpen arrazoitua eskainiz (*ikus 65. orrialdea*).

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA EBALUAZIO-ESKALAK

Ekintza komunikatiboen gauzatze-maila ebaluazio-irizpide jakinen arabera neurtu eta balioetsiko da (*ikus 69. orrialdea*).

ENTZUMENA

- Ahoz emandako instrukzio arruntak behin eta berriz errepikatu behar zaizkio. Bere kidekoen solasari nekez jarraitzen dio. Behin eta berriz eskatzen du errepikatzeke. Bere inguruko jatorrizko hiztunekiko ezin ulertuek komunikazioa eten dezakete. Gaia aldatzean, haria galtzen du maiz.

Besteen solasak (oso ezagunak dituen eta gertukoak zaizkion gaien ingurukoak, erritmo eta abiadurara erabat egokitutakoak) entzutean, haria galtzen du tarteka. Elkarrizketa hasteko, hitza hartzeko edo uzteko erabiltzen diren esapide banaka batzuk baino ez ditu ezagutzen.

Intonazioari, elementu afektiboei edota erregistroari ez die erreparatzen, entzuten duenari erabat lotua baitago.
- Ahoz emandako instrukzio arruntak lehendabizikoan ulertzen ditu, ez du errepikapen beharrik izaten. Bere kidekoekin solasean aritzeko behar adinako ulermen-maila du eta solasaren hariari jarraitzen dio. Bere inguruko jatorrizko hiztunekin aritzean, ordea, horiek moldatu egin behar izaten dute erritmoa, lasaiago eta argiago ahoskatuz edota zerbait errepikatuz.

Gaia aldatzean, tarteka, haria galtzen du. Elkarrizketa hasteko esapide ohikoenak bereizten ditu, eta baita hitza hartzeko edo emateko erabiltzen diren lokailuak ere. Intonazioaren laguntzaz, zenbait elementu afektiboren (seriotasuna, txantxa, haserrea eta abar) berri jasotzen du, eta entzundakoaren arabera testuinguru ere inferitzen du.
- Ez du eragozpenik ahoz emandako instrukzio arruntak lehendabizikoan ulertzeko, eta ez du errepikapenaren beharrik. Bere kidekoekin hitz egiteko ez du ulermen aldetik batere zailtasunik izaten. Ongi moldatzen da inguruko jatorrizko hiztunekin, ez baitu horien erritmo eta abiadura baldintzatzen, eta hizpidea aldatzean ere aise eusten dio hariari.

Elkarrizketa hasteko, hitza hartzeko nahiz uzteko edo gaiez aldatzeko erabiltzen diren esapide ohikoenak ezagutzen dituenek, berehala jabetzen da solasaren nondik norakoaz.

Diskurtsoa antolatzeko eraren eta testuinguruaren laguntzaz aise inferitzen ditu

esanahiak eta komunikazioan parte hartzen dutenen elementu afektiboen berri ere jasotzen du. Erregistroak ere bereizi egiten ditu.

MINTZAMENA

EGOKITASUNA

- 1 Zailtasun nabarmena du testuingurura egokitzeko. Haren diskurtsoa ez da egoera berrietara egokitzen, eta, askotan, lexikoa testuingurutik kanpo erabiltzen du.
- 2 Elkarreraginezko testuinguru orokorretara egokitzen da, nori zuzentzen zaion, zertarako eta gaiaren nolakoa kontuan hartuz, eta badaki lagunarteko zein ezezagunen arteko erregistro estandarrean ezagutza eta kortesia-mailak bereizten. Zenbaitetan zail gertatzen zaio egoera guztietara egokitzea. Gaiari inoiz ihes egiten dion arren, harira itzultzen da gehienetan. Informazioa ekintza komunikatiboak eskatzen duenera egokitzen du, nahiz eta aldika errepikapenak eta itzulinguruak egin. Batzuetan, zailtasuna izaten du lexikoa testuingurura egokitzeko, lexiko urria duelako.
- 3 Ez du arazorik bere jarduna, eguneroko testuinguru ezagunetan, egoki burutzeko. Egoera guztietara egokitzen du hizketaldia. Beti erantzuten dio gaiari, eta informazioa ekintza komunikatiboak eskatzen duenera egokitzen du. Ez du inolako arazorik hiztegia testuingurura egokitzeko.

KOHERENTZIA ETA KOHESIOA

- 1 Zailtasun handia izaten du zerbait kontatu edo deskribatzean, ideiak nahasian ematen baititu, garapen eta loturarik gabe. Elkarrizketa arruntenetan onartze-, ukatze-erantzunetara mugatzen du jarduna.
- 2 Elkarrizketa arruntak burutzen dakiela frogatzen du: hasiera noiz eman, nola jarraitu, nola bukatu, baita gaiez aldatzean jarraitzen ere. Horretarako, hainbat esapidez baliatzen da, oinarritzko kohesio-formak erabiliz. Kateamendua nahikoa lineala da. Zerbait kontatu edo deskribatzean, diskurtsoa hari nagusi baten inguruan (denbora, espazioa, prozesua...) antolatzen du, nahiz eta behar bezala josia ez izan. Oro har, haren jarduna koherentea izaten da: behar adinako informazioa eskaintzen du komunikazio-asmoa betetzeko, eta ideiak ez dira errepikatzen, ez daude kontraesanean, nahiz eta egin ditzakeen zenbait nahasketa, atzerapauso-aurrerapauso eta zuzenketa; nolahi ere, entzuleak ez du jarraitzeko eragozpen handirik izaten.
- 3 Elkarrizketa arruntak eragozpenik gabe burutzen ditu, oinarritzko kohesio-formak zuzen erabiliz. Diskurtsoa oraindik lineala bada ere, kateamenduaren lehen zantzuak azaltzen dira. Diskurtsoa ondo antolatua, koherentea eta josia izaten da, eta ez du zailtasunik ideia nagusiez gain hainbat xehetasun ere adierazteko.

JARIOTASUNA

- 1 Haren jarduna jarraitua ez denez, etenaldiek komunikazioa oztopatzen dute. Solaskidea ez du eroso sentiarazten.
- 2 Testuinguru oso ezagunetan eta ongi bereganatu dituenetan, jarduna jarraitua eta soltea da. Testuinguru berri eta arrotzagoetan, berriz, moteldu egiten da diskurtsoa eta geldialdiak egiten ditu, adiera eta egitura egokiak bilatzeko, zuzentzeko... Geldiune horiek betelan-hitzez (errepikapenak, *mmm, eh, zera, ba* formaz) estaltzen ditu zenbaitetan.
- 3 Testuinguru oso ezagunetan eta ongi bereganatu dituenetan, erritmo naturalean aritzen da. Testuinguru berri eta arrotzagoetan, berriz, badaki geldialdiak kudeatzen errepika eta itzulinguruen bidez. Salbuespenen bat gorabehera, diskurtso osoan eusten dio erritmoari.

ABERASTASUNA

- 1 Arazoa du, zenbaitetan zailtasun nabarmena, maila honi dagozkion testu-motak sortzeko. Erantzunetara mugatzen du jarduna, eta erantzun horiek bai/ez erakoak dira gehienbat. Egituraren eta lexikoaren ezagutza urriak eraginda, erdararako joera handia du, askotan komunikazioa oztopatzeraino.
- 2 Behar besteko hizkuntza-baliabide multzoa du, gai ezagunen inguruan aritzeko. Elkarrizketetan, ez da erantzun laburretara mugatzen. Zehatz samar aritzeko, nahikoa lexiko du; hala ere, gaiak abstraktuak direnean edota egoerak ezohikoak, errepikapen eta itzulinguruka aritzen da.
- 3 Hizkuntza-baliabide multzo zabala du, gai ezagunen inguruan aritzeko. Elkarrizketetan ere zehatz aritzeko nahikoa lexiko du, baita gaiak abstraktuak edota egoerak ezohikoak direnean ere.

ZUZENTASUNA

- 1 Akatsen kopuruak eta nolakoak komunikazioa eten egiten du maiz. Erabiltzen dituen baliabide diskurtsiboak desegokiak dira egoera arruntenetan ere. Erdarara jo behar izaten du askotan.
- 2 Hizkuntza-baliabideen gainean itxurazko kontrola du ohiko funtzioak betetzeko, nahiz eta noizbehinka akatsen bat edo beste egin. Dena den, hutsegiteek ez dute esanahia eragozten. Aditz-sistemak, ergatiboa, nominalizazioa eta konpletiboa ondo erabiltzen ditu, nahiz eta hitz egin aurretik pentsatu behar izan eta, zenbaitetan, oker erabili. Oro har, egiten dituen akatsak koiunturalak dira. Ahoskerari eta intonazioari dagokienez, zenbaitetan jatorrizko hizkuntzaren edota beste hizkuntzaren baten eragina edo interferentziak antzematen zaizkion arren, ulergarria da diskurtsoa.

Lexikoaren ezagutza testuinguru ezagunetara mugatzen da, eta ñabardurak azaldu behar dituzenean, erdarakadak eta bestelako ordainak erabiltzen ditu.

- 3 Ez du eragozpenik eguneroko testuinguru ezagunetan gai orokor eta arruntez zuzen hitz egiteko. Noizbehinka egiten ditu hutsegiteak edo esaten ditu erdarakadak, baina ez dute inongo eragozpenik sortzen komunikazioan.

IRAKURMENA

- 1 Mailari dagozkion testu-generoak (oharrak, eskutitzak, inprimakiak, artikulua...) bereizten badaki ere, eragozpen handia du testuaren ideia nagusiak eta xeheak atzemateko. Eta askotan irakurriagatik ere, ez ditu testuko ideia nagusiak bereganatzen. Ez du, oro har, testua ulertzen.
- 2 Badaki bereizten maila honi dagozkion testu-generoak. Bereizi egiten ditu, era berean, testuaren ideia nagusiak eta osagarriak, eta jabetu egiten da, oro har, kolpetik irakurrita, testuaren nondik norakoaz. Xehetasun adierazgarrienak ere atzematen ditu ongi egituratutako testu argietan. Ñabardura batzuk gal ditzake eta, oso noizbehinka, baita ideia nagusiren bat ere.
- 3 Ez du inolako arazorik maila honi dagozkion testu-generoak bereizteko. Aise bereizten ditu, era berean, testuaren ideia nagusiak eta osagarriak, eta irakurri ahala jabetzen da testuaren nondik norakoaz eta informazio xeheaz, noiz edo noiz, ñabarduraren bati erreparatzeko, behin baino gehiagotan irakurri behar izaten badu ere.

IDAZMENA

EGOKITASUNA

- 1 Ihes egiten dio gaiari, eta zailtasun nabarmena du erregistroak bereizteko. Ereduak lekuz kanpo erabiltzen ditu, eta hitzen balio semantiko ohikoenak ere ez ditu menderatzen. Idazketa desegokia da.
- 2 Noiz edo noiz gaitik aldentzen bada ere, edukiak eskatutakora egokitzen da, informazioa, trataera eta adiera egoki erabiltzen baititu. Badaki, oro har, erregistro-mota nagusiak (formala eta informala) bereizten.
- 3 Nekez aldentzen da gaitik, eta eskatutakora egokitzen da. Ongi bereizten ditu erregistroak.

KOHERENTZIA

- 1 Ideien garapena ez da egokia: ez dago, ez antolaketarik, ez garapenik. Esanahia zeharo iluna da.
- 2 Diskurtsoaren egitura eta pasartearen antolaketa egokitu egiten zaizkio testu-generoari; ideiak koherenteak dira, ez daude kontraesanean eta gaiaren ardazten dira, desbideratze handirik gabe. Aurrerabidea lineala da, eta behar adinako informazioa eskaintzen du, eta behar izanez gero, adibideak. Batzuetan, zenbait koherentzia-arazo ditu, bigarren mailako ideiak garatu behar dituenean. Horrek, hala ere, ez du irakurketa zailtzen.
- 3 Diskurtsoaren egitura eta pasartearen antolaketa guztiz egokitzen zaizkio testu-generoari. Ez du diskurtsoaren haria eteten, eta badaki, gorabeherarik gabe, informazio koherentea ematen.

KOHESIOA

- 1 Oker erabiltzen ditu oinarrizko testu-antolatzaileak eta puntuazio-markak; horren ondorioz, behin baino gehiagotan galtzen du irakurleak diskurtsoaren haria.
- 2 Badaki ideia nagusiak eta azalekoak bereizten eta lotzen oinarrizko testu-antolatzaile egokiak erabiliz. Erreferenteak nahikoa zehatz azaltzen dira, eta egokia da aditz-denboraren erabilera testu osoan zehar. Oinarrizko puntuazio-markak (puntuak, koma, bi puntuak...), gehienetan, ongi erabiltzen ditu.
- 3 Badaki unean uneko kohesio-forma erabiltzen, eta, ondorioz, ez du galtzen diskurtsoaren haria. Ideiak lotzean ere ez du aparteko zailtasunik, eta ongi erabiltzen ditu oinarrizko puntuazio-markak.

ABERASTASUNA

- 1 Arazo handia du testuari dagokion hedadura emateko. Oso esaldi laburrak erabiltzen ditu. Hala ideien kopuru- eta baliabide-urritasuna, nola erdal kutsua erabatekoak dira.
- 2 Behar besteko hizkuntza-baliabideak izan arren, molde bereko jostakerekin baliatzeko joera erakusten du batzuetan, eta, ideien nahiz egitura edota lexikoaren kopurua ikusita, antzeman egiten zaio oraindik ere baduela zailtasunik testua dagokion neurrian osatzeko. Zehatz samar aritzeko nahikoa lexiko du, nahiz eta gaiak abstraktuak direnean zailtasunik izan ditzakeen.
- 3 Badaki maila honetako testu-genero kasik guztietan idazten. Testu aberatsak ontzen ditu, ideien, egituraren edo lexikoaren ugaritasunari esker. Erdal kutsua oso gutxitan nabaritzen da.

ZUZENTASUNA

- 1 Maila morfosintaktikoan, lexikoan eta ortografian dituen hutsegiteak asko eta larriak direnez (akats sistematikoak egitura sinpleenetan), idazlana ez da ulertzen. Oker erabiltzen ditu ortografia- eta puntuazio-markak.
- 2 Ohiko ekintza eta funtzioak betetzeko, behar beste hizkuntza-baliabide erabiltzen ditu. Testu ulergarria osatzen du, baina izan dezake, oraindik, mailari dagokion hutsegite sistematikoren bat edo beste (hiperzuzenketa, egituren arteko interferentziak, baliabide batzuen funtzionalitate-aniztasuna...). Lexikoaren mailako hutsegiteek ez dute komunikazioa eteten. Zuzen erabiltzen ditu ortografia- eta puntuazio-markak, batzuetan hutsegiteren bat egin badezake ere. Hutsegiteak, oro har, koiunturalak izaten dira, eta ez dute esanahia iluntzen.
- 3 Zuzen erabiltzen ditu, ia beti, maila honetako adierazpideak. Hutsegiteak ez dira, inondik inora, sistematikoak, ezta erdarakadak nabarmenak eta ulergaitzak ere. Ortografia eta puntuazio-markak ere zuzen erabiltzen ditu.



MAILA

ERABILTZAILE
AURRERATUA

HELBURUAK

Ekintza komunikatiboetan zerrendatzen diren helburuak mailako gaitasun komunikatiboaren adierazpen dira (*ikus 30. orrialdea*).

ENTZUMENA

Aurrez aurre nahiz komunikabideetan, hizkera estandarrean egindako elkarrizketak, azalpenak eta abar ulertzeko gai izango da, batez ere gizarte-harremanen esparrukoak badira. Halaber, gai konplexuetako ideia nagusiak ulertuko ditu, baina zailtasuna izan dezake egitura konplexuekin eta hizkuntzaren esamolde jatorrak erabiltzen direnean.

Maila honen amaieran, ikaslea gai izango da

- ▶ lagunartean aurrez aurre ari denean, ematen zaion azalpena zehatz ulertzeko, xedea informazioa edota iritzia ematea denean. Badaki, halaber, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten eta komunikazio-asmoa atzematen.
- ▶ ezagun zein ezezagunen artean eta bere arloko gaietan, aurrez aurre egiten diren azalpen eta elkarrizketetan deskribapenak ulertzeko. Zenbaitetan, solaskidearen jarrera eta emozio-graduak atzemango ditu.
- ▶ kontaketa, pasadizo eta gertakizunak ulertzeko, solaskidea tokian tokiko hizkeran ari bada ere.
- ▶ lagunarteko eztabaidetan iritzi eta argudioak ulertzeko. Xehetasunak eta argudio desberdinak ongi ulertzen ditu, batez ere esplizituak direnean. Solaskidearen aldartea eta jarrera ere atzematen ditu batzuetan.
- ▶ tokian tokiko hizkeran ematen diren hedabideetako albiste eta kontakizunak ulertzeko: albistegiak, zuzeneko elkarrizketak, eztabaidak eta abarrak.
- ▶ lan-esparruan, zerbait eginarazteko xedez, gai zehatz edota abstraktuen inguruan ematen dizkioten jarraibideak ongi ulertzeko.
- ▶ lan-arloan edo Administrazioarekiko harremanetan eztabaida eta elkarrizketak ulertzeko. Adibidez, langile batek beste bati emandako agindu zehatzak, funtzionario batek emandako instrukzioak eta abar.
- ▶ Administrazio zein beste erakunde bateko solaskideari egoera jakin bati buruzko azalpenak eta aholkuak ulertzeko. Adibidez, erreklamazio bat aurkezteko prozedura, eskaera administratibo bat nola egin eta abar.
- ▶ lan-esparruan lankideekin eztabaidan ari denean, ideiak eta iritzia ulertzeko eta solaskideak nabarmendutako argudioak identifikatzeko.
- ▶ intereseko hitzaldi eta ikastaro laburretan mamia ulertzeko, baldin eta aurkezpenera argia bada.
- ▶ (...)

MINTZAMENA

Lagunarteko elkarreragin arruntean jariotasunez aritzeko gai izango da, besteak jakinaren gainean jarriz, iritzia eskatuz, bere ikuspegia defendatuz eta abar. Eraginkortasunez komunikatuko da eta, ohiko gai eta egoera ezagunetan adierazpen argiak egingo ditu. Bere lan-esparruko hainbat gairi buruzko deskribapenak eta azalpenak ere emango ditu, alderdi esanguratsuak eta xehetasunak bereiziz.

Maila honen amaieran, ikaslea gai izango da

- ▶ albisteei eta gertaerei buruzko azalpen xehea egiteko, xedea ezagunei informazioa ematea denean.
- ▶ ezagunei aurrez aurre albiste bat jariotasunez kontatzeko, haien iritzia eskatuz.
- ▶ lagun batekin zein talde txikian, esperientzia edo gertaera jakinak kontatzeko, sentimenduak eta jarrerak adieraziz eta gertaera horiek beretzat izan duten garrantzia nabarmenduz; adibidez, oporrak kontatzeko garaian, gertakizun sozial batean eta abar.
- ▶ ahoz, aurrez aurre zein telefonoz, lankideei jarraibideak emateko, lan-prozedura bati buruzko argibideak eta gomendioak emanez.
- ▶ lankideei lan-arloko hainbat gairi buruzko azalpen argiak emateko deskribapen argi eta xeheak eginez, hauek jakinaren gainean jartzeko edota ideiak alderatzeko helburuz. Ongi bereziko ditu nabarmentzekoak diren alderdiak eta lagungarri zaizkion xehetasun edo ohar osagarriak.
- ▶ sendabidea jasotzeko helburuz, medikuari bere zein gainerakoen sintomak adierazteko.
- ▶ Administrazioan zein beste erakunde batean, erreklamazio zehatz bat egiteko, azaldutakoaren inguruan konponbidea eskatuz; adibidez, gaizki ezarritako isun baten erreklamazioa egiteko.
- ▶ (...)

Elkarreraginean:

- ▶ lagunartean, bat-bateko elkarrizketetan parte hartzeko, proposamenak eginez eta interesekoa dena nabarmenduz, baita solaskidea jatorrizko hitzuna denean ere.
- ▶ ezagunen arteko eztabaidetan bere ikuspegia argi azaltzeko. Ongi bereiziko ditu ideia nagusiak eta azalekoak, eta adibide egokiak emango ditu.
- ▶ lankideekin bilera batean elkarrizketa bat izateko, zenbaitetan gaitik urrunduz, hariari utsiz eta kasuan kasuko erantzun egokiak emanez.
- ▶ lan-bileretan lankideekin eztabaidatzeko, informazioa alderatuz, ados dagoen edo ez adieraziz eta argudio arrazoituak emanez.
- ▶ aurrez aurre zein telefonoz, erakunde batean jasotako zerbitzuagatik kexa adierazteko, honi buruzko azalpenak emanez eta kexa-hartzaileak egindako galderei erantzunez.
- ▶ (...)

IRAKURMENA ●

Ohiko harremanen esparruan testu gehienak ulertzeko gai izango da, eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiziko ditu. Hiztegi zabala izango du, eta xehetasun asko ulertuko ditu, zailtasuna izan badezake ere hainbat esamolde eta ñabardurarekin. Igorlearen sentimendu eta jarrerak atzemateko gai izango da.

Maila honen amaieran, ikaslea gai izango da

- ▶ hurbilekoek, gutun, mezu elektroniko, sare sozial eta abarretan, gertatutako zerbaiten ondorioz, adierazten dizkioten sentimendu eta aldarreak erraz antzemateko: poza, tristura, haserrea, harridura eta abar.
- ▶ tresnaren bat martxan jartzeko, konpontzeko edota zerbait egiteko helburuz, argibide luze eta konplexuak ulertzeko; betiere, atalik zailenak eta ñabardurak berriro irakurtzeko aukera badu.
- ▶ erakunde edo elkarte batetik bidalitako eskaerak, informazioa edo jakinarazpenak ulertzeko.
- ▶ eskutitz, liburu eta mezu elektronikoetan pertsonen deskribapen subjektiboak ulertzeko.
- ▶ foroetan, blogetan eta, oro har, hedabideetako artikuluetan, gizarte-gai eta -auziez emandako iritziak ulertzeko.
- ▶ herri-aldizkari, foro edo blogetan, film, ikuskizun edo liburu ezagun baten kritika ulertzeko.
- ▶ egunkari, aldizkari eta blogetan irakurtzen dituen hainbat artikulua eta txosten ulertzeko, baldin eta bere arlokoak badira. Tarteka, hiztegia erabili beharko du, terminologiari lotutako zenbait ñabardura argitzeko.
- ▶ Administrazioko jakinarazpen, erreklamazio edo deialdiak ulertzeko, nahiz eta, tarteka, zailtasuna izan hainbat xehetasun eta ñabardurez jabetzeko.
- ▶ lan-esparruan, bere arloko txostenen eduki nagusiaz arazo handirik gabe jabetzeko.
- ▶ hainbat testu literario ulertzeko (nobela laburrak, narrazioak, ipuinak...). Era berean, gai da pertsonaien aldarreak, jokabideak eta horien ondorioak ulertzeko.
- ▶ (...)

IDAZMENA

Bere arloko gaiei buruzko testu argi eta ongi egituratuak idazteko gai izango da, baita hainbat iturritako informazioa erabiltzeko eta bere iritzia emateko ere, aldeko eta kontrako argudioak argi adieraziz.

Maila honen amaieran, ikaslea gai izango da

- ▶ lagunei edota lankideei deskribapenez osatutako azalpenak egiteko.
- ▶ lagunarteko blog batean, albiste bati buruzko iritziak emateko eta iruzkinak egiteko.
- ▶ lagunarteko foro edo blogetan, film, ikuskizun, liburu edo zerbitzu baten iruzkin edo iritzi laburra idazteko.
- ▶ esparru publikoan, argibideak, gomendioak eta instrukzioak idatziz emateko, jendea jakinaren gainean jartzeko asmoz.
- ▶ elkarte bateko kide izanik, bertako partaide guztiei gutun edo idatzi bat egiteko, zerbait eskatuz edota zerbaiten berri emanaz.
- ▶ erakundeekiko harremanetan, gutun-eskaerak eta erreklamazioak egiteko, kexu bat azalduz, konponbideak eskatuz...
- ▶ lan-esparruan, alde onak eta txarrak nabarmenduz, egitasmo edota proposamen bati buruzko iritzia idatziz emateko.
- ▶ lan-esparruan, bilera-deiak eta baimen-eskaerak egiteko.
- ▶ kultura-emanaldi baten aipua idazteko, herri-aldizkarian, deskribapen labur bat eginez.
- ▶ egunkari bateko zuzendariari gutunak sailean, gertaera batek eragindako jarrera edo sentimendua adierazteko.
- ▶ (...)

EDUKIAK



I. Gaitasun soziolinguistikoaren garapena

- ▶ Testuinguruaren ezaugarriak
- ▶ Gaiak
- ▶ Kultura-erreferentziak

II. Gaitasun testualaren garapena

- ▶ Testu-generoak
- ▶ Funtzioak
- ▶ Adierazpide testualak

III. Gaitasun linguistikoaren garapena

- ▶ Adierazpide linguistikoak

IV. Gaitasun estrategikoaren garapena

- ▶ Gaitasun estrategikoa

— * —

+ B2 mailan adierazpide berria

I. Gaitasun soziolinguistikoaren garapena

TESTUINGURUAREN EZAUGARRIAK

Ekintza komunikatibo guztiak testuinguru jakinetan gauzatzen dira, maila bakoitzean ezaugarri zehatzak dituzten testuinguruetan, alegia (*ikus 36. orrialdea*).

ENUNTZIATZAILEA- ENUNTZIATARIOA

XEDEA

ERABILERA- ESPARRUA

- Solaskidearen rolak:
- Senide-senide
 - Lagun-lagun
 - Ezagun-ezezagun
 - Lankide-lankide
 - Ikaskide-ikaskide
 - Ezezagun-ezezagun
 - Iksle-irakasle
 - + Langile-zuzendari
 - + Herritarra-Administrazioa

- Solaskideen arteko harremana:
- berdinen artekoa edo gertutasunezkoa
 - urruntasunezkoa
 - + hierarkikoa/ solidariora

- B1 mailakoez gain,
- Informazioa ematea/eskatzea
- + informazioa berrestea
 - + gertakizunen informazio xehea ematea
 - + ...
- Iritziak, ezagutzak eta jarrerak adieraztea eta egiaztatzea
- + Administrazioan egoera zehatz baten berri ematea
 - + eztabaida batean parte hartzea informazioa alderatuz
 - + ...
- Sentimenduak, hunkipenezko jarrerak/ egoerak adieraztea eta egiaztatzea
- + besteekiko sentimenduak adieraztea
 - + norbaiti zerbait aurpegiratzea
 - + ...
- Solaskidearengan eragitea
- + norbait lasaitu edo adoretzea
 - + erakunde publiko nahiz pribatu batean kexa adieraztea/ erreklamazioa egitea
 - + ...

Ikus *Funtzioak* atala

- Pertsonen arteko harremanean eta solaskideen hurbileko munduan:
- Senitartekoa
 - Lagunartekoa
 - Zerbitzuguneak: dendak, informazio-bulegoak...
 - Lanekoa
 - Aisialdikoa
 - Akademikoa
 - + Administrazioa
 - + Merkataritza
 - + Herri-zerbitzuetakoa

GAIAK

Mailako ekintza komunikatiboak gauzatzeko, gai-zerrenda bat proposatzen da jarraian, irekia eta ikasleen premietara egokituko dena (*ikus 37. orrialdea*)

- ▶ **DATU PERTSONALAK:** Izena, helbidea, adina, sexua, egoera zibila, lanbidea, jaioteguna, jatorria, curriculum...

- ▶ **NORBERAREN EZAUGARRIAK:** Gustuak, izaera, itxura, aldartea, jarrerak, irudipenen deskribapena...

- ▶ **ETXEA:** Etxebizitza-motak, gelak, altzariak, etxeko tresnak eta apaingarriak, etxeko animaliak, alokairua...

- ▶ **OHIKO JARDUERAK:** Eguneroko eginkizunak, etxeko lanak, ohiturak, etxeko konponketak, lan-jarduerak...

- ▶ **AISIALDIA:** Kirola, jolasa / jokoak, zaletasunak, bidaiak, oporrak, denbora-pasak, ikuskizunak...

- ▶ **LEKUA ETA NORABIDEA:** Ibilbideak, norabideak zehaztea, tokiak deskribatzea...

- ▶ **GIZA HARREMANAK ETA HARREMAN SOZIALAK:** Familia, lagunak, ikaskideak, lankideak, auzokideak, adinekoak, elkarteak, ezagun nahiz ezezagunen arteko harremana, tabuak, umorea...

- ▶ **GORPUTZA ETA OSASUNA:** Gorputz-atalak, higiena, zentzumenak, aholkuak, sentimenduak, gaixotasuna, sintomak, ospitaleak, egoera fisikoa, osasun-zentroak, botikak...

- ▶ **HEZKUNTZA:** Eskola, lanbide-eskola, unibertsitatea, ikasketak eta espezialitateak, ikasgela, ikastetxea, irakaslea, ikaslea, gurasoak, ikas-jardunak, lan-irteerak, baliabideak, bekak, eskola-kirola, eskolaz kanpoko jarduerak, *bullyng*-a...

- ▶ **HERRIA ETA HIRIA:** Herria, hiria, kaleak, eskualdea, eraikuntzak, zerbitzuak, nekazaritza-gunea, hirigunea, garapen-maila, aberastasun-iturriak, bidegorriak eta traba arkitektonikoak (irisgarritasuna)...

- ▶ **BIDAIAK ETA BISITAK:** Ibilbide baten prestakuntza, norabideak zehaztea, tokiak deskribatzea, herriak, hiriak, jendea, inguruak, trafikoa, ekipajea, bidaietako gorabeherak...

- ▶ **ELIKADURA:** Janaria, edariak, ordutegiak, menuak, prestaketa-moduak, merkatuak, azokak, gastronomia, euskal sukaldaritza...

- ▶ **HERRI-ZERBITZUAK:** Informazioguneak, udal-zerbitzuak, postetxea, banketxea, larrialdi-zerbitzuak, suhiltzaileak, zahar-etxeak...

- ▶ **KLIMA ETA INGURUMENA:** Eguraldia, klima, landareak eta animaliak, natura, naturaren aldaketak, ingurugiroaren babesa, kutsadura, energia, birziklapena...

▶ **EUSKAL HERRIA ETA BESTE**

HERRIALDEAK: Lurraldeak, eskualdeak, hiriak, nazioak...

▶ **GARRAIOA:** Bizikleta, autobusa, tren, autoa, hegazkina, geltokiak, aireportuak...

▶ **LANA:** Lanbideak, lan-tresnak, lantokiak, soldatak, lan-baldintzak, langabezia, lan-prestakuntza, sindikatuak, lan-jazarpena...

▶ **OSTALARITZA:** Tabernak, jatetxeak, hotelak, egoitzak, landetxeak, txikiteoa...

▶ **OSPAKIZUNAK:** Festak, gonbidapenak, urtebetetzeak, gabon-jaiak, ihauteriak, San Juan suak, erromeriak...

▶ **KULTURA:** Zinema, literatura, musika, museoak, artelanak, dantza, artistak, aktoreak, liburutegiak, kultur ekitaldiak, erakusketak, antzerkia, bertsolaritza...

▶ **HEDABIDEAK:** Egunkariak, irrati eta telebistak, komunikabide digitalak...

▶ **TURISMOA:** Ibilbide eta txangoak, jendea, toki interesgarriak, monumentuak, ekipajea, bidaietako gorabeherak, turismo-bulegoak...

▶ **HIZKUNTZAK:** Euskara eta euskalkiak, atzerriko hizkuntzak...

▶ **MERKATARITZA:** Eroslekuak: merkataritza-guneak eta dendak, kantitate eta pisu-neurriak, kopuruak, prezioak, gustuak, erosketak, moda, kalitatea, ordainketa-zerbitzuak, Internet bidezko erosketak...

+ ▶ **EKONOMIA:** Nekazaritza, arrantza, industria, eraikuntza, enpresa-mundua, zerbitzuen sektorea, kooperatibak...

+ ▶ **ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA:** Teknologia berriak, Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza (I+G+B), zientzialariak...

+ ▶ **GIZA ZIENTZIAK:** Pertsonaiak, gertaera historikoak, tradizioa...

+ ▶ **POLITIKA ETA HERRI-PARTAIDETZA:** Alderdi politikoak, parte hartze-ereduak, inkestak, hauteskundeak, herri-galdeketa...

+ ▶ **EMAKUMEA:** Genero-berdintasuna, emakumea eta lana, genero-indarkeria, emakumea euskal tradizioan...

+ ▶ **EUSKAL INSTITUZIOAK ETA ADMINISTRAZIOA:** Udalak, Foru Aldundiak, Jaurlaritza, Mankomunitateak

▶ KULTURA-ERREFERENTZIAK

Hizkuntzaren barneratze-prozesuan ezinbestekoa da alderdi linguistikoez gain, euskal gizartearen izaera historiko eta sozialaren berri ematea, ikaslea gure errealitatean eta mundu-ikuskeran kokatuz (*ikus 38. orrialdea*).

II. Gaitasun testualaren garapena

TESTU-GENEROAK

Estandarizatuta eta tradizioz finkatuta dagoen moldean antolatzen du informazioa erabiltzaileak, gizarte- edo lanbide-esparru batean (*ikus 48. orrialdea*).

AHOZKOAK

Ulermena:

- ▶ Aurrez aurrekoak:
 - Hitz eta esapide errazak: zenbakiak, prezioak, denbora-erreferentziak...
 - Jarraibideak
 - Mezuak eta azalpen labur-laburrak zerbitzuetan
 - Balioespen, iritzi edo kexu sinple eta labur bat: zerbitzuren bati buruzkoa...
 - Elkarrizketa sinpleak
 - Kontaketak: gertaerak...
 - Aholkuak (medikuaren gomendioak...)
 - Azalpen laburrak
 - Elkarrizketak
 - Deskribapenak
 - Errezetak
 - Ezezagunen adierazpen sinpleak
 - Ipuin klasikoak
 - Albisteak / kronikak
 - Asmakizunak
 - Azalpen didaktikoak
 - Esaera zaharrak
 - Jendaurreko adierazpenak
 - Prozesuen deskribapenak

- ▶ Grabatuak eta komunikabideetatik jasotakoak:
 - Aurreikusita dauden komunikabideetako ohar eta iragarkiak
 - Testuinguru jakinetan aurreikusita dauden erantzungailuetako mezu laburrak
 - Irudi bidezko iragarkiak
 - Komunikabideetako ohar eta iragarkiak
 - Toki publikoetako iragarki laburrak
 - Eguraldi-iragarpenak
 - Erantzungailuetako mezuak
 - Kontaketak

- + • Dokumentalak
- Elkarrizketak
- Film eta telesailak (egitura linealekoak —kronologikoa eta espaziala—)
- Kantak/bertsoak
- Komunikabideetako albisteak

Ekoizpena:

- Agindu laburrak
- Gauzen eta tokien deskribapenak
- Kexa edo erreklamazioa
- Pertsonen deskribapen fisiko eta psikologikoak
- Prozedurei buruzko argibideak: tresnen erabilera, zerbitzuena...
- Argudiozko adierazpenak
- + • Arauak (logikaren ardatzean antolatuak)
- Azalpenak
- Errezetak
- Gertaeren kontaketak eta ipuinak
- Pasadizo barregarriak
- Sentimenduen eta jarrerren deskribapenak

Ekoizpena elkarreraginean:

- Pertsonen aurkezpen laburrak: nor den, non bizi den, lantokia, helbidea, telefonoa, gustuak...
- Agindu sinple eta laburrak
- Adeitasunezko hitz eta esapide errazak: aurkezteko, agurtzeko, zoriontzeko...
- Galde-erantzun errazak: non bizi den, nora doan, zer gustatzen zaion...
- Argibideak, jarraibideak: toki batetik bestera nola joan, bidea galdetu...
- Elkarrizketak
- Galde-erantzunak
- Gauzen, tokien, eguraldiaren eta pertsonen deskribapen errazak
- Kontakizun sinpleak: oporrak...
- Aholkuak, argibideak eta jarraibideak
- Balorazio eta kexuak
- + • Administrazioarekiko informazio-trukea
- Azalpenak, iritziak eta argudioak
- Eztabaidak
- Galdeketak (lekukoen deklarazioak...)

IDATZIAK

Ulermena:

- Leku publikoetako ohiko seinaleak, kartelak...
- Oinarrizko jarraibideak, inprimakiak edota fitxa bat betetzean, galde-sorta bati erantzuteko...
- Publizitate- eta informazio-orriak...
- Ohar eta mezu pertsonal laburrak
- Argibide edota oinarri-oinarrizko arau erraz eta laburrak
- Bidaia-txartelak, sarrerak, fakturak, etiketak, katalogoak...
- Formulario sinpleak
- Deskribapen sinpleak
- Gida komertzialak
- Iragarki laburrak
- Toki publikoetako araudiak
- Pasadizoak / kontaketa sinpleak
- Gonbidapenak (merienda batera, bazkari batera...)
- Jatetxeetako kartak eta mezuak...
- Senitarteko eta lagunarteko gutunak
- Errezetak
- Horoskopoa
- Komikiak
- Kronikak (kirol-kronikak...)
- Egitarauak (festak...)
- Turismo-gidak
- Gertaera, sentipen eta nahien deskribapenak
- Kultur gaiei buruzko aipamenak (liburu bat, musika-lan bat...)
- Elkarreentako edo ikastetxeetako gutunak
- Gai ezagunetako argudio-testuak
- Toki publikoetako instrukzio edo argibideak
- Tresna edo prozedura bati buruzko jarraibideak
- Hitzaldi baten laburpena
- Kultur gaiei buruzko iruzkin laburrak
- Administrazio idazkiak (erantzun-gutunak: eskerrak, baimena emateko; barkamena eskatzeko; eskaintza egiteko...)
- Ipuinak eta kontaketak
- Albisteak
- Komunikabideetako azalpen-artikulu laburrak
- Katalogoak, prospektuak eta agiri ofizialak
- Hiztegietako definizioak
- Entziklopedietako azalpen- edo deskribapen-testuak
- Bilera-aktak
- Argudio-testuak
- Lan-egitasmoak

- Lan-esparruko gai ezagunei buruzko txostenak
- Testu literarioak (eleberriak...)
- Egunkariko erreportajeak

Ekoizpena:

- Inprimakiak, txantiloiak (bete)
- Zerrendak
- Oharrak
- Gonbidapen-oharrak / proposamenak
- Jarraibide eta arau sinpleak
- Postalak
- Gutun pertsonalak
- Errezetak
- Curriculum vitae
- Eskari-gutunak
- Ohar-taula baterako iragarkia
- Pertsonen, tokien eta gauzen deskribapenak
- Aholkuak eta gomendioak
- Argudio-testu laburrak
- Biografiak
- Administrazioko idazkiak (kexak eta erreklamazioak)
- Kontaketak
- Jakinarazpen-gutunak
- Bilera-deiak eta baimen-eskariak
- Lan-esparruan gai baten azalpen laburra
- Albisteak
- Erreportaje edo albiste baten laburpena

Ekoizpena elkarreraginean:

- Mezu laburrak (mezu elektronikoak, postalak, oharrak)
- Galde-erantzunak informazio pertsonala trukatzeko
- Gutun pertsonalak
- Ohar eta jakinarazpenak
- Proposamen laburrak zerbaitekin ados dagoen ala ez adieraziz
- Kontaketak

FUNTZIOAK

Erabiltzaileak hizkuntza zerbait komunikatzeko erabiltzen du, zerbait egin edo lortzeko. Ekintza komunikatibo guztietan dago xede bat (*ikus 49. orrialdea*).

Hauek dira maila honen amaieran ikasleak bete ahal izango dituen funtzioak:

Giza harremanak eta konplimenduak

- Agurtzea
- Nork bere burua eta besterena aurkeztea
- Mesedeak eskatzea
- Interesa adieraztea
- Barkamena eskatzea
- Eskerrak ematea
- Zoriontzia
- Goraintziak ematea
- Topa egitea
- Gauza onak opa izatea
- Doluminak ematea
- Arreta eskatzea
- ...

Informazioa ematea eta eskatzea

- Datu pertsonalei buruzko informazioa eskatzea eta ematea
- Leku, ordutegi, data, eguraldi, prezio, neurri, kopuruei buruz galdetzea eta erantzutea
- Zerbait dagoen, baden edo dakien galdetzea eta erantzutea
- Pertsonak, lekuak eta gauzak deskribatzea: zerbait nolakoa den, non dagoen...
- Jabetza adieraztea
- Informazioa ematea eta eskatzea eguneroko kontuez
- Denboran zehar gertatutako ekintzak kontatzea
- Zerbitzu bat eskatzea, eskaintzea edota horri buruz galdetzea eta erantzutea
- Iraganeko ekintzak eta ohiturak oso labur deskribatzea
- Argibideak, jarraibideak ematea eta eskatzea
- Aurkezpen laburrak egitea
- Hurbilekoen deskribapen fisiko zein psikologikoak egitea
- Gertaera edo albiste baten kontaketa egitea: zerbait zurrizteko, solaskideak eskatutako azalpenei erantzuteko, harridura adierazteko edo irrika sortzeko
- Informazioa berrestea
- Informazioa baieztatzea ala ezeztatzea



- Aukerak eskaintzea
- Informazioa laburtzea
- ...

Iritziak, ezagutzak eta jarrerak adieraztea eta egiaztatzea

- Zerbait baieztatzea / ezeztatzea
- Norbaiti buruz edo zerbaiti buruz iritzia eskatzea eta ematea
- Zerbitzuei buruzko balorazio orokorra egitea
- Proposamen bati buruzko iritzia modu laburrean ematea
- Adostasuna/desadostasuna eskatzea edota ematea
- Ezintasuna adieraztea
- Gonbidapena onartzea / gaitzestea
- Aisialdiko planak onartzea / ez onartzea
- Gustukoa dena eta ez dena adieraztea
- Iritzia adieraztea arrazoiak emanez
- Gai bati buruzko azalpena egitea zerbait argudiatuz
- Jarreraren berri ematea
- Gaitasuna edo gaitasunik eza adieraztea
- Ideiak, pertsonak, objektuak, lekuak eta egoerak alderatzea
- Zerbait gogoan duen ala ahaztu zaion galdetzea eta adieraztea
- Zailtasuna adieraztea
- Eztabaida batean parte hartzea informazioa alderatuz
- Zerbait egiteko nahia, aukera, beharra eta betebeharra dagoen galdetzea eta adieraztea
- Administrazioan egoera zehatz baten berri ematea
- ...

Sentimenduak, hunkipenezko jarrerak/egoerak adieraztea eta egiaztatzea

- Aldarteaz, osasun-egoeraz galdetzea eta informazioa ematea
- Ezustea adieraztea
- Poza / tristura adieraztea
- Harridura adieraztea
- Maitasuna adieraztea
- Beldurra edo kezka adieraztea
- Etsipena adieraztea
- Zerbaiten esperantza adieraztea
- Haserrea adieraztea
- Medikuari gaitz baten sintomak adieraztea, sendabidea jasotzeko moduan
- Besteekiko sentimenduak adieraztea
- Besteen sentimenduen aurrean egoki erantzutea
- Zerbait norbaiti aurpegiratzea
- Norbait / zerbait goraiatztea
- Salatzea, erruduntasuna onartzea eta errefusatztea
- ...

Solaskidearengan eragitea

- Laguntza eskatzea eta eskaintzea
- Egiteko bat proposatzea
- Planak eta asmoak adieraztea
- Gonbidapena egitea
- Erregutzea
- Aginduak ematea
- Baimen-eskaera egitea eta erantzutea
- Debekuak jartzea
- Aholkuak ematea eta eskatzea
- Norbait konbentzitzea
- + • Limurtzea
- Norbait lasaitzea
- Norbait adoretzea
- Gaztigatzea, ohartaraztea
- Erakunde publiko nahiz pribatu batean kexa adieraztea
- ...

ADIERAZPIDE TESTUALAK

Ekintza komunikatiboak egoki gauzatzeko, erabiltzaileak testuak ongi taxutzen eta interpretatzen jakin behar du, baliabide egokien bidez (*ikus 49. orrialdea*).

Hauk dira, besteak beste, maila honetan erabiltzaileak baliatuko dituen adierazleak:

1. Plan orokorra

- ▶ Ahozkoak. Idatziak
- ▶ **Gaia:** Mundu errealeko, fisiko edo konkretuko gai ezaguna zein ezezaguna. Baita mundu subjektiboko gai ezaguna ere.
- ▶ **Egitura**

2. Interaktibotasuna

- ▶ Deiktikoak:
 - Pertsonalak (aditzaren lehen eta bigarren pertsonak, izenorde pertsonalak, plural hurbila: -ok)
 - Denborazkoak (denbora-adberbioak: *orain, gero, gaur, atzo, bihar, iaz, hurrengoan, orduan, garai hartan, gaur egun, lehen, momentuz, oraindik, duela*)
 - Espazialak (leku-adberbioak: *hemen, hor, han, hementxe, hortxe, hantxe*)
- ▶ Galderak

3. Sekuentziak

- ▶ Elkarrizketa
- ▶ Azalpena (deskripzioa, argudioa, esplikazioa...)
- ▶ Kontaketa (narrazioa)
- ▶ Preskripzioa (instrukzioa, agindua...)

4. Konexioa

- ▶ **Testu-antolatzaileak** ahozko testuetan eta testu idatzietan
 - Hizketa-antolatzaileak: *bueno...; bada...; zera...; bale, bueno, ezta?, begira, tira, aizu, bai, + ezen (eze)*
 - Lokailuak:
 - Emendiozkoak: *eta, ere, baita... ere, bai... eta, ezta... ere, ez... eta, ezta... ere, behintzat, gainera, + horrez gain, are gehiago*
 - Hautakariak: *bestela, ala*
 - Aurkaritzakoak: *baina, ordea, aldiz, dena den (dela), hala ere, berriz, + alabaina, hala eta guztiz ere*
 - Ondoriozkoak: *beraz, horrela, -eta, hau dela eta, hortaz, bada, horregatik*
 - Kausazkoak: *zeren, izan ere, bada*
 - Denbora-antolatzaileak:
 - *behin batean, ondoren, halako batean, goizean, arratsaldean, orduan, gero, baino lehen, gaur egun, gaurkoz, oraingoan, azkenean, bitartean, harrezkero, garai hartan, gehienetan, antzina, lehen, ordutik...*
 - Birformulatzaileak:
 - Esplikatiiboak: *alegia, hau da*
 - Zuzentzaileak: *hobeto esan*
 - – Urruntzaileak: *nolanahi ere*
 - Laburbiltzaileak: *ondorioz, azken batean*
 - Zehatzaileak edo adibide ematekoak: *adibidez, esaterako, hots*
 - Ordena-adierazleak: *lehenengo, lehenik, ondoren, gero, jarraian, amaitzeko, bukatzeko, alde batetik, bestetik, azkenik, bestalde*
- ▶ **Puntuazioa**

Bere arloko testu argi, xehe eta ongi egituratuak idatzi behar dituenaz, testugileak gaitasun estrategiko handia erakutsi behar du puntuazioaren erabileran.

 - Galde- zein harridura-ikurrak
 - Bi puntuak:
 - zerrendatzeko, mezuen abiaburuan, orduak emateko, esaldiaren lehen zatia argitzeko, frogatzeko edo laburbiltzeko, hitzez hitzeko aipameneren aurrean
 - – katafora adierazteko
 - esaldien arteko kausa-ondorio edo ondorio-kausa adierazteko
 - Puntua: esaldi eta esapide sinpleen bukaeran; ordinaletako “garren” ordezkatzeko; hainbat laburduran; milatik gorako zenbakietan

- Etenpuntuak: esaldia bukatu gabe utzi dela adierazteko
- Koma:
 - elkarren kideko zatiak zerrendatzeko, datak emateko, perpaus elkartu batzuen atzetik (denborazkoak, kontzesiboak...), edota deikiak adierazteko
 - testu-antolatzaileen ondoren (baina, ondoren, adibidez, atzo...)
 - tartekiak
 - banakarietan (bai..., bai...; ez..., ez... eta abar); emendiozkoetan,
 - ⊕ hautakarietan (edo, hala, nahiz, zein) eta aurkarietan (baina, baizik, ezpada...)
- ⊕ • Puntu-koma: esaldiak alborakuntzaz elkartzeko: *Gai honek lau azpigai ditu; ez ditugu guztiak aipatuko*
- Komatxoak: ezizenak, aipuak edo barne-hizketa adierazteko, eta atzerriko hizkuntzetako hitzak transkribatzeko

5. Izen-kohesioa

- ▶ Kate anaforikoak osatzen dituzten errepikapenezko testu-baliabideak:
 - Erreferentziak (anafora eta kataforak)
 - Ordezkapen lexikala (sinonimoak, antonimoak, hiperonimoak, hiponimoak)
 - Elipsia
 - Definizazioa (mugatzaileak)

6. Aditz-kohesioa

- ▶ Azalpen- eta kontaketa-adizkiak
 - Bigarren planokoak
 - > Azalpenetan
 - orain puntuala (“dator”)
 - orain ez-burutua (“etortzen da”)
 - ⊕ orain burutu + ohi (“etorri ohi da”)
 - > Kontaketetan
 - iragan puntuala (“zeterren”)
 - iragan ez-burutua (“etortzen zen”)
 - ⊕ iragan ez burutu + ohi (“etorri ohi zen”)
 - Lehen planokoak
 - > Azalpenetan
 - orain burutua (“etorri da”)
 - > Kontaketetan
 - iragan burutua (“etorri zen”)
- ▶ Ekintza-adizkiak
- ▶ Aginte-adizkiak (jokatu eta jokatu gabea)
- ▶ Orain geroa (“etorriko da”)
- ▶ Modalizazio-adizkiak (ikus 8. puntua)

► Bestelako adizkiak

7. Ahots enuntziatzaileak

Testuan ageri diren ahotsek esandakoak adierazteko baliabideak: estilo zuzena, zehar-estiloa eta zehar-estilo librea

- Menderakuntza
 - > Izen-funtziazko menderakuntza
 - > Konpletiboak: -(e)la, -(e)nik, -t(z)eko
 - > Zehar-galdera: -(e)n
- Alderdi ortografikoa
 - > Marra luzea
 - > Komatxoak
- Esapideak
 - > *Urliak* dioenez / esaten duen bezala
 - > *Urliaren* arabera

8. Modalizazioa

► **Modalizazio logikoa**

> Aditza

- Adizkiak:
 - + – Orain geroa (“etorriko da”)
 - Iragan geroa (“etorriko zen”)
 - KE orain aspektugabea (“etor daiteke”)
 - KE alegiazko geroa (“etorriko litzateke”)
 - Ematen du
 - *Uste izan, pentsatu, jakin, iruditu*
- + • Forma inbertsonalak: *dirudi, badirudi*
- Adberbioak-eta:
 - Iritzi-adberbioak: *agian, antza denez, beharbada, noski, ziur, seguru*
 - *aski, jakina, nonbait, itxura denez*
 - “Omen”, “ote” partikulak
 - + -Edo
- Adjektiboak
 - + – Gradu-markak
 - Graduatzailak (indargarriak zein leungarriak)

► **Modalizazio deontikoa**

> Aditza

- Adizkiak: aditz-lokuzioak (*behar izan, nahi izan, nahiago izan...*)
- Esamolde adjektibodunak: adjektiboa + -t(z)ea

► **Modalizazio pragmatikoa**

> Aditza

- Adizkiak: aditz-lokuzioak (*ahal/ezin izan, nahi izan...*)

- KE orain aspektugabea (“etor daiteke”)

► **Modalizazio apreziatiboa**

- > Aditzak: *gustatu, poztu, estimatu, damutu, lotsatu, atsegin izan, gogoko izan, maite izan, merezi izan, damu izan, beldur izan, lotsa izan, + gorroto izan, mirestu, sumindu, harritu, kezkatu...*
- > Adberbioak-eta: *zorionez, zoritxarrez, tamalez*
- > Adjektiboak: *ederra, polita, txarra, itsusia, + gogorra, erraza, zaila, latza, larria...*
- > Atzizkiak: *-garri atzizkia*
- > Esapideak
 - *Harridura-perpauak*
 - *Nire ustez*

III. Gaitasun linguistikoaren garapena

ADIERAZPIDE LINGUISTIKOAK

Ekintza komunikatiboa egoki gauzatzeko, adierazpide linguistikoak beharrezko baliabideak dira (*ikus 53. orrialdea*).

1.- Alderdi fonologikoa

- ▶ Euskararen bokalak eta kontsonanteak ezagutu eta ahoskatu.
- ▶ Euskararen fonema txistukariak: /tz/, /tx/, /ts/, /z/, /s/, /x/
- ▶ Prozesu fonologikoak
- ▶ Palatalizazioa (/is/ > (ix): isilik > (ixilik), /in/ > (iñ): mina > (miña)...)
- ▶ Bokal-epentesia: /e/ Kontsonante-epentesia: /r/ (hirurehun, lauretan...)
- ▶ Asimilazioak eta elipsiak: (ez dira/ (eztira), ez naiz/ (enaiz)
- ▶ Diptongoak: /ai/ aizu, /ei/ zein, /oi/ goi, /au/ auzo, /eu/ euri
- ▶ Hiatoak
- ▶ Aldaketa fonetikoak:
 - Bustidura
 - Gortze-prozesua: bdg/ ptk
 - Intonazioa: euskararen intonazioa
 - Euskararen hitz luzeen azentu bikoitza: (*osásuná, emákuméá...*)
 - Pluralak azentua mugitzen du
 - Aditzak: silaba bakarreko oina duten aditzek azentua dute hasieran, gainerako aditzek ez bezala.
 - Aditzak jokatzean azentua aldatu egiten da.
 - BA eta EZ partikulak aditzetan: *datór, bàdatór, èztatór*
 - ERE partikula: *zu ere (zúre)*
 - Izen-sintagma konposatua denean: *zuré alabá*

2.- Alderdi ortografikoa

- ▶ Ortografia
 - Euskararen alfabetoa
 - -r-ren aurrean bokala mailegu zaharretan: *arropa, errege, erloju...*
 - -nb eta np grafiak
 - Absolutuan deklinatutako orduak nola idatzi
 - Euskararen fonema txistukariak: /tz/, /tx/, /ts/, /z/, /s/, /x/
 - Maileguen egokitzapena: *funtzionario, erresistentzia...*
 - Izen eta adjektiboetan bustidura adierazteko: -dd-, -ll-, -tt-
 - h grafia (*hau, harri, ahal...*)

- Atzerriko ohiko izenen idazkera (*Erroma, Bartzelona, Madril, Pirinioak...*)
- Zenbakien (bi kilo eta erdi), ordinalen (8.a...) eta daten idazkera (2008ko...).
- Letra larriak eta xeheak nola erabiltzen diren
- Ortografiatzko zalantzak (-e)z gero...

► Puntuazioa

> Galde- zein harridura-ikurra

> Bi puntuak

- Zerrendatzeko: *Erosketak: ogia, esnea...*
- Mezuen abiaburuan: *Arreba maitea:*
- Orduak emateko: *7:15ean dator autobusa.*
- Esaldiaren lehen zatia argitzeko, frogatzeko edo laburbiltzeko: *Jendea berokia jantzita dabil: hotz egiten du.*
- Hitzez hitzeko aipamenean aurrean: *Maisuak zera esan zion: isildu!*
- Kataforak adierazteko: *Bi anaia ditu: Mikel eta Jokin.*
- Esaldien arteko kausa-ondorio edo ondorio-kausaa adierazteko: *Ikusle asko nazkatu samar gaude errepikapenekin: duela bost urteko pilota-partidak, Goenkaleko kapituluak behin eta berriz...*

> Puntua

- Esaldi eta esapide sinpleen bukaeran: *Aitor naiz.*
- Zenbakiz adierazitako ordinaletako “garren” ordezkatzeko: *XX. mendean...*
- Hainbat laburduran: *or. (orrialdea); etab. (eta abar)*
- Zenbakietan: *7.545 liburu*

> Etenpuntuak

- Esaldia bukatu gabe utzi dela adierazteko: *Erosketak: ogia, esnea...*

> Koma

- Elkarren kideko zatiak zerrendatzeko: *Ogia, esnea, dilistak...*
- Data emateko: *Donostian, 2003ko uztailearen 2an.*
- Perpaus elkartuetan menpeko esaldien atzetik (denborazkoak, kontzesiboak...): *Etortzen denean, esango diogu.*
- Deikia: esaldi-hasieran zein -tartean doanean: *Ekarri, Idoia, eskuan daukazuna! Jon, etorri hona!*
- Testu-antolatzaileen ondoren (ondoren, adibidez, atzo...): *Atzo, auzoko tabernan...*
- Banakariak (bai..., bai...; ez..., ez... eta abar): *Guk bai ardoa, bai sagardoa edan genituen.*
- Tartekiak koma artean idatzi ohi dira: *Kontu honek, noski, hankaz gora jarri du proiektua. Bihar, lagunekin batera, mendira noa.*

+ > Puntu eta koma

- Esaldia alborakuntzaz elkartzeko: *Dakienak badaki; ez dakienak baleki!*

> Komatxoak: ezizenak eta atzerriko hizkuntzetako hitzak transkribatzeko

3.- Lexikoa eta alderdi semantikoa

- ▶ Lantzen diren funtzioetan maiz erabiltzen diren adierazleak
- ▶ Lantzen diren egoeretako ohiko lexikoa
- ▶ Sarri erabiltzen diren sinonimo eta antonimoak
- + ▶ Gai orokorretako hiztegi orokor zabala
- + ▶ Sinonimo ugari

4.- Alderdi morfosintaktikoa

4.1.- Izen-sintagma

▶ Deklinabidea

Mugatu singularra, mugatu plurala eta mugagabea

Absolutua	NOR
Ergatiboa	NORK
Datiboa	NORI
Inesiboa	NON
Genitibo edutezkoa	NOREN
Adlatiboa	NORA
Adlatibo norabidezkoa	NORANTZ
Motibatiboa	ZERGATIK, NORENGATIK
Ablatiboa	NONDIK
Soziatiboa	NOREKIN
Genitibo leku-denborazkoa	NONGO
Adlatibo bukatuzkoa	NORAINO
Destinatiboa	NORENTZAT
Instrumentala	ZERTAZ
+ Prolatiboa:	-TZAT/-DAKO/-TAKO (<i>tontotzat...</i>)
Siglen eta laburdura ezagunen deklinabidea	
Deklinabide osoaren erabilera izen berezi eta arruntetan	

▶ Bizidunen deklinabidea (singularra, plurala eta mugagabea)

- Inesiboa: NORENGAN (*Maiterengan, haurrarengan, haurrengan...*)
- Adlatiboa: NORENGANA (*ama(ren)gana, lagunengana...*)
- Ablatiboa: NORENGANDIK (*amarengandik, lagunengandik...*)
- Adlatibo bukatuzkoa: NORENGANAINO (*alabarenganaino, Ikerrenganaino...*)
- Adlatibo norabidezkoa: NORANTZ/NORAT/NORENGANANTZ

▶ Izena

- Arruntak eta bereziak
- Bizidunak eta bizigabeak
- Zenbakarriak eta zenbakaitzak
- Plural hurbila: -ok

► Galdetzaileak

- Nor (nork, nori, noren, norekin, norengan...)
- Zer (zerk, zertaz, zeri buruz, zertan, zer ordutan, zer ordutatik zer ordutara, zergatik, zertarako)
- Non (nongoa, nora, nondik)
- Noiz (noiztik, noizko, noiz arte)
- Zenbat (zenbatek)
- Nola, nolakoa
- Zerez, zerezko
- Zein (zeinek, zeini...)
- Zeren aldeko, zeren kontrako, zeri buruzko, zein egunetako...

► Izenordainak

- Pertsona-izenordainak: ni, zu, gu...
- Erakusleak: hau, hori, hura, hauek, horiek, haiek
- Izenordain mugagabeak:
 - Zerbait, norbait, zerbaitek, norbaitek, zerbaiti, norbaiti...
 - Inor ez, ezer ez, inork ez...
- Izenordain zehaztugabeak: edozein, edozeinek, edonor, edonork, edozer...
- Bihurkariak: NOREN + BURUA (*ez du bere burua onartzen...*)
 - ELKAR absolutuan, datiboan, sozietiboan eta genitiboan: elkar ikusi dugu; elkarrekin etorri gara; elkarren ondoan eseri gara...
- + • Forma indartuak: neu, zeu... neronek, bera, bere... ni neu...

► Determinatzaileak

> Mugatzaileak

• Artikuluak:

- Zehaztuak (-a/-ak)
- Zehaztugabeak (bat/batzuk)
- Erakusleak: hau, hori, hura, hauek, horiek, haiek, honengana, hauengana, honengan, hauengan...

- + • – Erakusle indartuen erabilera (hauxe, horixe...)

> Zenbatzaileak

• Zehaztuak

- Zenbakiak: (0-100; 0-1.000...); zatikiak: *bosten bat, bost seiren...*; ehunekoak eta portzentajeak.
- Ordinalak: lehena, bigarrena...
- Kopuru-adierazpenak: *kilo bat, kilo bat eta erdi, lau ordu...*
- Orokorrak: oso, guztia, dena
- Banatzaileak: -NA (*bona, bina...*); -NAKA (*seinaka etorri dira...*); -KO (*liburu bakoitzeko...*)

- Zehaztugabeak: asko, gutxi, batzuk, zenbait, nahiko(a), horrenbeste, pixka bat, makina bat, hainbat...

► Adjektiboa

> Motak

- Bakunak: eder, polit, itsusi...
- Nola eta Nolakoak bereizi.
- *Huts* izenondoa (*kafe hutsa, alkohol hutsa, poltsa hutsa...*)
- Esamoldeak: -arena egin

> **Graduatzaileak**

- askea: oso, nahiko, izugarri, samarra, hutsa...
- errepikapenaren bidezkoa: txiki-txikia...
- atzizki bidezkoa: -egi, -ago, -en; + ahalik eta ...-en, gero eta ...-ago, zenbat eta ...-ago, orduan eta ...-ago; askoz ...-ago, are ...-ago

> **Izenlagunak**

- Nominalizazioa: + -(e)ko: *zuloa egiteko gailua...*
- Zenbatzailea: + izena + - (e) ko (*bi urteko umea...*)
- + • Deklinabide-kasuei: -KO atzizkia erantsita (*tontorrerainoko...*)
- NOREKIKO: (*lagunarekiko errespetua...*)
- NORENGANAKO: (*zaharrenganako begirunea...*)
- NORAINOKO: (*hemendik aterainoko sugea...*)

> **Aposizioa**

- Aposizio ez-murrizgarria, aposizioa NOR IS denean
- Aposizio ez-murrizgarria, aposizioa perpausa denean, batez ere NOR kasuan (*Amaia, nirekin bizi dena, gaixotu egin da...*)
- + • Aditz-partizioa adjektibo gisa: (*gezur asmatua; oilo errea...*)
- Partizioaz osatutako adjektiboak: (*Auto lapurtu batean egin zuten ihes...*).

▶ **Adberbioak**

- Lekua: hemen, hor, han...
- Denbora: gaur, atzo, bihar, etzi, orain, gero, lehen...
- Modua: honela, horrela, gaizki, ondo, poliki...
- Zalantzakoa: agian, antza, dirudienez, itxuraz, zalantzarik gabe, ziur asko...
- Graduatzaileak: erabat, zeharo, batere, guztiz, izugarri, ikaragarri, ia-ia, + gogotik, biziki... orain/oraintsu, hala/halaxe, berandu/berandutxo...
- + • Jarreraren adierazpena: nire ustez, bere iritziz, zalantzarik gabe, ziur asko, noski, dirudienez, antza...
- *Gero* indargarri gisa: *garesti zegok gero!*...
- Iritzizko aditzondoak: nonbait...
- Postposizioen bidez osatuak:
 - NOR edo partitiboa eskatzen dutenak: -rik gabe, ezean
 - NOREN eskatzen dutenak: -(r)en gainean, azpian, aurrean, atzean, barruan, kontu, esku (*utzi hori nire kontu...*)...
 - NORI eskatzen dutenak: -(r) esker, buruz, + so (*itsasoari so zegoen...*)...
 - Instrumentalarekin: (zerez) gain(era), bestalde(an).
 - Denbora adieraztekoak (*hemendik aurrera, handik aurrera, barru...*)
- + • Beharrean: *hori ekarri beharrean bestea ekarri...*
- Beste maila batzuk: erdi, benetan
- Zenbait adierazpen: *gutxi gorabehera; plisti-plasta, tipi-tapa...*

► Hitz-sortzaileak

> *Elkarketa*

- Izena + izena: *seme-alabak, aitona-amonak, patata-tortilla...*
- Izena+ adjektiboa: *sudurluze, ipurterre...*
- Hitz-elkarketak: *aldi, toki, alde, leku, gabe, zain*
 - + – izen eratorria + izena/ izena + izen eratorria (*hurbiltze-saio, odol-emaile...*)
 - aditz-erroa + izena (*idazlan...*)
 - aditz-erroa + adjektiboa (*ezkonberri...*)
 - aditza + adjektiboa (*hasi berri...*)
 - izena + adjektiboa (*gibelurdin...*)
 - partizipioa + partizipioa (*joan-etorri...*)
 - izena + aditza (*denbora-pasa...*)
 - adjektiboa + aditza (*berridatzi...*)
 - adjektiboa + adjektiboa (*luze-labur; hotz-bero...*)
- Adierazkortasun-maila (*plisti-plasta, kili-kolo, tipi-tapa...*)

> *Eratorkpena*

- Atzizkiak
 - + -aldi
 - ari (kirolari...)
 - aro (urtaro...)
 - + -bako
 - bera
 - di
 - dun (txapeldun...)
 - + -era
 - erraz
 - ezin
 - gai
 - gailu (garbigailu...)
 - + -gaitz
 - garren (zortzigarren...)
 - garri (interesgarri...)
 - gile (etxegile...)
 - + -gin/-kin
 - gintza
 - go
 - gura
 - ka (korrika...)
 - + -kada
 - (k)ari
 - kari
 - keria (kirtenkeria...)
 - + -keta
 - ki

- + -kizun
- kunde
- kuntza
- le (idazle...)
- men/pen (laburpen...)
- ro (astiro, berriro...)
- tar (zarauztar...)
- tasun (edertasun...)
- te
- + -(t)eria
- tegi (barnetegi...)
- ti (kakati...)
- txo (loretxo...)
- + -tza
- tzaile (zulatzaile...)
- + -une
- zulo

- Aurrizkiak: aurre-, kontra-, ez-, + -ber-/bir-, sasi-
- Maileguak (*bioklima, termometro...*)

4.2 - Aditza

► Ezaugarriak

> *Aditz iragankorrek eta iragangaitzak*

- *Jon sartu da / Jonek sartu du autoa*

> *Jokatuak eta jokatugabeak*

- Etorri naiz, egin dut, darama...
- Etortzea, egiteko, eramanda, ikusita

> *Trinkoak eta perifrastikoak*

- Doa, dator, darama
- Joan da, etorri da, eraman du

+ > *Subjektu - predikatu - atributu komunztadura finkatzea*

► Aspektua

<i>Orainaldi burutua:</i>	joan naiz
<i>Orainaldi ez burutua:</i>	joaten naiz
<i>Gertakizuna:</i>	joango naiz
<i>Iragan burutua</i>	joan nintzen
<i>Iragan burutugabea:</i>	joaten nintzen
<i>Puntukaria:</i>	ikasten ari naiz, dago, dauka
<i>Lehenaldiko puntukaria:</i>	egiten ari nintzen
<i>Trinkoak:</i>	nabil, zabilta, nenbilen, zenbiltzan...
<i>Aditz-lokuzioen aspektua:</i>	bizi izan, ari izan, behar izan, balio izan, nahi izan, ahal izan eta ezin izan

Zenbait aditz-lokuzio: logura naiz / logurak nago, gose naiz / goseak nago...

- + • Aspektu burutua adierazteko IZAN partikularen erabilera (*Askotan ikusi izan dut...*)
- Partizipio nominalizatua (*Pelikula hori ikusia dut...*)
- Etorkizuna adierazteko esamoldeak: -T(Z)EKOA IZAN (*Bihar joatekoa naiz...*); -T(Z)EKO EDUKI (*ikusteko daukat...*)

► Modua

> Indikatiboko orainaldia

- NOR: izan, egon, joan, ibili, etorri, etzan (datza)
- NOR-NORK: ukan, eduki, jakin, eraman, ekarri, esan (diot), iruditu (3. pertsona), + irau (dirau...), erabili (dabil...)
- NOR-NORI: zait, zaizkit...
- ZER- NORI- NORK: diot, didazu...
- + • NOR-NORI-NORK trinkoak: iritzi (deritzozu...)

> Indikatiboko lehenaldia

- NOR: izan, egon, joan, ibili, etorri
- NOR-NORK: ukan, eduki, jakin, eraman, ekarri, esan (nioen), iruditu
- NOR-NORI laguntzailea: zitzaidan, zitzazkidan...
- NOR-NORI-NORK laguntzailea: nion, nizkion...

> Baldintza (alegiazkoak)

- + • NOR laguntzailea, lehenaldia (joango balitz, joango zen...), eta trinkoa, orainaldia: egon (balego, legoke).
- NOR-NORK laguntzailea, orainaldia, pertsona guztiak (eramango bazenu...); lehenaldia NOR 3. pertsona (ikusi izan balu, jakingo zuen...)
- NOR-NORI laguntzailea, lehenaldia, NOR 3. pertsona (gustatuko balitzait...)
- NOR-NORI-NORK laguntzailea, lehenaldia (esan balit, esango nion...)

> Ahalera

- Ahal izan
- Ezin izan
- Ahalezko orainaldia: naiteke, zaitezke...
- NOR-NORK laguntzailea, NOR 3. pertsona (dezakegu, ditzakegu...)
- + • NOR-NORK laguntzailea, alegiazkoak, NOR hirugarren pertsona denean (zezakeen, lezake...)
- NOR laguntzailea: ninteke, liteke...
- NOR-NORI-NORK laguntzaileak, orainaldia (diezaioket...)

> Agintera

- Partizipio burutua: *Etorri! Segi!* + *Erdu!*
- NOR: izan (zaitez, zaitezte) eta trinkoak (zoaz, zoazte, zatoz, goazen, zatozte...)

- NOR-NORK: ukan (ezazu, itzazu...)
- NOR-NORI-NORK: galdeiozu, esaiozu...
- 3. pertsonako agintera trinkoak (doala, dagoela...)

> **Aditz-izena**

- -t(z)ea espero, erabaki eta pentsatu aditzekin (*harekin joatea erabaki dugu...*)
- -t(z)eko prest, gogo, beldurra, asmoa (*joateko prest, egiteko gogo...*)
- -t(z)en: utzi, ahaztu aditzekin (*telebista ikusten utzi ditugu...*)
- -t(z)ea: ahaztu aditzarekin (*bazkaria prestatzea ahaztu zaio...*)
- -t(z)eak, -t(z)eari (*hori esateak sutan jartzen nau...; erretzeari utzi dio...*)
- -t(z)earen, -t(z)earekin, -t(z)eaz (*egitearen garrantziaz, egitearekin batera, egiteaz...*)

- + • -t(z)etik: *egitetik libratu gara...*

> **Subjuntiboa (orainaldia):**

- + • NOR: laguntzailea (nadin...)
- NOR-NORK: laguntzailea (dezadan, ditzadan...)
- NOR-NORI-NORK: laguntzailea (diezaioten...)

> **Aditz-lokuzioak:**

- + • Aditz-lokuzioak (logura, haserre, komeni, uste, balio... izan; partizipio nominalizatua: hasia da, hasiak dira; T(Z)EKO egon; subjuntiboa+la (iritzia/ jarrera adierazteko).

> **Bestelako erabilerak:**

- Eguraldia: *euria / elurra... ari du. Haizea dabil, euria dakar...*
- + • Moduzko partikulak aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean:
 - Partizipioak: -TA (*amaituta ditugu lanak...*); -R(I)K...
 - Aditz eragileak: -ARAZI; -T(Z)ERA BEHARTU; ERAGIN

4.3.- Sintaxia

► **Perpau bakuna**

> **Galderazko perpaua**

- Galdegaia galderazko perpauetan
- “Al” partikula: aditz nagusiaren eta laguntzailearen artekoa (*berak egin al zuen?...*)

> **Adierazpen-perpauak**

- Baiezkoak. Galdegaia baiezko perpauetan
- Ezezkoak. Galdegaia ezezko perpauetan

> **Harridura-perpauak**

- Erakusleen bidez osatuak: *Hau hotza!*
- Galdetzaileen bidez:

- ZER / ZEIN itsusia (*den*)!
- NOLAKO aurpegia (*duen*)!
- ZENBAT dituen!

- **Baiezkoak:**

- BAI polita (*dela*)!
- BAIETZ etorri!

- **Ezezkoak**

- EZTA pentsatu ere!
- EZETZ irabazi!

> **Aginte-perpausak**

- Zatoz azkar! Geldi hor!
- Ez egin hori!

+ > **Eskerrak... (Eskerrak etorri zaren...)**

+ > **Gaitz erdi! Lastima! Alajaina! Bai horixe! Ez horixe!**

> "OMEN", "OTE" partikulak

▶ **Perpaus elkartuak**

> **Juntadura**

- Emendiozkoak: eta; ez bakarrik...ere (*ez bakarrik Mikel, beste guztiak ere...*);
+ ez ezik (*hori ez ezik bestea ere etorri da...*)
- Hautakariak: ala, edo, bestela, + zein, nahiz (*Hizkuntza bat nahiz bestea...*)
- Aurkaritzakoak: baina, baizik, ordea
- Banatzaileak: bai... bai (*bai ostiralean, bai larunbatean...*); ez... ez (*ez bihar, ez etzi...*); (alde) batetik... bestetik

> **Menderakuntza**

- Izen-funtziozko menderakuntza:
 - Konpletiboak: -(e)la
 - Zehar-galdera: -(e)n
 - Agindua edo debekua: -tzeko
 - -t(z)ea; -t(z)eak...
- + - Galde-hitza eta partizipioa (*Ez daukagu zer eginik. Ez dute non lo egin...*)
- Erlatibozkoak:
 - Erreferentendun deklinatua: NOR, NORK, NORI, NOREN... (*Janaria erosten duen mutikoa/mutikoari...*)
 - Erreferente gabea eta erreferente gabea deklinatua
- Konparaziozkoak:
 - Berdintasuna: bezala / bezalako; -(e)n bezain; -(e)n adina,
+ -(e)n hainbat; -(e)n besteko, adinako, bezainbesteko; -(e)n bezainbat, bezainbeste; noren/zeren moduan.
 - Desberdintasuna: baino...-ago, baino gehiago/gutxiago; + noren/zeren aldean.
 - Superlatiboa: -rik...-ena

- Erromanikoa: gero eta... -ago (*Gero eta gazteago zaude...*); hain, hainbeste (*Ez dira hain onak. Ez dugu hainbeste jan behar...*)
- Baldintzazko perpausak:
 - -ba, baldin ba- (*Ostiralean bada, joango naiz...*; *ikusiko banu, ezagutuko nuke. Ikusi banu, ezagutuko nuen*)
 - Aditza jokatu gabe: - (e)z gero (*Nahi izanez gero...*); ezean, ezik.
 - ⊕ – Jokatutako aditzen erabilera: alegiazko orainaldia eta lehenaldia bereizi.
- Denborazkoak:
 - Aldiberekotasuna: -nean, (*Etorri naizenean hemen zegoen*); -(e)n guztietan, gehienetan, bakoitzean (*Etortzen zaren guztietan...*); ⊕ -(e)la(rik).
 - Aurrekotasuna: baino lehen, aurretik; -t(z)erakoan (*Kirola egiterakoan...*); ⊕ -(e)n orduko.
 - Ondokotasuna: ondoren, eta gero; partizipioa + orduko (*Kalera atera orduko negarrez hasi zen*); ⊕ -(e)n orduko; -takoan; -t(z)earekin batera.
 - Iraupena adieraztekoak: -arte, bitartean; -(e)netik (*joan zenetik...*); ⊕ -(e)nez geroztik; -(e)n artean; harik eta... arte; bitartean.
- Helburuzkoak:
 - ...t(z)era, ...-t(z)eko; -t(z)eko asmotan (*Erromara joateko asmotan dabil...*); ⊕ -t(z)earren; subjuntibozkoak (*Erosoago egon zaitezen ekarri dizut burukoa.*)
- Kausazkoak:
 - ...-(e)lako; dela-eta; t(z)eagatik...; -(e)nez gero; -t(z)earren...; ⊕ -(e)la medio, -(e)la kausa.
- ⊕ • Ondoriozko perpausak:
 - Menderagailurik gabe: ..., hain da... (*Ez du lana bukatuko, hain da alferra...*)
 - Hain/hainbeste... ezen/non...bait/-(-e)n.
- Kontzesiozkoak:
 - Nahiz eta jokatu gabeko aditzekin (*Nahiz eta hori jakin, oporretara joan da.*)
 - Nahiz eta...-(e)n (*Nahiz eta urruti utzi gaituen...*)
 - ⊕ – -(e)n arren (*Galdu dugun arren, ...*)
 - ⊕ – Ba-...ere (*Gaixorik bazegoen ere...*)
 - Partizipioa + -ta ere (*Mesedez eskatuta ere...*)
 - Partizipioa + arren (*Etorri arren, ez zuen ikusi...*)
 - ⊕ – -agatik (*Esanagatik ez zigun kasurik egin*)
- Moduzkoak:
 - -(e)n bezala / -(e)n bezalako (*Nahi duzun bezala; nahi duzun bezalako...*)
 - -(e)n neurrian (*Ahal dugun neurrian...*)
 - -(e)n moduan (*Egunkariak dioen moduan...*), -(e)n eran, -(e)nez, -(e)naren arabera (*Egunkariak dioenaren arabera...*).

- + --(e)n aldetik
- (e)n gisan, antzera, legez
- ba...bezala
- (e)la(rik)
- t(z)eko moduan
- ez bezala
- ahala

IV. Gaitasun estrategikoaren garapena

▶ GAITASUN ESTRATEGIKOA

Ikasleak ekintza komunikatiboa egoki gauza dezan, bere aurrezagutza eta gaitasun orokor guztiak erabiliko ditu, egokien irizten dien estrategiak erabiliz, komunikazio-estrategiak eta ikasestrategiak (*ikus 55. orrialdea*).

EBALUAZIOA

Ebaluazioa egiteko, informazio-bilketa egitea ezinbestekoa da, ikasprozesuaren deskribapen osoa emanez eta, hobekuntzara begira, deskribapen horri buruzko epai eta irizpen arrazoitua eskainiz (*ikus 65. orrialdea*).

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA EBALUAZIO-ESKALAK

Ekintza komunikatiboen gauzatze-maila ebaluazio-irizpide jakinen arabera neurtu eta balioetsiko da (*ikus 69. orrialdea*).

ENTZUMENA

- 1 Kosta egiten zaio ahoz emandako instrukzio, azalpen eta argudioak ulertzea, eta behin baino gehiagotan entzun behar izaten ditu. Beste hainbeste gertatzen zaio narrazio eta deskribapenekin ere. Ohiko gaiei buruzko solasaldi eta jardunetan, bere kidekoei baino okerrago ulertzen die jatorrizko hitzunei.
- 2 Ahoz emandako instrukzio, azalpen eta argudioak ulertzen ditu, baita narrazio eta deskribapenak ere. Behar adinako ulermen-maila du kideekin nahiz jatorrizko hitzunekin ohiko gaiei buruzko solasaldi eta jardunetan aritzeko, eta, orokorrean, hariari jarraitzen dio; baina, hitzunaren hizketa lagunartekoa denean eta gaia ez hain ezaguna, azalpen eta errepikapen gehiago eskatzen dizkio solaskideari. Edonola ere, ez da komunikazioa eteten.
- 3 Ez du eragozpenik ahoz emandako instrukzio, azalpen eta argudioak ulertu eta jarraitzeko, ezta gai ezagun edo ezezagunen inguruko narrazio eta deskribapenak ulertzeko ere. Kideekin nahiz jatorrizko hitzunekin, ohiko gaiei buruzko solasaldi eta jardunetan, eragozpenik gabe ulertzen du. Hizpidea aldatzean, aise jarraitzen dio hariari. Ondo ulertzen ditu erabilera-esparru desberdinetako gainerakoen solasak, nahiz eta zenbait testuingurutan, hitzunaren hizketa oso lagun artekoa denetan, ñabardurak antzemateko arazoak izan. Komunikazioa, inola ere, ez da eteten, entzumen-estrategiez baliatzen baita.

EGOKITASUNA

- 1 Gaia bere ezagutzatik eta mundu-interesetik gertukoa izanik ere, zailtasuna izaten du testuingurura egokitzen. Gehiago erreparatzen dio esan beharrekoari, nori, noiz, non eta zertarakoari baino.
- 2 Elkarreraginezko testuinguru orokorretan, gaia zein den, nori eta zertarako zuzentzen zaion jakinda, ez du arazorik erregistroa aukeratzeko eta bertara egokitzeko. Hala ere, kostatzen da bere jarduna egokitzen, gaia oso ezaguna ez duenean eta tokiko hizkeran aritzen denean. Ez du solaskidea hizketa-modua aldatzera behartzen, eta elkarrizketetan egokitu egiten da norabidearen, estiloaren eta enfasiaren aldatetara.
- 3 Testuinguru ezagunetan, gai ezagun nahiz ezezagun eta bere interesetik hurbilekoetan, bai ikasleen artean bai jatorrizko hiztunekin, ez du arazorik egoki jarduteko.

KOHERENTZIA ETA KOHESIOA

- 1 Zailtasuna du zerbait kontatu edo deskribatzeko, azalpenak egiteko eta abar, ez baititu ideiak ondo garatzen. Kohesio-formak eta antolatzaileak ez ditu zuzen erabiltzen, eta, ondorioz, diskurtsoaren haria eteten du sarri; horrek ez-ulertuak eragiten ditu.
- 2 Badaki bere erabilera-esparruko elkarrizketetan parte hartzen: hasiera nola eman, nola jarraitu, nola bukatu, baita gaiez aldatzean ere. Txanda laburreko adierazpenak egiten ditu, eta diskurtsoaren hariari erreparatzeko ez du oztoporik izaten. Ideiak lotzeko, bestalde, baliabide-multzo zabala du (antolatzaileak, hitzen ordena eta abar). Hala ere, izaten ditu tarteka zenbait hutsune, eta atzera-aurrera ibili behar izaten du zenbaitetan, baina entzuleak ez du orokorrean hariari jarraitzeko arazorik izaten.
- 3 Gai da elkarrizketetan erantzun zabalak emateko. Ez da diskurtso linealera mugatzen, eta kateamendua egokia da. Kontatu, deskribatu, azaldu eta instrukzioak emateko garaian, diskurtsoa ondo antolatua, koherentea eta logikoa da. Egoki baliatzen ditu ideiak garatzeko antolatzaileak eta lotzeko kohesio-formak.

JARIOTASUNA

- 1 Jardun jarraituari eusteko benetako zailtasuna du, eta, zer esanik ez, gaia arrotza izan eta tokiko hizkeran aritu behar badu. Isilik geratzen da maiz, zer esan ez dakiela.
- 2 Testuinguru ezaguna duenean jarduna naturala da. Tokiko hizkeran eta gai ezezagunen aurrean, nahiz eta polikiago aritu, hutsuneak betetzen asmatzen du.

- 3 Testuinguru ezagunetan eta bere mundu ezagutzatik hurbileko gaien inguruan, ikasleen artean nahiz jatorrizko hiztunekin, erritmo naturalean eta solte aritzeko gauza da, eta diskurtso guztian eusten dio erritmo berari.

ABERASTASUNA

- 1 Maila honi dagozkion testu-generoak sortzeko eragozpenak ditu, egitura eta lexiko aldetik pobrea baita eta testu sinpleak eraikitzen baititu. Instrukzio eta azalpenetan ez du asmatzen.
- 2 Maila honi dagozkion testuak sortzen ditu, eta lexiko aberatsa erabiltzen saiatzen da. Dena dela, zenbaitetan hutsegiteak egiten ditu, batez ere, adierazpen luzea egiten saiatzen denean, jatorrizko hiztun batekin hitz egin behar duenean eta gaia gehiegi ezagutzen ez duenean. Horrelakoetan, kostatzen zaio esandakoa beste era batean adierazten.
- 3 Maila honi dagozkion testu-genero guztiak baliatzeko gauza da. Arrakastaz lortzen du testu luze eta konplexuak antolatzea. Horretarako, itzulinguruak, birformulazioak, autozuzenketak, hizkuntz klitxeak eta abar baliatzen ditu. Lexikoaren eta egituraren aldetik, testu aberatsak izaten dira, erdal kutsu gutxikoak.

ZUZENTASUNA

- 1 Maila morfosintaktikoan, fonetikoan eta lexikoan egiten dituen akatsek komunikazioa zaildu egiten dute, inoiz eteteraino ere iritsiz.
- 2 Maila morfosintaktikoan oinarrizko egiturak ezagutzen ditu, eta orokorrean zuzen erabiltzen ditu ahozko adierazpenean. Dena den, gaiaren konplexutasunaren arabera batez ere, okarren bat edo beste egin dezake, baina atzera eginez zuzentzen du maiz; erdal kutsua, oraindik ere, antzematen zaio ahoskeran eta intonazioan. Ulermenean, lexikoaren ezagutza zabala badu ere, hitz egitean erdarakadetara jo behar izaten du, hitz egokiena aurkitzeko denbora faltan. Hala ere, gramatika-ezagutza ona duenez, garbi ulertzen da zer esan nahi duen.
- 3 Testuinguru ezagunetan, ez du eragozpenik zuzen hitz egiteko, nahiz eta jatorrizko hiztunekin aritu.

IRAKURMENA ●

- 1 Gehienetan, badaki ohiko gaien inguruko testu-generoak bereizten. Testuaren nondik norakoaz, ordea, gutxitan jabetzen da, eta ez da gai informazio xehea ateratzeko. Maila honetako adierazpide linguistiko-testualak menderatzen ez dituzenez, nekez jasotzen ditu testuaren ideia nagusiak ere.
- 2 Badaki ohiko gaien inguruko testuak bereizten. Testuaren nondik norakoaz berehala jabetzen da, eta ez du, oro har, oztoporik informazio xehea ere ateratzeko. Maila honetako adierazpide linguistiko-testual guztiak ez ditu oraindik erabat menderatzen, eta, horregatik, tarteka, xehetasunez eta, batez ere, ñabardurez jabetzeko testua behin baino gehiagotan irakurri behar izaten du; hala ere, batzuk oharkabean pasatzen zaizkio. Jardunaren hizkuntz erregistroak bereizten ditu gehienetan.
- 3 Ez du inolako arazorik, mailari dagozkion testuinguru ezagunetan, ohiko gaien ingurukoak diren testuak bereizteko. Era berean, ia beti informazio orokorra nahiz xehea atzematen du, nahiz eta irakurgaiaren egiturak ulermena zaildu dezakeen. Horrelakoetan, irakur-estrategiez baliatzen da zailtasuna gainditzeko. Maila honetako adierazpide linguistiko-testualak arazorik gabe menderatzen dituzenez, ez dira testua ulertzeko inolako traba. Ez du arazorik testuaren hizkuntza-erregistroak erraz bereizteko.

IDAZMENA ▲

EGOKITASUNA

- 1 Gaia bere mundu-ezagutzatik eta interesetik hurbilekoa izanik ere, zailtasuna du erregistroa aukeratu eta egokitzen. Hori dela-eta, zenbait eredu desegoki erabiltzen ditu.
- 2 Gaia bere mundu-ezagutzatik eta bere interesetik hurbilekoa denean, ez du arazorik izaten adierazpena egoki egiteko. Nori zuzentzen zaion, zertarako eta abar kontuan izanik, idatzizko testuak behar duen formaltasun-mailaz idazten ditu. Hala ere, zenbait idatzitan ereduaren erreferentzia antzematen zaio, idatziari kutsu artifiziala emanez.
- 3 Erabilera-esparruaren arabera (familiarrekoa, akademikoa, eguneroko harremanetako eta abar), badaki erregistro egokia aukeratzen, baita helburuaren arabera egokitzen ere. Umorea, poza eta abar adierazteko gauza da.

KOHERENTZIA

- 1 Diskurtsoaren egitura eta pasartearen antolaketa, askotan, ez zaizkio egokitzen testuari. Nekez lotzen eta bereizten ditu ideia nagusi eta osagarriak, eta ez da xehetasunez oihartzen. Diskurtsoa ez da koherentea, haria galtzen baitu eta kosta egiten baita jarraitzea.
- 2 Diskurtsoaren egitura eta pasartearen antolaketa egokitu egiten zaizkio, gehienetan, testuari. Badaki ideia nagusiak eta osagarriak bereizten eta lotzen, eta saiatzen da gaiak eskatzen dituen xehetasunak ematen ere. Oro har, diskurtso argi eta koherentea osatzen du, baina, batzuetan, gal dezake diskurtsoaren haria; hala ere, testua oztopo handirik gabe irakurtzen da.
- 3 Diskurtsoaren egitura eta pasartearen antolaketa egokitu egiten zaizkio testuari. Irakurteraza gertatzen da, kohesio-forma egokiak erabili eta ideiak ondo uztartzen dituelako. Testu luze samarrak ontzen ditu, ideia konplexuak barne.

KOHESIOA

- 1 Aipaturiko ideia nagusiak eta osagarriak lotzeko, ez du asmatzen erabili beharreko testu-antolatzaileekin, kohesio-formekin eta puntuazio-markekin.
- 2 Gehienetan, egoki erabiltzen ditu ideia nagusiak eta osagarriak lotzeko testu-antolatzaileak, kohesio-formak eta puntuazio-markak.
- 3 Batere eragozpenik gabe erabiltzen ditu ideia nagusiak eta osagarriak lotzeko testu-antolatzaileak, kohesio-formak eta puntuazio-markak; baita xehetasunak adieraztean ere.

ABERASTASUNA

- 1 Arazoa du maila honetako testuak idazteko: deskribapen oso sinpleak egiten ditu eta lexiko urria du. Azken batean, testu labur eta sinpleegiak idazten ditu.
- 2 Ez du aparteko oztoporik maila honi dagozkion testuak idazteko. Hala ere, gaia oso ezaguna ez duenean, molde bereko egitura, esapide eta hitzak erabiltzera mugatzen da; erdal kutsua ere har dezakete kasu hauetan, eta idazlanak sinpleak eta pobre-itxurakoak gerta daitezke. Hala eta guztiz ere, gai da informazio xehea eta fidagarria emateko.
- 3 Mailari dagozkion testu-genero guztietan moldatzen da. Arrakastaz antolatzen ditu bere mailako testu luze nahiz konplexuak.

ZUZENTASUNA

- 1 Nahiz eta gaia ezaguna izan, mailatik beherako akatsak egiten ditu maila morfosintaktikoan zein lexiko eta ortografikoan. Oso nekez ulertzen da idatzia bere osotasunean.
- 2 Testua luzea denean eta egitura konplexuak erabiltzean, maila morfosintaktikoan egiten dituen hutsegiteek ez dute mezua ulertzea eragozten. Bere mundu-ezagutzatik hurbileko gaien inguruko lexikoaren ezagutza zabala du; hala ere, zenbaitetan, erdarazko hitza euskaratu egiten du, eta euskarazko hitz jatorra balitz bezala erabiltzen. Zuzen erabiltzen ditu ortografia eta puntuazio-markak, zenbaitetan hutsegiteren bat egin badezake ere.
- 3 Alderdi morfosintaktikoa zuzen erabiltzen du, maila honetako testuak sortzean. Ortografia eta puntuazio-markak ere zuzen erabiltzen ditu, eta, lexiko zabala izateaz gain, behar den bezala baliatzen du.



ERABILTZAILE GAITUA

HELBURUAK

Ekintza komunikatiboetan zerrendatzen diren helburuak mailako gaitasun komunikatiboaren adierazpen dira (*ikus 30. orrialdea*).

ENTZUMENA

Lagunarteko, lan-esparruko eta komunikabideetako elkarrizketak, eztabaidak, azalpenak eta abar ulertzeko gai izango da, baita inguruko herri-hizkeran sortutako asko ere. Informazio orokorra eta xehea jasoko du, gai espezializatueta izan ezik.

Maila honen amaieran, ikaslea gai izango da

- ▶ solaskide batek hari edo besteei gertatutakoaz egiten dituen deskribapen zehatzak ulertzeko.
- ▶ ezagun nahi ezezagunek, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak adieraziz, gai orokorrei buruz egiten dizkioten azalpenak ulertzeko; esaterako, lan-bilera batean aurkeztutako egitasmo zehatz bat.
- ▶ lagunartean eta hurbileko euskalkian, ohiko kontuez burutzen diren elkarrizketa biziak ulertzeko. Adibidez, lanean, lagunaren artean edo herrian gertatutako zerbaiten ingurukoak eta abar.
- ▶ ezagun nahiz ezezagunen artean, umorez eta ironiaz adierazitako azalpen eta kontaketak ulertzeko.
- ▶ auzo-bileretan, elkarteetako bileretan eta abarretan gai baten inguruan ematen diren argudioak ulertzeko. Adibidez: igogailua jarri, ez jarri; gai horren inguruan legeriak dioena, ordainketa eta abar.
- ▶ hitzaldi zein jendaurreko adierazpenak ulertzeko, baldin eta gaia ezaguna badu. Azentuaren edo intonazioaren bidez transmititzen diren ñabardurez ere jabetuko da.
- ▶ bere arloko gaiaren inguruan, ezagun nahiz ezezagunek egindako azalpenak ulertzeko, ideia orokorrak nahiz xehetasun eta ñabardurak ere jasoz.
- ▶ bere espezialitatekoa ez den gai abstraktu eta konplexuei buruzko diskurtsoen hari nagusia jarraitzeko. Adibidez, filosofia jakin baten inguruko azalpenak eta abar.
- ▶ hedabideetan aditu batek emandako azalpenak ulertzeko, baldin eta gaiak ezagunak badira. Halaber, ñabardurez eta xehetasunez ere ohartzen da.
- ▶ hedabideetako film, eztabaida eta hitzaldiak ulertzeko, baldin eta gaiak ezagunak badira. Halaber, ñabardurez eta xehetasunez ohartzen da, eta gehienetan, baita hitzunen jarrerez eta haien arteko harreman inplizituez ere.
- ▶ lan-esparruan nahiz akademikoan, egitasmo edota zeregin bat burutu ahal izateko ematen dizkioten prozedura-azalpenak zehatz ulertzeko. Adibidez, enpresan abian jarriko den proiektu berri baten inguruko azalpenak.

- ▶ Administrazioarekiko harremanetan nahiz lan-esparruan, prozedura edo aztergai baten inguruan, jatorrizko hitzunik hurbileko euskalkian esaten diotena ulertzeko.
- ▶ lan-egitasmoak eztabaidatzean lankideen iritziak eta arrazoibideak ulertzeko.
- ▶ Administrazio edo erakunderen batekiko eztabaidetan, solaskidearen argudio eta azalpenak zehatz ulertzeko.
- ▶ Administrazioarekiko zein beste erakunderen batekiko harremanetan, gatazken negoziazioa ulertzeko; esaterako, isun bidegabe bat erreklamatzeko, kalte-ordain bat eskatzeko eta abar.
- ▶ (...)

MINTZAMENA

Lagunarteko elkarreraginean jartotasunez eta zehatz jarduteko gai izango da, eta, era berean, lan-esparruan eta komunikabideetan ideiak eta iritziak zehaztasunez eta eraginkortasunez adierazteko.

Maila honen amaieran, ikaslea gai izango da

- ▶ ezagun nahiz ezezagunei zeregin baten prozedura zehatza azaltzeko, batez ere zereginak edo gaiak ezagunak baditu. Adibidez, makina baten azalpen teknikoa.
- ▶ auzo-bileretan, elkarteetako bileretan eta abarretan, argudioak argi garatzeko eta alderdi nagusiak ongi nabarmenduz bere ikuspegia argi adierazteko, horretarako behar diren adibideak emanez. Adibidez, obra bat egiteko edo ez egiteko iritzia azaldu eta arrazoitu.
- ▶ esparru akademikoan, ezagun nahiz ezezagunei, gai orokorrei buruzko azalpenak egiteko, esperientzien, gertaeren eta pertsonen berri emanez.
- ▶ jendaurrean gai orokorrei buruzko azalpenak eta iritziak emateko eta bat-batean galderi erantzuteko, ideia osagarriak ongi egituratuz eta adibide egokiak emanez.
- ▶ (...)

Elkarreraginean gai izango da

- ▶ ezagunen eta ezezagunen artean jartotasunez eta bat-batean txistek, pasadizoak eta bizipenak kontatzeko.
- ▶ besteak konbentzitzeko asmoz, gai jakin bati buruzko ikuspegi desberdinak alderatzeko, arazoak eta auziak azaltzeko, eta arrazoiez eta ondorioez gogoeta egiteko, betiere gaia ezaguna badu.
- ▶ solasaldi bizietan parte hartzeko, ideiak jartotasunez adieraziz, eta gaiarekiko bere jarrera eta iritzia emanez.
- ▶ gaurkotasuna duten gaien inguruan eztabaidatzeko eta bere iritziak arrazoitu eta defendatzeko.
- ▶ nahikoa adierazkortasunez eta eraginkortasunez sentimenduak eta emozioak adierazteko, zerbaiti edo norbaiti buruz jarduteko, eta elkarrizketetan umorea eta ironia erabiltzeko, besteek haren aldaratearen berri izan dezaten.
- ▶ lan-esparruan, egitasmo baten inguruko eztabaida batean parte hartzeko bere usteak azalduz; baita, arrazoibideak eskainiz, iritziak defendatzeko eta besteenak arbuiatzeko ere.
- ▶ Administrazioan zerbitzu bat jaso edo ematean sor daitezkeen egoerei aurre egiteko, argudioak garatuz eta arrazoi sinesgarriak emanez. Adibidez, auto-istripua gertatzen denean, aseguruarekin, abokatuekin eta abarrekin harremanetan jartzea eta negoziatzea.
- ▶ Hedabide publiko batean elkarrizketatua izateko eta elkarrizketak egiteko, ideiak jartotasunez eta zehaztasunez adieraziz.
- ▶ (...)

IRAKURMENA ●

Testu luze eta konplexuak ulertzeko gai izango da, baldin eta gai orokorrekoak badira. Halaber, artikulua espezializatu eta argibide tekniko luzeak ulertuko ditu, baina horiek bere arlokoak ez badira, lexikoa traba izan daiteke zenbaitetan. Gertaeretan oinarritutako testuak edo literatur testu arruntak ere ulertuko ditu, eta erregistro ezberdinak bereizteko gai izango da.

Maila honen amaieran, ikaslea gai izango da

- ▶ ezagunen arteko gutun edo mezuetan, bidaltzailearen barne-egoeraz eta sentimenduez jabetzeko, baita umorea eta ironia baliatzen dituenean ere.
- ▶ biografiak, eta horietan emandako xehetasun guztiak ere, ulertzeko.
- ▶ lan-esparruan, lankideek idatzitako bilera-akta bat ulertzeko.
- ▶ lan-esparruan, proiektu bat azalduz egindako txostena ulertzeko.
- ▶ esparru akademikoan edo lanekoan, prozedura jakin baten azalpenak zehatz ulertzeko.
- ▶ esparru akademiko nahiz profesionaleko testu batean, egilearen iritziak eta jarrerak atzemateko, baita horren asmoaz eta aldarteaz jabetzeko ere, betiere gaia bere arlokoa badu.
- ▶ erakundeekiko harremanetan edo esparru akademikoan lantzen diren gaien inguruko txostenak ulertzeko.
- ▶ Administrazioako jakinarazpenak, erreklamazioak, araubideak eta abar ulertzeko.
- ▶ bere arloko gaiari buruzko ikasliburuak, kontsulta-liburuak (entziklopediak, hiztegiak, txostenak...) ongi ulertzeko.
- ▶ aldizkari edo komunikabideetako erreportajeak ulertzeko. Kasu kasuko xehetasun eta deskribapenak ere ongi ulertuko ditu, bereziki gaia orokorra edo haren arlokoa bada.
- ▶ hedabideetan gai orokorren inguruan aldeko eta kontrako iritzien bidez argudiatutakoak ulertzeko.
- ▶ herri-aldizkarian, blog batean edota foro batean irakurritako bidaia baten kontakizuna ulertzeko, bidaiariak egindako deskribapenak xehetasunez irudikatze eta adierazten diren sentimenduez jabetzeko.
- ▶ konbentzitzeko helburuz, hedabideetan idatzitako iritzi-artikuluak ongi ulertzeko, betiere gaia kultur orokorrekoa bada.
- ▶ (...)

IDAZMENA

Ongi egituratutako testu argi eta zehatzak idazteko gai izango da, ideia nagusiak eta osagarriak nabarmenduz. Era berean, bere ikuspuntua luze eta zabal adierazteko gai izango da, xehetasunak eta adibide egokiak emanez.

Maila honen amaieran, ikaslea gai izango da

- ▶ gutun edo mezuetan, hartzailea jakinaren gainean jartzeko asmoz, haren barne-egoera eta sentimenduak argi adierazteko, baita umorea erabiltzeko ere.
- ▶ lagunarteko blog batean, norberak edo hurbileko batek bizi izandako gertaera barregarri bat idatziz kontatzeko, besteei barrea eraginez.
- ▶ toki publikoetan (Interneten, Administrazioako harremanetan, hedabideetan...) gai orokorreki buruzko argudioak emateko, aldeko edo kontrako iritzia azpimarratuz, eta arrazoiak emanez.
- ▶ gutun, mezu elektronikoa eta plataforma digitaletan, gizarteko gai orokorrak zehaztasunez eta koherentziaz azaltzeko eta argudiatzeko.
- ▶ lan-esparruko bilera-akta bat idazteko, esandakoak eta erabakitakoak jakinaraziz.
- ▶ dibulgazio-aldizkari batean eta eragina sortzeko asmoz, gai ezagun bati buruzko azalpen-testua egiteko, gaiari buruzko informazioa ematea xede, gaia erraz eta argi ulertzeko moduan.
- ▶ gertuko ezagun edota pertsonaia baten biografia idazteko herri-aldizkarian zein erakunde bateko argitalpenean.
- ▶ bidaia bat edo bizipen bat herri-aldizkarian kontatzeko, deskribapen zehatzak eginez, sentimenduak adierazkortasunez helaraziz eta argibideak eskainiz.
- ▶ egunkari edota aldizkari batean, gai ezagun bati buruzko iritzi-artikulua egiteko, besteak konbentzitzeko edota erantzuna ematera bultzatzeko asmoz.
- ▶ dibulgazio-aldizkari baterako gertakari baten balorazioa egiteko, iritzia emanez eta irtenbideak proposatuz. Adibidez, istripu ekologiko baten inguruko iritzia eman eta irtenbideak proposatzea.
- ▶ komunikabideetan, *zuzendariari gutunak* sailean, gai bati buruzko proposamenak eta eskariak egiteko, besteak ohartarazteko eta erantzuna ematera bultzatzeko asmoz.
- ▶ (...)

EDUKIAK



I. Gaitasun soziolinguistikoaren garapena

- ▶ Testuinguruaren ezaugarriak
- ▶ Gaiak
- ▶ Kultura-erreferentziak

II. Gaitasun testualaren garapena

- ▶ Testu-generoak
- ▶ Funtzioak
- ▶ Adierazpide testualak

III. Gaitasun linguistikoaren garapena

- ▶ Adierazpide linguistikoak

IV. Gaitasun estrategikoaren garapena

- ▶ Gaitasun estrategikoa

— * —

⊕ C1 mailan adierazpide berria

I. Gaitasun soziolinguistikoaren garapena

TESTUINGURUAREN EZAUGARRIAK

Ekintza komunikatibo guztiak testuinguru jakinetan gauzatzen dira, maila bakoitzean ezaugarri zehatzak dituzten testuinguruetan, alegia (*ikus 36. orrialdea*).

ENUNTZIATZAILEA-ENUNTZIATARIOA

XEDEA

ERABILERA-ESPARRUA

- Solaskidearen rolak:
- Senide-senide
 - Lagun-lagun
 - Ezagun-ezezagun
 - Lankide-lankide
 - Ikaskide-ikaskide
 - Ezezagun-ezezagun
 - Ikasle-irakasle
 - Langile-zuzendari
 - Herritarra-Administrazioa

- Solaskideen arteko harremana:
- berdinen artekoa edo gertutasunezkoa
 - urruntasunezkoa
 - hierarkikoa/ solidarioa
 - + publikoa/pribatua

B2 mailakoez gain,

- Informazioa ematea/eskatzea
- + informazioa eskatzea alternatibak proposatuz, jakin-mina adieraziz, azalpena eskatuz...
 - + ...

- Iritziak, ezagutzak eta jarrerak adieraztea eta egiaztatzea
- + zerbait bidezko ondorioztat jotzen den ala ez adieraztea eta galdetzea
 - + baimena ukatua dela aitortzea
 - + ...

- Sentimenduak, hunkipenezko jarrerak/ egoerak adieraztea eta egiaztatzea
- + erruki-sentimendua adieraztea
 - + ...

- Solaskidearengan eragitea
- + norbait kontsolatzea
 - + gatzigatu edo ohartaraztea
 - + ...

Ikus *Funtzioak* atala

- Pertsonen arteko harremanean eta solaskideen hurbileko munduan:
- Senitartekoa
 - Lagunartekoa
 - Zerbitzuguneak: dendak, informazio-bulegoak...
 - Lanekoa
 - Aisialdikoa

- Gaiak kultur orokorrari dagozkion mailan eta erabilera-esparru hauetan:
- Akademikoa
 - Administrazioakoa
 - Merkataritza
 - Herri-zerbitzuetakoa
 - + Komunikabideetakoa

GAIAK

Mailako ekintza komunikatiboak gauzatzeko, gai-zerrenda bat proposatzen da jarraian, irekia eta ikasleen premietara egokituko dena (*ikus 37. orrialdea*).

- | | |
|--|---|
| <p>▶ DATU PERTSONALAK: Izena, helbidea, adina, sexua, egoera zibila, lanbidea, jaioteguna, jatorria, curriculum...</p> | <p>sintomak, aholkuak, bizitza osasuntsua, gaixotasuna, egoera fisikoa, ospitaleak, mediku-elkarteak, osasun- zentroak, botikak...</p> |
| <p>▶ NORBERAREN EZAUGARRIAK: Jarrerak, mugimenduak, izaera, aldarte, itxura, gustuak...</p> | <p>▶ HEZKUNTZA: Eskola, lanbide-eskola, unibertsitatea, ikasketak eta espezialitateak, ikasgela, ikastetxea, irakaskuntza, irakaslea, ikaslea, gurasoak, eskola-planak, curriculumak, baliabideak, bekak, laguntzak...</p> |
| <p>▶ ETXEA: Etxebizitza-motak, gelak, altzariak, etxeko tresnak eta apaingarriak, etxeko animaliak, salmenta/erosketa eta alokairua</p> | <p>▶ HIZKUNTZAK: Euskara eta euskalkiak, atzerriko hizkuntzak...</p> |
| <p>▶ OHIKO JARDUERAK: Eguneroko eginkizunak, egoerak, ohiturak, etxeko lanak, lan-jarduerak...</p> | <p>▶ MERKATARITZA: Eroslekuak: merkataritza-guneak eta dendak, kantitateak eta pisu-neurriak, kopuruak, prezioak, gustuak, erosketak, moda, kalitatea, prezioen konparaketa, ordainketa-zerbitzuak, Internet bidezko erosketak, eskaintzak, beherapenak, burtsa...</p> |
| <p>▶ AISIALDIA: Kirola, jolasa/jokoak, zaletasunak, bidaiak, oporrak, denbora-pasak, ikuskizunak, elkarte kulturalak, elkarte gastronomikoak...</p> | <p>▶ ELIKADURA: Janaria, edariak, ordutegiak, menuak, osagaiak, merkatu-motak, azokak, jateko/ edateko ohiturak, sasoiko platerak, gastronomia, euskal sukaldaritza, sukaldariak...</p> |
| <p>▶ HERRIA ETA HIRIA: Herria, hiria, kaleak, eskualdea, eraikuntzak, zerbitzuak, nekazaritza-gunea, hirigunea, garapen-maila, aberastasun-iturriak...</p> | <p>▶ HERRI-ZERBITZUAK: Informazioguneak, udal-zerbitzuak, turismo-bulegoak, gizarte-zerbitzuak, postetxea, banketxea, larrialdi-zerbitzuak, suhiltzaileak,</p> |
| <p>▶ GIZA HARREMANAK ETA HARREMAN SOZIALAK: Familia, lagunak, ikaskideak, lankideak, auzokideak, elkarteak, ezagun nahiz ezezagunen harremanak, tabuak, umorea...</p> | |
| <p>▶ GORPUTZA ETA OSASUNA: Gorputz-atalak, higiena, zentzumenak, sentimenduak,</p> | |

osasan-sistema, zahar-etxeak, kontsumitzaile-elkarteak, Administrazioa...

► **KLIMA ETA INGURUMENA:**

Eguraldia, klima, flora eta fauna, natura, naturaren aldaketak, energia, ura, kutsadura, birziklapena, garapena, ingurumenaren babesa...

► **ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA:**

Teknologia berriak, ikerketa, garapena eta berrikuntza (I+G+B), zientzialariak, medikuntzako aurrerapenak, ingeniariak...

► **GARRAIOA:** Autobusa, trena, autoa, hegazkina, geltokiak, aireportuak...

► **LANA:** Lanbideak, lan-tresnak, lan-bilaketa, lantokiak, soldadak, pentsioak, lan-baldintzak, langabezia, lan-prestakuntza, sindikatuak, lan-hitzarmenak...

► **OSTALARITZA:** Hotelak, egoitzak, tabernak, ostatu hartzea, landetxeak, pentsioak, jatetxeak...

► **OSPAKIZUNAK:** Festak, gonbidapenak, urtebetetzeak, gabon-jaiak, ihauteriak, San Juan suak, erromeriak...

► **KULTURA:** Bertsolaritza, museoak, zinema, literatura, musika, artelanak, dantza, artistak, aktoreak, liburutegiak, erakusketak, kultur ekitaldiak...

► **HEDABIDEAK:** Prentsa eta egunkariak, irrati eta telebistak, komunikabide digitalak, Internet...

► **TURISMOA:** Ibilbide eta txangoak, toki turistikoak, turismo-bulegoak...

► **EUSKAL INSTITUZIOAK ETA ADMINISTRAZIOA:** Udalak, Foru Aldundiak, Jaurlaritza...

► **GIZA ZIENTZIAK:** Euskal gizartea: historia, pertsonaiak, gertaera historikoak, mitologia, tradizioa...

► **EKONOMIA:** Nekazaritza, arrantza, basogintza, industria, eraikuntza, enpresa-mundua...

► **POLITIKA ETA HERRI-PARTAIDETZA:** Alderdi politikoak, gobernu-ereduak, parte-hartzeko ereduak, hauteskundeak, inkestak...

► **KULTURA-ERREFERENTZIAK**

Hizkuntzaren barneratze-prozesuan ezinbestekoa da alderdi linguistikoez gain, euskal gizartearen izaera historiko eta sozialaren berri ematea, ikaslea gure errealitatean eta mundu-ikuskeran kokatuz (*ikus 38. orrialdea*).

II. Gaitasun testualaren garapena

TESTU-GENEROAK

Estandarizatuta eta tradizioz finkatuta dagoen moldean antolatzen du informazioa erabiltzaileak, gizarte- edo lanbide-esparru batean (*ikus 48. orrialdea*).

AHOZKOAK

Ulermena:

- ▶ Aurrez aurrekoak:
 - Hitz eta esapide errazak: zenbakiak, prezioak, denbora-erreferentziak...
 - Jarraibideak: toki batetik bestera nola joan, gauza bat non dagoen...
 - Mezuak eta azalpen labur-laburrak zerbitzuetan
 - Balioespen, iritzi edo kexu simple eta labur bat: zerbitzuren bati buruzkoa...
 - Elkarrizketak
 - Kontaketak: gertaerak...
 - Aholkuak (medikuaren gomendioak...)
 - Azalpen laburrak
 - Deskribapenak
 - Errezetak
 - Ipuin klasikoak
 - Albisteak / kronikak
 - Asmakizunak
 - Azalpen didaktikoak
 - Esaera zaharrak
 - Jarraibideak (jokabidea arautzeko, aholkua emateko...)
 - Jendaurreko adierazpenak
 - Prozesuen deskribapenak
- ◉ Antzezlanak
- ◉ Dokumentalak
- ◉ Erreportajeak
- ◉ Esketxak
- ◉ Eztabaidak
- ◉ Filmak
- ◉ Hitzaldiak
- ◉ Instrukzioak (informazioa eta argudioa duten instrukzioak...)
- ◉ Iragarkiak
- ◉ Iruzkinak (hedabideetan...)
- ◉ Kantak eta bertsoak
- ◉ Lan-prozedurak

- Mahai-inguruak
- Telesailak
- Mitinak

► Grabatuak eta komunikabideetatik jasotakoak:

- Aurreikusita dauden komunikabideetako ohar eta iragarkiak
- Testuinguru jakinetan aurreikusita dauden erantzungailuetako mezu laburrak
- Irudi bidezko iragarkiak
- Albisteak
- Toki publikoetako iragarki laburrak
- Eguraldi-iragarpenak
- Komunikabideetako albisteak
- Kontaketak
- Dokumentalak
- Elkarrizketak
- Film eta telesailak
- Kantak/bertsoak
- Antzezlanak
- Asmakizunak
- Azalpenak (didaktikoak...)
- Erreportajeak
- Esaera zaharrak
- Esketxak
- Eztabidak
- Hitzaldiak
- Instrukzioak (informazioa eta argudioa duten instrukzioak...)
- Iragarkiak
- Iruzkina (hedabideetan...)
- Lan-prozedurak
- Mahai-inguruak

Ekoizpena:

- Aginduak
- Azalpenak
- Kexa edo erreklamazioa
- Pertsonen deskribapen fisiko eta psikologikoak
- Prozedurei buruzko argibideak: tresnen erabilera, zerbitzuena...
- Argudiozko adierazpenak
- Arauak
- Errezetak
- Gertaeren kontaketak eta ipuinak
- Pasadizo barregarriak
- Pertsonen, gauzen, tokien eta egoeren deskribapenak
- Sentimenduen eta jarreraren deskribapenak

- Asmakizunak
- Egoera psikologikoen, izaeren eta sentipenen deskribapena
- Iruzkina
- Jendaurreko adierazpenak
- Laburpenak
- Lan-proposamenak

Ekoizpena elkarreraginean:

- Pertsonen aurkezpen laburra: nor den, non bizi den, lantokia, helbidea, telefonoa, gustuak...
- Aginduak
- Adeitasunezko hitz eta esapide errazak: aurkezteko, agurtzeko, zorientzeko...
- Galde-erantzun errazak: non bizi den, nora doan, zer gustatzen zaion...
- Argibideak, jarraibideak: toki batetik bestera nola joan, bidea galdetu...
- Elkarriketak
- Gauzen, tokien, eguraldiaren eta pertsonen deskribapenak
- Kontakizunak
- Aholkuak, argibideak eta jarraibideak
- Balorazio eta kexuak: zerbitzu bati buruzko iritzia emateko...
- Administrazioarekiko informazio-trukea
- Azalpenak, iritzia eta argudioak
- Eztabaidak
- Galdeketak (lekuko deklazioak...)

IDATZIAK ▽

Ulermena:

- Leku publikoetako ohiko seinaleak, kartelak...
- Oinarrizko jarraibideak, inprimakiak edota fitxa bat betetzean, galde-sorta bati erantzuteko...
- Publizitate- eta informazio-orriak...
- Ohar eta mezu laburrak
- Argibideak
- Pertsonen deskribapen sinpleak
- Formularioak
- Deskribapenak
- Gida komertzialak
- Irigarki laburrak
- Toki publikoetako araudiak
- Pasadizoak / kontaktak
- Gonbidapenak (merienda batera, bazkari batera...)

- Bidaia-txartelak, sarrerak, jatetxeetako kartak eta mezuak, fakturak, etiketak, katalogoak...
- Senitarteko eta lagunarteko gutunak
- Errezetak
- Horoskopoa
- Komikiak
- Kronikak (kirol-kronikak...)
- Egitarauak (festak...)
- Gertaera, sentipen eta nahien deskribapenak
- Kultur gaietako buruzko aipamenak, iruzkinak (liburu bat, musika-lan bat...)
- Gutunak
- Argudio-testuak
- Toki publikoetako instrukzio edo argibideak
- Tresna edo prozedura bati buruzko jarraibideak
- Hitzaldi baten laburpena
- Administrazioari idatzitako idazkiak (erreklamazioak, + ofizioak, iragarkiak, gutunak...)
- Albisteak
- Komunikabideetako azalpen-artikuluak
- Prospektuak eta agiri ofizialak
- Hiztegietako definizioak
- Entziklopedietako azalpen- edo deskribapen-testuak
- Bilera-aktak
- Txostenak
- Testu literarioak (eleberriak...)
- Erreportajeak
- + • Alegiak eta kondairak
- Araudiak
- Azalpen-artikuluak
- Biografiak
- Editorialak
- Historia-kontakizunak
- Ipuinak
- Iritzi-artikuluak
- Joko-arauak
- Komunikazioak
- Lan-egitasmoak
- Lan-hitzarmenak
- Parabolak
- Zirkulazio-kodea
- Zutabeak

Ekoizpena:

- Inprimakiak, txantiloiak (bete)
- Zerrendak
- Oharrak
- Gonbidapen-oharrak / proposamenak
- Jarraibide eta arauak
- Postalak
- Gutun pertsonalak
- Errezetak
- Curriculum vitae
- Eskari-gutunak
- Ohar-taula baterako iragarkia
- Pertsonen, tokien eta gauzen deskribapenak
- Aholkuak eta gomendioak
- Proposamenak
- Argudio-testuak
- Biografiak
- Administrazioko idazkiak (esker-gutuna, baimen-gutuna, ukapen-gutuna, eskaintza-gutuna...)
- Jakinarazpen-gutunak
- Bilera-deiak eta baimen-eskariak
- Lan-esparruan gai baten azalpena
- Albisteak
- Erreportaje edo albiste baten laburpena
- Gutun pertsonalak, jarrerak eta sentimenduak adieraziz
- Azalpen-artikuluak
- Bilera-aktak
- Erabilpen-gidak
- Iritzi-artikuluak
- Isunak
- Kontaketak eta ipuinak
- Lan-proposamenak
- Ziurtagiriak

Ekoizpena elkarreraginean:

- Mezu laburrak (mezu elektronikoak, postalak, oharrak)
- Galde-erantzunak
- Gutun pertsonalak
- Ohar eta jakinarazpenak
- Proposamen laburrak
- Kontaketak

FUNTZIOAK

Erabiltzaileak hizkuntza zerbait komunikatzeko erabiltzen du, zerbait egin edo lortzeko. Ekintza komunikatibo guztietan dago xede bat (*ikus 49. orrialdea*).

Hauek dira maila honen amaieran ikasleak bete ahal izango dituen funtzioak:

Giza harremanak eta konplimenduak

- Agurtzea
- Nork bere burua eta besterena aurkeztea
- Mesedeak eskatzea
- Interesa adieraztea
- Barkamena eskatzea
- Eskerrak ematea
- Zoriontzia
- Goraintziak ematea
- Topa egitea
- Gauza onak opa izatea
- Doluminak ematea
- Arreta eskatzea
- ...

Informazioa ematea eta eskatzea

- Datu pertsonalei buruzko informazioa eskatzea eta ematea
- Leku, ordutegi, data, eguraldi, prezio, neurri, kopuruei buruz galdetzea eta erantzutea
- Zerbait dagoen, baden edo dakien galdetzea eta erantzutea
- Pertsonak, lekuak eta gauzak deskribatzea: zerbait nolakoa den, non dagoen...
- Jabetza adieraztea
- Informazioa ematea eta eskatzea eguneroko kontuez
- Denboran zehar gertatutako ekintzak kontatzea
- Zerbitzu bat eskatzea, eskaintzea edota horri buruz galdetzea eta erantzutea
- Iraganeko ekintzak eta ohiturak oso labur deskribatzea
- Argibideak, jarraibideak ematea eta eskatzea
- Aurkezpen laburrak egitea
- Hurbilekoen deskribapen fisiko zein psikologikoak egitea
- Gertaera edo albiste baten kontaketa egitea: zerbait zurrizteko, solaskideak eskatutako azalpenei erantzuteko, harridura adierazteko edo irrika sortzeko
- Informazioa berrestea
- Informazioa baieztatzea ala ezeztatzea

- Aukerak eskaintzea
- Informazioa laburtzea
- + • Informazioa eskatzea alternatibak proposatuz, jakin-mina adieraziz, azalpena eskatuz, zuhurtziaz...
- ...

Iritziak, ezagutzak eta jarrerak adieraztea eta egiaztatzea

- Zerbait baieztatzea / ezeztatzea
- Norbaiti buruz edo zerbaiti buruz iritzia eskatzea eta ematea
- Zerbitzuei buruzko balorazio orokorra egitea
- Proposamen bati buruzko iritzia modu laburrean ematea
- Adostasuna/desadostasuna eskatzea edota ematea
- Ezintasuna adieraztea
- Gonbidapena onartzea / gaitzestea
- Aisialdiko planak onartzea / ez onartzea
- Gustukoa dena eta ez dena adieraztea
- Iritzia adieraztea arrazoiak emanez
- Gai bati buruzko azalpena egitea zerbait argudiatuz
- Jarreraren berri ematea
- Gaitasuna edo gaitasunik eza adieraztea
- Ideiak, pertsonak, objektuak, lekuak eta egoerak alderatzea
- Zerbait gogoan duen ala ahaztu zaion galdetzea eta adieraztea
- Zailtasuna adieraztea
- Eztatbaida batean parte hartzea informazioa alderatuz
- Zerbait egiteko nahia, aukera, beharra eta betebeharra dagoen galdetzea eta adieraztea
- + • Zerbait bidezko ondorioztat jotzen den ala ez adieraztea eta galdetzea
- Aitzakiak jartzea
- Balioespena eskatzea / egitea
- Baimena ukatua dela aitortzea
- Norbaitek zerbait egin beharra duela adieraztea
- Nork bere burua eskaintzea zerbait egiteko
- Zerbait bidezko ondorioztat jotzen dela adieraztea (dedukzioa)
- Zerbait zalantzazkoa den edo ez adieraztea
- Administrazioan egoera zehatz baten berri ematea
- ...

Sentimenduak, hunkipenezko jarrerak/egoerak adieraztea eta egiaztatzea

- Aldarteaz, osasun-egoeraz galdetzea eta informazioa ematea
- Ezustea adieraztea
- Poza / tristura adieraztea
- Zalantza adieraztea
- Maitasuna adieraztea
- Beldurra edo kezka adieraztea

- Etsipena adieraztea
- Zerbaiten esperantza adieraztea
- Haserrea adieraztea
- Medikuari gaitz baten sintomak adieraztea, sendabidea jasotzeko moduan
- Besteekiko sentimenduak adieraztea
- Besteen sentimenduen aurrean egoki erantzutea
- Zerbait norbaiti aurpegiratzea
- Norbait / zerbait goraiatztea
- Salatzea, erruduntasuna onartzea eta errefusatztea
- + • Asmoa edo xedea adieraztea
- Atsegina, gustua, nahia adieraztea
- Atseginik eza, gusturik eza, zerbait ez dela nahi edo ez dela gustukoa adieraztea
- Axolagabetasuna adieraztea
- Damua edo tamala adieraztea
- Erruki-sentimendua adieraztea
- Esker ona adieraztea
- Estimua adieraztea
- Gogaitasuna adieraztea
- Harrotasuna adieraztea
- Lotsa adieraztea
- Urduritasuna adieraztea
- Zerbait hobesten den galdetzea / adieraztea
- Zerbait edo norbait nahiago dela adieraztea
- Zerbaiten beharra edo desira galdetzea eta adieraztea
- ...

Solaskidearengan eragitea

- Laguntza eskatzea eta eskaintzea
- Egiteko bat proposatzea
- Planak eta asmoak adieraztea
- Gonbidapena egitea
- Erregutzea
- Aginduak ematea
- Baimen-eskaera egitea eta erantzutea
- Debekuak jartzea
- Aholkuak ematea eta eskatzea
- Norbait konbentzitzea
- Limurtzea
- + • Norbait lasaitzea
- Norbait adoretzea
- Gaztigitzea, ohartaraztea
- Erakunde publiko nahiz pribatu batean kexa adieraztea
- Agindu, eskaera edo erreku bati erantzutea
- Animatzea

- Debekua errefusatzea edo arbuiatzea
- Kexa adieraztea
- Gaitzestea
- Hitzematea
- Kontsolatzea
- Mehatxu egitea
- ...

ADIERAZPIDE TESTUALAK

Ekintza komunikatiboak egoki gauzatzeko, erabiltzaileak testuak ongi taxutzen eta interpretatzen jakin behar du, baliabide egokien bidez (*ikus 49. orrialdea*).

Hauk dira, besteak beste, maila honetan erabiltzaileak baliatuko dituen adierazleak:

1. Plan orokorra

- ▶ Ahozkoak. Idatziak
- ▶ **Gaia:** Mundu errealeko, fisiko edo konkretuko zein mundu abstraktu eta subjektiboko gai ezagunak eta ezezagunak
- ▶ **Egitura**

2. Interaktibotasuna

- ▶ Deiktikoak:
 - Pertsonalak (aditzaren lehen eta bigarren pertsonak, izenorde pertsonalak, plural hurbila: -ok)
 - Denborazkoak (denbora-adberbioak: *orain, gero, gaur, atzo, bihar, iaz, hurrengoan, orduan, garai hartan, gaur egun, lehen, momentuz, oraindik, duela*)
 - Espazialak (leku-adberbioak: *hemen, hor, han, hementxe, hortxe, hantxe*)
- ▶ Galderak

3. Sekuentziak

- ▶ Elkarrizketa
- ▶ Azalpena (deskripzioa, argudioa, esplikazioa...)
- ▶ Kontaketa (narrazioa)
- ▶ Preskripzioa (instrukzioa, agindua...)

4. Konexioa

► Testu-antolatzaileak ahozko testuetan eta testu idatzietan

- Hizketa-antolatzaileak: *bueno...; bada...; zera...; bale, bueno, ezta?, begira, tira, aizu, bai*
- Lokailuak:
 - Emendiozkoak: *eta, ere, baita... ere, bai eta..., ezta... ere, ez eta..., behintzat, gainera, horrez gain, are gehiago, + era berean, honekin batera, bestalde, halaber, behinik behin*
 - Hautakariak: *bestela, + gainontzean*
 - Aurkaritzakoak: *baina, ordea, aldiz, dena den (dela), hala ere, berriz, alabaina, hala eta guztiz ere, + haatik, ostera, bitartean*
 - Ondoriozkoak: *beraz, horrela, -eta, hau dela eta, hortaz, bada, horrenbestez, ondorioz, horren ondorioz*
 - Kausazkoak: *zeren, izan ere, bada, horregatik*
- Denbora-antolatzaileak:
 - *behin batean, ondoren, halako batean, orduan, gero, baino lehen, gaur egun, gaurkoz, oraingoan, azkenean, bitartean, harrezkero, garai hartan, gehienetan, antzina, lehen, artean...*
- Birformulatzaileak:
 - Esplikatiiboak: *alegia, hau da*
 - Zuzentzaileak: *hobeto esan*
 - Urruntzaileak: *nolanahi ere*
 - Laburbiltzaileak: *ondorioz, azken batean, + hitz gutxitan, hitz gutxitan esateko*
- Zehatzaileak edo adibide ematekoak: *adibidez, esaterako, hots, + hala nola, zehazki, bereziki*
 - Ordena-adierazleak: *lehenengo, lehenik, ondoren, gero, jarraian, amaitzeko, bukatzeko, alde batetik, bestetik, azkenik, bestalde*

► Puntuazioa

Erabiltzaile honek, testu argi eta zehatzak idazteko, estrategikoki jakin behar du puntuatzen. Aurrekoen puntuazio-marka guztiez gain, parentesiak, marra-para eta komatxoak bezalakoak ere eraginkortasun osoz txertatzen jakingo du, eta esanahi-anbiguotasunak saihesten ere asmatuko du puntuazioari esker.

- Galde- zein harridura-ikurrak
- Bi puntuak:
 - zerrendatzeko, mezuen abiaburuan, orduak emateko, esaldiaren lehen zatia argitzeko, frogatzeko edo laburbiltzeko, hitzez hitzeko aipamenean aurrean
 - katafora adierazteko
 - esaldien arteko kausa-ondorio edo ondorio-kausa adierazteko
- Puntua:
 - esaldi eta esapide sinpleen bukaeran; ordinaletako “garren” ordezkatzeko; hainbat laburduran; milatik gorako zenbakietan
- Etenpuntuak:

- esaldia bukatu gabe utzi dela adierazteko
- + - zalantza, beldurra edota ironia aditzera emateko, intonazioari halako kutsu berezi bat erantsiz
- Koma:
 - elkarren kideko zatiak zerrendatzeko, datak emateko, perpaus elkartu batzuen atzetik (denborazkoak, kontzesiboak...), edota deikiak adierazteko
 - testu-antolatzaileen ondoren (ondoren, adibidez, atzo...)
 - tartekiak
 - banakarietan (bai..., bai...; ez..., ez... eta abar); emendiozkoetan, hautakarietan (edo, hala, nahiz, zein) eta aurkarietan (baina, baizik, ezpada...)
- + - aditzaren elipsia adierazteko
 - atsotitzetako bikoizketa nabarmentzeko
- Puntu-koma: esaldiak alborakuntzaz elkartzeko: *Gai honek lau azpigai ditu; ez ditugu guztiak aipatuko*
- Komatxoak:
 - ezizenak, aipuak edo barne-hizketa adierazteko, eta atzerriko hizkuntzetako hitzak transkribatzeko
- + - hizkuntza arrunteko elementu baten ordez konnotazio ironiko edo barregarria duen beste bat jartzeko

5. Izen-kohesioa

- ▶ Kate anaforikoak osatzen dituzten errepikapenezko testu-baliabideak:
 - Erreferentziak (anaforak eta kataforak)
 - Ordezkapen lexikala (sinonimoak, antonimoak, hiperonimoak, hiponimoak)
 - Elipsia
 - Definizioa (mugatzaileak)

6. Aditz-kohesioa

- ▶ Azalpen- eta kontaketa-adizkiak
 - Bigarren planokoak
 - > Azalpenetan
 - orain puntuala (“dator”)
 - orain ez-burutua (“etortzen da”)
 - orain burutua + ohi (“etorri ohi da”)
 - > Kontaketetan
 - iragan puntuala (“zeterren”)
 - iragan ez-burutua (“etortzen zen”)
 - iragan ez burutua + ohi (“etorri ohi zen”)
 - Lehen planokoak
 - > Azalpenetan
 - orain burutua (“etorri da”)

> Kontaketetan
iragan burutua (“etorri zen”)

- ▶ Ekintza-adizkiak
- ▶ Aginte-adizkiak (jokatu eta jokatugabeak)
- ▶ Orain geroa (“etorriko da”)
- ▶ Modalizazio-adizkiak (ikus 8. puntua)
- ▶ Bestelako adizkiak

7. Ahots enuntziatzaileak

Testuan ageri diren ahotsek esandakoak adierazteko baliabideak:
 estilo zuzena, zehar-estiloa eta zehar-estilo librea

- Menderakuntza
 - > Izen-funtziazko menderakuntza
 - > Konpletiboak: -(e)la, -(e)nik, -(t(z)eko
 - > Zehar-galdera: -(e)n
- Alderdi ortografikoa
 - > Marra luzea
 - > Komatxoak
- Esapideak
 - > *Urliak* dioenez / esaten duen bezala
 - > *Urliaren* arabera

8. Modalizazioa

▶ **Modalizazio logikoa**

> Aditza

- Adizkiak:
 - Orain geroa (“etorriko da”)
 - Iragan geroa (“etorriko zen”)
 - KE orain aspektugabea (“etor daiteke”)
 - KE alegiazko geroa (“etorriko litzateke”)
 - *Uste izan, pentsatu, jakin, iruditu*
- Forma inbertsonalak: *dirudi, badirudi*
- Adberbioak-eta:
 - Iritzi-adberbioak: *agian, antza denez, beharbada, noski, ziur, seguru*
 - *aski, jakina, nonbait*
 - “Omen”, “ote” partikulak
 - -edo
- Adjektiboak
 - Gradu-markak
 - Graduatzaileak (indargarriak zein leungarriak)

► **Modalizazio deontikoa**

> Aditza

- Adizkiak: aditz-lokuzioak (*behar izan, nahi izan, nahiago izan...*)
- Esamolde adjektibodunak: adjektiboa + -t(z)ea

► **Modalizazio pragmatikoa**

> Aditza

- Adizkiak: aditz-lokuzioak (*ahal/ezin izan, nahi izan...*)
- KE orain aspektugabea (*“etor daiteke”*)

► **Modalizazio apreziatiboa**

- > Aditzak: *gustatu, poztu, estimatu, damutu, lotsatu, atsegin izan, gogoko izan, maite izan, merezi izan, damu izan, beldur izan, lotsa izan, gorroto izan, miretsi, sumindu, harritu, kezkatu...*
- > Adberbioak-eta: *zorionez, zoritxarrez, tamalez*
- > Adjektiboak: *ederra, polita, txarra, itsusia, gogorra, erraza, zaila, latza, larria...*
- > Atzizkiak: *-garri atzizkia*
- > Esapideak
 - Harridura-perpauzak
 - *Nire ustez*

III. Gaitasun linguistikoaren garapena

ADIERAZPIDE LINGUISTIKOAK

Ekintza komunikatiboa egoki gauzatzeko, adierazpide linguistikoak beharrezko baliabideak dira (*ikus 53. orrialdea*).

1.- Alderdi fonologikoa

- ▶ Euskararen bokalak eta kontsonanteak ezagutu eta ahoskatu.
- ▶ Euskararen fonema txistukariak: /tz/, /tx/, /ts/, /z/, /s/, /x/
- ▶ Prozesu fonologikoak
 - Palatalizazioa (/is/ > (ix): isilik > (ixilik), /in/ > (iñ): mina > (miña)...
 - Bokalepentesia: /e/ Kontsonante-epentesia: /r/ (hirurehun, lauretan...)
 - Asimilazioak eta elipsiak: (ez dira/ (ez tira), ez naiz/ (enaiz)
- ▶ Diptongoak: /ai/ aizu, /ei/ zein, /oi/ goi, /au/ auzo, /eu/ euri.
- ▶ Hiatoak
- ▶ Aldaketa fonetikoak
 - Bustidura
 - Gortze-prozesua: bdg/ ptk
 - Intonazioa
 - Euskararen hitz luzeen azentu bikoitza: (osásuná, emákumeá...)
 - Pluralak azentua mugitzen du
 - Aditzak: silaba bakarreko oina duten aditzek azentua dute hasieran, gainerako aditzek ez bezala
 - Aditzak jokatzeari azentua aldatu egiten da
 - BA eta EZ partikulak aditzetan: datór, bàdatór, èztatór
 - ERE partikula: zu ere (zúre)
 - Izen-sintagma konposatua denean: zuréalabá

2.- Alderdi ortografikoa

- ▶ Ortografia
 - Euskararen alfabetoa
 - -r-ren aurrean bokala mailegu zaharretan: *arropa, errege, erloju...*
 - *nb* eta *np* grafiak
 - Absolutuan deklinatutako orduak nola idatzi
 - Euskararen fonema txistukariak: /tz/, /tx/, /ts/, /z/, /s/, /x/
 - Maileguen egokitzapena: *funtzionario, erresistentzia...*
 - Izen eta adjektiboetan bustidura adierazteko: -dd-, -ll-, -tt-
 - *h* grafia (*hau, harri, ahal...*)
 - Atzerriko ohiko izenen idazkera (*Erroma, Bartzelona, Madril, Pirinioak...*)

- Zenbakien (bi kilo eta erdi), ordinalen (8.a...) eta daten idazkera (2008ko...).
- Letra larriak eta xeheak nola erabiltzen diren
- Ortografiatzko zalantzak (-e)z gero...)
- + • Txikigarriak bereizteko egiten diren aldaketak nola idatzi (zuri>txuri; polita>pollita...)
- Sigla erabilienak (BEZ, EHU, AEB, EHUko irakasleak...NBen bilera, AEBetako atletak)

► Puntuazioa

> Galde- zein harridura-ikurra

- Hainbat esapidetan: *Hau hotza! Zer berri?*

> Bi puntuak

- Zerrendatzeko: *Erosketak: ogia, esnea...*
- Mezuen abiaburuan: *Arreba maitea:*
- Orduak emateko: *07:15ean dator autobusa.*
- Esaldiaren lehen zatia argitzeko, frogatzeko edo laburbiltzeko: *Jendea berokia jantzita dabil: hotz egiten du.*
- Hitzez hitzeko aipamenen aurrean: *Maisuak zera esan zion: isildu!*
- Kataforak adierazteko: Bi anaia ditu: *Mikel eta Jokin.*
- Esaldien arteko kausa-ondorio edo ondorio-kausua adierazteko: *Ikusle asko nazkatu samar gaude errepikapenekin: duela bost urteko pilota-partidak, Goenkaleko kapituluak behin eta berriz...*

> Puntua

- Esaldi eta esapide sinpleen bukaeran: *Aitor naiz.*
- Zenbakiz adierazitako ordinaletako “garren” ordezkatzeko: *XX. mendean...*
- Hainbat laburduran: or. (orrialdea); *etab.* (eta abar)
- Zenbakietan: *7.545 liburua.*

> Etenpuntuak

- Esaldia bukatu gabe utzi dela adierazteko: *Erosketak: ogia, esnea...*
- + • Zalantza, beldurra edota ironia aditzera emateko, intonazioari halako kutsu berezi bat erantsiz: *Haren begirada ikuste hutsarekin...*

> Koma

- Elkarren kideko zatiak zerrendatzeko: *Ogia, esnea, dilistak...*
- Datak emateko: *Donostian, 2003ko uztailearen 2an.*
- Perpaus elkartuetan menpeko esaldien atzetik (denborazkoak, kontzesiboak...): *Etortzen denean, esango diogu.*
- Deikia: esaldi-hasieran zein tartean doanean: *Ekarri, Idoia, eskuan daukazuna! Jon, etorri hona!*
- Testu-antolatzaileen ondoren (ondoren, adibidez, atzo...): *Atzo, auzoko tabernan...*
- Banakariak (bai..., bai...; ez..., ez... eta abar): *Guk bai ardoa, bai sagardoa edan genituen.*
- Tartekiak koma artean idatzi ohi dira: *Kontu honek, noski, hankaz gora jarri du proiektua. Bihar, lagunekin batera, mendira noa.*
- + • Aditzaren elipsia adierazteko: *Zuek asko ekarri dituzue; guk, bat ere ez.*
- + • Atsotitzetako bikoizketa nabarmentzeko: *Non gogo, han zangoa.*

> Puntu eta koma

- Esaldiak alborakuntzaz elkartzeko: *Dakienak badaki; ez dakienak baleki!*

- + • Zerrendaketa konplexuetan, komaren orde: *Hiru lapur ziren: bata altua, txanoa zeramana; bestea beltzarana, pistola atera zuena; eta hirugarrena, berriz, bizarduna, denetan zaharrena.*

> Komatxoak:

- + • Hitzez hitzeko aipamenak: *“Langabeziak behera egingo du aurten”, esan zuen lan-ministroak.*
- Ironiaz edota hitzaz bestera esandakoa: *Droga “apur bat” baino ez omen zeraman soinean: bi kilo kokaina.*

3.- Lexikoa eta alderdi semantikoa

- ▶ Lantzen diren funtzioetan maiz erabiltzen diren adierazleak
- ▶ Lantzen diren egoeretako ohiko lexikoa
- ▶ Sarri erabiltzen diren sinonimo eta antonimoak
- ▶ Gai orokorretako hiztegi orokor zabala
- ▶ Sinonimo ugari

4.- Alderdi morfosintaktikoa

4.1.- Izen-sintagma

▶ Deklinabidea

Mugatu singularra, mugatu plurala eta mugagabea

Absolutua	NOR
Ergatiboa	NORK
Datiboa	NORI
Inesiboa	NON
Genitibo edutezkoa	NOREN
Adlatiboa	NORA
Adlatibo norabidezkoa	NORANTZ
Motibatiboa	ZERGATIK, NORENGATIK
Ablatiboa	NONDIK
Soziatiboa	NOREKIN
Genitibo leku-denborazkoa	NONGO
Adlatibo bukatuzkoa	NORAINO
Destinatiboa	NORENTZAT
Instrumentala	ZERTAZ
Prolatiboa: -TZAT/-DAKO/-TAKO (<i>tontotzat...</i>)	
Siglen eta laburdura ezagunen deklinabidea	
Deklinabide osoaren erabilera izen berezi eta arruntetan	

▶ Bizidunen deklinabidea (singularra, plurala eta mugagabea)

- Inesiboa: NORENGAN (*Maiterengan, haurrarengan, haurrengan...*)
- Adlatiboa: NORENGANA (*ama(ren)gana, lagunengana...*)

- Ablatiboa: NORENGANDIK (*amarengandik, lagunarengandik...*)
- Adlatibo bukatuzkoa: NORENGAINO (*alabarengaino, Ikerrengaino...*)
- Adlatibo norabidezkoa: NORANTZ/NORAT/NORENGANTZ

► **Izena**

- Arruntak eta bereziak
- Bizidunak eta bizigabeak
- Zenbakarriak eta zenbakaitzak
- Plural hurbila: -ok

► **Galdetzaileak**

- Nor (nork, nori, noren, norekin, norengan...)
- Zer (zerk, zertaz, zeri buruz, zertan, zer ordutan, zer ordutatik zer ordutara, zergatik, zertarako)
- Non (nongoa, nora, nondik)
- Noiz (noiztik, noizko, noiz arte)
- Zenbat (zenbatek)
- Nola, nolakoa
- Zerez, zerezko
- Zein (zeinek, zeini...)
- Zeren aldeko, zeren kontrako, zeri buruzko, zein egunetako...
- Izenordain mugagabeak:
 - Zerbait, norbait, zerbaitek, norbaitek, zerbaiti, norbaiti, baten bat, bat edo bat, nornahi, zeinahi, zernahi...
 - Inor ez, ezer ez, inork ez, nehor, deus, batere...

► **Izenordainak**

- Pertsona-izenordainak: ni, zu, gu...
- Erakusleak: hau, hori, hura, hauek, horiek, haiek
- Izenordain mugagabeak:
 - Zerbait, norbait, zerbaitek, norbaitek, zerbaiti, norbaiti...
 - Inor ez, ezer ez, inork ez...
- Izenordain zehaztugabeak: edozein, edozeinek, edonor, edonork, edozer...
- Bihurkariak: NOREN + BURUA (*ez du bere burua onartzen...*)
 - ELKAR absolutuan, datiboan, sozietiboan eta genitiboan: *elkar* ikusi dugu; *elkarrekin* etorri gara; *elkarren* ondoan eseri gara...
- Forma indartuak: neu, zeu... neronek, bera, bere... ni neu...

► **Determinatzaileak**

> **Mugatzaileak**

- **Artikuluak:**
 - Zehaztuak (-a/-ak)
 - Zehaztugabeak (bat/batzuk)
 - Erakusleak: hau, hori, hura, hauek, horiek, haiek, honengana, hauengana, honengan, hauengan...

– Erakusle indartuen erabilera (hauxe, horixe...)

> **Zenbatzaileak**

- Zehaztua
 - Zenbakiak: (0-100; 0-1.000...); zatikiak: bosten bat, bost seiren...; ehunekoak eta portzentajeak.
 - Ordinalak: lehena, bigarrena...
 - Kopuru-adierazpenak: *kilo bat, kilo bat eta erdi, lau ordu...*
 - Orokorrak: oso, guztia, dena
 - Banatzaileak: -NA (*bana, bina...*); -NAKA (*seinaka etorri dira...*); -KO (*liburu bakoitzeko...*)
- Zehaztugabeak: asko, gutxi, batzuk, zenbait, nahiko(a), horrenbeste, pixka bat, makina bat, hainbat...

► **Adjektiboa**

> **Motak**

- Bakunak: eder, polit, itsusi...
- Nola eta Nolakoak bereizi
- *Huts* izenondoa (*kafe hutsa, alkohol hutsa, poltsa hutsa...*)
- Esamoldeak: -arena egin

> **Graduatzaileak**

- askea (oso, nahiko, izugarri, samarra, hutsa...)
- errepikapenaren bidezkoa: txiki-txikia...
- atzizki bidezkoa: -egi, -ago, -en; ahalik eta ...-en, gero eta ...-ago, zenbat eta ... -ago, orduan eta ...-ago; askoz ...-ago, are ...-ago

> **Izenlagunak**

- Nominalizazioa: + -ko (*zuloak egiteko gailua...*)
- Zenbatzailea: + izena + - (e) ko (*bi urteko umea...*)
- Deklinabide-kasuei: -KO atzizkia erantsita (*tontorrerainoko...*)
- NOREKIKO (*lagunarekiko errespetua...*)
- NORENGANAKO (*zaharrenganako begirunea...*)
- NORAINOKO (*hemendik aterainoko sugea...*)

- +
- NORENTZAKO
- NORENGANDIKO
- NORANZKO

> **Aposizioa**

- Aposizio ez-murrizgarria, aposizioa NOR IS denean
- Aposizio ez-murrizgarria, aposizioa perpausa denean, batez ere NOR kasuan (*Amaia, nirekin bizi dena, gaixotu egin da...*)
- Aditz-partizipioa adjektibo gisa (*gezur asmatua; oilo errea...*)
- Partizipioaz osatutako adjektiboak (*Auto lapurtu batean egin zuten ihes...*)

► **Adberbioak**

- Lekua: hemen, hor, han, + hurbil, urrun, gertu...
- Denbora: gaur, atzo, bihar, etzi, orain, gero, lehen, + edonoiz, noiznahi, noizbait inoiz, agudo, antzina, aspaldi, lehengo batean...
- Modua: honela, horrela, gaizki, ondo, poliki, + edonola, nolabait, inola,

apurka, harrika, korrika, alferrik, bakarrik, oinutsik, ados, blai, kili-kolo, badaezpada, hala-hola, orobat...

- Iritzia: noski, jakina, + ausaz, apika, menturaz, ageri denez, gure aburuz...
- Zalantza: agian, antza, dirudienez, itxuraz...
- Graduatzaileak: erabat, zeharo, batere, guztiz, izugarri, ikaragarri, ia-ia, gogotik, biziki... orain/oraintsu, hala/halaxe, berandu/berandutxo...
- Beste maila batzuk: erdi, benetan
- Zenbait adierazpen: gutxi gorabehera; plisti-plasta, tipi-tapa...
- Jarreraren adierazpena: nire ustez, bere iritziz, zalantzarik gabe, ziur asko, noski, dirudienez, antza...
- Gero indargarri gisa: *garesti zegok gero!*...
- Iritzizko aditzondoak: nonbait...
- Postposizioen bidez osatuak:
 - NOR edo partitiboa eskatzen dutenak: -rik gabe, ezean
 - NOREN eskatzen dutenak: -(r)en gainean, azpian, aurrean, atzean, barruan, kontu, esku (*utzi hori nire kontu...*)...
 - NORI eskatzen dutenak: -(r)i esker, buruz, so (*itsasoari so zegoen...*)...
 - Instrumentalarekin: (zerez) gain(era), bestalde(an).
 - Denbora adieraztekoak (*hemendik aurrera, handik aurrera, barru...*)
 - Beharrea: *hori ekarri beharrea bestea ekarri...*

► Hitz-sortzaileak

> Elkarketa

- Izena + izena: *seme-alabak, aitona-amonak, patata-tortilla...*
- Izena+adjektiboa: *sudurluze, ipurterre...*
- Hitz-elkarketak: aldi, toki, alde, leku, gabe, zain
 - izen eratorria + izena/ izena+izen eratorria (*hurbiltze-saio, odol-emaile...*)
 - aditz-erroa + izena (*idazlan...*)
 - aditz-erroa + adjektiboa (*ezkonberri...*)
 - aditza + adjektiboa (*hasi berri...*)
 - izena + adjektiboa (*gibelurdin...*)
 - partizipioa + partizipioa (*joan-etorri...*)
 - izena + aditza (*denbora-pasa...*)
 - adjektiboa+aditza (*berridatzi...*)
 - adjektiboa + adjektiboa (*luze-labur; hotz-bero...*)

> Onomatopeiak (*plisti-plasta, kili-kolo...*)

> Eratorpena

- Atzizkiak
 - aldi
 - ari (*kirolari...*)
 - aro (*urtaro...*)
 - bako
 - bera

-di	
-dun	(txapeldun...)
-era	
-erraz	
-ezin	
-gai	
-gailu	(garbigailu...)
-gaitz	
-garren	(zortzigarren...)
-garri	(interesgarri...)
-gile	(etxegile...)
-gin/-kin	
-gintza	
-go	
-gura	
-ka	(korrika...)
-kada	
-(k)ari	
-kari	
-keria	(kirtenkeria...)
-keta	
-ki	
-kizun	
-kunde	
-kuntza	
-le	(idazle...)
-men/pen	(laburpen...)
-ro	(astiro, berriro...)
-tar	(zarauztar...)
-tasun	(edertasun...)
-te	
-(t)eria	
-tegi	(barnetegi...)
-ti	(kakati...)
-txo	(loretxo...)
-tza	
-tzaile	(zulatzzaile...)
-une	
-zulo	

- Aurrizkiak: aurre-, kontra-, ez-, ber-/bi-, sasi-
- Maileguak (bioklima, termometro...)

4.2 - Aditza

► Ezaugarriak

> *Aditz iragankorrek eta iragangaitzak*

- Jon sartu da / Jonek sartu du autoa

> *Jokatuak eta jokatugabeak*

- Etorri naiz, egin dut, darama...
- Etortzea, egiteko, eramanda, ikusita

> *Trinkoak eta perifrastikoak*

- Doa, dator, darama
- Joan da, etorri da, eraman du

> *Subjektu - predikatu - atributu komunztadura finkatzea*

+ > *Aditz alokutiboak eta HIKA*

► Aspektua

<i>Orainaldi burutua:</i>	joan naiz
<i>Orainaldi ez burutua:</i>	joaten naiz
<i>Gertakizuna:</i>	joango naiz
<i>Iragan burutua:</i>	joan nintzen
<i>Iragan burutugabea:</i>	joaten nintzen
<i>Puntukaria:</i>	ikasten ari naiz, dago, dauka
<i>Lehenaldiko puntukaria:</i>	egiten ari nintzen
<i>Trinkoak:</i>	nabil, zabilta, nenbilen, zenbiltzan...
<i>Aditz-lokuzioen aspektua:</i>	bizi izan, ari izan, behar izan, balio izan, nahi izan, ahal izan eta ezin izan
<i>Zenbait aditz-lokuzio:</i>	logura naiz/logurak nago, gose naiz/goseak nago...

Aspektu burutua adierazteko IZAN partikularen erabilera: *Askotan ikusi izan dut...*

Partizipio nominalizatua (*pelikula hori ikusia dut...*)

Etorkizuna adierazteko esamoldeak: -T(Z)EKO A IZAN (*Bihar joatekoa naiz...*); -T(Z)EKO EDUKI (*ikusteko daukat...*)

► Modua

> *Indikatiboko orainaldia*

- NOR: izan, egon, joan, ibili, etorri, etzan (datza)
- NOR-NORK: ukan, eduki, jakin, eraman, ekarri, esan, iruditu
- NOR-NORK trinkoak: irau (dirau...), erabili (darabil...)
- NOR-NORI: zait, zaizkit...
- ZER- NORI- NORK: diot, didazu...
- NOR-NORI-NORK trinkoak: iritzi

- + • NOR-NORI trinkoa: jario (dariola)
- + • NOR-NORI laguntzailea, pertsona guztiak: (natzaizu, zatzaizkit...)

> *Indikatiboko lehenaldia*

- NOR: izan, egon, joan, ibili, etorri

- NOR-NORK: ukan, eduki, jakin eraman, ekarri, esan, iruditu
- NOR-NORI laguntzailea: zitzaidan, zitzaizkidan...
- NOR-NORI-NORK laguntzailea: nion, nizkion...

> **Baldintza (alegiazkoak)**

- NOR laguntzailea, lehenaldia (joango balitz, joango zen...), eta trinkoa, orainaldia: egon (balego, legoke).
- NOR-NORK laguntzailea, orainaldia, pertsona guztiak (eramango bazenu...); lehenaldia NOR 3. pertsona (ikusi izan balu, jakingo zuen...)
- NOR-NORI laguntzailea, lehenaldia NOR 3. pertsona (gustatuko balitzait...)
- NOR-NORI-NORK laguntzailea, lehenaldia (esan balit, esango nion...)

> **Ahalera**

- Ahal izan
- Ezin izan
- Ahalezko orainaldia: naiteke, zaitezke...
- NOR-NORK laguntzailea, NOR 3. pertsona (dezakegu, ditzakegu...)
- NOR-NORK laguntzailea, alegiazkoak, NOR hirugarren pertsona denean (zezakeen, lezake...)
- NOR laguntzailea: ninteke, liteke...
- NOR-NORI-NORK laguntzaileak, orainaldia (diezaioket...)
- Ahalezko lehenaldia. NOR: izan (nintekeen...). NOR-NORK: ukan (nezakeen...)

> **Agintera**

- Partizipio burutua: *Etorri! Segi! Erdu!*
- NOR: izan (zaitez, zaitezte) eta trinkoak (zoaz, zoazte, zatoz goazen, zatozte...)
- NOR-NORK: ukan (ezazu, itzazu...)
- NOR-NORI-NORK trinkoak: galdeiozu, esaiozu...
- 3. pertsonako agintera trinkoak (doala, dagoela...)

> **Aditz-izena**

- -t(z)ea espero, erabaki, pentsatu (*harekin joatea erabaki dugu...*)
- -t(z)eko prest, gogo, beldurra, asmoa (*joateko prest, egiteko gogo...*)
- -t(z)en: utzi, ahaztu aditzekin (*telebista ikusten utzi ditugu...*)
- -t(z)ea: ahaztu aditzarekin (*bazkaria prestatzea ahaztu zaio...*)
- -t(z)eak, -t(z)eari (*hori esateak sutan jartzen nau...; erretzeari utzi dio...*)
- -t(z)earen, -t(z)earekin, -t(z)eaz (*egitearen garrantziaz, egitearekin batera, egiteaz...*)
- -t(z)etik: *egitetik libratu gara...*

> **Subjuntiboa (orainaldia):**

- NOR: laguntzailea (nadin...)
- NOR-NORK: laguntzailea (dezadan, ditzadan...)
- NOR-NORI-NORK: laguntzailea (diezaioten...)

> Aditz-lokuzioak

- Aditz-lokuzioak (logura, haserre, komeni, uste, balio... izan; partizipio nominalizatua: hasia da, hasiak dira; -T(Z)EKO egon; subjuntiboa+la (iritzia/jarrera adierazteko).

> Bestelako erabilerak

- Eguraldia: *euria / elurra... ari du. Haizea dabil, euria dakar...*
- Moduzko partikulak aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean:
 - Partizipioak: -TA (*amaituta ditugu lanak...*); -(R)IK...
 - Aditz eragileak: -ARAZI; -T(Z)ERA BEHARTU; ERAGIN

4.3.- Sintaxia**► Perpaus bakuna****> Galderazko perpausa**

- Galdegaia galderazko perpausetan
- “Al” partikula: aditz nagusiaren eta laguntzailearen artekoa (*berak egin al zuen?...*)

> Adierazpen-perpausak

- Baiezkoak. Galdegaia baiezko perpausetan
- Ezezkoak. Galdegaia ezezko perpausetan

> Harridura-perpausak

- Erakusleen bidez osatuak: *Hau hotza!*
- Galdetzaileen bidez:
 - ZER / ZEIN itsusia (*den*)!
 - NOLAKO aurpegia (*duen*)!
 - ZENBAT dituen!
- **Baiezkoak:**
 - BAI polita (*dela*)!
 - BAIETZ etorri!
- **Ezezkoak**
 - EZTA pentsatu ere!
 - EZETZ irabazi!

> Aginte-perpausak

- Zatoz azkar! Geldi hor!
- Ez egin hori!

> Eskerrak... (Eskerrak etorri zaren...)**> Gaitz erdi! Lastima! Alajaina! Bai horixe! Ez horixe!****> “OMEN”, “OTE” partikulak****+ > BIDE partikula**

► **Perpauk elkartuak**

> **Juntadura**

- Emendiozkoak: eta; ez bakarrik...ere (*ez bakarrik Mikel, beste guztiak ere...*); ez ezik (*hori ez ezik, bestea ere etorri da...*)
- Hautakariak: ala, edo, bestela, zein, nahiz (*hizkuntza bat nahiz bestea...*)
- Aurkaritzakoak: baina, baizik, ordea
- Banatzaileak: bai... bai (*bai ostiralean, bai larunbatean...*); ez... ez (*ez bihar, ez etzi...*); (alde) batetik... bestetik

> **Menderakuntza**

- Izen-funtziozko menderakuntza
 - Konpletiboak: -(e)la, + ezen...(e)la, -(e)n, -t(z)eari
 - Zehar-galdera: -(e)n, + -(e)nentz, -(e)n ala ez, -(e)nez
 - Agindua edo debekua: -tzeko
 - -t(z)ea; -t(z)eak...
 - Galde-hitza eta partizipioa (*Ez daukagu zer eginik. Ez dute non lo egin...*)
- Erlatibozkoak
 - Erreferentendun deklinatua: NOR, NORK, NORI, NOREN... (*janaria erosten duen mutikoa/mutikoari...*)
 - Erreferente gabea eta erreferente gabe deklinatua
 - + - Zein...bait- / -(e)n; non...bait- / -(e)n; -(r)iko, -(e)neko; -t(z)eko; -t(z)erainoko; -t(z)earen
- Konparaziozkoak
 - Berdintasuna: bezala/bezalako; -(e)n bezain; -(e)n adina, -(e)n hainbat; -(e)n besteko, adinako, bezainbesteko; -(e)n bezainbat, bezainbeste.
 - + - Ahal(den)ik eta... -(e)n; ahalik eta gehien/gutxien; ahalbait...-(e)n; zenbat eta ...-ago; hainbat eta...-ago.
 - Desberdintasuna: baino...-ago, baino...gehiago / gutxiago
 - Superlatiboa: -rik...-enak
 - Erromanikoa: gero eta... -ago (*gero eta gazteago zaude...*); hain, hainbeste (*Ez dira hain onak. Ez dugu hainbeste jan behar...*)
- Baldintzazko perpauk
 - ba-, baldin ba- (*Ostiralean bada, joango naiz...; ikusiko banu, ezagutuko nuke. Ikusi banu, ezagutuko nuen*)
 - Aditza jokatu gabe: -(e)z gero (*Nahi izanez gero...*); ezean, ezik.
 - Jokatutako aditzen erabilera: alegiazko orainaldia eta lehenaldia bereizi.
- Denborazkoak
 - Aldiberekotasuna: -(e)nean (*Etorri naizenean hemen zegoen*); -(e)n guztietan, gehienetan, bakoitzean (*Etortzen zaren guztietan...*); -(e)la(rik).
 - Aurrekotasuna: baino lehen, aurretik; -t(z)erakoan (*Kirola egiterakoan...*); -(e)n orduko.
 - Ondokotasuna: ondoren, eta gero; partizipioa + orduko (*Kalera atera orduko negarrez hasi zen*); -(e)n orduko; -takoan; -t(z)earekin batera.

- Iraupena adieraztekoak: arte, bitartean; -(e)netik (joan zenetik...); -(e)nez geroztik; -(e)n artean; harik eta... arte; bitartean.
- Helburuzkoak:
 - ...-t(z)era, ...-t(z)eko; -t(z)eko asmotan (*Erromara joateko asmotan dabil...*); -t(z)earren; subjuntibozkoak (*Erosoago egon zaitezen ekarri dizut burukoa...*); + -t(z)eagatik, -t(z)ekotan
- Kausazkoak:
 - ...-(e)lako; dela-eta; -t(z)eagatik...; -(e)nez gero; -t(z)earren...; -(e)la medio, -(e)la kausa
- Ondoriozko perpausak:
 - Menderagailurik gabe: ..., hain da... (*Ez du lana bukatuko, hain da alferra...*)
 - Hain/hainbeste... ezen/non...bait-/-(e)n
- Kontzesiozkoak:
 - NAHIZ ETA jokatu gabeko aditzekin (*Nahiz eta hori jakin, oporretara joan da*)
 - NAHIZ ETA...-(E)N (*Nahiz eta urruti utzi gaituen...*)
 - -(E)N ARREN (*Galdu dugun arren...*)
 - BA-...ERE (*Gaixorik bazegoen ere...*)
 - Partizipioa + -TA ERE (*Mesedez eskatuta ere...*)
 - Partizipioa + ARREN (*Etorri arren, ez zuen ikusi...*)
 - -agatik (*Esanagatik ez zigun kasurik egin*)
- Moduzkoak:
 - -(e)n bezala / -(e)n)bezalakoa (*Nahi duzun bezala; nahi duzun bezalakoa...*)
 - -(e)n neurrian (*Ahal dugun neurrian...*)
 - -(e)n moduan (*Egunkariak dioen moduan...*), -(e)n eran, -(e)nez, -(e)naren arabera (*egunkariak dioenaren arabera...*)
 - -(e)n aldetik
 - -(e)n gisan, antzera, legez
 - ba-...bezala
 - -(e)la(rik)
 - -t(z)eko moduan
 - ez bezala
 - ahala
 - + | -(e)n gisan, antzera, legez
 - + | -ba-...bezala; bait-...-(e)n; -tako/-(r)iko eran; -tako/-(r)iko moduan

IV. Gaitasun estrategikoaren garapena

▶ GAITASUN ESTRATEGIKOA

Ikasleak ekintza komunikatiboa egoki gauzatu dezan, bere aurrezagutza eta gaitasun orokor guztiak erabiliko ditu, egokien irizten dien estrategiak erabiliz, komunikazio-estrategiak eta ikasestrategiak (*ikus 55. orrialdea*).

EBALUAZIOA

Ebaluazioa egiteko, informazio-bilketa egitea ezinbestekoa da, ikasprozesuaren deskribapen osoa emanaz eta, hobekuntzara begira, deskribapen horri buruzko epai eta irizpen arrazoitua eskainiz (*ikus 65. orrialdea*).

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA EBALUAZIO-ESKALAK

Ekintza komunikatiboen gauzatze-maila ebaluazio-irizpide jakinen arabera neurtu eta balioetsiko da (*ikus 69. orrialdea*).

ENTZUMENA

- 1 Zailtasuna du kultura orokorraren mailako solasaldien ideia garrantzitsuak eta osagarriak bereizteko, nahiz eta horiek behin baino gehiagotan entzun. Tokian tokiko hizketaldi biziak ulertzeko arazoa du.
- 2 Kultura orokorraren mailan, erraz ulertzen du ahoz eginiko edozein hizketa. Gaiaren inguruko informazio orokorra eta xehea arazorik gabe ulertzen ditu, eta estrategia-mota asko erabiltzen ditu ulertzeko; hala nola: testuinguruan oinarrituta hitz ezezagunen esanahia ondorioztatzea, eta aldartea, adimen-jarrera eta asmoak inferitzea ondorioak ateratzeko. Dena den, batzuetan, arazoa izaten du lagunarteko hizketa bizietan zenbait ñabardura jasotzeko, eta, eragozpenak gainditzeko, errepikatzea eskatzen du.
- 3 Ez du eragozpenik kultura-maila orokorreko edozein solas ulertzeko, ezta tokian tokiko hizketaldi bizia bada ere. Informazio orokorra eta xehea arazorik gabe jasotzen ditu; zenbaitetan, ordea, zailtasuna izan dezake goi-mailako erregistroan xehetasunez jabetzeko.

EGOKITASUNA

- 1 Kultura orokorreko gaia edo testua edozein dela ere, ez du erregistroarekin asmatzen. Azalpen eta argudioetan geratzen da agerian, batik bat, haren gabezia. Hainbat hitz eta egitura lekuz kanpo erabiltzen ditu, solaskidea ezustean harrapatuz.
- 2 Nori eta zertarako zuzentzen zaion, eta, gaiaren nolakoa kontuan izanik, ez du eragozpenik erregistro-mota aukeratu eta erabiltzeko. Tarteka, hala ere, gaia oso ezaguna ez badu, azalpen eta argudioetan informazioa testuingurura behar bezala egokitzeko zailtasuna izan dezake. Giza harremanetan, hizkuntza malgutasunez erabiltzen du, eta badaki emozioak adierazten eta umoreaz baliatzen.
- 3 Ez du arazorik kultura orokorreko zeinahi gairen inguruan erregistro-mota aukeratu eta erabiltzeko. Gizarte- eta lanbide-harremanetan, malgu eta eraginkor erabiltzen du hizkuntza; eta kultura orokorreko gaiez ari denean, ideiak eta iritziak zehatz adierazten ditu. Azalpen eta argudioetan, nori eta zertarako zuzentzen zaion kontuan hartuz, informazioa egoki adierazten du.

KOHERENTZIA ETA KOHESIOA

- 1 Kultura orokorreko elkarrizketak ez ditu arrakastaz garatzen: hasiera noiz eman, nola bukatu, gaiez aldatzean egoki erantzuten eta abar. Narrazio eta deskribapenetan eta, batez ere, azalpen eta argudioetan, arazoa du diskurtso antolatua eta josia egiteko, testuaren osotasunaren eta batasunaren kaltetan, kohesio-elementuak desegoki erabiltzen baititu sarritan.
- 2 Kultura orokorreko elkarrizketak burutzen dakiela erakusten du: hasiera noiz eman, nola jarraitu, nola bukatu, gaiez aldatzean erantzuten eta abar. Horretarako, adierazpen bakoitzari dagokion esapide, antolatzaile, kohesio-forma eta abarrez baliatzen da. Zerbait kontatu edo deskribatzean, azaldu eta argudiatzean, diskurtsoa oro har ondo antolatua eta josia da. Haren jarduna koherentea da. Hala ere, izaten ditu tarteka zenbait zalantza, eta atzerapauso-aurrerapauso zein zuzenketak egin behar izaten ditu.
- 3 Kultura orokorreko gaietan, ez du arazorik diskurtsoa testu-generoaren arabera egoki antolatzeko. Elkarrizketetan, jatorrizko hiztunaren maila berean hartzen du parte, baita elkarrizketa garatzean ere. Testu transakzioaletan, berriz, ondo antolatu eta egituratutako adierazpenak egiten ditu, behar dituen kohesio-forma, testu-antolatzaile, esapide eta abarrez egoki baliatuz.

JARIOTASUNA

- 1 Elkarreraginezko testuinguru ezagunetan (familiarreko, aisialdiko eta lagunarteko esparruetan), haren jarduna ez da jarraitua eta naturala. Geldiuneak egiten dituenean, ez du horiek betetzeko estrategia eta baliabiderik.
- 2 Elkarreraginezko testuinguru ezagunetan (familiarreko, aisialdiko eta lagunarteko esparruetan), jarduna jarraitua, naturala eta bat-batekoa du. Gai ezezagun edo kontzeptualki zailagoen inguruan iritzia edota azalpena eman behar duenean, berriz, moteldu egiten du diskurtsoa, ahalik eta egitura, forma, esapide edota adierazpiderik egokien bila, harik eta beroriek aurkitu arte. Geldiuneak ez nabarmentzeko, betelan-estrategiak erabiltzen ditu.
- 3 Kultura orokorreko edozein solasaldiren inguruan, jatorrizko hiztunaren pare aritzen da erritmo eta naturaltasunari dagokienez, eta diskurtso osoan eusten dio erritmo horri.

ABERASTASUNA

- 1 Zailtasun nabarmena du kultura orokorraren mailako gaien inguruan testuak ontzeko, ez baititu menderatzen horiek osatzeko behar dituen hizkuntza-baliabideak.
- 2 Gai da maila honi dagozkion testuak (elkarrizketak, narrazioak, deskribapenak, azalpenak, argudioak...) ahoz sortzeko, eta testuaren luze-laburra, betiere egoerari, hartzaileari, gaiaren ezagutzari lotzen zaizkio. Alderdi morfosintaktikoaren ezagutza zabala eta lexiko aberatsa dituenek, guztia erabiltzera arriskatzen da, eta arriskatzeak berak zenbait akats txiki egitera bultzatzen du. Bestalde, hainbat estrategiaz baliatzen da xehetasunak eta ñabardurak ematean hitz zehatza aurkitzen ez badu: birformulazioa, itzulungurua eta abar.
- 3 Maila honi dagozkion testu-genero guztietan moldatzen da. Adierazpen aberatsa du oso; hau da, erabiltzen duen lexikoa ugaria eta zabala da, iturri askotatik hartua. Egiturei dagokienez, asko eta askotarikoak dira erabiltzen dituen elementu linguistikoak, eta horrek guztiak eragina du jardunaren luze-laburrean eta kalitatean.

ZUZENTASUNA

- 1 Alderdi morfosintaktikoan, fonologikoan eta lexikoan egiten dituen akatsak ez dira koiunturalak, eta agerian geratzen da ondo ikasi gabe dauzkala egiturak eta formak. Akatsak behin eta berriz errepikatzen dituenek, nekez lortzen du natural jardutea. Artifiziala eta arrotza da solasa.
- 2 Nahiz eta alderdi morfosintaktikoari dagozkion formak eta egiturak ezagunak dituen, ahozko adierazpenean oker gutxi batzuk egiten ditu batzuetan. Akats horiek guztiz koiunturalak dira, bat-batekotasunak eta jardunaren nondik norakoak sortutakoak, hain zuzen ere. Oro har, gramatika-zuzentasun handiz jarduten du.

Alderdi fonologikoari dagokionez, euskal fonemak (fonemen ahoskera, hitz barneko aldaketak, hitz-kateak) zuzen erabiltzen ditu. Intonazioari dagokionez, gai da berau egokitzeko eta esaldien enfasia behar bezala egiteko, esanahiaren ñabardura sotilak adieraztearren; dena dela, noizbehinka zenbait arazo izan baditzake ere, ez dute mezuaren ulergarritasuna eragozten.

- 3 Alderdi morfosintaktikoari dagozkion formak eta egiturak ezagunak dituzenez, ahozko adierazpenak zuzenak dira, gramatika-akatsik gabekoak. Alderdi fonologikoari dagokionez, ez du inolako arazorik zuzen erabiltzeko euskal fonemak (fonemen ahoskera, hitz barneko aldaketak, hitz-kateak...); eta, intonazioari dagokionez, berriz, ez du eragozpenik berau egokitzeko eta esaldien enfasia behar bezala egiteko. Mezua erabat ulergarria da.

IRAKURMENA

- 1 Badaki kultura orokorreko testu-generoak bereizten, baina eragozpena du testuko ideia garrantzitsuak eta osagarriak bereizteko; zer esanik ez xehetasunak atzemateko. Nahiz eta behin eta berriz irakurri, askotan ez du testua behar bezala ulertzen. Ez ditu mailako adierazpide testualak menderatzen, eta hori da testuaren nondik norakoaz ez jabetzeko arrazoi nagusia.
- 2 Badaki kultura orokorreko testu-generoak bereizten, baina berorien egitura ere. Testuari kohesioa eta koherentzia ematen dioten adierazpide linguistiko-testualak ere bereizten ditu. Ideia garrantzitsuenak eta osagarriak arazorik gabe atzematen ditu eta testuinguruaz ere jabetzen da. Dena den, testuaren egitura korapilatsuegia denean, behin baino gehiagotan irakurri behar izaten du, eta, zenbaitetan, xehetasunen bat edo beste galtzen du. Bestalde, ñabardurei erreparatzeko testuinguruaz eta hainbat estrategiaz baliatzen bada ere, eragozpenak izan ditzake noiz edo noiz, gaiaren zailtasun-maila kontuan izanik.
- 3 Ez du inolako eragozpenik kultura orokorreko prosa-testuak, saiakera arruntak, ipuinak, nobelak, erreportajeak, artikulua eta abar ulertzeko. Informazio orokorra zein xehea erraz antzematen du, nahiz eta egitura korapilatsua izan.

IDAZMENA

EGOKITASUNA

- 1 Nekez asmatzen du gaiak, testuinguruak eta abarrek eskatzen duten erregistroarekin. Buruz ikasitako egitura eta esapideetara jotzen du, besterik gabe.
- 2 Gaia kultura orokorrekoa izanik, hots, bere mundu-ezagutzatik eta interesetik gertukoa bada, ez du arazorik adierazi nahi duena egoki adierazteko, nahiz eta ñabarduretan edo lexiko-zehaztasunean garrantzi txikiko okerrak egin. Gai orokorretan ez du aparteko arazorik testuinguruari dagokion erregistro-mota baliatzeko.
- 3 Azalpen eta argudioetan, gaia kultura orokorrekoa izanik ere, maila jasoko hizkera erabiltzen ahalegintzen da, eta informazioa egoki adierazten du, nori eta zertarako zuzentzen zaion eta gaiaren nolakoa kontuan hartuz. Lexikoa ere egoki eta zehatz erabiltzen du, hitzen balio semantikoa oso ongi menperatzen baitu. Kasuan kasuko erregistroa ongi aukeratzen du.

KOHERENTZIA

- 1 Diskurtsoaren egitura eta pasarteen antolaketa ez da egokia. Ez dira garbi bereizten ideia nagusiak eta osagarriak, eta lehen irakurraldian ez da ongi ulertzen testua.
- 2 Oro har, egokia da diskurtsoaren egitura eta pasarteen antolaketa, tarteka hutsegiteren bat egiten badu ere. Ideia garrantzitsuak, osagarriak eta xehetasunak bereizten ditu, informazio-jauziak, -hutsuneak eta kontraesanak saihestuz. Lehen irakurraldian ulergarria da.
- 3 Baliabide linguistikoen zein testualak zuzen erabiltzen dituen bezala, testua erabat argia, ongi egituratua eta jarraipen onekoa da. Ideia nagusiak eta xehetasunak behar bezala bereizten ditu eta gaia egoki garatzen du, testu koherentea sortuz.

KOHESIOA

- 1 Nekez baliatzen ditu ondo esaldi, paragrafo eta testu barneko loturak. Testu-antolatzaileak, kohesio-formak eta puntuazio-markak ere ez ditu egoki erabiltzen. Puntuazioaren erabilera desegokiak zaildu egiten du ulergarritasuna.
- 2 Gehienetan, ondo baliatzen ditu esaldi, paragrafo eta testu barneko loturak: testu-antolatzaileak, kohesio-formak eta puntuazio-markak. Puntuazioa, oro har, zuzena da, tarteka akatsen bat edo beste egiten badu ere.
- 3 Ez du eragozpenik eraginkortasunez baliatzeko esaldi, paragrafo eta testu barneko loturak (testu-antolatzaileak, kohesio-formak eta puntuazio-markak). Puntuazioa zuzen darabil.

ABERASTASUNA

- 1 Eragozpena du mailari dagozkion testuak idazteko. Darabiltzan egiturek, ideiek, lexikoaren zenbateko eta nolakoak, besteren artean, hizkuntzaren ezagutza ona ez duela adierazten dute.
- 2 Maila honi dagozkion testuak egoki osatzen ditu, kontuan hartuz baliatzen dituen ideia, egitura edota lexikoaren zenbatekoak eta nolakoak. Gutxieneko baliabide linguistiko zein testualak erabiliz, gai da ideiak zehatz adierazteko.
- 3 Kultura orokorreko edozein gairen inguruan, hizkuntza-baliabide ugari erabiliz idazten du. Testu luze eta konplexuak ontzen ditu, nabaria baita lexikoaren eta egituren aberastasuna.

ZUZENTASUNA

- 1 Maila morfosintaktikoan, lexikoan eta ortografian egiten dituen akatsek agerian uzten dute ez dituela hainbat egitura eta forma menderatzen. Akats sistematiko horiek direla eta, ulergaitza gertatzen da idatzia.
- 2 Maila honi dagozkion testuak idaztean ez du alderdi morfosintaktikoan aparteko arazorik, nahiz eta zenbaitetan adierazi beharrekoaren konplexutasunagatik sintaxiaren arloko okerren bat egiten duen. Dena den, ez du akats sistematikorik egiten. Lexikoa zuzen erabiltzen du, baliatzen dituen sinonimo, birformulazio eta abarretan ikusi ahal izango denez. Puntuazioa eta ortografia zuzen erabiltzen ditu, tarteka oker tipografikoak egiten baditu ere.
- 3 Ez du inolako eragozpenik kultura orokorreko zeinahi gai zuzen idazteko. Morfosintaxiaren, lexikoaren, ortografiaren eta puntuazio-marken erabilera zuzena da, akatsik gabea.



MAILA

ERABILTZAILE ADITUA

HELBURUAK

Ekintza komunikatiboetan zerrendatzen diren helburuak mailako gaitasun komunikatiboaren adierazpen dira (*ikus 30. orrialdea*).

ENTZUMENA

Euskara batuan norbere espezialitateko nahiz gai orokorreko testuak ulertzeko gai izango da, bai aurrez aurre, baita hedabideetan entzundakoa ere. Euskalkietako berbaldia ere ulertuko du, zenbaitetan xehetasunak jasotzeko eragozpena badu ere.

Maila honen amaieran, ikaslea gai izango da

- ▶ jatorrizko hiztunen arteko elkarrizketa eta eztabaida biziak ulertzeko.
- ▶ aditu baten hitzaldi, aurkezpen edo azalpena ondo ulertzeko, baita bere arloko terminologia espezializatua erabiltzen duenean ere. Era berean, argudio abstraktuak ulertzen ditu, kasuan kasuko ondorioak atereaz.
- ▶ hitzaldi batean aditu batek azaldutako iritzi kritikoa ulertzeko.
- ▶ adituen mahai-inguru batean esandakoak zehatz ulertzeko, batez ere, gaia bere arlokoa bada.
- ▶ komunikabideetako edozein elkarrizketa ulertzeko, solaskideen umorea eta sarkasmoa atzemanaz. Esamolde idiomatikoak ulertuko ditu, eta hizkeraren maila denotatiboaz eta konnotatiboaz jabetuko da.
- ▶ filmak, antzezlanak, telebista-saioak eta irratsaioak ulertzeko, umorea, ironia, ñabardurak eta esanahi implizituak barne.
- ▶ komunikabideetan, teknologiar, literaturari, zientziari eta abarri buruz entzuten dituen adituen iruzkinak ulertzeko.
- ▶ lan-esparruan, bere arloko txosten teknikoen jendaurreko azalpena ulertzeko.
- ▶ lan-bileretako eztabaidetan, gai tekniko bati buruzko iritziak eta argudioak ulertzeko.
- ▶ esparru juridikoan (notaritzan, abokatuen bulegoan...) lege-aholkuak, azalpenak eta abarrak ñabardurez ulertzeko.
- ▶ (...)

MINTZAMENA

Edozein egoera eta esparrutan, norbere espezialitateko nahiz alor orokorreko ezagutzen inguruan, gai izango da elkarrizketa batean parte hartzeko, iritziak eta azalpenak emanez eta eztabaidatuz. Era berean, gai izango da hitzaldiak eman eta mahai-inguru eta abarretan parte hartzeko.

Maila honen amaieran, ikaslea gai izango da

- ▶ hitzaldi baten atarian aurkezpen-lanak egiteko, hizlariaren ibilbidea adieraziz eta haren parte hartzea justifikatuz.
- ▶ jendaurrean bere jakintza-esparruko gai batez hitzaldi laburra emateko, entzuleei gaiarekiko interesa sortaraziz eta diskurtsoa entzuleen beharretara egokituz.
- ▶ jendaurrean, norbaiti buruzko gorazarrea egiteko, burututako lana eta ibilbidea azalduz eta goraiatuz.
- ▶ aditu gisa, bere arloko gaiaren inguruko iritzi kritikoa azaltzeko, xedea gaiari buruzko hausnarketa bultzatzea izanik.
- ▶ deskribapenak eta adibideak baliatuz, esparru akademikoan azalpenak zehatz emateko, betiere hartzaileen zailtasunak eta zalantzak argitze aldera.
- ▶ lan-esparruan, bere arloko gaiari buruz jendaurreko azalpen tekniko bat eraginkor egiteko.
- ▶ lan-esparruan edo esparru akademikoan egindako lan edo ikastaro bateko esperientzia ikuspegi tekniko batetik kontatzeko, besteak jakinaren gainean jartzeko asmoz.
- ▶ (...)

Elkarreraginean

- ▶ jatorrizko hiztunen arteko edozein elkarrizketatan edo eztabaidatan parte hartzeko.
- ▶ bere espezialitateko gai bati buruzko mahai-inguru batean parte hartzeko, azalpenak zehatz emanez eta iritziak ongi defendatuz.
- ▶ auzi gatazkatsuetan (lege- edo finantza-egoeretan, esaterako) aholkuak emateko eta segurtasunez moldatzeko, betiere gaia bere arlokoa bada.
- ▶ bere laneko eztabaidetan gai tekniko bati buruzko iritziak emateko, besteak konbentzitzeko eta zerbait egitera bultzatzeko helburuz; adibidez, enpresaren politika komertziala aldatzeko eta abar.
- ▶ lan-esparruko eta arlo akademikoko mintegi eta tutoretzetan eraginkortasunez parte hartzeko eta kontrako iritziei aurre egiteko.
- ▶ aditu gisa, komunikabideetako elkarrizketa batean parte hartzeko, azalpenak zehatz emanez eta iritziak ongi defendatuz.
- ▶ (...)



IRAKURMENA ●

Euskara batuan zein tokian tokiko euskalkian idatziriko kultura-maila goreneko testuek eta bere arloko testu espezializatuek emandako informazioa jasotzeko gai izango da. Halaber, estilo desberdinen ñabardurez eta esanahi inplizitu nahiz esplizituez jabetuko da.

Maila honen amaieran, ikaslea gai izango da

- ▶ aldizkari edo foro espezializatueta bere arloko testu konplexuak zehatz-mehatz ulertzeko, baita bere arlokoak ez direneta hari nagusiaz jabetzeko ere.
- ▶ literatur kritikak edo iruzkinak ulertzeko; baita testuaren anbiguotasunaz eta ezkutuko iritziaz jabetzeko ere.
- ▶ hainbat generotako literatur testuak ulertzeko, bertan erabilitako bitarteko estilistikoak atzemanaz (hitz-jokoak, metaforak, konnotazioak...).
- ▶ lege-auziak, kontratuak eta antzeko testu juridikoak ulertzeko.
- ▶ kontratuen xehetasunak eta inplikazio legalak ulertzeko (auto bat alokatzean, mailegu bat eskatzean, aseguru-poliza bat kontratatzean...).
- ▶ haren espezialitateko hiztegi orokorra nahiz teknika ulertzeko, hitzen adierak interpretatzeko eta ñabardura kulturalaz ohartzeko.
- ▶ lan-arloko txostenak zehatz ulertzeko, eta ondorioez jabetzeko.
- ▶ lan-esparruan nahiz esparru akademikoan, abstrakzio-maila handiko testuak ulertzeko, betiere haren arlokoak badira.
- ▶ (...)

IDAZMENA

Era guztietako testuak zuzen, zehatz eta jator idazteko gai izango da, kultura-maila orokorreko nahiz goragoko gai sozialei edo norberaren espezialitatekoari buruz, hizkuntza formalean nahiz informalean arrakastaz eta egoerari egokituz.

Maila honen amaieran, ikaslea gai izango da

- ▶ esparru akademikoan ikasleentzat azalpen-testu konplexuak argi idazteko.
- ▶ esparru akademikoan zein lanekoan, gai ezagun bati buruzko testu luzeak laburtzeko (albiste edo erreportaje bat), ikaskideak edota lankideak jakinaren gainean jartzeko xedez.
- ▶ mintegi, tutoretza, hitzaldi eta abarretan, ohar zehatzak eta landuak idazteko, esaldiak egoki aukeratuz eta laburtuz.
- ▶ bere arloko aldizkari espezializatu batean gai bati buruz iritzi-artikulua idazteko, gaiari buruzko informazioa eman eta irakurleek iritzia osa dezaten. Adibidez, informatikari eskainitako aldizkari batean berrikuntza baten berri emateko eta berrikuntza horrekiko iritzia argudiatzeko.
- ▶ aldizkari espezializatu batean azalpen-artikulua egiteko, gai bati buruzko informazioa emateko eta gogoeta eragiteko xedez.
- ▶ irratsaio baterako, puri-purian dagoen gai bati buruzko iruzkina idazteko, iritzia edo ikuspuntua azalduz.
- ▶ komunikabideetan hil berri den norbaiten omenez, gorazarre-artikulua idazteko.
- ▶ dibulgazio orokorreko aldizkari edo egunkari batean, blog batean eta abarretan, haren arloko edota gai orokor bati buruzko erreportajea idazteko, kasuan kasuko xehetasunak emanez eta deskribapen zehatzak eginez.
- ▶ bere arloko azterlan baten argitalpenari hitzaurrea idazteko.
- ▶ ipuin-lehiaketa batean parte hartzeko asmoz, ipuin bat idazteko.
- ▶ kanpaina baterako eslogana idazteko, alde aurretik finkaturiko testuingurua kontuan izanik.
- ▶ hura aditua den gaiari buruzko jardunaldi edo topaketa batzuetarako komunikazio bat idazteko, kontuan izanik entzuleen aurrean irakurri beharko duela eta aldizkari batean argitaratu.
- ▶ erakundeekiko harremanetan gai orokorrei buruzko txostenak nahiz eremu akademikoari lotutako idatziak idazteko, azalpen argiak emanez.
- ▶ erakundeekiko harremanetan, nork bere azterlana defendatzeko, proiektu jakin baterako izan dezakeen balioa frogatuz eta argudiatuz.
- ▶ lan-esparruan proiektu baten aurkezpen-txostena edota urteko memoria egiteko zuzendaritzari zein lankideei, xede izanik gai batekiko interesa piztea eta proiektuaren baliagarritasuna adieraztea.
- ▶ lan-esparruan proposamen zehatz bat idazteko, helburua jendaurrean ahoz aurkeztu eta konbentzitzea izanik.
- ▶ lanpostuan aldi baterako arituko den beste langile bati zereginei buruzko informazioa txosten batean idatziz emateko (azalpenak, aholkuak eta abar).



-
- ▶ lan-esparruan, nagusiari proiektu bat azalduz lan-txostena egiteko, honek eskatutako zerbaiti erantzuna ematearren.
 - ▶ (...)

EDUKIAK



I. Gaitasun soziolinguistikoaren garapena

- ▶ Testuinguruaren ezaugarriak
- ▶ Gaiak
- ▶ Kultura-erreferentziak

II. Gaitasun testualaren garapena

- ▶ Testu-generoak
- ▶ Funtzioak
- ▶ Adierazpide testualak

III. Gaitasun linguistikoaren garapena

- ▶ Adierazpide linguistikoak

IV. Gaitasun estrategikoaren garapena

- ▶ Gaitasun estrategikoa

— * —

+ C2 mailan adierazpide berria

I. Gaitasun soziolinguistikoaren garapena

TESTUINGURUAREN EZAUGARRIAK

Ekintza komunikatibo guztiak testuinguru jakinetan gauzatzen dira, maila bakoitzean ezaugarri zehatzak dituzten testuinguruetan, alegia (*ikus 36. orrialdea*).

ENUNTZIATZAILEA-ENUNTZIATARIOA

- Solaskidearen rolak:
- Senide-senide
 - Lagun-lagun
 - Ezagun-ezegun
 - Lankide-lankide
 - Ikaskide-ikaskide
 - Ezezagun-ezegun
 - Ikasle-irakasle
 - Langile-zuzendari
 - Herritarra-Administrazioa
 - + Aditu-herritarra
 - + Aditu-aditu

- Solaskideen arteko harremana:
- berdinen artekoa edo gertutasunezkoa
 - urruntasunezkoa
 - hierarkikoa/ solidarioa
 - publikoa/pribatua

XEDEA

- C1 mailan bezala
- Ikus *Funtzioak* atala

ERABILERA-ESPARRUA

- Pertsonen arteko harremanean eta solaskideen hurbileko munduan:
- Senitartekoa
 - Lagunartekoa
 - Zerbitzuguneak: dendak, informazio-bulegoak...
 - Lanekoa
 - Aisialdikoa
- Gaiak kultur orokorrari dagozkion mailan eta erabilera-esparru hauetan:
- Akademikoa
 - Administrazioa
 - Merkataritza
 - Herri-zerbitzuetakoa
 - Komunikabideetakoa
 - + Tekniko-zientifikoa
 - + Literarioa

▶ GAIAK

Mailako ekintza komunikatiboak gauzatzeko gai-zerrenda irekia eta ikasleen premietara egokituko da (*ikus 37. orrialdea*).

Maila honetan, C1 mailan bezala, kultura orokorreko gai eta azpigai guztiak landuko dira. Horiez gain, nork bere espezialitateari buruzko gaiak landuko ditu.

Adibidez: Gaia: zientzia eta teknologia

Azpigaiak: ikerketa, garapena eta berrikuntza (I+G+B)

▶ KULTURA-ERREFERENTZIAK

Hizkuntzaren barneratze-prozesuan ezinbestekoa da alderdi linguistikoez gain, euskal gizartearen izaera historiko eta sozialaren berri ematea, ikaslea gure errealitatean eta mundu-ikuskeran kokatuz (*ikus 38. orrialdea*).

II. Gaitasun testualaren garapena

▶ TESTU-GENEROAK

Estandarizatuta eta tradizioz finkatuta dagoen moldean antolatzen du informazioa erabiltzaileak, gizarte- edo lanbide-esparru batean (*ikus 48. orrialdea*).

AHOZKOAK ◀

Ulermena:

- ▶ Aurrez aurrekoak:
 - Hitz eta esapide errazak: zenbakiak, prezioak, denbora-erreferentziak...
 - Jarraibideak: toki batetik bestera nola joan, gauza bat non dagoen...
 - Mezuak eta azalpenak zerbitzuetan
 - Balorazio, iritzi edo kexu bat: zerbitzuren bati buruzkoa...
 - Elkarrizketak
 - Kontaketak: gertaerak...
 - Aholkuak (medikuaren gomendioak...)
 - Azalpen laburrak
 - Deskribapenak
 - Errezetak
 - Ipuin klasikoak
 - Albisteak / kronikak
 - Asmakizunak
 - Azalpen didaktikoak
 - Esaera zaharrak
 - Jarraibideak (jokabidea arautzeko, aholkua emateko...)
 - Jendaurreko adierazpenak
 - Prozesuen deskribapenak
 - Antzezlanak
 - Dokumentalak
 - Erreportajeak
 - Esketxak
 - Eztabaidak
 - Filmak
 - Hitzaldiak
 - Instrukzioak (informazioa eta argudioa duten instrukzioak...)
 - Iragarkiak
 - Iruzkinak (hedabideetan...)
 - Kantak eta bertsoak
 - Lan-prozedurak

- Mahai-inguruak
- Telesailak
- Mitinak
- ...

► Grabatuak eta komunikabideetatik jasotakoak:

- Komunikabideetako ohar eta iragarkiak
- Erantzungailuetako mezu laburrak
- Irudi bidezko iragarkiak
- Albisteak
- Komunikabideetako ohar eta iragarkiak
- Toki publikoetako iragarki laburrak
- Eguraldi-iragarpenak
- Kontaketak
- Dokumentalak
- Elkarrizketak
- Film eta telesailak
- Katak /bertsoak
- Antzezlanak
- Asmakizunak
- Azalpenak
- Erreportajeak
- Esaera zaharrak
- Esketxak
- Eztabidak
- Hitzaldiak
- Instrukzioak (informazioa eta argudioa duten instrukzioak...)
- Iruzkina (hedabideetan...)
- Lan-prozedurak
- Mahai-inguruak

- Mitinak
- ...

Ekoizpena:

- Aginduak
- Azalpenak
- Gauzen eta tokien deskribapenak
- Kexa edo erreklamazioa
- Prozedurei buruzko argibideak: tresnen erabilera, zerbitzuena...
- Argudiozko adierazpenak
- Arauak
- Errezetak
- Gertaeren kontaketak eta ipuinak
- Pasadizo barregarriak
- Pertsonen, gauzen, tokien eta egoeren deskribapenak



- Sentimenduen eta jarrerren deskribapenak
- Asmakizunak
- Egoera psikologikoen, izaeren eta sentipenen deskribapena
- Iruzkinak
- Jendaurreko adierazpenak
- Laburpenak
- Lan-proposamenak
- Kontakizunak (kronikak, historia-kontakizunak...)
- Administrazioarekiko informazio-trukea

- + • Hitzaldiak
- Komunikazioak

Ekoizpena elkarreraginean:

- Pertsonen aurkezpena
- Aginduak
- Adeitasunezko hitz eta esapideak
- Galde-erantzunak
- Argibideak, jarraibideak
- Elkarrizketak
- Gauzen, tokien, eguraldiaren eta pertsonen deskribapen errazak
- Hartu-emanak eta adeitasunezko hitz eta esapideak
- Kontakizunak
- Aholkuak
- Balorazio eta kexuak
- Administrazioarekiko informazio-trukea
- Azalpenak, iritziak eta argudioak
- Eztabaidak
- Galdeketak (lekukoen deklarazioak...)
- Debateak
- + • Mahai-inguruak

IDATZIAK ▾

Ulermena:

- Leku publikoetako ohiko seinaleak, kartelak...
- Oinarrizko jarraibideak, inprimakiak edota fitxa bat betetzean, galde-sorta bati erantzuteko...
- Publizitate- eta informazio-orriak...
- Ohar eta mezu pertsonalak
- Argibideak
- Pertsonen deskribapenak
- Formularioak

- Deskribapenak
- Gida komertzialak
- Iragarkiak
- Publizitate- eta informazio-orriak, triptikoak...
- Toki publikoetako araudiak, instrukzioak eta argibideak
- Pasadizoak / kontaketak / ipuinak
- Gonbidapenak (merienda batera, bazkari batera...)
- Bidaia-txartelak, sarrerak, jatetxeetako kartak eta mezuak, fakturak, etiketak, katalogoak...
- Senitarteko eta lagunarteko gutunak
- Errezetak
- Horoskopoa
- Komikiak
- Kronikak (kirol-kronikak...)
- Egitarauak (festak...)
- Turismo-gidak
- Gertaera, sentipen eta nahien deskribapenak
- Kultur gaiei buruzko aipamenak, iruzkinak (liburu bat, musika-lan bat...)
- Gutunak
- Argudio-testuak
- Tresna edo prozedura bati buruzko jarraibideak
- Hitzaldi baten laburpena
- Kultur gaiei buruzko idatzi laburrak
- Administrazioako idazkiak (erreklamazioak, ofizioak, iragarkiak, gutunak...)
- Albisteak
- Prospektuak eta agiri ofizialak
- Hiztegi-tako definizioak
- Entziklopedietako azalpen- edo deskribapen-testuak
- Bilera-aktak
- Lan-egitasmoak
- Lan-esparruko gai ezagunei buruzko txostenak.
- Erreportajeak
- Alegiak eta kondairak
- Araudiak
- Azalpen-artikuluak
- Biografiak
- Editorialak
- Eleberrak
- Historia-kontakizunak
- Iritzi-artikuluak
- Joko-arauak
- Komunikazioak
- Lan-hitzaermenak
- Parabolak
- Txostenak
- Zirkulazio-kodea



- Zutabeak
- + • Testu juridikoak
- Literatur testuak (eleberriak, saiakera...)

Ekoizpena:

- Inprimakiak, txantiloiak (bete)
- Zerrendak
- Oharrak
- Gonbidapen-oharrak / proposamenak
- Jarraibide eta arauak
- Postalak
- Gutun pertsonalak
- Errezetak
- Curriculum vitae
- Eskari-gutunak
- Ohar-taula baterako iragarkia
- Pertsonen, tokien eta gauzen deskribapenak
- Aholkuak eta gomendioak
- Proposamenak
- Argudio-testuak
- Biografiak
- Administrazioko idazkiak
- Jakinarazpen-gutunak
- Bilera-deiak eta baimen-eskariak
- Lan-esparruan gai baten azalpena
- Albisteak
- Erreportaje edo albiste baten laburpena
- Gutun pertsonalak, jarrerak eta sentimenduak adieraziz
- Azalpen-artikuluak
- Bilera-aktak
- Erabilpen-gidak
- Iritzi-artikuluak
- Isunak
- Kontaketak eta ipuinak
- Lan-proposamenak
- Ziurtagiriak
- Joko-arauak
- Komikiak
- Komunikazioak
- Kronikak
- Lan-egitasmoak
- Lan-hitzarmenak
- Parabolak
- + • Txostenak
- Zirkulazio-kodea

- Zutabeak
- Testu juridikoak
- Literatur testuak
- ...

Ekoizpena elkarreraginean:

- Mezu laburrak (mezu elektronikoak, postalak, oharrak)
- Galde-erantzunak informazio pertsonala trukatzeko
- Gutun pertsonalak
- Ohar eta jakinarazpenak
- Proposamenak
- Kontaketak

FUNTZIOAK

Erabiltzaileak hizkuntza zerbait komunikatzeko erabiltzen du, zerbait egin edo lortzeko. Ekintza komunikatibo guztietan dago xede bat (*ikus 49. orrialdea*).

Hauk dira maila honen amaieran ikasleak bete ahal izango dituen funtzioak:

Giza harremanak eta konplimenduak

- Agurtzea
- Nork bere burua eta besterena aurkeztea
- Mesedeak eskatzea
- Interesa adieraztea
- Barkamena eskatzea
- Eskerrak ematea
- Zoriontzia
- Goraintziak ematea
- Topa egitea
- Gauza onak opa izatea
- Doluminak ematea
- Arreta eskatzea
- ...

Informazioa ematea eta eskatzea

- Datu pertsonalei buruzko informazioa eskatzea eta ematea
- Leku, ordutegi, data, eguraldi, prezio, neurri, kopuruei buruz galdetzea eta erantzutea



- Zerbait dagoen, baden edo dakien galdetzea eta erantzutea
- Pertsonak, lekuak eta gauzak deskribatzea: zerbait nolakoa den, non dagoen...
- Jabetza adieraztea
- Informazioa ematea eta eskatzea eguneroko kontuez
- Denboran zehar gertatutako ekintzak kontatzea
- Zerbitzu bat eskatzea, eskaintzea edota horri buruz galdetzea eta erantzutea
- Iraganeko ekintzak eta ohiturak oso labur deskribatzea
- Argibideak, jarraibideak ematea eta eskatzea
- Aurkezpen laburrak egitea
- Hurbilekoen deskribapen fisiko zein psikologikoak egitea
- Gertaera edo albiste baten kontaketa egitea: zerbait zurrizteko, solaskideak eskatutako azalpeni erantzuteko, harridura adierazteko edo irrika sortzeko
- Informazioa berrestea
- Informazioa baieztatzea ala ezeztatzea
- Aukerak eskaintzea
- Informazioa laburtzea
- Informazioa eskatzea alternatibak proposatuz, jakin-mina adieraziz, azalpena eskatuz, zuhurtziaz...
- ...

Iritziak, ezagutzak eta jarrerak adieraztea eta egiaztatzea

- Zerbait baieztatzea / ezeztatzea
- Norbaiti buruz edo zerbaiti buruz iritzia eskatzea eta ematea
- Zerbitzuei buruzko balorazio orokorra egitea
- Proposamen bati buruzko iritzia modu laburrean ematea
- Adostasuna/desadostasuna eskatzea edota ematea
- Ezintasuna adieraztea
- Gonbidapena onartzea / gaitzestea
- Aisialdiko planak onartzea / ez onartzea
- Gustukoa dena eta ez dena adieraztea
- Iritzia adieraztea arrazoiak emanez
- Gai bati buruzko azalpena egitea zerbait argudiatuz
- Jarreraren berri ematea
- Gaitasuna edo gaitasunik eza adieraztea
- Ideiak, pertsonak, objektuak, lekuak eta egoerak alderatzea
- Zerbait gogoan duen ala ahaztu zaion galdetzea eta adieraztea
- Zailtasuna adieraztea
- Eztabaida batean parte hartzea informazioa alderatuz
- Zerbait egiteko nahia, aukera, beharra eta betebeharra dagoen galdetzea eta adieraztea
- Zerbait bidezko ondorioztat jotzen den ala ez adieraztea eta galdetzea
- Aitzakiak jartzea
- Balorazioa eskatzea / egitea

- Baimena ukatua dela aitortzea
- Norbaitek zerbait egin beharra duela adieraztea
- Nork bere burua eskaintzea zerbait egiteko
- Zerbait bidezko ondorioztat jotzen dela adieraztea (dedukzioa)
- Zerbait zalantzazkoa den edo ez adieraztea
- Administrazioan egoera zehatz baten berri ematea
-

Sentimenduak, hunkipenezko jarrerak/egoerak adieraztea eta egiaztatzea

- Aldarteaz, osasun-egoeraz galdetzea eta informazioa ematea
- Ezustea adieraztea
- Poza / tristura adieraztea
- Zalantza adieraztea
- Maitasuna adieraztea
- Beldurra edo kezka adieraztea
- Etsipena adieraztea
- Zerbaiten esperantza adieraztea
- Haserrea adieraztea
- Medikuari gaitz baten sintomak adieraztea, sendabidea jasotzeko
- Besteekiko sentimenduak adieraztea
- Besteen sentimenduen aurrean egoki erantzutea
- Zerbait norbaiti aurpegiratzea
- Norbait / zerbait goraiatztea
- Salatzea, erruduntasuna onartzea eta errefusatzea
- Asmoa edo xedea adieraztea
- Atsegina, gustua, nahia adieraztea
- Atseginik eza, gusturik eza, zerbait ez dela nahi edo ez dela gustukoa adieraztea
- Axola-gabezia adieraztea
- Damua edo tamala adieraztea
- Erruki-sentimendua adieraztea
- Esker ona adieraztea
- Estimua adieraztea
- Gogaitasuna adieraztea
- Harrotasuna adieraztea
- Lotsa adieraztea
- Urduritasuna adieraztea
- Zerbait hobesten den galdetzea / adieraztea
- Zerbait edo norbait nahiago dela adieraztea
- Zerbaiten beharra edo desira galdetzea eta adieraztea
- ...

Solaskidearengan eragitea

- Laguntza eskatzea eta eskaintzea



- Egiteko bat proposatzea
- Planak eta asmoak adieraztea
- Gonbidapena egitea
- Erregutzea
- Aginduak ematea
- Baimen-eskaera egitea eta erantzutea
- Debekuak jartzea
- Aholkuak ematea eta eskatzea
- Norbait konbentzitzea
- Limurtzea
- Norbait lasaitzea
- Norbait adoretzea
- Gaztigatzea, ohartaraztea
- Erakunde publiko nahiz pribatu batean kexa adieraztea
- Agindu, eskaera edo erregu bati erantzutea
- Animatzea
- Debekua errefusatzeko edo arbuiatzea
- Kexa adieraztea
- Gaitzestea
- Hitzematea
- Kontsolatzea
- Mehatxu egitea
- ...

ADIERAZPIDE TESTUALAK

Ekintza komunikatiboak egoki gauzatzeko, erabiltzaileak testuak ongi taxutzen eta interpretatzen jakin behar du, baliabide egokien bidez (*ikus 49. orrialdea*).

Hauek dira, besteak beste, maila honetan erabiltzaileak baliatuko dituen adierazleak:

1. Plan orokorra

- ▶ Ahozkoak. Idatziak.
- ▶ **Gaia:** Espezialitateko gaiak. Mundu errealeko, fisiko edo konkretuko zein mundu abstraktu eta subjektiboko gai ezagunak eta ezezagunak.
- ▶ **Egitura:** Helburua lortzeko erabakiko den egitura estrategikoki aukeratua izango da.

2. Interaktibotasuna

- ▶ Deiktikoak:

- Pertsonalak (aditzaren lehen eta bigarren pertsonak, izenorde pertsonalak, plural hurbila: -ok)
 - Denborazkoak (denbora-adberbioak: *orain, iaz, hurrengoan, datorren... , gero, orduan, garai hartan, gaur egun, lehen, momentuz, oraindik, duela...*)
 - Espazialak (leku-adberbioak: *hemen, hor, han, hementxe, hortxe, hantxe*)
- Galderak

3. Sekuentziak

- Elkarrizketa
- Azalpena
- Kontaketa
- Preskripzioa
- + ► Gauzatzailea

4. Konexioa

► Testu-antolatzaileak

> 1.- **Testu-markatzaileak** eta hauen erabilera estrategikoa

- Informazioaren egituratzaileak:
 - Iruzingileak: *ba, horiek horrela...*
 - Ordenatzaileak: *lehenik/bigarrenik; (alde) batetik/bestetik...*
 - Zeharkariak: *hau dela-eta, bide batez...*
- Lokailuak:
 - Emendiozkoak: *ere, gainera, bestalde, halaber, behintzat, behinik behin, + bertzalde, bederen, orobat, berebat, bederik, badere, badarik (ere)*
 - Hautakariak: *bestela, gainontzean, + osterantzean, ezpere(n), ezpabere, bertzenaz, gainerakoan/gaineratikoan, gainerakoz*
 - Aurkaritzakoak: *ordea, berriz, ostera, aldiz, bitartean, alabaina, dena dela, dena den, hala ere (halere), hala eta guztiz ere, haatik/hargatik, + aitzitik, bizkitartean, bien bitartean, (t)arte horretan, artean, alta, alabadere, horratik/horregatik, barren, badarik ere*
 - Ondoriozkoak: *beraz, bada, hortaz, orduan, honenbestez, horrenbestez, hainbestez, halatan, hala*
 - Kausazkoak: *zeren, zergatik, bada, izan ere, + alabaina*
- Denborazkoak:
 - *behin batean, ondoren, halako batean, goizean, arratsaldean, orduan, gero, baino lehen, gaur egun, gaurkoz, oraingoan, azkenean, bitartean, harrezkero, garai hartan, artean, gehienetan, aitzina, lehen, orain, iaz, hurrengo egunean, hurrengoan, halako batean, berehala...*
- Birformulatzaileak:
 - Esplikatiboak: *alegia, hau da, hots...*
 - Zuzentzaileak: *hobeto esan, bestela esan...*
 - Urruntzaileak: *nolanahi ere...*
 - Laburbiltzaileak: *ondorioz, azken batean, hitz gutxitan, hitz gutxitan esateko*



- Ordena-adierazleak: *lehenengo, lehenik, ondoren, gero, jarraian, amaitzeko, bukatzeko, alde batetik, bestetik, azkenik, bestalde*



- Operatzaile argudiozkoak:
 - Indartzaileak: *benetan, berez...*
 - Zehatzaileak: *adibidez, esaterako, hala nola, zehazki, bereziki, kasu*
- Berbaldi markatzaileak:
 - Epistemikoak: *noski, jakina, omen, ote, agidanean/agidanez, antza, dirudienez, nonbait...*
 - Deontikoak: *tira, ondo da...*
 - Besteratzaileak: *aizu, aizue...*
 - Metadiskurtsiboak: *zera, bada...*



+ 2.- **Adberbio-sintagmak, eta izen-sintagmak**



+ 3.- **Juntagailuak** (ikus adierazpide linguistikoak)



+ 4.- **Menderagailuak** (ikus adierazpide linguistikoak)

► Puntuazioa

C1 mailan bezala.

5. Izen-kohesioa

- Kate anaforikoak osatzen dituzten errepikapenezko testu-baliabideak:
 - Erreferentziak (anafora eta kataforak)
 - Ordezkapen lexikala (sinonimoak, antonimoak, hiperonimoak, hiponimoak)
 - Elipsia
 - Definizazioa (mugatzaileak)

6. Aditz-kohesioa

- Azalpen- eta kontaketa-adizkiak
 - Bigarren planokoak
 - > Azalpenetan
 - orain puntuala (“dator”)
 - orain ez-burutua (“etortzen da”)
 - orain burutu + ohi (“etorri ohi da”)
 - > Kontaketetan
 - iragan puntuala (“zeterren”)
 - iragan ez-burutua (“etortzen zen”)
 - iragan ez burutu + ohi (“etorri ohi zen”)
 - Lehen planokoak
 - > Azalpenetan
 - orain burutua (“etorri da”)
 - > Kontaketetan
 - iragan burutua (“etorri zen”)
- Ekintza-adizkiak
- Aginte-adizkiak
- Orain geroa (“etorriko da”)

- ▶ Modalizazio-adizkiak (ikus 8. puntua)
- ▶ Bestelako adizkiak

7. Ahots enuntziatzaileak

Testuan ageri diren ahotsek esandakoak adierazteko baliabideak: estilo zuzena, zehar-estiloa eta zehar-estilo librea

- > Adierazpide linguistikoak
 - Alderdi morfosintaktikoa: sintaxia
 - Menderakuntza edo txertakuntza
 - Izen-funtziozko menderakuntza
 - Konpletiboak: -(e)la, -(e)nik, -(z)eko
 - Zehar-galdera: -(e)n
 - Alderdi ortografikoa
 - Marra luzea
 - Komatxoak
 - Esapideak
 - *Urliak* dioenez / esaten duen bezala
 - *Urliaren* arabera

8. Modalizazioa

▶ Modalizazio logikoa

- > Aditza
 - Adizkiak:
 - Orain geroa (“*etorriko da*”)
 - Iragan geroa (“*etorriko zen*”)
 - KE orain aspektugabea (“*etor daiteke*”)
 - KE alegiazko geroa (“*etorriko litzateke*”)
 - *Uste izan, pentsatu, jakin, iruditu*
 - Forma inpertsonalak: *dirudi, badirudi*
 - Adberbioak-eta:
 - Iritzi-adberbioak: *agian, antza denez, beharbada, noski, ziur, seguru, seguru aski, jakina, nonbait*
 - “Omen”, “ote” partikulak
 - -Edo
 - Adjektiboak
 - Gradu-markak
 - Graduatzaileak (indargarriak zein leungarriak)

▶ Modalizazio deontikoa

- > Aditza
 - Adizkiak: aditz-lokuzioak (*behar izan, nahi izan, nahiago izan...*)
- > Adberbioak-eta:
- > Adjektiboak
 - Esamolde adjektibodunak: adjektiboa + -(z)ea



► Modalizazio pragmatikoa

> Aditza

- Adizkiak: aditz-lokuzioak (*ahal/ezin izan, nahi izan...*)
- KE orain aspektugabea (“etor daiteke”)

+ > Adberbioak-eta: agian

> Adjektiboak

► Modalizazio apreziatiboa

> Aditzak: *gustatu, poztu, estimatu, damutu, lotsatu, atsegin izan, gogoko izan, maite izan, merezi izan, damu izan, beldur izan, lotsa izan, gorroto izan, mirestu, sumindu, harritu, kezkatu...*

> Adberbioak-eta: *zorionez, zoritxarrez, tamalez*

> Adjektiboak: *ederra, polita, txarra, itsusia, gogorra, erraza, zaila, latza, larria...*

> Atzizkiak: *-garri*

> Esapideak

- Harridura-perpausak
- *Nire ustez*

III. Gaitasun linguistikoaren garapena

► ADIERAZPIDE LINGUISTIKOAK

Ekintza komunikatiboa egoki gauzatzeko, adierazpide linguistikoak beharrezko baliabideak dira (*ikus 53. orrialdea*).

C1 mailan bezala.

IV. Gaitasun estrategikoaren garapena

► GAITASUN ESTRATEGIKOA

Ikasleak ekintza komunikatiboa egoki gauzatu dezan, bere aurrezagutza eta gaitasun orokor guztiak erabiliko ditu, egokien irizten dien estrategiak erabiliz, komunikazio-estragiak eta ikasestrategiak (*ikus 55. orrialdea*).

EBALUAZIOA

Ebaluazioa egiteko informazio-bilketa egitea ezinbestekoa da, ikasprozesuaren deskribapen osoa emanez eta, hobekuntzara begira, deskribapen horri buruzko epai eta irizpen arrazoitua eskainiz (*ikus 65. orrialdea*).

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA EBALUAZIO-ESKALAK

Ekintza komunikatiboen gauzatze-maila ebaluazio-irizpide jakinen arabera neurtu eta balioetsiko da (*ikus 69. orrialdea*).

ENTZUMENA

- 1 Kosta egiten zaio maila jasoan kultura orokorreko nahiz bere arloko gaiei buruzko adierazpenak ulertzea, ez baitu informazio orokorra, xehea eta inferitua behar bezalako zehaztasunez bereganatzen. Arazoa du testuinguruan kokatzeko eta kasuan kasuko ondorioak ateratzeko.
- 2 Maila jasoan, kultura orokorreko nahiz bere arloko gaiei buruzko adierazpenak ulertzen ditu, informazio orokorra, xehea eta inferitua arazorik gabe jasoz. Gai da entzundakoa testuinguruan kokatzeko eta kasuan kasuko ondorioak ateratzeko, baina, tarteka bada ere, ñabarduraren bat gal dezake.
- 3 Ez du eragozpenik bereganatzeko, bai bere espezialitateko, bai kultura orokorreko edozein gairi buruzko adierazpenak, informazio xehea eta inferitua bere osotasunean eta ñabardura guztiakin. Ez du inolako arazorik, era berean, entzundakoa testuinguruan kokatzeko eta kasuan kasuko ondorioak ateratzeko.



EGOKITASUNA

- 1 Solasa ilun samarra eta mailaz beherakoa da; betiere, kontuan hartuz nori zuzentzen zaion, zertarako, eta gaiaren nolakoa. Ez du egoki betetzen proposatu zaion ekintza komunikatiboa. Hizkuntzaren inplikazio soziolinguistikoak eta soziokulturalak bereganatu gabe dauzka oraindik.
- 2 Solasa argia eta egokia da; betiere, kontuan hartuz nori zuzentzen zaion, zertarako eta gaiaren nolakoa. Hizkuntzaren inplikazio soziolinguistikoak eta soziokulturalak aintzat hartzen ditu, tarteka eta egoera ez ohikoetan, erregistroan hutsegiteren bat izan badezake ere.
- 3 Nori eta zertarako zuzentzen zaion eta gaia nolakoa den kontuan izanda, argia, egokia eta zehatza da haren solasaldia. Bete-betean egokitzen da dagokion ekintza komunikatibora. Bere-bereak ditu hizkuntzaren inplikazio soziolinguistikoak eta soziokulturalak.

KOHERENTZIA ETA KOHESIOA

- 1 Diskurtsoak ez du behar bezalako progresio tematiko logikorik. Ideiak ilun samar geratzen dira, hizkuntza-baliabideak ez ditu behar bezain estrategikoki erabiltzen-eta. Halaber, desegoki erabiltzen ditu kohesio-mekanismoak —batez ere, erreferentziak eta konexioa—, eta nekez lotzen ditu solasaldiko hizkuntza-unitateak. Mezua anbigua da.
- 2 Diskurtsoak progresio tematiko logikoa eta eraginkorra du, eskema argi batean oinarritua. Ideiak argi adierazten ditu, hizkuntza-baliabideak estrategikoki erabiltzen ditu-eta. Oro har, egoki erabiltzen ditu kohesio-mekanismoak —batez ere, erreferentziak eta konexioa—, eta egoki lotzen ditu solasaldiko hizkuntza-unitateak, uneren batean gaiaren konplexutasunagatik hutsegiteren bat egin badezake ere.
- 3 Diskurtsoak progresio tematiko logikoa eta eraginkorra du, gorabeherarik gabea eta eskema argi batean oinarritua. Ideiak argi adierazten ditu hizkuntza-baliabideak estrategikoki erabiliz, eta sintesirako ere zehaztasun handia du. Batere arazorik gabe erabiltzen ditu kohesio-mekanismoak —batez ere, erreferentziak eta konexioa—, eta estrategikoki lotzen ditu berbardiko hizkuntza-unitateak. Haren mezua anbiguotasunik gabe ulertzen da lehen entzunaldian eta, diskurtsoaren ikuspegi osoa daukanez, badaki non indar egin.

JARIOTASUNA

- 1 Bat-batean eta xehetasunez jarduten ahalegintzen bada ere, solaskidea jabetu egiten da freskotasan faltaz. Baliabide faltak eraginda, askotan, geldialdiak egiten ditu edota ideia beraren bueltan ibiltzen da. Lanak ditu testua erregistro egokian esan eta ahoskatzeko, eta behar bezala erabiltzeko ebakera, bolumena, tonu-intonazioa eta pausa-isiluneak.

- 2 Bat-batean eta xehetasunez jarduten du berezko jariotasunez. Erritmo egokian aritzen da, eta etenak betetzeko baliabideak erakusten ditu. Oro har, egokiak dira ebakera, bolumena, tonu-intonazioa eta pausa-isiluneak.
- 3 Bere jardunean, ez du zailtasunik edo etenik, eta oso egokiak dira erritmoa edo abiadura. Maisuki menperatzen ditu ebakera, bolumena, tonu-intonazioa eta geldialdi-isiluneak.

ABERASTASUNA

- 1 Ez da behar bezain aberatsa hizkuntza-baliabideetan, eta kosta egiten zaio adierazi nahi duena malgu, eraginkor eta zehatz adieraztea. Enuntziatu landuak erabiltzean, batzuetan ez du asmatzen kohesio-formekin. Lexikoari dagokionez, zehatzasunik eza nabaria da hainbat kasutan.
- 2 Behar besteko hizkuntza-baliabideak erabiltzen ditu ideiak malgu eta eraginkor adierazteko, nahi duena nabarmenduz eta anbiguotasuna saihestuz. Enuntziatu landuak eta horien baliokideak erabiltzen ditu. Lexikoa, oro har, aberatsa da.
- 3 Hizkuntza-baliabideen ezagutza osoa duenez, ez du inolako arazorik esan beharrekoa malgu, eraginkor eta zehatz adierazteko, ideiak argi nabarmenduz eta anbiguotasuna saihestuz. Nahierara erabil ditzake esamolde idiomatikoak, zehar-esanak, hitz-jokoak, hitzen ñabardura txikiak, konnotazioak eta abar. Lexikoa oso aberatsa eta zehatza da.

ZUZENTASUNA

- 1 Alderdi morfosintaktikoan arazoa du, eta horregatik huts egiten du maiz jardunaren konexioan (testu-antolatzaileak behar bezala erabiliz) edo izen-nahiz aditz-kohesioan. Bere espezialitateari dagokion lexikoa zehatzasunik gabe erabiltzen du.
- 2 Alderdi morfosintaktikoan ez du aparteko arazorik, eta ondo gauzatzen ditu, bai jardunaren konexioa (testu-antolatzaileak behar bezala erabiliz), bai izen-nahiz aditz-kohesioa. Bere espezialitateari dagokion lexikoa zuzen erabiltzen du. Gai da, horrez gain, arreta beste zerbaitetan jarri arren (solaskidearen erreakzioetan edo aurrerago esan nahi dituenetan, esaterako), diskurtsoaren konplexutasunari zuzen eusteko, tarteka, hanka-sartze txikiren bat egiten badu ere.
- 3 Gramatika-arauak oso ondo menperatzen ditu, eta maisuki gauzatzen du jardunaren konexioa (testu-antolatzaileak behar bezala erabiliz), bai izen-, bai aditz-kohesioa egiteko. Nahiz eta diskurtsoa oso konplexua izan, edota arreta beste zerbaitetan jarri (solaskidearen erreakzioetan edo aurrerago esan nahi dituenetan, esaterako), haren jarduna zuzena da guztiz.



IRAKURMENA

- 1 Kosta egiten zaio kultur orokorreko nahiz maila jasoko testuak bere osotasunean ulertzea, eta arazoa du, unean uneko testuinguruan, ideia garrantzitsuenez nahiz osagarriez jabetzeko.

Eragozpena du gai zehatz nahiz abstraktuak ulertzeko, baita egitura konplexuak dituzten testuak ere, nahiz eta azken horiek bere arlokoak izan. Gehienetan, ez da gauza hainbat iturritatik jasotako informaziotik ondorioak eta zeharkako aipamenak ulertzeko.
- 2 Kultur orokorreko nahiz maila jasoko testuetan ideia garrantzitsuenez nahiz osagarriez jabetzen da, unean uneko testuinguruan.

Gai zehatz nahiz abstraktuak ulertzen ditu, baita egitura konplexuak dituzten testuak ere, bereziki bere arlokoak badira (txostenak, artikulua espezializatuak eta abar). Oro har, gai da hainbat iturritatik jasotako informaziotik ondorioak eta zeharkako aipamenak ulertzeko.
- 3 Oso ongi jabetzen da kultur orokorreko nahiz maila jasoko testuetan ideia garrantzitsuenez nahiz osagarriez, unean uneko testuinguruan.

Halaber, gaia zehatza nahiz abstraktua izan, bere arloko testuak ez ezik beste batzuk ere uler ditzake. Era berean, oso ongi ulertzeko gai da hainbat iturritatik jasotako informaziotik ondorioak eta zeharkako aipamenak.

IDAZMENA

EGOKITASUNA

- 1 Testua iluna eta desegokia da, ez baitu kontuan hartzen nori zuzentzen zaion, zertarako eta gaiaren nolakoa.

Estrategia komunikatiboak desegoki erabiltzen ditu, bai kultura orokorrari dagozkion gaietan, baita bere espezialitatekoan ere.
- 2 Testua, oro har, egokia da, kontuan hartzen baitu, neurri handi batean, nori zuzentzen zaion, zertarako eta gaiaren nolakoa. Testuinguruari ongi egokitzen zaio testua, estrategia komunikatiboak egoki erabiliz. Hala ere, tarteka, garrantzi txikiko okerrak egin ditzake ñabarduretan.
- 3 Testua oso argia eta egokia da, kontuan hartzen baitu, bete-betean, nori zuzentzen zaion, zertarako eta gaiaren nolakoa.

Estrategia komunikatiboak maisuki erabiltzen dituzenez, testua bete-betean egokitzen zaio testuinguruari.

KOHERENTZIA

- 1 Testuaren progresio tematikoa, batzuetan, ez da logikoa. Ideiak ez ditu behar bezain zehatz eta argi adierazten; alegia, antolaketa-egitura, lokailu eta kohesio-elementuetan ez du asmatzen. Kontraesanak ditu, baita lekuz kanpoko pasarteak edota informazio-jauzi eta hutsuneak ere. Testua interpretatu egin behar da maiz.
- 2 Testuak progresio tematiko logikoa eta eraginkorra du, eskema argi batean oinarritua dago-eta. Ideiak zehatz adierazten ditu, antolaketa-egitura, lokailu eta kohesio-elementuak estrategikoki erabiliz. Ondo bereizten ditu ideia garrantzitsuak, osagarriak eta xehetasunak eta, ondorioz, kontraesanik gabekoa da. Pasarteren batean hutsuneren bat egon badaiteke ere (alferrikako errepikapenen bat, betelana, lekuz kanpoko zerbeit...), lehen irakurraldian ongi ulertzen da testua.
- 3 Lokailu eta kohesio-elementuak zehaztasun osoz baliatzen ditu, eta testuaren antolaketa-egitura oso egokia eta argia da, kontraesan, hutsune edo betelanik gabea. Testuari erabateko koherentzia ematen dioten estrategia komunikatiboak oso ondo menperatzen ditu.

KOHESIOA

- 1 Desegoki erabiltzen ditu puntuazio-markak eta kohesio-mekanismoak –batez ere, erreferentziak eta konexioa–, eta ez du testuko hizkuntza-unitateak lotzen asmatzen (esaldiak, paragrafoak eta testua). Testuak gaizki ulertua izateko bidea ematen du.
- 2 Egoki erabiltzen ditu kohesio-mekanismoak –batez ere, erreferentziak eta konexioa–, eta egoki lotzen ditu testuko hizkuntza-unitateak (esaldiak, paragrafoak eta testua). Bestalde, puntuazioaren erabilera, oro har, zuzena da, nahiz eta garrantzi txikiko hutsegiteren bat egin dezakeen tarteka. Testuan ez dago kontraesan edo gaizki-ulerturik.
- 3 Erabateko zehaztasunez erabiltzen ditu puntuazio-markak eta kohesio-mekanismoak –batez ere, erreferentziak eta konexioa–, eta inolako eragozpenik gabe lotzen ditu testuko hizkuntza-unitateak (esaldiak, paragrafoak eta testua). Testua batere anbiguotasunik gabekoa da.

ABERASTASUNA

- 1 Hizkuntza-baliabidez urri samar dabil, eta kosta egiten zaio adierazi nahi duena malgutasunez, eraginkortasunez eta zehaztasunez adieraztea. Darabilen lexikoa ez da behar bezain zehatza.
- 2 Behar besteko hizkuntza-baliabideak erabiltzen ditu, nahi duena malgutasunez, eraginkortasunez eta zehaztasunez adierazteko, ideiak nabarmenduz eta anbiguotasuna saihestuz. Lexiko aberatsa erabiltzen du.



- 3 Hizkuntza-baliabideen ezagutza osoa duenez, nahi duena erabateko malgutasun, eraginkortasun eta zehaztasunez adierazteaz aparte, gauza da lerro arteko mezuak sortzeko, baita testua zehar-esan, metafora edo hitz-jokoz aberasteko ere.

ZUZENTASUNA

- 1 Lanak ditu, bai testu barruko konexioa (testu-antolatzaileak behar bezala erabiliz), bai izen- nahiz aditz-kohesioa egoki egiteko. Idazketan ager daiteke ortografia-akatsik, eta puntuazio-markak oker erabiltzeak, sarri, testua iluntzen du.
- 2 Morfosintaxian ez du aparteko arazorik izaten, nahiz eta, zenbaitetan sintaxia gehiegi korapilatzearen ondorioz, mezua ilundu dezakeen. Ez du ortografia-akatsik egiten, eta ez du oztoporik puntuazio-marken erabileran. Bere arloari dagokion lexikoa zuzen erabiltzen du.
- 3 Morfosintaxian ez du inolako arazorik, oso ondo egokitzen baitzaizkio testuaren mailari erabiltzen dituen egiturak, lexikoa eta sintaxia. Erabat zuzena da ortografia eta puntuazio-marken erabilera. Lexikoa, orokorra nahiz espezialitatekoa, erabat zuzena eta aberatsa da.

CURRICULUM LANGAIAK



TESTU-EREDUAK

ENTZUMENA

Ekintza komunikatiboa: Elkarrizketa batean, senitartekoek elkar agurtzeko eta aurkezteko erabilitako ohiko formulak ulertzea.

Iloba bisitan



Transkripzioa

-  **A1-E-T-Iloba bisitan.pdf**

Ekintza komunikatiboa: Zinemako sarrera erostean, leihatilako langileak egindako galderak ulertzea (informazio nagusia).

Zinemako leihatilan



Transkripzioa

-  **A1-E-T-Zinemako leihatilan.pdf**

MINTZAMENA

Ekintza komunikatiboa: Lagunei eguneroko bizitzako kontuekin zerikusia duen mesede bat eskatzea.

Utziko didazu hiztegia?



Transkripzioa

-  A1-M-T-Utziko didazu hiztegia.pdf

Ekintza komunikatiboa: Bere kidekoen artean, bere buruaren edota gainerakoen aurkezpena egitea.

Lagun bat aurkeztuz



Transkripzioa

-  A1-M-T-Lagun bat aurkeztuz.pdf

IRAKURMENA

Ekintza komunikatiboa: Eguneroko bizitzako zenbait egoeratan — etxetresnei buruzko instrukzioak, esaterako—, oinarrizko hitz eta esaldi sinplez osatutako jarraibide errazak ulertzea.

Jarraibidea

Joseba:

Ni lanera noa eta ez ahaztu: garbigailua jarri.

Gogoratu:

“Hartu arropa eta sartu garbigailuan. Gero, ipini xaboia lehenengo kutxatilan eta leungarria bigarreanean. Jarraian, aukeratu programa eta temperatura, eta sakatu botoia. Bukatu ondoren, atera arropa eta eseki eguzkitan.”

Ama

Ekintza komunikatiboa: Herritarrei informazioa jakinarazteko asmoz, leku publikoetan jartzen diren hitz eta esapideak ulertzea.

Liburutegiko arauak

- Debekatuta dago erretzea, edatea edo jatea.
- Derrigorrezkoa da isilik egotea.

IDAZMENA

Ekintza komunikatiboa: Objektuak zerrendatzea, zerbait egiteko xedez —jan-edariak erosi, adibidez—.

Erosketa-zerrenda

Jaione:

Hemen duzu erosketa-zerrenda. Dendara joan eta erosi.

Ama

- Lekak
- Patatak
- Baratxuriak
- Xerrak (bi / pare bat)
- Antxoak
- Meloia
- Olio
- Gailetak
- Ogia
- Marmelada
- Kafea
- Mahats zuria
- Ardo beltza (botila bat)
- Ura
- Esnea

Ekintza komunikatiboa: Familiako kide bati, zerbait eginarazteko helburuarekin, mezu labur eta erraz bat idaztea.

Oharra semeari

Gaur, zinemara goaz lagun batzuekin, eta berandu iritsiko gara afaltzera. Erosi ogia, mesedez.

Aita eta ama


ENTZUMENA

Ekintza komunikatiboa: Etxe bat alokatzeko xedez, ideia garrantzitsuenak ulertzea lagun edo ezagun batekin izandako elkarrizketa batean.

Etxe bat alokatu nahi dut



Transkripzioa

-  **A2-E-T-Etxe bat alokatu.pdf**

Ekintza komunikatiboa: Helbide jakin baten inguruan ematen diren argibideak ulertzea.

Kultur etxera iritsi nahian



Transkripzioa

-  **A2-E-T-Kultur etxera iritsi nahian.pdf**

MINTZAMENA

Ekintza komunikatiboa: Lagunartean eta aurrez aurre, pertsonen, lekuen, paisaien eta eguraldiaren deskribapen xume eta objektiboak egitea, oinarritzko konparazio sinple batzuk eginez.

Norwegian bizi naiz



Transkripzioa

-  A2-M-T-Norwegian.pdf

Ekintza komunikatiboa: Lagunartean, besteak jakinaren gainean jartzeko helburuz eta esaldi sinpleak erabiliz, film bati buruzko aurkezpen laburra egitea.

Erakutsidazu bidea, Ixabel



Transkripzioa

-  A2-M-T-Erakutsidazu bidea.pdf

IRAKURMENA

Ekintza komunikatiboa: Toki publikoetan, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuetan, adibidez, jokamoldeei buruzko arau erraz eta sinpleak ulertzea.

Igerilekuetako araudia eta aholkuak

Igerilekuetako araudia:

- Bete itzazu beti langileen eta sorosleen agindu eta esanak.
- 7 urtetik beherako haurrak arduradun batekin sartuko dira igerilekura. Heldu bakoitzak, gehienez, 5 umeren ardura izango du.
- Bainatu aurretik, dutxatu egin behar da.
- Igerilekuetara sartzeko, oinak garbitzeko gunetik pasatu behar da.
- Motxilak edo poltsak gordetzeko, erabili itzazu aldageletako armairuak.
- Esparru osoan, debekatuta dago jatea eta erretzea.
- Beirazko ontziak ezin dira erabili.
- Komun eta aldageletan, derrigorrez erabili behar dira txankletak.
- Kirol-materiala sorosleari eskatu behar zaio eta, ondoren, material hori egoera onean itzuli behar da.

Aholkuak:

- Uretan sartu aurretik, igerilekuaren sakonera egiaztatzea komeni da.
- Gomendagarria da txanoa erabiltzea.
- Azala hobeto zaintzeko, gomendagarria da bainatu ondoren dutxatzea.
- Kirola egin aurretik, komenigarria da beroketak egitea.

Ekintza komunikatiboa: Jakin-mina asetzeko helburuz, egunkarietako berri laburren informazio nagusia ulertzea.

Aimar Olaizola txapelduna

Buruz buruko laugarren txapela lortu zuen herenegun, Irujoren aurka erraz irabazita (22-7). Final bikaina jokatu zuen, ondo sakatuz eta kontrarioari aukerarik eman gabe.



Hasiera-hasieratik nagusitu zen. Abantaila handia hartu zuen, eta Irujok ez zuen partidari buelta ematerik izan. Elkarren aurka jokatzen zuten bosgarren finala zen; hiru txapel Irujorentzat izan dira, eta beste biak Aimarren burura joan dira.

Magro, Imanol
Berria (2013/06/25)
(moldatua)

IDAZMENA

Ekintza komunikatiboa: Lagunari gonbidapen-mezu bat bidaltzea, oinarrizko argibide batzuk emanez.

Gonbidapen-oharra

Aupa, Mikel!

Bihar, auzoko taberna berrian, jai berezia antolatu dute auzokoentzat. Jaia arratsaldeko 20:00etan etan hasiko da, eta afaria bertan emango dute. Taberna kultur etxearen parean dago, okindegiaren ondoan, eta oso handia eta polita da. Joango gara? Bidali mezu bat, edo deitu telefonoz.

Iker

Ekintza komunikatiboa: Lagunei, mezu bidez, oporren inguruko proposamen baten aurrean desadostasuna adieraztea; baita beste proposamen bat egitea ere.

Oporrak erabakitzen

Aupa, kuadrilla!

Ni ez nago ados Patxiren proposamenarekin, ez dut Portugalera joan nahi. Zergatik ez Eivissara? Hasi naiz pixka bat begiratzen, eta eskaintza oso interesgarriak daude. Nahi baduzue, nik aukeratuko dut hotela...

Esango didazue!

Igor

ENTZUMENA

Ekintza komunikatiboa: Lagunek, aurrez aurre nahiz telefonoz, kontaktzen dituzten bizipenak ulertzea.

Kontaketa

Transkripzioa

-  **B1-E-T-Kontaketa.pdf**

Ekintza komunikatiboa: Lagunartean eta aurrez aurre, eguneroko gaietarako buruzko elkarrizketak ulertzea.

Arrandegian entzundakoa

Transkripzioa

-  **B1-E-T-Arrandegian entzundakoa.pdf**

MINTZAMENA

Ekintza komunikatiboa: Ezagunen eta lagunen artean asmoak zehatz azaltzea.

Asmoak zehazten



Transkripzioa

-  B1-M-T-Asmoak zehazten.pdf

Ekintza komunikatiboa: Egoera jakin bat konpontzeko, telefonoz, Administrazioari argibideak modu sinplean eskatzea.

Euskara-ikastaroa



Transkripzioa

-  B1-M-T-Euskara-ikastaroa.pdf

IRAKURMENA

Ekintza komunikatiboa: Aldizkari batean, gai bati buruzko garrantzizko informazioa aurkitzea eta ulertzea.

Egoki argaltzeko

“Pisua da jaten dugunaren eta gastatzen ditugun kalorien arteko emaitza.” Hori dela-eta, hona hemen 10 aholku osasuntsu argaltzeko:

- Beste era batean jaten ohitu: pixkana, ez kolpetik. Kolpetik kentzen diren kiloak kolpetik hartzen dira.
- Jaten dena ez da dieta bezala ulertu behar. Ohiturak aldatzea da kontua.
- Zaindu zer jaten den: erreparatu kantitateari eta kalitateari. Otordu guztiak egin.
- Eserita jan; zutik edo ibilian eginez gero, gehiago jaten da.
- Poliki jan eta ondo mastekatu.
- Tea edan; gantza azkarrago galtzen laguntzen du.
- Otorduak egunero ordu berean egiteak lagundu egiten du.
- Otordu bakoitzaren aurretik 2 baso ur edan.
- Ariketa fisikoa egin. Gustukoa den edozein izan daiteke: bizikleta, lasterka egitea, igeriketa, ibiltzea... Mugitzea da kontua, egun batetik bestera utziko ez den zerbait egitea. Gosaldu aurretik egiten bada, hobeto.
- Ez erabili janaria antsietateari kontra egiteko. Saiatu erlaxazio-ariketak egiten.

Ekintza komunikatiboa: Ikastetxe batetik jasotako eskutitza ulertzea, informazio xehea eskuratze aldera.



Ikastetxeko gutuna

PELLO ERROTA IKASTETXEA

BHI

Guraso agurgarriok:

Gutun honen bidez, gure ikastetxean aspaldian martxan dauden proiektuen berri eman nahi dizuegu: **HIZKUNTZA-NORMALKUNTZA** eta **AGENDA 21**.

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA

ZEINTZUK DIRA HELBURUAK?

- Ikastetxeko esparru guztietan euskararen erabilera bultzatzea.
- Hizkuntzaren erabilpena institututik kanpo zabaltzea.
- Herrian euskal kultura eta ohiturak bultzatzeko aurrera eramaten diren ekintzetan parte aktiboa hartzea.

ZER EGITEN DUGU?

- Irratigintza ikasturtean zehar eta irrati-maratoia Euskararen Eguna ospatzeko (abenduarien 3a).
- Lehiaketak: Literatur lehiaketak, "Piropro" lehiaketa, "Olentzero Txiki" lehiaketa...
- Agate Deuna.
- Euskal aste kulturalaren barruan, hainbat ekitaldi: bertso-saioak, herri-kirolak, betiko jolasak, kontzertuak, hitzaldiak...
- Korrika, eta beste.

AGENDA 21

Eskolako Agenda 21 ekintza-plan bat da: batetik, hezkuntza-komunitatearen konpromisoa hobetzeko, eta, bestetik, ikastetxearen ingurumena eta alderdi soziala hobetzeko. Hauek dira eskolako Agenda 21en funtsezko oinarriak:

- Eskolaren ingurumena hobetzea.
- Berrikuntza eta hezkuntza-kalitatea lortzea.
- Tokiko komunitatean parte hartzea.

Proiektu horiek aurrera eramateko, garrantzitsua ikusten dugu zuen laguntza, eskolaren eta familiaren arteko harremanak indartzeko eta biak ildo beretik joan daitezen ikaslearen heziketan.

Besterik gabe, adeitasunez.

OHARRA: Ados bazaudete, bete eta eman tutoreari zuen seme-alabaren bidez.

Ni

NORMALKUNTZA proiektuan parte hartzeko prest nago.

Arrasaten, 2012ko azaroaren 6an

IDAZMENA

Ekintza komunikatiboa: Arazoren bati konponbidea ematearren, eskaeragutun bat egitea ezagun zein ezezagunei, egoera zein den adieraziz eta eskaeraren arrazoiak zehaztuz.

Eskari-gutuna

Kaixo, blogari lagunok:

Kairon nabil; eta, gaur, bizikleta lapurtu didatela konturatu naiz. Hiru urte daramatzat Afrikari buelta ematen bizikletan, eta hau da bizikleta lapurtu didaten lehen aldia. Atzo, Kairora iritsi, eta lau bat orduan ibili nintzen, lo egiteko leku merke baten bila. Azkenean, gustuko ostatua aurkitu nuen, logela partekatu batean, jakina. Hotelak badu aldamenen garaje bat-edo, eta hantxe utzi nuen bizikleta, lotuta. Gaur goizean, bizikletaren bila joan naizenean, ez zegoen.

Kontu horrek, noski, hankaz gora jarri du nire proiektua. Izan ere, hori burutzen jarraitzeko beste bizikleta bat behar dut, baina ez edozein bizikleta; lehengoa bezalakoa behar dut, eta hemen ez dago. Bizikleta *Olov bike* markakoa da, Alemanian egindakoa. Beraz, horrelako bat lortzeko laguntza eskatu nahi dizuet. Gastu guztiak ordainduko ditut, jakina. Nire bidaiari buruz idatzi dudan liburua laster argitaratuko da, eta hango irabaziekin ordainduko dizuet.

Zuen berrien zain geratzen naiz. Besarkada bana!

Ekintza komunikatiboa: Behar duen zerbait iragartzea, ohar-taula batean informazioa eskainiz.

Zaintzailea behar da

Zaintzaile bat behar da, Alzheimer gaitza daukan adineko gizon bat zaintzeko. Lan-ordutegia: arratsaldeko 15:00etatik goizeko 8:00etara. Zaintzaileak gaixoarekin pasatu beharko du gaua. Beharrezkoa da autoa izatea eta era horretako ezinduekin eskarmentua edukitzea. Euskaraz jakitea kontuan hartuko da. Interesa daukanak deitu telefono-zenbaki honetara: 666222444. Soldata eta beste xehetasun batzuk telefono bidez argituko dira.

ENTZUMENA

Ekintza komunikatiboa: Komunikabideetan, ohiko gai baten inguruan, elkarrizketa bat ulertzea.

Zer egin krisitik ateratzeko?



Transkripzioa

-  B2-E-T-Zer egin krisitik ateratzeko.pdf

Ekintza komunikatiboa: Tokian tokiko hizkeran ematen diren hedabideetako elkarrizketak ulertzea.

Idoia Etxeberria harri-jasotzailea



Transkripzioa

-  B2-E-T-Idoia Etxeberria.pdf

MINTZAMENA

Ekintza komunikatiboa: Erakunde batean jasotako zerbitzu eskasagatik, aurrez aurre, kexa adieraztea, horri buruzko azalpenak emanez eta enplegatuak egindako galderei erantzunez.

Banketxeko gorabehera



Transkripzioa

-  B2-M-T-Banketxeko gorabehera.pdf

Ekintza komunikatiboa: Erakunde batean, ezezagunei, erreklamazio zehatz bat egitea, azaldutakoaren inguruan konponbidea eskatuz.

Telefono-zerbitzura kexaka



Transkripzioa

-  B2-M-T-Telefono-zerbitzura.pdf

IRAKURMENA

Ekintza komunikatiboa: Antzezlan baten kritika ulertzea, egunkarian.

'Bejondaigula!'

Sinopsia

Bizitzan korapilatuta dabilta aspaldiko bi lagun. Biak ala biak dira aktoreak, eta gaurkoa izango da elkarrekin egingo duten azken emanaldia. Agertokira irten aurreko prestaketetan ari dira, egunero bezala. Hala ere, zerbait gertatuko da eszenatokira irten aurretik, eta ustekabeko egoera berriari aurre egin beharko diote; ikuslea bihurtzen da horren guztiaren lekuko.

Carles Alberolak idatzitako komedia dramatiko honek maisuki konbinatzen ditu giza ikuspegitik interesekoak diren osagai ugari. Itxuraz bada ere, hasiera batean argumentu zehatzik ez izateak naturalagoa egiten du antzezlan. Izan ere, bizitzak berak ez baitauka argumentu zehatzik, eta, beharbada, horrexegatik egiten zaigu aldi behin zoragarria.

Ramon Agirre eta Niko Lizeaga dira bizitzaren korapilo honen protagonistak, eszena-teknikariaren esku-hartze txukuna ahaztu gabe, eta bikote bikaina sortu dute egilearen beraren zuzendaritzapean eta Aitziber Garmendiaren laguntzarekin. Ramon bere saltsan ibili da pertsonaia zirikatzaile, bakarti eta, itxura batean, aldaezinean sartuta; Nikok, berriz, tinkotasun handia erakutsi du agertokian.

Euskarara egindako egokitzapenarekin, bestalde, bete-betean asmatu dute itzultzaileek —Xabier Etxaniz Rojok eta Ramon Agirrek berak—, hizkera arina eta hizkuntzaren berezko dotorezia lotuz. Gainera, jatorrizko testuak Valentziako gizarte eta pertsonaiei egiten diela erreferentzia kontuan hartuz, eredugarria izan da geure testuingurura egindako moldaketa.

Perez, Agus
Berria (2012-08-11)
 (moldatua)

Ekintza komunikatiboa: Herri-aldizkari batean argitaratutako liburu baten kritika ulertzea.

Alkasoroko benta

Nafarroako Bortzirietan irudizko beste herri bat sortuz gero, eskualdea *Seierri* bihurtzen zaigu. Irudizko herri hori da Alkasoro, eta bertako bentako semea, Martin Irazoki, Mikel Tabernaren nobela honetako protagonista eta narratzailea. Lekua eta narratzailea zehaztuta, garaian ere ederki kokatzen gaitu egileak: 50eko hamarkadan jaiotako ume batek 70eko hamarkadaren erdialdera arteko bizipenak kontatzen dizkigu —data jakin gutxi aipatu arren—, adin batetik aurrerako irakurleei oso ezagunak gertatuko zaizkien benetako pasadizoen bidez. Gainera, kontakizun kostunbrista da eleberria, orduko ohiturak eta bizimodua ederki islatzen baititu idazleak. Badu nobelak mota horretako istorioen beste ezaugarri bat ere: pertsonaia ugaritasuna. Halere, ez dadila kezkatu irakurlea izenak nahasten dituen horietakoa bada. Pertsonaiak liburuaren 10 kapituluetan zehar agertu eta desagertu arren, atalak nahiko independenteak dira, eta lotzen dituen ildoak Martin bera da.

Lehen pertsonan kontatzen du istorioa Martinek. Hortaz, idazleak darabilen hizkuntza haren hizkerari egokitzen zaio: esaldi labur eta espontaneoak dira nagusi, umore puntu bat eta inguru hartako euskalkiaren ukituekin. Gainera, hurbilekoa ez den irakurlearentzat arrotzen gerta daitezkeen hitz eta esamoldeak erraz ulertzen dira, testuingurua lagun.

Irakurketa atsegina, amaierako sorpresa eta guzti, Tabernak irakurleari eskaintzen diona.

Taberna, Mikel
Aizu! aldizkaria (2013-09)
(moldatua)

IDAZMENA

Ekintza komunikatiboa: Elkarre bateko kide izanik, bertako bazkide guztiei gutun bat idaztea, zerbait eskatuz eta zerbaiten berri emanez.

Ibiltari Elkarrea

Bazkide hori:

Dakizun bezala, iazko azken batzarrean honako bi berrikuntza adostu genituen urte honetarako: kontabilitate-sistema hobetzeko aplikazio berria ezartzea, alde batetik, eta bazkide-txartela berritzea, bestetik.

Aplikazioaren ezarpenari dagokionez, aldaketa datorren astean egingo dela jakinarazi nahi dizut. Ondorioz, aurtengo diru-kontuen berri martxoan emango dugu, eta ez otsailean, orain arte bezala.

Bazkide-txartelak berritzeko, bestalde, kide bakoitzaren hainbat datu eta argazki bat beharko ditugu. Beraz, lehenbailehen elkartetik pasatzea eskatu nahi dizut, zure datuak eguneratzeko. Ezin bazara etorri, mesedez, deitu telefonoz, edo bidali mezu bat gure ohiko helbidera.

Besterik gabe, laster arte.

Donostian, 2012ko otsailaren 3an.

Ibiltari Elkarteko idazkaria

Ekintza komunikatiboa: Zerbaiten inguruko jarrera edo sentimendua adieraztea, egunkari bateko *Zuzendariari gutuna* sailean.

Telezaborra

Egunkari honetan bertan, iritzi-artikulu bat irakurri nuen otsailaren 14an, eta ez nago batere ados ematen zen iritziarekin. Nolatan esan daiteke gure telebista Europako enpresa berria dela, eta, ondorioz, kalitate-maila handikoa eta ikusle guztientzako modukoa?

Egungo saio askok ez dute mamirik; aspergarriak dira, eta askotan ikusiak edo aurrez emanak direla dirudi. Ikusle asko nazkatu samar gaude errepikapenekin: duela lau edo bost urteko pilota-partidak, aspaldiko trikitalari-txapelketak, *Goenkale* bezalako telesail zaharrak... Kirol-saioak, batez ere, behin eta berriz errepikatzen dira, urtero-urtero.

Haurren programazioari dagokionez, badago zertaz kezkatu: japoniar marrazki bizidunak dira nagusi, eta Euskal Herrian ekoiztakoak alde batera uzten dira edo zentzurik ez duen ordutegietan jartzen dituzte; Txiritarenak edo Lazkao Txikirenak, esaterako, goizeko 4:00etan! Iruditzen zait gure telebistak hemengo pertsonaiak eta giroa kontuan behar dituela. Baita umeen kasuan ere.

Azkenik, txutxu-mutxu saioei buruz ere zerbait komentatu nahiko nuke. Egia da saio horietako batzuek jendea entretenitzeko balio dutela, baina beste askok jendearen intimitatea urratzen dute, besteen bizitzetan sartuz eta horrekin sentsazionalismoa eginez. Hain zaila al da, entretenitzeaz aparte, baloreak kontuan hartzen dituen programazioa egitea?

Uste dut nire iritzi berriak direla telebista-ikusle asko.

Estanis Murgiondo

ENTZUMENA

Ekintza komunikatiboa: Jendurrean egindako adierazpenak ulertzea, baldin eta gaia ezaguna badu. Ñabardura eta xehetasunez ere ohartzea.

Garoña, noiz arte?



Transkripzioa

-  C1-E-T-Garoña.pdf

Ekintza komunikatiboa: Gai ezagun bati buruz jendurreko adierazpenak ulertzea; baita azentuaren edo intonazioaren bidez transmititzen diren ñabardurez jabetzea ere.

Itsas Aurreren manifestua



Transkripzioa

-  C1-E-T-Itsas Aurre.pdf

MINTZAMENA

Ekintza komunikatiboa: Auzo-bilera batean gai bati buruzko argudioak argi garatzea eta, alderdi nagusiak ongi nabarmenduz, egoeraren berri argi ematea.

Garajeen aparkalekua dutenei ezkaratzeko giltza eman edo ez



Transkripzioa

-  C1-M-T-Garajeen aparkalekua.pdf

Ekintza komunikatiboa: Ekimen baten inguruko solasaldi bizi batean naturaltasun osoz parte hartzea, argibideak bat-batean emanez.

Emakume baserritarren argazki-erakusketa Zizurkilen



Transkripzioa

-  C1-M-T-Emakume baserritarren.pdf

IRAKURMENA

Ekintza komunikatiboa: Gaia orokorra edo bere arlokoa izanik, blog batean argitaratutako erreportajea ulertzea; xehetasunak eta deskribapenak ere ongi jasotzea.

Bertsoa eta Zinema (eta X). Azken urteak.

Trantsizioko lehen urte emankorretan piztutako itxaropen asko, beste hainbat arlotan bezala, laster zapuztu ziren euskal zinemagintzan, eta urte gutxiren buruan lehorre handia iritsi zen. Hala, kontua ez da bakarrik bertsolariak ez zela gehiago agertu pantaila handian, baizik eta Ezeizak 1989an *Ke arteko egunak* aurkeztu zuenetik, euskara bera apenas entzun genuela 2005ean Asier Altuna eta Telmo Esnaola *Aupa Etxebeste* estreinatu zen arte.

Euskal Zinemaren krisiaren arrazoiak bilatzea beste baterako utziko dut. Alta, bertsolarien zeluloidetiko desagertzearen, dudarik gabe, zerikusi handia izan zuen ETBren sorrerak eta, bereziki, 1990ean *Hitzetik Hortzera* saioaren agerpenak. Bertsolariaren boomaren garaia zen, eta, testuinguru hartan, pantaila handian sekula ukan ez zuen espazioa pantaila txikian aurkitu zuen bertsoak. Joxerra Garziaren programak lortu zuen, azkenean, bertsoari ikus-entzunezko medioetan lekua egitea, *kritikaren eta publikoaren* arrakastak ematen duten zilegitasunaz. Aldi berean, *Hitzetik hortzerak* bertsolariak kameraren presentziara ohitzea lortu zuen, ordura arte asko uzkur baitziren.

Telebistaren eta bertsoaren arteko maitasun istorio horrek beste atal garrantzitsu bat ere izan zuen goeko hamarkadan: lehen aipatutako film aitzindariaren haritik, Joanba Berasategik 1995etik aurrera zuzendutako marrazki bizidunen hiru serie arrakastatsuek etorri ziren: *Fernando Amezketarra* (1994-95), *Lazkao Txiki* (1998-99) eta *Txirrita* (1999-2000).

Hiru bertsolari handion bizitza eta pasadizoak klabe umoretsuan kontatzen zituzten marrazki bizidunek, haien *bihotz oneko bizizale* profilarik zekua atereaz. Oraingoan ere, luxuzko kolaborazioak izan zituen Berasategik, Fernando Amezketarra serieko pertsonaien ahotsak bertsolariak jarri baitzituzten (Sebastian Lizaso Fernando izan zen, Peñagarikano aguazila, Egaña epailea eta Azpillaga apaiza). Txirritaren kredituetako kantua, berriz, Xabier Letek eta Antton Valverde kantatu zuten. Bestalde, gidoi guztiez Koldo Izagirre arduratu zen, beste behin ere.

Zeluloidezko begiradak (Elkar, 2010) libururako Mikel Garcia kazetariak egindako elkarrizketan, Berasategik kariñoz oroitzen ditu telesail haiek, nahiz eta pena agertu teknika aldetik "kaxkarrak" zirelako. "Proiektuak aurrekontu handiagoa behar zuen, bideratutako diruarekin gehiago ezin zen egin, baina aldi berean pentsatzen nuen Euskal Herriak behar zuela *Lazkao Txiki* bat. ETBra joan nintzen kapitulu pilotuarekin, eta orduan

Amatiño zegoen; zera esan zidan: “Ondo dago, baina kendu, kendu”. “Kendu? Kendu ez! Telesailak familiak biltzen zituen, aitona-amonak eta bilobak, eta erantzukizuna daukazu produktu duina eskaintzeko. Horregatik pentsatzen dut, diru pixka bat gehixeago! Nire publikoak merezi duelako irudi zainduagoa, eta gero bizitza osorako, betiko geratuko delako”. Aipatutako liburuan agertzen denez, Lazkao Txiki telesaioak futbolak baino audientzia hobeak ematen omen zizkion telebista autonomikoari, baina, bat-batean, kostu txikia eta arrakasta handia zuen produktua bazter uztea erabaki zuten agintariek. “Nik uste arrakastari beldur izan ziola ETBk”, dio liburuan Berasategik.

Dena zapuztu zenean, Bilintxi buruzko telesail bat egitea zen haren hurrengo proiektua.

Loraldiaren fruituen zain

2005ean *Aupa Etxebeste* estreinatu zenetik, euskal zinemak *loraldia* bizi duela diote zenbaitek. Agian, gehiegi esatea da hori, baina, gauzak bere neurrian hartuta, egia da dokumentalez gain azken urteotan ia urtero aurkeztu direla fikziozko euskarazko film bat edo bi, eta horrek, gure historia petralari erreparatuta, inoizko uzta-sasoirik onenean kokatzen gaitu.

Uztaldi horretan, aurtengo Donostiako Zinemaldian Altunak Bertsolari dokumentala aurkeztu duen arte, ez da gaiari zuzenean heldu dion lanik egon. Baina, hala ere, gaur egun ikusleak bertsoa zinemagintzan inoizko naturalen ikusten duelakoan nago, eta,aldi berean, zinemagileak inoizko naturalen erabiltzen duela baliabide zinatografiko legez. Hala, azkenaldiko dokumental askok errekurtsu narratibo gisa erabili dute bertsoa; *La Pelota Vascan* (Julio Medem, 2001), adibidez, Xabier Euzkitzeren interbentzioetako bat, zortziko txikian emana da. Txikiri eta Otaegiri buruzko *Haizea eta Sustraiak* (2008) filmean, berriz, Jon Maiaren bertsoek osatzen dute narrazioaren *hitzaurrea* eta *epilogo*a. Fikzioan ere, *Kutsidazu bidea Ixabel* (Mireia Gabilondo eta Fernando Bernues, 2007) komedian, *gag* arrakastatsua izan zen Juan Martin euskaldun berria zutitu eta, Ixabel inpresionatzeko, pilotaria herri osoaren aurrean *bertsoz* desafiatzen duen eszena: ikusleek egoera gertuko sentitu zuten seinale.

Telebistaren bidez bertsoak pantailan zegokion lekua irabazi zuenetik, bertsoaren eta zinemaren arteko harremana normaldu egin da, eta ziur naiz aurrerantzean euskal imaginarioan eta euskal komunitatean hain indartsua den arteak euskal zineman gero eta presentzia handiagoa izango duela.

Hurrengo alea, agian, Mireia Gabilondo eta Patxo Telleriak buruan daukaten fikziozko proiektuari buruzkoa izango da. 1967ko finaleko txistuen unean denbora izoztuz, *flashback*-en bidez, Xalbadorren bizitza kontatzea. Ikusiko dugu.

Martinez, Josu
Irudiz eta euskaraz bloga (2013-03-18)
(moldatua)

Ekintza komunikatiboa: Konbentzitzeko helburuz hedabide batean idatzitako iritzi-artikuluak ondo ulertzea; betiere, gaia ezaguna bada.

Neskak mutil-dantzari

Emakumeak mutil-dantzari? Kontu hutsala dirudi, baina atzo, arratsaldeko 5etan, 180 iruzkin zituen horren inguruko azken albisteak, egunkari honen edizio digitalean. Ez dakit zuzen zer gertatu zen lehengoan Elbeten. Ideia onek defendatzaile txarrak izaten dituzte batzuetan. Garbi baitago tradizioak fosil huts gelditzen direla, gizartearen aldaketekin batera kanbiatzen ez badira. Duela 50 urte arte, gizonezkoa zen Euskal Herriko ospakizunetako ardatza. Harendako zen besta. Harena zen espazio publikoa. Emakumearena, berriz, sukaldea edo etxe barrena. Handik kanpora, ikusle. Hori konprenitu gabe ez da konprenitzen ahal gure folkloreak agerpen gehienek (izan) duten kutsu maskulinoa. Gure garaietako iraultza da emakumearen plazaratzea, hitz horrek duen adierarik zabalenean. Mutil-dantza erakustaldi erritmiko hutsa baino gehiago da Baztango herrietako bestetan. Nor harrituko emakumeak bertan egon nahi izatea, protagonista, gizonen pare? Duela 40 urte inon ez zen emazteki aurrekularirik edo joaldunik. Lapurdin eta Nafarroa Beherean gizonen kontu hutsa ziren mutxikoak. Eta zer erran maskaradez eta pastorelez, Zuberoan. Gaur egun, emakumeen parte-hartzea onartua eta normalizatu da horietan guztietan. Are gehiago, zenbait kasutan, biziraupena segurtatu dio ospakizunari. Izena eta izana arrazoitzen dute emakumea mutil-dantzatik urruntzeko. Euskararik ez dakite? Baztaneraz, tradizioz, mutila morroia da. Sehia. Mirabea. Etxeko zerbitzaria, hura gizona delarik. Halako guti ikusten da, gaur egun, mutil-dantzan. Beharbada, gisa horretako mutilik gelditzen ez delako ia-ia. Eta adiera berriagoa –edo zabalagoa– hautaturik, mutila gizon gaztea baldin bada, zertan ari dira 50 urteak gibelera aspaldi utzi dituzten mutikoak beren tripatzarrekin mutil-dantzan? Bidasoa fundamentalista kantatzen zuen Muguruzak. Baztango urek Hondarribiaraino ailegatzen segitu behar lukete. Ez alderantziz.

Epaltza, Aingeru

Diario de Noticias de Navarra (2013-09-17)

IDAZMENA

Ekintza komunikatiboa: Gai bati buruzko proposamenak eta eskariak egitea *Zuzendariari gutunak* sailean, besteak ohartaraziz eta erantzuna ematera bultzatzeko asmoz.

Zinemaldia: Olaziregi jaunari eskaera

Berandu baino lehen, Donostiako Zinemaldia eta zinema, oro har, euskalduna izango da. Horren zalantzarik ez izan. Bitartean, hemen gabilta zerbait txukuna egin nahi eta asmatu ezinik. Edo aurrera egin ezinik.

Zinemaldia garai polita da zinema gustatzen zaionarentzat eta filmak ikusteko aukera duenarentzat. Zinefiloak gozatu egiten du egun horietan. Batek baino gehiagok, berariaz, jai hartzen du egun horietan. Askok bonoak erosten ditu, horrela merkeagoa delako; dena den, urtean zehar ohiko sarrera baino garestiagoa ez da. Ondo dago Zinemaldia.

Gauza polit asko kontu genitzake Zinemaldiaz. Baina nola sentitzen da euskaraz bizi nahi duen herritarra? Bermatua al du honek bere eskubidea?

Egia da azken urte hauetan aurrerapenak egin direla; esate baterako, iaz, *Zinemira- Euskal Zinemaren Panorama* izenarekin egun bat eskaini zitzaion euskarazko zinemari, eta ezin ukatu hori aurrerapausoa dela. Dena den, oraindik, badago zer eginik.

Hauk dira egiten dizkizugun eskaerak:

- Euskarazko emanaldiak sail guztietara zabaltzea.
- Bikoizketak ugaritzea.
- Film guztiak azpigitulatuak izatea.
- *Festival* egunkarian euskara modu orekatuan erabiltzea.
- Iragarkiak, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak argitaratzen dituenak barne, % 50 behintzat, euskaraz izatea.
- Ahozko erabilera, agurrak egitera mugatu ordeztu eta, bi hitzetan gelditu ordeztu, euskaraz modu normalizatuan egitea.
- Solasaldietan eta aurkezpenetan, euskara normaltasunez erabiltzea.
- Sari banaketako emanaldiak euskaraz egitea.
- Interneten ere euskarari dagokion garrantzia ematea.

Ez dakit jakingo duzun, baina urtero *Bagera* Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak Zinemaldiaren hizkuntza erabileraren neurketa egiten du. Txosten horretatik ateratako ondorioak dira hemen aipatzen direnak.

Neurri horiek hartuz gero, euskaldunon eskubideak betetzetik hurbilago egongo ginateke, eta zu ere zuzendariago izango zinateke. Ez al zaizu iruditzen?

Zinemaldiaren ondoren, ohiko zinemara ere jo behar dugu; izan ere, hor ere gabezia handiak daude, eta bada garaia mundu hori normaltzen joateko. Baina gai hori beste baterako utziko dugu. Hemen, Zinemaldiari lotuko gatzazkio. Ea 58. ekitaldi honen begirada probokatzailleak txunditzen gaituen eta maitemindurik gelditzen garen.

Arrizabalaga, Jexux (*Batzen-eko kidea*)
Zuzendariari gutuna
Berria (2010-05-05)

Ekintza komunikatiboa: Hedabideetan zerbaiten kritika egitea, gogoeta eragiteko asmoz.

Spam

Aste honetan, gutun-azal laranja bat iritsi zaigu etxera. Ez zeukan ez zigilurik, ezta igorlearen izenik ere. Harriturik, bizilagunen postontzietako zuloetatik begiratu dut, eta, besteetan ere antzeko gutun-azalak zeudela ikustean, nirea zuzen-zuzenean paperontzira bidaltzea erabaki dut, propaganda izango zelakoan. Baina paperontzira botatzekotan nengoela, zerbait agindu dit ez egiteko, mezu garrantzitsu bat egon litekeela gutun-azal laranja horren barruan, eta zabaltzeko. Eta zergatik jakin gabe, halaxe egin dut.

Auzoko erretorearen idatzi bat zekarren gutun-azalak, eta berau irakurtzean berehala gogoratu naiz berriki irratian entzun dudak berri batekin. Antza denez, gotzainak biziki kezkatu daude mezuaren oso jende gutxi joaten delako. Biztanleriaren % 18 baino ez da hurbiltzen apaizengana. Eta bere gutunean erretoreak dio gustatuko litzaiokeela ni elizan ikustea. Ez al gara denok, tarteka, amaren etxera joaten? Ba, erretorearen iritziz, halaxe joan beharko genuke denok elizara, pozaren pozez, postrea eta ogia esku artean daramatzagula.

Une batez, erantzun bat idaztea bururatu zait, baina azken paragrafoak lapurtu dit gogoan. «Honezkerok jakingo duzue, laster hasiko dira teilatuko konpontze-lanak. Espero dugu denok laguntzea». Ai, ene, orain badakit zer dela eta ikusi nahi nauen erretore jaunak elizan...

Azkenean, postontzira iristen zaizkidan SPAM guztiak bezalaxe, paperontzira bidali dut gutuna.

Etxaniz Rojo, Xabier
Berria (2007-12-27)
(moldatua)



ENTZUMENA

Ekintza komunikatiboa: Komunikabideetan filosofo-aditu batek egindako hausnarketa ulertzea.

Edgar Morin filosofoaren gogoeta



Transkripzioa

-  C2-Id-Edgar Morin.pdf

Ekintza komunikatiboa: Komunikabideetan egindako edozein gogoeta ulertzea, hizlariaren umorea eta sarkasmoa antzemanaz. Esamolde idiomatikoak ere ulertzea eta konnotazio-esanahiez ere jabetzea.

Hegazkin-konpainiak



Transkripzioa

-  C2-E-T-hegazkin.pdf

MINTZAMENA

Ekintza komunikatiboa: Elkarrizketatua izanez gero, erabateko jariotasunez gai jakin bati buruzko azalpenak ematea.

Neodimioa



Transkripzioa

-  C2-M-T-Neodimioa.pdf

Ekintza komunikatiboa: Komunikabideetan bere arloko gai bati buruz, modu eraginkorrean, azalpen tekniko bat ematea.

Zer dakar giza genomaren mapa berriak?



Transkripzioa

-  C2-M-T-Giza genoma.pdf



IRAKURMENA

Ekintza komunikatiboa: Egunkarian, bere arloko (hizkuntzaren erabilera, adibidez) gai konplexuak zehatz-mehatz ulertzea, baita hari nagusiaz jabetzea ere bere arlokoak ez direnean.

Hizkuntz erabileraz ohar batzuk

Hizkuntzaren erabileran eragiten duten ohiko alderdiak gutxietsi gabe, uste dut hiztunak gutxitan hautatuko duela bere nortasuna, erosotasuna, askatasuna eta buruestimua kolokan jartzen duen mintzairarik. Horrekin esan nahi dut hiztunak, ahal baldin badu behintzat, ahaleginak egingo dituela bere nortasunaren parte den hizkuntza hautatzeko. Izan ere, hitz egiten dugunean, faktore psikologiko, kultural eta emozional guztiak daude jokoan, alde edo moldez. Jokoan dagoena ez da bakarrik ideiak edo asmoak edo gauzak zertan diren aditzera emateko komunikazio-gaitasuna, jokoan daude orobat hiztunaren nor izatea eta oreka emozionala.

Ondo dakigunez, gutako bakoitzak izan dituen esperientziak lekuko, norbere hizkuntzaren etxea gozagarria da, bakoitzaren izaera, ezaguera eta buruestimua kolokan jartzen ez direnean. Hiztunaren pentsamendu-jarioa eta nortasun-oreka bermatzen dituen hizkuntza hautatuko du hiztunak normalean, eta ez bere nor izatea lardaskatzen duen mintzairarik, ezinbestean ez baldin bada behintzat. Gauza jakina da, era berean, hiztunak bere pentsamenduaren muina adierazteko, nekez aukeratuko duela bere hizkuntza nagusia ez den mintzabiderik, hartara behartzen ez badute.

Euskaldun berriari erraz esaten diogu euskaraz jarduteko, errazegi, hitz egitea gugandik kanpo dagoen halako tresna instrumental bat erabiliz ideia komunikatze hutsa balitz bezala. Euskaldun berria, gizaki oro bezala, pertsona da, mundu sozial eta kultural batean sozializatua, eta sozializazio horretan eraiki du bere unibertso pertsonala. Jadanik eraikia eta biribildua daukan mundu kognitiboa eta emozionala kolokan sentitzen du, oraindik ere erdizka besterik ez dakien euskaran. Onik onenean, ahaleginduko da bigarren edo enegarren hizkuntza duen euskaraz ere «bizitzen», baina ez da erdarazko etxean bezala gustura sentituko, autoestimuan desgaste handi samarra eragin diezaiokeen euskaran baizik. Nekatua eta akitua sentituko da maiz, bere pentsamenduaren ale mamitsuenak euskaraz xehatu nahi dituenean.

EGA edo antzeko goi-maila akademikora iritsi den euskaldun berriak, oro har, izugarrizko nekea sentitzen du euskaraz bizitzeko. Bere nortasunaren eta pentsamenduen eratzaille eta adierazle oso eta erabateko duen erdarazko unibertso pertsonalaren zati bat euskaraz adierazten ere saiaturiko da, beharbada. Baina orduan ere, maila akademiko dezente horretan ere, euskararen etxea hotza eta nekagarria zaio, erdarazkoa samurra, abegikorra eta atsegingarria zaion bitartean. Euskaltzalea baldin bada, ahaleginduko da euskararen bigarren etxean ere ondo sentitzen. Abertzalea baldin bada, agian beste horrenbeste

egingo du euskararen etxea bere bizileku afektibo eta ideologikoa bilakarazten. Baina, azkenean, amore emango du seguru aski, salbuespenak beti dauden arren.

Hizkuntzaren kontzeptu instrumental eta mekanikoak erraz saihesten dizkigu bidean ikusitako oztopoak. Uste dut euskalduntzeko bidearen zailtasunei buruz ez dugula behar adina kontzientziarik. Ez dugula hiztunaren eta hizkuntzaren arteko dialektika sozial, kultural eta psikologikoak daukan barne-lotura sendorik ikusi nahi. Eta, horrenbestez, hizkuntzaren kontzeptu instrumental batek euskalduntzearen bideko sastraka eta sasi guztiak erre dizkigula, bidea garbi uzte aldera edo.

Ondo etorri zaigu beharbada eragozpen horiek alde zurratik ez ikustea. Baina nago gero eta garbiago nabari dugula gauza bat, hala ere: euskara erabiltzea ez da askok uste duen bezain erraza, eta bidean dauden ezintasunak ezin dira ohiko arrazoien bidez soilik azaldu. Alegia: euskaldun hiztunen proportzioa txikia dela, ama-hizkuntza gutxi dutela, kontzientzia eta leialtasun linguistiko kaskarreko hiztunak direla, eta abar. Arrazoibide horren barruan, beharbada, erraztasunaren alderdia izan liteke sendoena. Nolanahi ere, euskarazko erraztasun erlatiboa erdarazkotik urrun samar baldin badago, eta, halaxe egoten da ia beti, badakigu nora joko duen hiztunaren praxi linguistikoak.

Problematika hori guztia areagotu egiten da bigarren edo enegarren hizkuntza mintzaira minorizatua denean. Aldiz, ama-hizkuntza euskara izan duenarentzat ez da betetzen horrelako «lege» psikolinguistiko eta soziolinguistikorik. Hala, euskaldun berriaren ibilbidea oztopoz beterik ikusi dugu, balizko euskaldun berria euskararen etxean eroso sentitzeko. Ibilbidearen abiapuntuan hizkuntza hegemonikoa dago kasu horretan, eta minorizatua du xede. Erdaldun berrien kasuan, ordea, hizkuntza minorizatua —euskara— zegoen jabetza linguistikoaren hasieran, eta hizkuntza hegemonikoa —erdara—, amaieran. Euskararen herria erdalduntzea nahiko erraza izan da ordezkapenaren hainbat alditan, baina erdararen herria euskalduntzea biziki gaitza.

Hizkuntza gauza garrantzitsuegia da pertsonarentzat mintzaira bat bestearen ordez eta bestea bataren ordez nolahi erabil daitezkeela uste izateko. Hizkuntza ez da hor aukeran daukagun tresna komunikatibo soil bat nahieran erabiltzeko. Askoz gehiago da. Eta askoz gehiago izate horretan datza, hain zuzen, zirriboratu nahi izan dugun bidearen zailtasuna. Hau da: hizkuntzak bizi gaitu, gure unibertso pertsonalaren konfigurazioa hitzaren bidez eraikia dago, besteak beste. Hizkuntza gara, zentzu eta neurri batean.

Hizkuntz auziok botere-kontuak dira azken batean, hegemonia linguistikoaren gorabeherak. Gauza biziki garrantzitsu bat amaitzeko: hizkuntz hautua ez dago hiztunaren esku azken buruan, erabilera erregulatzen duten faktoreak estrukturalak baitira, egitura soziolinguistikoari darizkionak.

Odrizola, Jose Manuel
Berria (2013-04-03)
 (moldataua)



Ekintza komunikatiboa: Literatur testuak ulertzea, bertan erabilitako bitarteko estilistikoak (hitz-jokoak, metaforak, konnotazioak...) atzemanaz.

Slavoj Žižek-en sudurra

Slavoj Žižek-ek sudurra ukitu eta dio:
 Komun-zuloak kulturaren arabera aldatzen dira.
 Hau da: Frantziako, Ingalaterrako edo
 Alemaniakoak ezberdinak dira,
 haien kulturak ere ezberdinak direlako
 (ez kaka, ordea).

Slavoj Žižek ek sudurra ukitu eta dio:
 Multikulturalismoak kulturaren amaiera dakar.

Slavoj Žižek-ek sudurra ukitu eta dio:
 Maitasuna petrala eta bortitza da.
 Ez dago maitasun unibertsalik.

Slavoj Žižek-ek sudurra ukitu eta dio:
 Vladimir Ilich Lenin,
 hogeigarren mende bukaerako intelektualek
 betiko lurperatu zutena,
 inoizko ostikorik gogorrenak jotzen ari da hilobitik.

Slavoj Žižek-ek sudurra ukitu eta dio:
 Familia toxikoa da.
 Eta gaineratu du:
 la dena da toxikoa gaur egun.
 Kapitalismoa, batez ere.
 Bestea, batez ere.

Slavoj Žižek-ek sudurra ukitu eta dio:
 Jakina, bestea neu naiz.
 Neu ere toxikoa naiz, beraz.

Slavoj Žižek-ek sudurra ukitu eta dio:
 Jesukristo munstro bat da.

Slavoj Žižek-ek sudurra ukitu eta dio:
 Ateoak baizik ezin du Jainkoagan sinetsi.

Slavoj Žižek-ek sudurra ukitu eta dio:
 Ez dugu Estatua birrindu behar,
 gureganatu, konkistatu baizik.
 Derrigorrezkoa dugu, ezinbestekoa;
 sexua bezain ezinbestekoa.

Slavoj Žižek-ek sudurra ukitu eta dio:
 Balizkoa besterik ez da erreala.

Slavoj Žižek-ek sudurra ukitu eta dio:
 Zuzentasun politikoa delakoak
 debekaturiko guztia dio.
 Slavoj Žižek-ek sudurra ukitu eta
 hitz egiten du,
 eta sudurra berriz ukitzen du,
 behin, bi aldiz, hiru aldiz, lau aldiz, etengabe.
 Eta berriz hitz egiten du.
 Edo (hobeto esanda) berriz kantatzen du,
 hamaika aldiz ukitzen duen
 bizar urdinduak ezkutaturiko ahoari dariona
 musika baita hainbat lagunentzat.
 Esaterako, mendetan terroristak deituak izan direnentzat.
 Probintziano, arlote, Historiaren hondakin izendaturiko
 hamaika herri apaldutako abertzaleentzat.
 Edo betidanik bortizkeriaren monopolioa dutenek
 bortiztat jo eta tai gabe eta bortizki
 zigortuentzat eta jipoituentzat.
 Slavoj Žižek-ek sudurra behin eta berriz ukitu eta
 kapitalismoaren krimenen zerrenda baino luzeagoa den
 koka lerro bat sudurreratu duela pentsa lezake norbaitek.
 Ideia batzuk toxikoak diren bezala,
 beste batzuk narkotikoak dira.
 Esaterako, Slavoj Žižek-ek sudurra ukitu ondoren
 aipaturiko hainbat. Aspaldian hiltzat emanak gehienak
 eta Esloveniako hartz gorriak berpiztuak,
 Michael Jacksonen bideo batean bezala
 zonbiak hasi dira hilobitik irteten.
 Dantzan jarri dituen doinua
 ez dator Neverlandetik, Balkanetatik baizik.

Slavoj Žižek-ek sudurra ukitu eta dio:
Porca Miseria!

Montoia, Xabier
Erlea aldizkaria, 2. alea (25. or)
 (moldatua)



IDAZMENA

Ekintza komunikatiboa: Informazioa emateko eta gogoeta eragiteko xedez, aldizkari espezializatu batean gai bati buruzko azalpen-artikulua egitea.

Transgenikoak gorantz, etengabe

2007an baino ia % 10 hektarea gehiago hartu zituzten iaz transgenikoen landaketek munduan. Hori adierazi du bioteknologiak nekazaritzan dituen aplikazioez arduratzen den erakunde estatubatuarrek (ISAAA), urtero argitaratzen duen txostenean.

Gora doa, urtetik urtera, zenbait landare-espezie transgenikoren landaketa-kopurua. 1996an landatzen hasi zirenetik, 72 aldiz handitu da landare horiekin landatutako azalera, eta ISAAAn guztiz onuragarritzat jotzen dute igoera hori. Ez da jarrera harrigarria, beren filosofia transgenikoak zabaltzea dela jakinda. Honela aurkezten dute beren burua webgunean: "irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da, eta nekazaritzan agertzen diren teknologia berriak iritsarazten dizkie garatze bidean dauden herrialdeetako txiroei. Helburua da indar handiko teknologia horiek partekatzea haietaz baliatuko direnekin, eta, aldi berean, ziurtasunez erabiltzeko ingurune egoki bat sortzea".

ISAAAk emandako datuak oso orokorrak dira, eta irudi dezake ez duela lotura handirik gurekin. Baina ez, oso gertuko gaia dugu transgenikoena. Izan ere, Espainian hazten dira Europako Batasuneko landare transgeniko gehien. Batez ere, Ebro ibaiaren arroan landatzen dituzte landareok.

Hori gutxi ez eta, Ibercajak, Ebro ibaiaren arroan kokatuta dagoen banketxeak eta Espainiako laugarren banketxe garrantzitsuenak finantzatu du, besteak beste, ISAAK argitaratu berri duen txostena.

Atzera eta aurrera

Europako Batasunean, transgeniko-espezie bakarra dago baimenduta, Bt artoa. Artoari kalte egiten dion intsektu bati eraso egiteko proteina bat sortzen du artoak, genetikoki eraldatzean sartutako geneari esker. Espainian eta beste hainbat herrialdetan landatzen dute, eta % 21 egin du gora labore transgenikoen proportzioak Europan.

Dena den, Europako Batasuneko herrialde guztietan ez dute ekoizten arto hori. Frantziak, adibidez, iaz debekatu zuen landatzea. 2007an, 22.000 hektareatan erein zuten Bt artoa, eta, 2008an, 100.000 hektarea landatzeko asmoa zuten. Genetikoki Eraldatutako Organismoen inguruko Frantziako Aginte Gorenak, ordea, txosten batean jakinarazi zuen ebatzi gabeko kontuak daudela arto horren inguruan, eta ingurumenari kaltea eragin diezaioketela edo toxikoak izan daitezkeela epe luzean. Hori ikusita, Frantziak babes-klausulari heldu zion, eta ez iaz, ez aurten, ez du baimenik eman Frantziako lurretan Bt artorik hazteko.

Frantziak ez ezik, Austriak, Hungariak eta Greziak ere heldu diote klausula horri. Estatu Batuetan, beste muturrean, beste inon baino espezie gehiago landatzen dituzte; zortzi, hain zuzen: soja, artoa, kotoia, canola izeneko koltza-mota bat, kuiatxo, papaia, alpapa eta azukre-erremolatxa.

Transgenikoen inguruan informazio falta handia dagoela uste dute europar askok.

Erraz ikus daiteke izugarritzko nahaspila dagoela transgenikoen inguruan. Agintarien artean ez ezik, hiritarren artean ere ikus daiteke jarrera nahasgarri hori. Iazko Eurobarometroaren emaitzek adierazi zuten Espainian behintzat oso antzekoa dela transgenikoen aldekoen eta kontrakoen kopurua: % 31 eta % 26, hurrenez hurren.

Aldeko edo kontrako jarrera hori baino azpimarragarriagoa da, agian, Espainian gutxi gorabehera beste hainbestek (% 23k) ez dutela sekula ezer entzun elikagai transgenikoen inguruan, eta % 20k ez dakitela edo ez dutela erantzun. Izan ere, informazio falta handia dagoela diote europar askok, % 34k hain zuzen. Eta informazio nahikorik izan gabe ere iritzia ematen dute batzuek. Hain zuzen, europarren % 58 transgenikoen kontra agertu da, eta % 21 alde. Behar beste informazio ez izateak eramaten omen ditu asko jarrera ezkorra izatera.

Lakar Iraizoz, Oihane
Elhuyarren zientzia.eus webgunean argitaratua (2009-03-15)
(moldatua)



Ekintza komunikatiboa: Bere arloko azterlan baten argitalpenari hitzaurrea idaztea.

Hitzaurrea

“Literatura unibertsala” hautazko irakasgairako prestatu dugun liburu honek hiru helburu nagusi bete nahi ditu: literatura unibertsalaren bilakaera oparo eta ulergarria eskaintzea; literatura-mugimendu horiek ondo aukeratutako testu-antologia egoki eta atseginez hornitzea; eta testu-antologia horretaz baliatzeko galdera, iradokizun eta jarduera didaktiko ugari proposatzea.

Horregatik guztiagatik, tresna lagungarria izan nahiko luke liburu honek. Literatura unibertsalaren nondik norakoak azaldu behar dituen irakasleari erabilgarria suertatuko zaiona, eta, era berean, ikasle gazteak ulertu eta irakurtzera bultzatuko dituen. Hori horrela, eta, literaturaren irakaskuntzan gaur egun indarrean dagoen metodologia geure eginez, egile eta lanen aipamenei diziplinartekotasuna bilatu nahi duten proposamenak erantsi dizkiegu. Dela filmei erreferentziak eginez, dela musikari, margolari edo euskal literaturari berari bide emanez, euskarazko literatura unibertsala geure-geurea dugula iradoki nahiko genizueke.

Beraz, liburuaren oinarrian bi asmo biltzen direla esango genuke: literaturaren ikuspegi sendoa eskaintzea, hau da, literatura dokumentu kultural eta historikotzat hartzen duena, eta, aldi berean, irakurzaletasuna sustatzeko ahalegin atsegina gertatzea. Bi alderdiok ondo ezkontzen dira liburuan, eta erraz asmatuko du irakasleak une bakoitzean komeni diren baliabide eta iradokizunak proposatzen: testu hau aukeratu eta beste hura ez, jarduera didaktiko honek ikasleak beste hark baino ziurrago akuilatuko dituela ikusi, honako testu edo erreferentzia-gunea gertuago legokeela ikasleen igurikimen-mundutik, eta abar.

Bihoakizu, beraz, liburu antzera luzatzen dizugun irakurketa-proposamen hau. Seguru gaude zuk ere aurkituko dituzula hasieratik liluratuko zaituzten idazle eta itzultzaileak.

Aldekoa, Iñaki eta Olaziregi, Mari Jose
Literatura Unibertsala (Batxilergoa 2) ikasliburua
(moldatua)

AGINDUA

AGINDUA, 2020ko irailaren 9koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze gintza arautzen dituen, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituen.

Azaroaren 25eko 29/1983 Legeak, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortu eta Euskaltegiak Arautzekoak, 20. artikuluan dio Kultura Sailari dagokiola euskalduntze-alfabetatze gintzaren maila bakoitzaren amaieran eman beharreko ziurtagiriak arautzea. Lege horren 2.g) artikulura biltzen da, HABEren egitekoen artean, euskaltegietan helduentzako euskalduntze zein alfabetatze gintzako ikastaroak gainditzen dituztenei luzatu beharreko ziurtagiriak Kultura Sailari proposatzea. III. idazpuruan, berriz, euskaltegien ezaugarriak, eginkizunak eta ahalmenak jasotzen ditu legeak, eta 13. eta 16. artikuluetan xedatzen du ahalmen akademiko osoa izango dutela, hurrenez hurren, euskaltegi publikoek eta euskaltegi pribatu homologatuek.

Lege hori garatuz, 2003ko uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuak arautzen du helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jardura eta horien finantzaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik. Dekretu horretan xedatzen da Kulturako sailburuaren Aginduz zehaztuko dela euskararen ezagutza egiaztatze gintza sistema, HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean (HEOC) eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuan ezarritakoari jarraituz.

Hori aintzat hartuz, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak 2016ko azaroaren 23ko Aginduz, 2015ean HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean ezarritako euskarazko gaitasun-mailen ziurtagiriak eskuratzeko prozedurak ezarri zituen.

HABEren curriculumaren (HEOCaren) diseinu, garapen, zabalkunde eta ebaluazioa herritarrak euskara ahoz zein idatziz erabiltzeari begira dago egituratuta. Horregatik, euskalgintzaren egitasmo eta jardun orok horixe du abiaburu, xede eta helmuga: herritar guzti-guztiak elebidunak izatea; alegia, beren bizitzako arlo guztietan euskara ahoz jariatasunez zein idatziz trebetasunez erabiltzeko gai diren hiztunak.

Helburu horretara iristeko, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek 2018ko abenduaren 10eko HABEren zuzendari nagusiaren

Ebazpenez onartuta dute Euskaltegiko Curriculum Proiektua (ECP), HEOCak ezarritako gidalerroen garapenerako bere izari-ezaugarrien arabera. Euskaltegiari eta euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzari aitortzen zaion autonomia pedagogiko eta antolatzailearen barruan, irakasle-taldeari dagokio euskaltegiaren ebaluazio-irizpideen arabera ikasleen komunikagaitasun-mailak balioestea. Euskaltegietako ikasleriaren ebaluazio eta HABEren egiaztatze gintzarako jardunbide berriak ezartzeko unean, ECP horietara bildutako eduki eta jarraibideei arretaz erreparatzea ezinbestekoa da.

Ikuspegi honetatik begiratuta, hizkuntza-trebetasunak ikasleenganatu eta trebetasun horietan gaitzea xede izanik, ikasprozesu eta aribide horren ardatz nagusiaren ingurumarian ebaluaziogintza irakasleen zeregina da, eta egiaztatze gintza, ikasleak kanpo-ebaluazioan frogatu beharreko burutze-maila: ikas-irakas-prozesu zuzenetik kanpo dagoen aditu-talde bat ikaslearen gaitasun komunikatiboa neurtzera dator, ahoz zein idatziz dituen ulermen- eta ekoizpen-mailak zehatzuz. Horregatik, Agindu honek xedatzen du, besteak beste, HEOCean ezarritako irizpideen baitan, ebaluaziogintzaren eta egiaztatze gintzaren inguruko zereginen definizio zehatz eta doiak ematea.

HABEren egitekoa da helduen euskarazko komunikazio-gaitasuna egiaztatze eta ebaluatze prozesu didaktikoen jarraipena antolatzea, kudeatzea eta gauzatzea, eta xede hori betetzeko beharrezko diren datuen eta ebidentzien bilketa era sistematizatuan gauzatzea; hau da, helduen euskalduntze gintzan HEOC egitasmoaren helburuetara iristeko, aurrera eraman beharreko ebaluaziogintza eta egiaztatze gintzaren antolaketa eta kudeaketa zuzena eta egokia burutzea.

Halaber, HABEren eskumenekoa da helduen euskalduntze gintzan diharduten herritarren euskarazko komunikagaitasun-agirien kudeaketa, eta prozesuok amaitutakoan, euskarazko komunikagaitasun-mailei dagozkien aldi-aldioko agiriok emateko Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailari legezkiokkeen proposamenak luzatzea, hezkuntza-sistemako irakasleentzat eta administrazio publikoetako langileentzat -eta ez beste inorentzat- erakunde eskumendunek egiten dituzten deialdiak izan ezik. Beraz, Agindu honetan zehazten dira prozesu hauen kudeaketarako HABEk dituen egitekoak eta zereginak.

HABEk eginkizun hauek beste zenbait erakunde eta gizarte-eragilerekin lankidetzan burutzen ditu. Azkeneko urteotan HABEren egiaztatze gintzaren inguruan sortutako gogoetaldien ondorio izan diren ohar eta iradokizunek aukera egokia eskaintzen dute aztergai honen ingurumarikoak zehatz emateko, erakundeen arteko lankidetzaz-esparrua zehatzuz eta gizarte-eragileek dituzten zereginak zehatz emanez.

Agindu honi idazketa irekia eman zaio, bertan xedatutako helduen euskalduntzearen ebaluaziogintza eta egiaztatze gintzari buruzko eduki, irizpide eta jarraibideak deialdi bakoitzaren berezitasun eta ezaugarrietara egokituz, malgutasunez erabili ahal izateko eta edukion zehaztapenak, doitasunak eta egokitzapenak urtean urteko

HABEren zuzendari nagusiak egingo dituen deialdietako Ebazpenen oinarrietara eramateko moduan.

Gainera, Agindu honen edukietara ekarri da, Euskadiko Autonomia Erkidegoko herritar helduak euskara ikasteagatik ordaintzen duten matrikularengatik dagokion konpentsazioa jaso dezaten, dirulaguntza horietarako deialdietarako irizpideak finkatzea, 179/2003 Dekretuak, uztailaren 22koak, helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jarduera eta horien finantzazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik arautzen duenak, 17. artikuluan ezarritakoaren baitan. Helburu hori iristeko, Aginduak ikuspegi akademiko zein ekonomikoaren arabera jarraibidea ezartzen du, ahaleginak egin daitezten HEOCaren komunikagaitasun-mailaren bat gaintitzen duten ikasleei euskararen ikasprozesuan matrikulatzeagatik ordaindutako diru-kopuruak, zati batean edo bere osotasunean, konpentsatzeko, horretarako egiten diren aurreikuspenen arabera.

Horregatik guztiagatik, helduen euskalduntzearen arloko eragileek zein HABEren Batzorde Akademikoak egindako ohar eta iradokizunak gogoan hartuta, HABEren Zuzendaritza-batzordearen proposamenez,

XEDATZEN DUT:

I KAPITULUA

OINARRIZKO XEDAPENAK

1. artikulua.- Aginduaren xedea.

Agindu honen xedea da Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eman eta HABEk kudeatzen dituen helduei zuzendutako euskarazko irakas- eta ikasprozesuen ebaluazioa eta euskararen erabilerarekin loturiko gaitasun- eta atalase-mailak egiaztatzen dituzten ikasleen ziurtagiri ofizialak erdiesteko prozedurak arautzea; eta ebaluazio- eta egiaztatze-prozesu horiek gaintitu dituzten euskara-ikasle helduei zuzendutako dirulaguntzen deialdiak egiteko irizpideak finkatzea.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua.

Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko euskaltegiei eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei aplikatuko zaie.

Halaber, euskarazko komunikagaitasun-mailen esparruko egiaztatze gintzan HABEk egingo dituen deialdietan ezarriko da.

3. artikulua.– Helduen euskalduntzearen antolamendu akademikoaren curriculum-eremua.

HEOCak herritar helduei zuzendutako euskarazko ikaskuntza- nahiz irakaskuntza-prozesuen helburu, eduki, orientabide metodologiko eta ebaluazio-irizpideak finkatu eta HABEren antolamendu akademikoaren curriculum-plana zehazten du, eta era berean, helduen euskarazko komunikagaitasunaren mailak ebaluatzeari begira, nahitaezko gida eta erreferentzia-esparrua osatzen, Agindu honetan zehazten diren ebaluazio- eta egiaztatze-prozesuak garatzeko orduan, ebaluazio horrek, betiere, helburu hauek dituela:

1. Euskalduntzen ari diren ikasleek zein mailataraino erdietsi dituzten HABEren curriculumean komunikagaitasunaren maila bakoitzarentzat aurreikusitako helburuak balioestea.
2. Euskaltegi bakoitzaren Curriculum Proiektuen testuinguruan, ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuak aztertu eta hobetzea.
3. Ikasgu horietako ikasleek zein HABEk egindako beste deialdi batzuetara aurkeztutako hautagaiek euskararen erabilera zein mailataraino menderatzen duten ofizialki egiaztatzea.

4. artikulua.– Egiaztatu eta ebaluatu daitezkeen mailak, azpimailak eta trebetasunak.

1. Euskaltegi-tako ikasleek euskararen erabilera zein mailataraino menderatzen duten ebaluatu eta egiaztatzea, eta ondorioz, ikasle on komunikagaitasunaren mailak zehaztea, HEOCean ezarritako helburu, gaitasun, eduki eta ebaluazio-irizpideei lotuz egingo dela ezartzen da: A1 maila (Hasierakoa) eta A2 maila (Oinarrizkoa), oinarrizko erabiltzailearen lerrunean; B1 maila (Independentea) eta B2 maila (Aurreratua), erabiltzaile aurreratuen lerrunean; eta C1 maila (Gaitua) eta C2 maila (Aditua), erabiltzaile adituaren lerrunean, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma (HEOC) ezartzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko uztailaren 22ko Aginduan zehaztuta datozen moduan.
2. Komunikazio-gaitasunaren maila ikasleek ahozko nahiz idatzizko testuak ulertzeko edota ahoz nahiz idatziz testuak ekoizteko dituzten ezagutza, gaitasun eta estrategiak nola erabiltzen dituzten aztertuz ebaluatuko da, maila bakoitzari egokitu zaion zailtasunaren arabera komunikazio-egoera desberdinetan.
3. HEOCean ezarritako komunikazio-trebetasunetan oinarrituko dira azpimailak; lehenengo osagaia ahozko zein idatzizko ulermenezko trebetasunen gaitasunari buruzkoa da, eta bigarrena ahozko zein idatzizko trebetasun ekoizleen

adierazpidea. Azpimailok ikasleei ikastaroaren hasierako ebaluazioan balioesten zaien abiapuntua finkatzeko zein ikastaroen ezaugarri eta berezitasunekin bat etorri bereganatu behar duten helburu-maila emateko parametro gisa zehazten dira. Azpimaila horiek, beraz, helduen euskalduntzearen inguruko jarraipena eta kudeaketa didaktikoa egiteko oinarrizko eragiketa-unitate dira.

4. Irizpide horren baitan, HEOCaren sei komunikazio-gaitasunen mailak ikasteko eta irakasteko egitura sei maila eta sei azpimailatan sailkatuko da: A1A0, A2A1, B1A2, B2B1, C1B2, C2C1, curriculumean aurreikusitako irizpide pedagogiko-didaktikoak kontuan hartuz, eta bereziki, ebaluazio zein egiaztatze-gintza-prozesuen berritasunak aintzat hartuz, ikasprozesuaren antolamenduak dituen gidalerroei egoki erantzutearren, betiere ikasleen ezaugarri, premia eta ahalmenak kontuan izanik.
5. HABEk azpimaila bakoitzaren deskripzioaren arabera egituratuko du helduen euskalduntze-sistema, baita horren kudeaketa administratiboa eta jarraipena ere, ikasteko eta irakasteko prozesuaren kalitatea hobetzearen, jarraibide batzuk finkatzearen eta curriculumaren beraren eraginkortasuna eta gardentasuna areagotzearen.
6. Komunikagaitasun orokorraren ebaluazioa, hizkuntzaren komunikazio-trebetasunen adierazpide diren lau probez osatuko da:
 - Irakurmena (I).
 - Entzumena (E).
 - Idatzizko adierazpena eta elkarreragina (IAE).
 - Ahozko adierazpena eta elkarreragina (AAE).
7. Ebaluaziogintza eta egiaztatze-gintza osatzen duten eginkizunak prestatzeko orduan, kontuan hartuko dira, erreferentzia gisa, bai Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuan (EHEMB) aipatutakoak, baita Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean (HEOC) aipatutakoak ere.
8. B1, B2, C1 eta C2 mailak trebetasunez trebetasun egiaztatu ahal izango ditu HABEk, HEOCean trebetasun horiek balioesteko ezarritako ebaluazio-irizpideen arabera: banaka, trebetasuna ekoizlea denean, eta era bateratuan, binaka, betiere trebetasun horietako batek izaera ekoizlea duenean.

5. artikulua.- Hizkuntza-arauak eta hizkuntzaren erabilera ez-diskriminatzailea.

1. Bai helduen euskalduntzearen ebaluazio-prozesuetan esku hartzen duten eragileek eta bai euskararen erabilera zein mailataraino menderatzen duten eta zein mailatarainoko gaitasuna duten egiaztatzen duten agiri ofizialak erdiesteko prozeduretan esku hartzen dutenek ere –agiriok Kultura eta Hizkuntza Politika

Sailak eman eta HABEk kudeatzen ditu-, hizkuntza ofizialen arau akademikoak errespetatuko dituzte.

2. Euskarari dagokionez, hizkuntzaren batasuna zainduko dute, Euskaltzaindiak ezarri dituen eta egun indarrean dauden hizkuntza-arauekin bat etorriz, eta horrez gain, kontuan hartuko dituzte euskal akademiaren gomendioak ere. Horri begira, arau horiek beteko dituzte ahoz zein idatziz, hizkuntza-erregistro landuetan eman eta hartzaile izango diren euskararen erabiltzaileen ezaugarrietara moldatuko diren jakinarazpenetan.
3. Erabilera formala, beharrezko izanez gero, komunikazio-mezu jakin horiek zuzentzen zaizkien hartzaileen ezaugarri dialektal eta sozialen arabera egokituko da, eta testuak, halaber, euskaltegia kokatuta dagoen testuinguru soziolinguistikoaren aldaera berezietara egokituko dira.
4. Testuinguru soziolinguistiko horien berezko hizkuntza-ereduetako ahozko nahiz idatzizko adierazpen-gaitasuna eta eremu horietan egiten den erabilera, betiere, erabiltzailearen komunikazio-gaitasunaren ezaugarri garrantzitsu eta bereizgarri modura balioetsiko dira.
5. Agindu honetan araututako prozesuak ebaluatzeko eta egiaztatzeko jardueraren izaera eta egitekoa kontuan izanik, euskara izango da bertan zerrendatzen diren eginkizunak burutuko dituzten teknikarien lan-hizkuntza, baita azterketariekin harremanean aritzeko hizkuntza ere, hautagairen batek berari zuzentzen zaizkion jakinarazpenak gaztelaniaz jasotzeko eskaera egin ezean.
6. Prozesu hauetan esku hartuko duten eragile guztiek hizkuntzaren erabilera ez-sexista egingo dute.

6. artikulua.– Langaien ezaugarriak.

1. HABEren egiaztatze-gintzan erabiliko diren langaien eduki eta irudiek emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta estereotipatu gabekoa azalduko dute, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatzen duena kontuan hartuz, debekatuta dago ikasguetan pertsonen sexu batekoa edo bestekoa izateagatik duintasun gehiago edo gutxiago dutela edo sexu-objektu soilak direla adierazten duten langai didaktikoak sortzea, zabaltzea eta erabiltzea, baita emakumeenganako indarkeria justifikatzea, jarrera horri garrantzia kentzea edo horretara bultzatzen duten langaiak erabiltzea ere.
2. Era berean, langaiok aniztasun familiarra eta afektibo-sexuala agertuko dute, baita gainerako errealitate kultural eta etnikoen aniztasuna ere.

II. KAPITULUA

EBALUAZIOA

7. artikulua.– Ebaluazioaren xedea eta ezaugarriak.

1. Euskalduntzearen helburu nagusia den komunikagaitasunaren ebaluazioa ekintza komunikatiboen bidez balioetsiko da, komunikazio-gaitasunaren baitara biltzen diren gaitasun soziolinguistiko, testual, linguistiko eta estrategikoak balioetsiz. Horretarako ikasleak frogatu egin beharko du gai dela, eskatuko zaizkion testu batzuk ulertzeko eta ekoizteko, baita elkarreragina eta bitartekaritza eskatzen duten atazak burutzeko ere, eta horiek guztiak HEOCean ezarrita dauden ebaluazio-irizpideak kontuan hartuta, eta HABEK euskaltegi bakoitzari onartutako ECPan xedatutako ebaluazio-sistemaren arabera ebaluatuko dira.

Irizpide horiek trebetasunen arabera antolatuak aurkeztuko dira –entzumena eta irakurmena, mintzamena eta idazmena–, deskribatzaile batzuen arabera, hala nola egokitasuna, koherentzia eta kohesioa, jariotasuna, aberastasuna eta zuzentasuna, 1etik 3ra bitarteko balorazio-eskala baliatuz. HEOCean ezarritako ebaluazio-eskalaren tarteko deskriptoreak (2) finkatuko du trebetasun jakin bat gainditzeko gutxieneko gaitasunaren atalasea.

2. Helduek euskara zenbateraino ikasi duten ebaluatzeko, beharrezkoa da prozesu horren inguruko informazio garrantzitsua modu antolatuan eta sistematikoan biltzea eta hori tresna erregulatzailerik gisa erabiltzea, horretan oinarrituta erabaki egokiak har daitezen, betiere ikaskuntzaren eta irakaskuntzaren prozesuak hobetzeari begira.
3. Helduek euskara zenbateraino ikasi duten ebaluatzeko prozesuetan prozedura kuantitatiboak nahiz kualitatiboak erabiliko dira.
4. Euskaltegietako eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako irakasleek izango dute ikasle horiei egingo zaizen ebaluazioaren gaineko ardurak, HEOCaren egitura, eduki, orientabide metodologiko eta ebaluazio-irizpideak erreferentzia gisa hartuz.
5. Euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek beren curriculum-proiektuetan finkatuko dituzte ikasguotako helburuak erdiesteko egoki diren metodoak, jarraibideak, tresnak, ebaluazio-irizpide eta baliabideak eta, hala dagokionean, baita maila bakoitzarentzako kalifikazio-irizpideak ere.

8. artikulua.– Abiapuntuaren ebaluazioa.

1. Ikastaro bakoitzaren hasieran, euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentroak hizkuntza-trebetasunen gaineko ebaluazioa egingo dio ikasle bakoitzari, HEOCean ezarritako ebaluazio-irizpideen arabera eta euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro bakoitzaren curriculum-proiektuan (ECP) aurreikusitako prozedurekin bat etorriz. Hasierako ebaluazio hori oinarriztat hartuko da ikasle bakoitzari abiapuntua jartzeko, baita haren ikaskuntza-prozesuaren helburuak finkatzeko ere.
2. Ebaluazio honek argibideak eskainiko dizkio irakasleari ikastaroaren programazio didaktikoa bertan matrikulatutako ikasle-taldearen ezaugarri eta behar komunikatiboen arabera egokitu ahal izateko.
3. Abiapuntuaren ebaluazioa orientatzailea izango da, eta horren amaieran, ikasle bakoitzaren komunikazio-gaitasunaren abiapuntua finkatuko da. Bai abiapuntu hau eta bai ikastaroaren helburu izango den maila edo azpimaila ere, bi adierazleren arabera definituko dira: lehena, entzumenaren eta irakurmenaren trebetasunetan erakutsitako kalifikazioari buruzkoa izango da, eta bigarrena, mintzamenaren eta idazmenaren trebetasunei buruzkoa.
4. Ikastaroa abian izan, eta ikastaro horretan matrikulatzen diren ikasle berriei ikastaroan hasi ondorengo bost egunetan egingo zaie abiapuntuaren ebaluazioa eta emandako abiapuntua ikastaroaren hurrengo ebaluazio-aldian jasoko da Q87 aplikazioan.
5. Abiapuntuaren ebaluazio honen emaitza ikasleei idatziz jakinaraziko zaie.

9. artikulua.– Aurrerapenaren ebaluazioa.

1. Ebaluazio honek xede ditu: HEOCaren testuinguruan ikastarorako programatutako helburuak zenbateraino lortu diren egiaztatzea, ikasleari bere ikaskuntza-prozesua hobetzeko orientabide batzuk ematea eta ikasgelaren programazio didaktikoan beharrezkoak diren egokitzapenak egitea.
2. Aurrerapenaren ebaluazioak heziketa-xedea du eta ikastaroan zehar datu-bilketa sistematikoa egitea eskatzen du.
3. Ikasleen aurrerapenaren ebaluazioaren oinarri den datu-bilketa sistematikoa egiteko, ikasleek irakastorduetan izan duten asistentzia eta ikastaroaren programazioan irakastorduetatik kanpo egiteko programatutako jardueren eta eginkizunen burutze-maila hartuko da kontuan.
4. Euskaltegi-tako edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako irakasleek, zentro horietako bakoitzaren Curriculum Proiektuan ezarritakoarekin

bat etorri egingo dute aurrerapenaren gaineko ebaluazioa: ebaluazio-irizpideak, maiztasuna, metodologia.

5. Irakasleek, ECP horretan ezarritakoarekin bat etorri, ikasleen aurrerapenaren gaineko ebaluazioa egingo dute ikastaroan zehar. Horri esker aukera izango dute ikaskuntza-prozesuak egiaztatzeko, irakaskuntza planifikatu eta berrantolatzeko, beharrezko iruditzen zaizkien errefortzu-ekintzak aplikatzeko eta ikasleei beren ikaskuntza-estiloari ondoen egokitzen zaizkien autoebaluazio-aukeren eta estrategien inguruan aholkatzeko.

10. artikulua.- Ikastaro-amaierako ebaluazioa.

1. Ikastaro-amaierako ebaluazioaren xedea da egiaztatzea ikasleek, matrikulatuta dauden ikastaro bakoitza amaitzen dutenean, zein mailataraino bereganatu dituzten lortu nahi ziren helburuak.
2. Euskaltegiek, euskaltegien curriculum-proiektuetan zehaztuko dute zer baliabide erabiliko dituzten ebaluazio hori burutzeko, eta halaber, horren kalifikaziorako irizpideak finkatuko dituzte.
3. Ikastaro bakoitza amaitzean, irakasleak ebaluazio sumatiboaren parametroetara ekarriko ditu ikasle bakoitzari egindako ebaluazioen emaitzak. Ikaslearen komunikazio-gaitasuna balioetsiko du HEOCean finkatutako ebaluazio-irizpideen arabera eta euskaltegiaren edo autoikaskuntzarako zentroaren Curriculum Proiektuan horri begira aurreikusitako prozedurarekin bat etorri. Balioespen hori, era berean, ikasle bakoitzak egindako ikastaroko «ebaluazio-txostenean» islatuko da hizkuntza-trebetasun bakoitzaren arabera, dituen indarguneak eta ahuleziak adieraziz. Txosten hori aplikazio informatiko batean jasoko da eta ikaslearen eskura gongo.

11. artikulua.- Mailaren atalasearen gaineko ebaluazioa.

1. HEOCean ezarritako maila-eskakizun akademikoak gainditu diren egiaztatuko du mailaren atalasearen gaineko ebaluazioak.
2. HABEren zuzendari nagusiak egingo duen deialdi-ebazpen bakoitzaren oinarrietan zehaztuko du ikasle batek mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-saio batean parte hartu ahal izateko, derrigorrez bete behar dituen baldintzak, ikastaroaren trinkotasuna, ikaslearen partehartzearen zenbatekoa eta ikastarorako programatutako gutxieneko aurrerapena adieraziz, betiere, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC) ezartzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko uztailaren 22ko Aginduaren 3. artikuluan, curriculumaren egitura, ikasprozesuaren mailak, azpimailak eta orduetako buruz xedatzen dena gidalerro izanik.

3. Ikasgu bakoitzeko irakasleek egingo dute ikasleen mailaren atalasearen gaineko ebaluazioa.
4. Mailaren atalasearen gaineko ebaluazioa proba bideragarri eta fidagarri bat eginez gauzatuko da, eta egiaztatzeari begira, azterketariak, proba hori gaindituz, maila horretan euskaraz komunikatzeko gai dela bermatuko du.
5. Euskaltegian HEOCaren B1, B2, C1 eta C2 mailetan mailaren atalasearen gaineko ebaluazioa gainditu izana ezinbesteko baldintza izango da HABEren euskaltegietako ikasleentzako deialdian matrikulatu ahal izateko, Agindu honen III. kapituluaren ezarritako irizpide eta jarraibideak betez.
6. Ikasle bat matrikulatuta dagoen ikastaroko helburu-mailara iritsi ez, eta euskaltegiko mailaren atalasearen gaineko ebaluazioan HEOCean zedarritutako helburu-maila horren aurreko maila gainditzen badu, HABEren euskaltegietako ikasleentzako hurrengo azterketaldian gainditutako maila horretan matrikulatu ahal izango da, Agindu honen III. kapituluaren ezarritako irizpide eta jarraibideak betez.

III. KAPITULUA

EGIAZTATZEGINTZA

12. artikulua.– Egiaztatze gintzaren printzipio orokorrak.

1. Egiaztatze gintzaren xedea izango da azterketarien komunikazio-jarduerari buruzko datu baliagarriak eta fidagarriak jasotzea, datu horiek aztertzea eta mailaren atalasearen gaineko epai bat ematea eta, dagokionean, hizkuntzaren menderatze-maila desberdinetan eta jarduera desberdinetan euskararen erabilerarekin loturiko gaitasunen gaineko ziurtagiri ofiziala ematea.
2. HABEk euskaltegietako eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleentzako egiten dituen egiaztatze gintza-deialdian matrikulatzeko, azterketariak ikasgu horietako ikasle izateko uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoa bete beharko du. Agindu honetako 14. artikuluan aurreikusitako HABEren egiaztatze gintzarako beste deialdi-motetan matrikulatzeko, ezinbesteko baldintza izango da azterketariak hamasei urte beteta izatea izena eman nahi duen azterketaldiko matrikula egiteko epearen barruan.
3. Deialdi ireki eta berezietako egiaztatze-probetara aurkezten diren azterketariak edozein mailatako probak egiteko matrikulatu ahal izango dira, eta ez da beharrezkoa izango beharrezko mailaren bateko egiaztagiririk izatea.

4. Hautagai bakoitza maila bakar batean matrikulatu ahal izango da sei hilean behin egiten den azterketaldian, HABEren deialdi-mota guztiak kontuan harturik.
5. Euskaltegian mailaren atalasearen gaineko ebaluazioa gaintitzen duten ikasleek aukera izango dute ebaluazio-data horren ondorengo HABEren euskaltegietaiko ikasleentzako hurrengo bi azterketaldietan matrikulatzeko.
6. Deialdi bakoitzeko lehen azterketaldian entzumen- eta irakurmen-probak bakarrik gaintitu dituen B1, B2, C1 eta C2 mailletako ikasleari trebetasun-proba horietako emaitzak gordeko zaizkio deialdi bereko bigarren azterketaldirako, eta, honenbestez, idazmen- eta mintzamen-probak bakarrik egin beharko ditu. Halaber, entzumen- eta irakurmen-probak ez ezik, idazmeneko proba ere gaintituko balu, soilik mintzamen-proba egin beharko luke bigarren deialdi bereko azterketaldian.

Horrezaz gain, HABEren zuzendaritza nagusiak lege-xedapenez babestutako egoeratan dauden azterketarien kasuei egoki eta zuzen erantzuteko, urte bakoitzeko deialdiaren oinarrietan ahalbidetu dezake, aurreko azterketaldian egoera horretan zegoen azterketariak parte hartzerik izan ez badu, egindako matrikula-ordaina egintzat ematea, eta hala badagokio, jadanik lortutako emaitzak hurrengo azterketaldirako gordetzea, baita urte bateko bigarren azterketalditik hurrengo urteko lehen azterketaldirakoak ere.

13. artikulua.- Egiatzatze-modalitateak.

HABEk egiatzatze-modalitateen aukerak zabaldu ahal izango ditu, Agindu honen 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Ahozko nahiz idatzizko ulermen- eta ekoizpen-jarduerak, bakarrizketan edo elkarrizketan, bere baitara bilduko dituen gaitasun orokorra egiatzatzeaz gain, trebetasun horietakoren bati edo gehiagori dagozkien zatikako gaitasunak ere egiatzatu ahal izango dira, betiere deialdi bakoitzaren oinarrietan jasotzen diren aukeren arabera.

14. artikulua.- Deialdi-motak.

HABEren Zuzendaritza Nagusiak, urtero, deialdi-mota desberdinak egin ahal izango ditu, HEOcean ezarritako mailak egiatzatzeko: a) euskaltegietaiko edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetaiko ikasleei zuzenduak; b) helduei zuzendutako deialdi irekiak, bertsio klasiko edo analogikoan edo baita euskarri digital edo elektronikoan ere; c) gizarte-eragile ezberdinek egindako eskaerei erantzuteko, erakundeen arteko lankidetzaren bidez egindako deialdi bereziak, ebaluazio- nahiz egiatzatzeari begira, otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuaren zortzigarren artikulua g) atalak urriaren 22ko 166/2019 Dekretuz aldatutakoak xedatzen duenaren baitan.

15. artikulua.– Deialdi-mota bakoitzaren ezaugarriak.

1. Euskaltegietako edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleei zuzendutako deialdiak.
 - a) Euskaltegietako edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleei zuzendutako deialdiek lehentasuna izango dute HABEk burutzen dituen egiaztatze-gintza-jardunbideen artean. Gutxienez, bi azterketaldi deituko ditu urtero HABEren zuzendariak, ebazpenez.
 - b) HABEk, deialdi hauen helburuen artean, ezarriko du elkarren artean bat etorri behar dutela, euskaltegiek beren kabuz burutzen dituzten ebaluazio-eginkizunek batetik; eta, egiaztatze-gintzak –kanpo-ebaluazio den heinean– berekin dituen zereginak, bestetik. Ikuspegi horretatik, beraz, ikasleen entzunezko nahiz idatzizko ulermen-trebetasunak euskaltegian bertan ebaluatuko dira, ikasleak egiaztatze-deialdian matrikulatu aurretik. Agindu honen 11. artikuluan mailaren atalasea ebaluatzeko ezarritako prozedurei jarraituz, ikasle batek mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-saio batean parte hartu ahal izateko, euskaltegi horretan HABEren zuzendari nagusiak egin deialdi-ebazpenean ikastaroaren trinkotasunaz, ikaslearen partehartzearen zenbatekoaz eta ikastarorako programatutako gutxieneko aurrerapenez ebazpenean zehaztutako eta derrigorrez bete beharreko baldintzak bete beharko ditu.
 - c) Euskaltegietan ikasten ari diren ikasleen egiaztatze-probak beren ECPetan zehaztutako hizkuntza-ereduaren berezitasunetara eta berariazko aukera metodologikoetara egokituko dira.
2. Helduei zuzendutako sarbide libreko deialdi irekiak, bertsiio klasikoan, papera euskarri, edo euskarri digitalean era elektronikoan. Urtean bitan, euskaltegiko ikasleentzako deialdien data bertsuetan egingo diren deialdi irekietan, azterketariak hizkuntza-trebetasun bakoitzean duen komunikagaitasuna ebaluatuko da, elkarreraginean eta bitartekaritzan, trebetasun bateratuen arabera egituratuko diren atazen bidez.
3. Euskarri digital edo elektronikoan helduei zuzendutako sarbide libreko deialdi irekiak.

HOBE, HABEren Ordenagailu Bidezko Egiaztatze-gintza, HEOCean ezarritako euskararen komunikagaitasunaren mailak baliabide digital edo elektronikoz kudeatzeko egiaztatze-gintzarako tresna da. HOBEn azterketa edo probak elektronikoki egingo dira baimendutako aztertokietan, eta aztertoki hauetan, azterketariaren esku jarriko dituzte beharrezko dituen baliabide informatikoak eta probak egoki betetzen direla gainbegiratzeko baliabideak.

HOBE-egiaztatze-gintzaren araberrako kudeaketa-modua eta jarraibide-mota erabili ahal izango da HABEren deialdietan HABEren zuzendariaren ebazpenak horretarako aukera zabaltzen duenean.

4. Sektore publikokoak ez diren erakundeen arteko lankidetza bidez egindako deialdi bereziak.
 - a) HABEk beste instituzio eta erakunde batzuekin elkarlanean jardungo du euskarazko komunikazio-gaitasunaren maila desberdinak egiaztatze prozesuetan.
 - b) Horretarako, HABEren zuzendari nagusiak, gutxienez, HABEren teknikari bat izendatuko du deialdi hauetako Epaimahairako, betiere, HEOCean eta bere garapen-araudian ezarritako irizpideak bete daitezten.
 - c) HABEk moldatu egingo ditu egiaztatze-proba hauek, deialdiaren helburuak zuzen eta egoki bete daitezten.

16. artikulua.- Egiaztatze-proben definizioa eta ezaugarriak.

1. Egiaztatze-probaren xedea da balioestea ea ikasleak lortu duen maila jakin bat gaingitzea eskatzen zaion mailaren atalasea.
2. Hizkuntzen Europako Portfolioa erabiltzeko Europako Kontseiluaren gomendioak betetzeari begira, egiaztagiria ofiziala erdiesteko probak mailaren atalasea menperatzen dela frogatzeko modukoak dira, eta hautagaiak euskararen erabileran duen gaitasun-maila ebaluatuko duten trebetasunen arabera diseinatuko dira; ondorioz, maila bakoitzari dagokion gaitasun orokorraren arabera HEOCaren sei mailatako egiaztagiria emango dira, eta B1 mailatik aurrera, baita atalka ebaluatutako trebetasunen arabera zatikako egiaztagiria ere.
3. Halduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curricula (HEOC) ezartzen duen 2015eko uztailaren 22ko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren Aginduan ageri diren helburu orokorrak nahiz zehatzak izango ditu erreferentzia gisa gaitasun-maila orokorrak, eta Agindu horretan ezarritako ebaluazio-irizpideekin bat etorri ebaluatuko da. Horrela, HABEren egiaztatze-prozesu funtsezko ebaluazio-irizpidea komunikazio-eraginkortasuna izango da, eta HEOCaren ebaluazio-irizpideak eta eskalak atalaren tarteko edo bigarren deskribatzailea -maila eta trebetasun bakoitzari dagokionez- izango da maila bakoitzari dagozkion helburuak gaingitu izanaren adierazlea. HABEren zuzendariak egin egiaztatze-gintzarako deialdietan trebetasun desberdinen arteko kalifikazioetan konpentsazio-sistemen aplikazioa aurreikus lezake, bereziki, mintzamenaren proban lortutako kalifikazioak idazmenaren proban izandako kalifikazioak konpentsatu ahal izan ditzen, edota, ekoizpen-izaera duten trebetasunei dagozkien probetan erdietsitako kalifikazioek hartzaile-izaera duten trebetasunei dagozkien probetan erdietsitako konpentsatu ahal izan ditzen.
4. Proba aplikatzen den unean ikaslearen komunikagaitasunaren maila, komunikazio-egoera desberdinetan ahozko nahiz idatzizko testuak ulertzeko eta, halaber, ahoz nahiz idatzizko testuak ekoizteko dituen ezagutza, gaitasun eta

estrategien erabilera balioetsiz zehaztuko da, betiere maila bakoitzari dagokion zailtasunaren arabera.

5. A1 eta A2 mailen egiaztagiriak erdiesteko, ezinbestekoa izango da euskaltegiko irakasleek ebaluatutako mailaren atalasearen gaineko proba gainditzea.
6. B1, B2, C1 eta C2 mailen egiaztagiriak erdiesteko, gainera, beharrezkoa izango da komunikazio-gaitasun orokorraren inguruko HABEren egiaztatze-proba gainditzea, HABEren zuzendari nagusiak urtero egingo dituen deialdien arabera.

17. artikulua.– Jardunbideok izapidetzeaz.

1. HABEren egiaztatze-deialdiotan parte hartzeko izen-ematea Internet bidez egingo da www.habe.euskadi.eus atarian matrikula-orria betez, deialdian horretarako ezarritako epearen barruan. Izen-emate horren baitan burutuko ditu matrikulatutako hautagaiak egiaztatze-deialdiari dagozkion hurrengo atalak: matrikula egin eta bete, matrikularen ordainketa gauzatu, onartutakoen zerrenda ikusi, azterketa-eguna, ordua eta lekua ezagutu, izandako emaitzei buruzko berri izan, norberak egindako probak eskuratu, eta hala dagokionean, lortutako agiriak inprimatu.
2. Matrikularen ordainketa deialdian ezarritako epean egin beharko da, Internet bidez edo, bestela, horretarako bidea ematen duten finantza-erakundeetan (Kutxabank, Sabadell, Laboral Kutxa, Bankoa, BBVA, Banco Santander, CaixaBank, Banco Popular, Caja Rural de Navarra), izena ematean eskuratzen den matrikula-inprimakia erabiliz eta betez.
3. Matrikula egitea eta matrikulagatiko ordainketa gauzatzea era telematikoan burutuko da. Jarraibide horiek Internet bidez tramitzeko gorabeherarik edo zailtasunik dituztenek HABEren bulegoetara jo dezakete, jendearentzako arreta-ordutegian, zein deialditan matrikulatu nahi duten adieraziz, beharrezko duten laguntza eskain diezaieten edo izapide horiek modu telematikoan egiteko baliabide materialak utz diezazkieten.
4. Agindu honetan aurreikusitako beste ezein jarraibide burutu nahi izanez gero, hautagaiak bitarteko elektronikoak erabili ahal izango dituzte. Eskabideak aurkezteko nahiz agiriak gehitzeko aurrez aurreko bidea nahiz bide elektronikoa erabiltzeak ez du behartzen prozeduraren hurrengo izapideetan bide hori bera erabiltzera, Administrazio Elektronikoari buruzko 21/2012 Dekretuak ezartzen duen moduan.
 - Aurrez aurreko aurkezpena: eskabideak aurrez aurre aurkeztu ahal izango dira HABEren bulegoetan, EAEko erregistro laguntzaileetan (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari

- buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan jasotakoak) edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan aurreikusitako organoen aurrean. Aurkezpen-modu hau aukeratuz gero, eskabidea egiteko formularioa eskuragarri izango da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan, inprimatu, sinatu eta aurkezpen-bulegoetan aurkegarri izan dadin.
- Bide elektronikoa: Agindu honetan ezarritako izapide oro, 17.1 eta 2 artikuluetan zehaztutakoak izan ezik, Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoan egin beharko da, edo bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoetako erregistro elektronikoetan.
5. Eskabideak aurrez aurre nahiz era elektronikoan aurkezteko izapideei, erantzukizunezko adierazpenei eta deialdi hauetan beharrezkoak diren gainerako ereduiei buruzko informazioa, HABEren bulegoetan nola www.euskadi.eus webgunean eskuragarri egongo dira. Eskabidea bide elektronikotik aurkeztu ondorengo izapideak <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta> estekaren bitartez egingo dira.

18. artikulua.- Deialdietan matrikulatzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoa.

Matrikularen ordainari dagokionez, azterketaldi bakoitzaren matrikula-epealdia irekitzen denean, HABEk eskainitako jardueren prezio publikoak finkatzeko, indarrean dagoen araudiaren araberrako prezioak aplikatuko dira.

19. artikulua.- Egiaztatze-proben egitura.

1. Gaitasun orokorreko probak, dagokion egiaztagiriri ofiziala erdiesteko egiaztatze-proba bat gainditzea beharrezkoa den mailetan, lau zati bereizi eduki ditzake: ahozko testuen ulermena, idatzizko testuen ulermena, ahozko testuen ekoizpena eta berrekoizpena eta idatzizko testuen ekoizpena eta berrekoizpena. Aldi berean, egiaztatze-probaren zatietako bakoitzak jarduera bat edo gehiago bildu ahal izango ditu, mikrotrebetasun desberdinak ebaluatzeko helburuz.
2. Ataza guztiek jarduera egiteko moduari buruzko jarraibide zehatzak idatziz emango dituzte aurrez. Jarraibide horiek behar adinakoak, zehatzak, laburrak, argiak eta esanguratsuak izango dira, dagokion mailarako hizkera ulerterraz batean idatziko dira, eta ez dute hizkuntzaren ezagutza espezializatu baten berezko adierazpide metalinguistiko edo teknikorik edukiko, ezta ataza burutzeko beharrezko edo egoki izan daitezkeen argibide linguistiko, lexiko, sintaktiko edo diskurtsiboiei buruzko aipamenik ere.

3. Proba osatuta dagoen ataza bakoitzari dagokion jarraibideetan, jardueron araberako puntuazio orokorra eta jarduerak duen item bakoitzaren puntuazioa adieraziko da. Probak duen zati bakoitzeko jardueretan hutsune jakinak utziko dira, azterketariek erantzunak idatz ditzaten eta itemen araberako zatikako puntuazioak jar daitezten.
4. HABEren Zuzendaritza Nagusiak, ikasturte akademiko bakoitzerako, hurrengo ekitaldian aplikatu beharreko egiaztatze-proba hauen egiturari buruzko zehaztapenen Ebazpen bat prestatu eta argitaratuko du.

20. artikulua.- Egiaztatze-probak prestatzea.

1. Helduen euskalduntzegintzan arituak diren hizkuntzalaritza aplikatuko eta bigarren hizkuntzen pedagogiako adituek prestatuko dituzte egiaztatze-probak, HABEren Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzuko Ebaluazio- eta Egiaztatzerako Arloaren zuzendaritzapean.
2. HABEren Ebaluazio- eta Egiaztatzerako Arloak komunikagaitasun-maila jakin bat balioesteko eta egiaztatzeko landu den gaitasun-proba egoki prestatu dela bermatuko du (helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak), eta egiaztatzerako deialdi batean aplikatu aurretik, probaren baliotasuna ontzat emango, Agindu honetan ezarritakoari jarraituz.
3. Probok azterketari bakoitzaren komunikazio-gaitasuna ebaluatzeko diseinatuko dira, erreferentziatzat HEOCean mailaka zedarritutako helburu, gaitasun, eduki eta ebaluazio-irizpideak hartuz.
4. Egiaztatze-probak hizkuntzalaritza aplikatuaren eta bigarren hizkuntzen pedagogiaren estandar akademikoen arabera prestatu, kudeatu eta ebaluatuko dira, probon baliozkotasuna, fidagarritasuna, bideragarritasuna, zuzentasuna, eta gardentasuna bermatzeko.
5. Ezinbestekoa izango da egiaztatze-probak pilotatzea eta esperimentatzea, HABEren deialdietan matrikulatutako azterketariekin erabili baino lehen, tresnak baliozkoak eta emaitzak fidagarriak izan daitezten.
6. Horretarako, HABEren Ebaluazio- eta Egiaztatzerako Arloak prestatu dituen proben pilotatze-saioak programatuko ditu urtero, xede izanik, proba horien bideragarritasunari, fidagarritasunari eta baliozkotasunari buruzko datu eta informazioak eskuratzea, eta halaber testatu ahal izateko: ea eskatutako zereginak eta baita probetako materialak ere ebaluatutako mailara eta zuzentzen zaizkien azterketarien berezitasunetara egokitzen diren; ea proba horiek ezarritako helburuak sendotasunez ebaluatzeko eta erdietsitako kalifikazioen inguruan konfiantza-eremuak finkatzeko gaitasuna duten; ea proba horiek egiten dituzten ikasleek onartzen dituzten; ea probaren jarraibide eta zehaztapenen kalitatea zein

den, ea proba bakoitza proposatutako denboran betetzeko aukerarik badagoen eta probaren aplikazioaren bitartez erdietsitako informazioa eraginkorra den.

7. Probok eta bestelako agiri eta ebaluazio-materialak diseinatzerakoan eredu formalak kontuan hartuko dira HABEren instituzio-izaera isla dezaten eta irakurketa eta erabilera erraztu diezaieten bai ikasleei, bai irakasleei edo, baita ere, ebaluazio-prozesuan parte hartzen duten gainerako eragileei, eta edizioa, identifikazioa, gordetzea eta, hala dagokionean, argitaratzea ahalbidetu dezaten.
8. HABEk aldian-aldian argitaratuko du bere webgunean HEOCaren mailen trebetasun bakoitzaren ebaluaziorako egiaztatze-proba horien lagin adierazgarria, azterketariak ezagut ditzaten proben nolakoa, egitura, zereginok burutzeko ezarritako prozedurak, denborak, eta jarritako ataza-moduak.
9. HABEk azterketa-banku bat (HABI) sortuko du gordailu gisa, deialdietan erabili izan dituen era guztietako ebaluazio- eta egiaztatze-jarduerak bertara bilduz. Agiritegi hau mailaka, ebaluatutako trebetasunen arabera, ebaluazio- eta egiaztatze-moduen arabera eta ebaluatutako azterketarien tipologiaren arabera sistematizatuko da. Horrela, HABEk sortu eta erabiltzen dituen ebaluazio- eta egiaztatze-proben historikoa osatuko du. Azterketa-banku hau, proba berriak kudeatzeko eta sortzeko oinarria izango dena, HABEren Ebaluazio- eta Egiaztatzerako Arloak kudeatuko du. HABEren zuzendari nagusiak erabakiko du banku horretarako sarbidea izango duten pertsonen zerrenda eta kudeaketa zuzen eta egokirako betebeharreko baldintzak.

21. artikulua.- Entzumen-trebetasuna egiaztatzea.

1. Entzumenaren egiaztatze-proba azterketari bakoitzak bakarka egitekoa da, entzulearen eta ahozko testuaren arteko eragin-trukea barne-hartzen duen trantsakzio-prozesu batean, eta entzuleak, proba horretan, testua esanahiz hornituko du, ulertuko du, balioetsiko du, kritikatu du edota haren edukiarekiko jarrera jakin bat hartuko du, esanahia eraikitzearekin batera.
2. Entzumen-trebetasuna egiaztatzeko probaren xedea da elkarlanik gabeko entzunaldietan azterketari baten entzunezko ulermen-maila zehaztea, diskurtsoaren eraketan inolako parte hartzerik izan gabe.
3. Entzunezko ulermenaren egiaztatze-probarako proposaturiko testu-generoak HEOCean komunikazio-gaitasun maila bakoitzarentzat ezarritako testu-genero eta motetara egokituko dira.
4. Entzunezko ulermenaren egiaztatzea azterketariari egiteko eman zaizkion ataza jakinak nola garatu dituen balioetsiz burutuko da.

5. Entzunezko ulermen-trebetasunaren egiaztatzearen berezitasunak kontuan izanik, eta batez ere gainerako hizkuntza-trebetasunetatik bereizteko zailtasunak direla eta, trebetasun hori egiaztatzeko baliagarri eta fidagarri izango diren probak sortuko dira, eta proba hauek bermatuko dute proba arrakastaz burutzea ahozko testuaren ulermenaren mende egongo dela.
6. Hautagaiari ahozko testu baten edo testu batzuen gaineko galdera sorta egingo zaio, testua zenbateraino ulertu duen egiaztatzeko.
7. Horri begira, entzunezko ulermen-trebetasunak egiaztatzeko teknika fidagarriak erabiliko dira:

Erantzun itxiko itemak:

- Dikotomikoak: egia/gezurra erakoak.
- Erantzun alternatibokoak.
- Aukera anitzekoak.
- Lotzea edo bikoteak osatzea.
- Zati bat testuaren barruan birkokatzea.
- Informazio-transferentzia.

Erantzun gidatuko itemak:

- Zuriuneak betetzea.
- Cloze testa.
- Akatsak zuzentzea.

22. artikulua.– Irakurmen-trebetasuna egiaztatzea.

1. Irakurmenaren egiaztatze-proba azterketari bakoitzak bakarka egitekoa da, irakurlearen eta idatzizko testuaren arteko eragin-trukea barne-hartzen duen trantsakzio-prozesu batean, eta irakurleak, proba horretan, testua esanahiz hornituko du, ulertuko du, balioetsiko du, kritikatu du edota haren edukiarekiko jarrera jakin bat hartuko du, esanahia eraikitzearekin batera.
2. Ondorioz, irakurmenaren egiaztatze-proba aldi bereko eragin-trukezko eredu dinamikoan arabera egingo da, eta horrelako probetan, testuak datu batzuk emango ditu, eta irakurleak bere ezagutzak, hizkuntza-gaitasunak eta estrategiak erabiliko.
3. Irakurmenaren egiaztatze-probarako proposaturiko testu-tipologia HEOCean komunikazio-gaitasun maila bakoitzerako ezarritako testu-genero eta motetara egokituko da.
4. Irakurmenaren egiaztatzeak hiru funtzio izango ditu:

- Testuaren hitzez hitzeko ulermena.
- Inferentziatzko ulermena.
- Ulermen kritikoa.

eta honako ardatzen inguruan egingo da:

- Informazioa berreskuratzea.
 - Testua ulertzea.
 - Interpretazioa garatzea.
 - Testuaren formaren gaineko hausnarketa eta ebaluazioa.
 - Testuko edukiaren gaineko hausnarketa eta ebaluazioa.
5. Irakurmenaren egiaztatze-proban mikrotrebetasun hauek balioetsiko dira: hitzen ezagutze bizkor eta eraginkorra, irakurketaren arintasuna, testuaren prozesamendu morfologiko eta sintaktikoa, berbaldiaren ezagutza eta testuaren antolamendua.
 6. Irakurmen-trebetasuna egiaztatzerako sortuko diren jardueren tipologiari dagokionez, probok objektiboak nahiz semiobjektiboak izan daitezke. Proba objektiboak galdera laburrak izango dira, eta horiei eman beharreko erantzun labur eta objektiboa itxia izango da, distraigarriek lagundua. Proba semiobjektibo horiek inferentziak egitera jarriko dute azterketaria, testuan eskaini zaion informazioa abiapuntutzat hartuta, eta bere berezko ezagutza eta trebetasunetan oinarrituta.
 7. Horretarako, entzumen-trebetasuna egiaztatzeko zehaztutako antzeko teknika egiaztatuak erabiliko dira irakurmen-trebetasuna balioesteko.

23. artikulua.– Idazmen-trebetasuna egiaztatzea.

1. Idazmena egiaztatzeko probak ataza bat edo batzuk azalduko dizkio azterketariari, behar bezain argi eta garbi adieraziz zer testu ekoitzi behar dituen azterketariak ebaluagai den mailan, ondorengo hauek kontuan hartuz:
 - Igorleari harrarazten zaion rola.
 - Hartzailearen eta igorlearen arteko harremana.
 - Testuaren xede edo funtzio komunikatiboa.
 - Testu-mota.
 - Zer egoera-testuingurutan ekoitzi behar den testua.
2. Ikasleek duten mailaren eta probak dituen helburu zehatzen arabera, idazmenaren egiaztatzeak mikrotrebetasun hauetako batzuetan jarriko du arreta:
 - testua koherentziaz planifikatzea eta egituratzea;
 - kohesio-elementuak egoki erabiltzea;

- zuzentasunez (ortografia, gramatika, etab.), zehaztasunez (kontzeptualki, lexikoki, etab.) eta ebaluatutako mailari dagokion konplexutasunez idaztea;
 - dena delako mailari dagokion trebetasunez idaztea, erritmo egokian;
 - testu-mota bakoitzari dagokion konbentzioei jarraitzea (narrazioa, azalpena, argudioa, etab.);
 - egoera bakoitzean erregistro egokia erabiltzea (etxekoa, estandarra, akademikoa, etab.);
 - ideia nagusiak zein diren eta bigarren mailakoak zein diren agerian uztea.
 - iritziak zer diren eta informazio egiaztatu edo egiaztatgarria zer den argi bereiztea;
 - irudizko adierak, esanahi bikoitzak, hitz-jokoak, ironia, umorea oro har, falaziak erabiltzea.
3. Argiro zehaztuko dira:
- eskatutako testuaren generoa, esparrua eta ezaugarriak;
 - eskatutako ataza egiteko azterketariak izango duen denbora;
 - eskatutako testuaren luzera;
 - eskatutako ataza gauzatzeko jarraibideak.
4. Halako zuzenketa-proba subjektibo batean beharrezko objektibotasuna ziurtatzeko, lanerako irizpide orokor gisa, zuzenketa anonimoa «balioztatzea» ahalbidetuko da, aldiro itsu bikoitzeko sistemaz proba bakoitzaren bi zuzenketa eginez, bi ebaluatzailek bakoitzak bere aldetik egina, ebaluatzaileek ausazko banaketa baten bidez jasoko dituzten probak balioetsiz. Edozein kasutan, HABEren zuzendari nagusiak egiaztatze-deialdi bakoitzeko Ebazpenean ezarriko ditu zehatz-mehatz deialdi horretan indarrean egongo diren idazmen-probaren balioespen-irizpide bereziak, eta era horretan, proba horren ebaluazioa behar bezain objektiboa izango dela bermatuko da.
5. Baldin eta bi ebaluatzaileek ariketa «Gai» gisa kalifikatzen badute, idazmen-proba «Gai» gisa balioetsiko da. Baldin eta bi ebaluatzaileek ariketa «Ez gai» gisa kalifikatzen badute, idazmen-proba «Ez gai» gisa balioetsiko da. Baldin eta ebaluatzaileetako batek proba «Gai» gisa kalifikatzen badu eta besteak «Ez gai» gisa, probak ebaluatzaile ikerle baten irizpena jasoko du.
6. Hala, kalifikazioan desadostasun nabarmenik gertatzen bada, HEOCaren maila horren egiaztatze-gintzan itzal handia eta eskarmentu zabala duen ebaluatzaile ikerle batek berrikusi eta birkalifikatuko du.
7. Berrikuspenaren emaitza «Egiaztatze-proben berrikuspen-txostenean» agertuko da, eta mailako epaimahaiari igorriko zaio, ebaluatzaile ikerleak izenpeturik.
8. Ebaluatzaile ikerleak eginiko ebaluazioak probaren emaitza aldatzen badu, irizpen hori Mailaren epaimahaiari helaraziko zaio balioetsi dezan eta, onartuz gero, dagokion aktako kalifikazioa eguneratu dezan, era honetara amaiera emanaz probaren kalifikazio-prozesuari.

9. Idazmen-trebetasuna egiaztatzeke egin saio guztiak osorik kopia tuko dira fitxategi digitaletan, idazpuruan azterketari bakoitzaren ariketaren kodetutako datuak dituztela. Kopia digitalok egiaztatze-proben deialdi bakoitzeko arduradunak gordeko ditu eta, tartean diren azterketarien berariazko baimenik ezean, egiaztatze-prozesuko betekizun zehatzetarako baimendutako ebaluatzaileek baino ezingo dituzte kontsultatu. Egiaztatze-prozesu bat bukatu ondoren, kopia horiek HABEren ebaluatzaile adituaren irizpideak bateratzeko saioetan erabili ahal izango dira, eta baita, prozesuon ikerketa-lanetarako ere.

24. artikulua.- Entzunezko ulermena eta ahozko eragin-trukearen makrotrebetasuna egiaztatzea.

1. Entzunezko ulermenaren eta ahozko elkarreraginaren makrotrebetasunaren egiaztatzea bi adituk egingo dute, horietako bat ebaluatzaile eta bestea solaskide dela. Dagokion proba egingo diete bi azterketariri, eta esleituriko atazen arabera eragin-trukean arituko dira biak, horrela, komunikazio-helburua duen hizketa-egintza sorraraziko dute beren artean eta hautagai bakoitzaren eta solaskide adituaren artean.
2. Azterketari-bikote bakoitzaren solaskide adituak aurkeztuko dizkie entzunezko ulermenaren eta ahozko eragin-trukearen proba egiteko garatu beharko dituzten atazak, eta proba zuzen gauzatzeko behar diren mezu egokiak igorriko dizkie, horrela azterketarien arteko eta azterketari bakoitzaren eta adituaren arteko eragin-trukea gertatzeko behar diren baldintzak sortuz.

Solaskide aditua egiaztatze-saioko lotura eragilea izango da, gai dena azterketarien premia, behar, interes eta erreakzioak antzemateko, eta saioaren berrelikatze pedagogikoan esku hartzeko.

3. Ebaluatzaileak, bere aldetik, azterketari bakoitzaren berbaldia denbora errealean analizatzea izango du zeregin nagusia. Probak iraun bitartean ez du irizpiderik azalduko, eta ahozko probaren ebaluazio-txostenean islatuko ditu kalifikazioa eta ariketari dagozkion ohar esanguratsuak.
4. Entzunezko ulermenaren eta ahozko eragin-trukearen makrotrebetasunaren egiaztatzea euskararen erabilera-esparru egoki batean garatuko da, azterketariaren jarduna haren trebetasun pragmatikoaren erakusgarritzat behar bezala epaitu ahal izateko.
5. Mintzamen-probaren iraupena mailaka finkatuko da, betiere azterketari bakoitzaren gutxieneko jardute-denbora zehaztuz, baita bien arteko eragin-trukearena ere, azterketari bakoitzaren ahozko komunikazio-gaitasuna balioesteko lagin nahikoa adierazgarria eskuratzen ahalbidetuko duena.
6. Balioetsiko dira ekoizpenaren aberastasuna, euskarazko hitz-jarioa, adierazpidea

aginduriko atazara egokitzea, entzunezko ulermena, tonu zuzena erabiltzea, aginduriko ataza betetzeko estrategia egokiei heltzea.

7. Mintzamen-probako ebaluazio-irizpideak gaitasunka zedarrituko dira, jardute-mailak ezarriz komunikazio-gaitasuneko osagai bakoitzeko, baita ahozko hizkuntzaren beste ezaugarri batzuetarako ere: solaskidearen mezua ulertzea, ahoskera zuzena, intonazio egokia, etenaldi eta zalantza urriak, errepikapenik eza, sorturiko testuaren iraupen nahikoa eta behar besteko konplexutasuna.
8. Azterketarien ahozko hizkuntzaren menderatze-maila zehazteko bost ebaluazio-deskriptoreko eskala erabiliko da, HABEk onartutakoa eta HEOCean maila bakoitzeko zedarritutako hizkuntza-eredu eta ebaluazio-irizpideen arabera.

Halaber, solaskideak eta ebaluatzaileak ahozko ekoizpen-trebetasunaren ebaluazio globala egingo dute, hala ezarriz azterketari baten mintzamen-maila, agindu zaizkion hizkuntza-atazak egitean komunikazio-egoera errealan euskara modu eraginkorren eta emankorren erabiltzeko erakutsi duen trebetasunari dagokionez.

9. Azterketariek beren ariketa bukatu eta ebaluazio-gelatik irtetean, bi adituek azken kalifikazioa adostuko dute, eta aditu ebaluatzaileak ahozko probaren ebaluazio-txostenean jasotako oharrei beharrezko ñabardurak erantsi ondoren, bi ebaluatzaileek izenpetuko dute.
10. Entzunezko ulermenaren eta ahozko eragin-trukearen makrotrebetasuna egiaztatzeko saio guztiak osorik grabatuko dira soinu-fitxategi batean, eta saio-hasiera bakoitzean HABEk deialdian sartzeko azterketari bakoitzari helarazitako datu-kodeak islatuko ditu. Grabaziook egiaztatze-proben deialdi bakoitzeko arduradunak zainduko ditu eta, azterketarien berriazko baimenik izan ezean, soilik egiaztatze-prozesuko betekizun berezietarako baimena duten ebaluatzaileek kontsultatu ahal izango dituzte. Behin egiaztatze-prozesua bukatutik, grabaketa horiek HABEren ebaluatzaile adituen irizpideak bateratzeko saioetan erabili ahal izango dira, baita prozesuon ikerketa-lanetarako ere.

25. artikulua.- Egiaztatze-gintzaren kalitatea.

1. HABEren Zuzendaritza Nagusiak jardunbide-protokolo bat sortuko du egiaztatze-proben kalitatea eta konfidentzialtasuna bermatzeko aldera, probon balioztatzea barne hartuko duena, berriaz ziurtatuz probok HEOCaren ildo eta irizpideei egokitzen zaizkiela.
2. HABEren Zuzendaritza Nagusiak bateratze-saio teoriko-praktikoak antolatuko ditu egiaztatze-probak kudeatzeko, ebaluatzeko eta kalifikatzeko; saio horietan egiaztatze-gintzako epaimahaikideek, tutoreek, ikerleek, aztertzaileek, irakasleek eta teknikari adituek parte hartuko dute.

Ebaluazio-irizpideen bateratze-saio horien xedeak izango dira:

- Aztertzaile aditu gisa prestatzea, euskarazko komunikazio-gaitasunaren egiaztatze-gintza ebaluatzeko.
 - HEOCaren komunikazio-gaitasun mailetako eduki, irizpide eta deskriptoreak erabiltzen eta egiaztatze-proben ebaluazioan egoki aplikatzen ikastea.
 - Hainbat ebaluatzailek proba beraren gainean egindako ebaluazio-eskalen aplikazioaren analisi kontrastibo-praktikoan trebatzea. Saio praktikook xede izango dute aztertzaileen irizpideak bateratzea, eztabaidaren bidez, dagokionean, ez soilik barne-fidagarritasuna erdiesteko (hau da, iraunkortasuna eta egonkortasuna zuzentzaile bakoitzaren puntuazioan), baita zuzentzaileen arteko fidagarritasuna ere, puntuazio eta kalifikazioen arteko ahalik eta bat-etortze handiena lortu ahal izateko.
3. Jabego intelektualaren gainean indarrean dagoen araudia betez, atazen euskarriztat hautatzen diren ebaluazio- eta egiaztatze-material guztietan, idatzizkoak izan, entzunezkoak izan nahiz ikus-entzunezkoak izan, adieraziko dira iturria, autorea -baldin bada-, eta argitaratze-data, baita materialok egokitu edo moldatu diren ere.
 4. Egiaztatzeko langaiak editatu ahal izango dira, beharrezko denean eta behar den moduan, testuon luzera edo tamaina egokitzeko, koherentzia edo itxura hobetzeko, edo inprimatze-, soinu- edo irudi-kalitate eskaseko pasarte edo guneak saihesteko. Ez da bestelako ezein aldaketarik egingo materialetan, hala nola hitzak, esaldiak edo pasarteak ordezkatzeko edo berridazteko irakurketa errazteko; elementuak ezabatzea, besteak beste azpigituluak, epigrafeak, irudiak, grafikoak, edo testua ongi ulertzeko ezinbestekoak diren zatiak; esaldiak, pasarteak edo testuko beste elementuak lekuz aldatzea, edo paragrafoen banaketa aldatzea; edota idatzizko, entzunezko edo ikus-entzunezko testu bakarra osatzea, hainbat testutako zatiak batuz.

26. artikulua.- Egiaztatze-probetako hizkuntza-jardueren kalifikazioa.

1. Maila bakoitzari dagozkion trebetasun hartzaileetako hizkuntza-jarduerak zerotik hogeira, eta trebetasun ekoizleei dagozkienak zerotik hogeita hamarrena bitarteko zenbaki batez kalifikatuko dira, hamarrekorik gabe.
2. Hizkuntza-jarduerak gainditutzat jotzeko hamar puntu lortu beharko dira gutxienez trebetasun hartzaileen egiaztatze-jardueretan, eta hamabost puntu edo gehiagoko kalifikazioa erdietsi beharko da trebetasun ekoizleen ebaluazio-jardueretan.
3. Maila jakin bateko gaitasun orokorreko proba gainditzeko, beharrezkoa eta

ezinbestekoa izango da azterketariak gutxieneko kalifikazioak erdietsi izana komunikazio-trebetasunetako bakoitzean.

4. Zatikako gaitasun-proba gainditzeko, Agindu honetako 4.8 artikuluan kontuan hartutako balizkoen arabera, beharrezkoa izango da dena delako trebetasunak gainditzeko ezarrita dauden gutxieneko kalifikazioak erdieste.
5. Egiaztatze-proba osatzen duten ataletako bat edo batzuk egiten ez dituzten azterketarien kasuan, atal horiei emandako kalifikazioa «Ez aurkeztua» jarriz adieraziko da. Probaren azken nota orokorra, halakoetan, «Ez gai» izango da. Egiaztatze-proba osatzen duten ataletatik bat ere egiten ez duten azterketarien kasuan, «Ez aurkeztua» izango da azken kalifikazio orokorra.

27. artikulua.– Argitalpena.

HABEk bere webgunean argitaratuko ditu egiaztatze-prozesu bakoitzaren aldi bakoitzeko kalifikazio orokorrak eta zatikakoak, emaitzon oinarri den txosten arrazoitua kalifikazio-fitxan erantsirik, bai eta, horrela dagokionean, azterketariak egindako idatzizko probaren kopia edo mintzamen-probaren audioa, azterketariak ere irits ditzakeenak egiaztatze-prozesuan matrikulatzean HABEk helarazitako gakoak erabiliz.

IV. KAPITULUA

PROBEN EGOKITZAPENA

28. artikulua.– Desgaitasunen bat duten ikasleen egiaztatze-proben egokitzapenen ezaugarriak.

1. Desgaitasun aitortua duten ikasleek eskubidea izango dute beren behar berezietara egokituriko prozeduren eta tresnen bidez ebaluatuak izan daitezen. Egokitzapen horiek egiteko bideak aukera-berdintasunaren, diskriminazio ezaren eta desabantailen konpentsazioaren irizpideetan oinarrituko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera.
2. Aurreko atalean adierazitako probak egiteko baldintza bereziak behar dituzten ikasleak ez dira salbuetsita egongo dena delako probaren ezein atal egitetik, proba berdina izango baita ikasle ororentzat.
3. Egokitzapenek bermatu beharko dute ikasle guztiek erdietsi dituztela 2015eko uztailaren 22ko Aginduak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarenak, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma (HEOC) ezartzen duenak zedarritzen dituen komunikagaitasun-mailak.

29. artikulua.– Ebaluazio- eta egiaztatze-gintza-probak egokitze neurriak.

1. HABEk, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek neurri egokiak hartuko dituzte desgaitasun frogatua duten ikasleek ikastaro-amaierako zein mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-probak eta egiaztatze-probak gainerako ikasleen baldintza berdinetan egin ahal izan ditzaten, aurreko artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz. Egokitze-neurri horiek artikulua honetan jasotakoak izango dira.
2. HABEk, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek probaren zatietako bakoitzaren iraupena ebaluazio- zein egiaztatze-proben inguruko zehaztapenetan ezarritakoa baino % 60 gehiago luzatu ahal izango dute.
3. HABEk, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek bideak jarriko dituzte beren ikasleek proba egiteko beharrezkoak diren baliabide teknikoak erabili ahal izan ditzaten, betiere probaren ohiko garapenari eragozpenik sortzen ez badiote eta eduki arrotz orotatik libre badaude. Era berean, ebaluazio-probetan erabiliko den tipografia editatu ahal izango dute, ikasleek irakurketa eta ulermena erraztearren.
4. HABEk, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek antolamendu arloko neurriak hartu ahal izango dituzte ikasleek taldekatzearekin eta ikasgeletan banatzearekin loturik. Alde horretatik, artikulua honetan adierazitako baliabide teknikoak erabiltzeko gainerako ikasleei probaren garapenean eragozpenak sor diezazkiekenez, beharrezko baldintzak betetzen dituen beste gela edo eremu batean egingo dute proba desgaitasuna duten ikasleek.
5. Hipoakusia bat duten ikasleen kasuan:
 - HABEk, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek ikasle horiei idatziz jakinaraziko dizkiete gainerako azterketariei ebaluazio-prozeduraren inguruan ahoz jakinarazten zaizkien jarraibideak eta argibideak.
 - Baimena emango dute laguntzako materiala erabiltzeko, hala nola entzungailuak, soinu-anplifikagailuak edo FM ekipoak, baita irakasle batek ahozko testuen ulermeneko zatiaren jarduerak irakurtzeko ere.
6. Ikusteko gaitasuna mugatzen dien desgaitasun bat duten ikasleen kasuan:
 - HABEk, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek egokitu egin beharko dituzte probetan erabiliko den letra-tamaina, letra-mota eta euskarria. Irudiak agertzen diren probak izanez gero, tamaina egokian handitu beharko dira.

- HABEk, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek proba beste euskarri batzuetan egiteko baimena eman dezakete, beharrezko baliabide tekniko informatikoen laguntzaz.
7. Ezagutzaren gaineko gaitasuna mugatzen dien desgaitasuna duten ikasleen kasuan:
- HABEk, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek aurretiaz egokitu beharko dituzte prozesu hauen oinarriak, jarraibideak, gaiak eta ebaluazio- zein egiaztatze gintzako probak.
 - HABEk, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek «Irakurketa erraza» jokaerako arauak jarraituko dituzte, ematen den informazioaren ulerbidea errazteko.
 - HABEk, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek bermatuko dute pertsona hauek erabiliko dituzten leku, teknologia, langai eta baliabideetara iristeko erraztasunak izango dituztela.
 - HABEk, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek egokitu egingo dituzte ezagutzaren gaineko desgaitasuna duten pertsonen ebaluazio zein egiaztatze gintzarako azterketak egiteko emandako denborak.

30. artikulua.- Egiaztatze gintza-probak egokitze eskaera.

1. Ikasleek HABEren egiaztatze gintzarako azterketaldiren batean matrikula egitean eskatu beharko dute egiaztatze gintza-proben egokitzapena.
2. Egokitzapen-eskaerari honako agiri hauek erantsi beharko zaizkio:
 - a) Desgaitasunaren eta horren graduaren ziurtagiri ofiziala, horretarako eskumena duen Sailak edo Administrazioak jaulkia.
 - b) Ikaslearen adierazpena, proba egiteko eskatzen dituen neurri zehatzak azaltzen dituena, baldintzei edo erabilitako materialei dagokienez.

31. artikulua.- Egokitzapen-baimenak.

Deialdietako lurralde-arduradunari dagokio agindu honetako 27., 28. eta 29. artikuluetan jasotako egokitzapen-eskaeren kudeaketa.

32.- artikulua.- Egiaztatze gintzako langaien konfidentzialtasuna eta zaintza.

1. Euskaltegi bakoitzeko zuzendariak eta lankide guztiek zaindu beharko dute zentro horietan gauzatutako egiaztatze gintzako langaien eta tresnen konfidentzialtasuna.

2. Euskaltegiko zuzendariak ikastaro bakoitzeko egiaztatze-probak zaindu eta gorde beharko ditu, ahal dela euskarri elektronikoan.
3. Irakasleek egiaztatu beharko dute aplikatzera doazen egiaztatze-gintzako langaien osotasuna eta probotan jarritako jarduerak ikasleen kopurura eta mailara egokitzen direla.

33. artikulua.- Egiaztatze-proben eta materialen tratamendua eta zaintza.

Egiaztatze-probetan erabiltzen diren dokumentuen konfidentzialtasuna bermatuko da egiaztatze-jarduerok sortu, editatu, inprimatu, kopiatu eta banatzeko prozesuetan.

V. KAPITULUA

ERREKLAMAZIOAK ETA KALIFIKAZIO-BERRIKUSPENAK

34.-artikulua.- Aurkezpena: epeak, moduak eta jarraibideak.

Azterketariak erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte edo/eta erdietsitako kalifikazioa berrikusteko eskatu, eskaera arrazoituz, deialdi bakoitzean ezarritako epeen barruan eta deialdiaren ebazpenean ezarritako jarraibideei lotuz.

Desadostasun hutsa adieraztea ez da oinarri nahikoa izango erdietsitako kalifikazioaren berrikuspenera eskatzeko. Beraz, oinarri teknikorik gabeko kalifikazio-berrikuspeneren eskabideek gaitzirizpena izango dute.

Ez dira onartuko objektibaziorik gabe edo gertatutakoaren lekukotasunik gabe aurkezten diren erreklamazioak.

VI. KAPITULUA

KOMUNIKAGAITASUN-MAILA EGIAZTATZEKO AZTERKETA-DEIALDIEN ANTOLAKETA

35.- artikulua.- Organoak eta eskakizun akademikoak.

1. Azterketa-deialdien antolaketa artikulua honetan zehaztutako organo hauen bidez eta ondorengo artikuluetan zehazten diren zereginen arabera gauzatuko da:

- a) Azterketa-batzordea
 - b) Mailaz mailako epaimahaia
 - c) Tutoreak
 - d) Aztertzaileak
 - e) Lurralde-arduradunak
 - f) Antolaketa-laguntzaileak
2. Halaber, HABEren Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzuaren Ebaluazio- eta Egiaztatzerako Arloa eta Hizkuntza Teknologia Arloa arduratuko dira azterketa-deialdion antolaketarako beharrezkoak diren zereginaz. Ebaluazio- eta Egiaztatze-gintza Arloari dagokio azterketak prestatzeko eta dagokien mailarako egokiak direla bermatzeko zereginak betetzea. Hizkuntza Teknologia Arloari, berriz, probon aplikazioa eta gordetzearen antolaketarekin eta koordinazioarekin, eta HEOCaren araberrako ziurtagirien Erregistroa kudeatzearekin lotutako zereginak egokituko zaizkio.
 3. Betekizun horietarako izendatzen diren adituek, antolaketarako laguntzaileak izan ezik, zeregin hauek burutzeko eskatzen den titulu akademikoa eta euskarazko erabiltzaile adituaren C2 maila izan beharko dute.
 4. HABEren zuzendari nagusiaren egitekoa da deialdion xedatzen diren kide anitzeko organoetan, eta baita Agindu honetan aurreikusten diren azterketa-deialdi-tako aztertzaileen artean ere, emakumezkoen eta gizonezkoen ordezkaritza ahal den orekatuena izan dadin beharrezko irizpideak finkatzea.

36. artikulua.- Egiaztatze-azterketen deialdi-tarako eta ebaluazio-prozesuen jarraipenerako Azterketa-batzordea.

1. Azterketa-batzorde bat eratuko da HABEk kudeatzen dituen euskararen komunikagaitasun-mailen egiaztatze- eta ebaluazio-prozesua zuzentzeko. HABEren zuzendari nagusiak izendatuko ditu batzordekideak, lau urteko eperako.
2. Hauek izango dira Azterketa-batzorde horren funtzioak:
 - Maila bakoitza egiaztatzeko azterketa-eredua aztertzea eta onartzea.
 - Egiaztatze-prozesuaren garapena ahalbidetuko duten irizpideak adostea.
 - Epaimahai-tako emaitzak jaso, bildu eta akta idaztea.
 - Epaimahai-ek jarritako emaitzak jaso ondoren, emaitzok HABEren Zuzendaritza Nagusiari aurkeztea, hark onar ditzan, egiaztatze-irizpideak lutzatze-ari begira, eta Erregistroan alta eman dakien.
 - Azterketen ebaluazioa egin eta hobekuntzen proposamenak bideratzea.
 - Azterketetan gorabeherarik sortuko balitz, aktak behatu eta ondoriozko txostena egitea.
 - Euskararen eta beste hizkuntzen egiaztatze-gintzan erabiltzen diren baliabideak eta prozesuak arakatzea.

- Gaitasun-azterketetan parte hartuko duten ebaluatzaileak eta aztertzaileak gaitzeko programak diseinatzea.
- Gaitasun-probak lantzeko eta prestatzeko zein azterketok egin ondorengo ikerketagintzarako irizpideak finkatzea.
- Agindu honetan epaimahaien zeregintzat jotzen diren egitekoak bere egitea, deialdi bereziren batean haien osaketa beharrezkotzat jotzen ez bada.
- Emaizten jarraipena egitea, bereziki euskaltegietan eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetan matrikulatuta dauden ikasleenak, HEOcean eta ECPTan ezarritako diseinu eta irizpide pedagogikoetara egokitutako ikas/irakaskuntza prozesuak hobetzera begira.
- Oro har, deialdiarekin zerikusia duten gaitan HABEren Zuzendaritza Nagusiak eskatutako gaiak lantzea.

3. Azterketa-batzordea honako hauek osatuko dute:

- Batzordeburua: HABEren Hizkuntzaren Didaktika-zerbitziburua izango da.
- Kideak: batetik, euskalergi publikoetako hiru ordezkari eta euskalergi pribatuetako eta euskararen autoikaskuntzarako zentroetako sei ordezkari; eta bestetik, egiaztatze-aldirako hiru lurralde-arduradunak, Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzuko arloetako arduradunak. Idazkari lanetan, Ebaluazio-eta Egiaztatzerako Arloko arduraduna arituko da.

Beharrezko denetan, HABEren Zuzendaritza Nagusiak ordezkokoak ere izendatuko ditu, euskararen komunikagaitasun-mailak egiaztatzeko probak normaltasunez aurrera eraman ahal izateko.

37. artikulua.– HABEren egiaztatze-gintza-deialdietako mailaz mailako epaimahaiak.

1. Azterketa-deialdietan, maila bakoitzeko epaimahai bana osatuko da egiaztatzeko gaitasun-probak kalifikatzeko.

HABEren Zuzendaritza Nagusiak Ebazpenez izendatuko ditu, urtero, maila bakoitzeko epaimahaikideak, lehendakaria, lehendakariordeak eta idazkariak HABEren teknikarien artetik, eta gainerako kideak HABEren teknikari, euskalergi-sare ezberdinetako irakasle edota helduen euskalduntzean aditu direnen artetik, betiere, haien ibilbide profesionala kontuan izanda.

2. Epaimahai bakoitza gutxienez hiru kidek eta gehienez zazpik osatuko dute. Beharrezko denetan, HABEren Zuzendaritza Nagusiak ordezkokoak ere izendatuko ditu, euskararen gaitasun-mailak egiaztatzeko probok normaltasunez aurrera eraman ahal izateko.
3. Hauek izango dira epaimahaikideen egitekoak:

- Ebaluazio- eta Egiaztatze Arloak landu duen gaitasun-proba egoki aplikatuko dela bermatzea.
- Aztertzaile eta tutoreen irizpenak jaso ondoren, gaitasun-probak kalifikatzea.
- Jarritako zuzenketa-irizpideak aztertzaileek egoki aplikatuko dituztela bermatzea.
- Zailtasun jakinak edo kontraesanak izan ditzaketen gaitasun-probak ofizioz zuzentzea.
- Zuzenketa eta kalifikazioari buruzko akta idatzi eta HABEren Azterketa-batzordeari berri ematea.
- Egiaztatze-proben kalifikazioa berrikusteko eskaerei erantzuteko tutoreek idatzitako proposamenak onartzea, eta interesdunei igortzea.
- Deialdiko egiaztatze-proben maila bakoitzeko lagin bat berrikustea
- Deialdiotako ezaugarri, irizpide eta gutxienekoak bete eta betearaztea, aldian aldiko ekintzen aktak idatziz.
- Ebaluazio- eta Egiaztatze Arloko arduradunaren gidaritzapean, bateratze-saioetako antolaketan eta ebaluazioan parte hartzea.

38. artikulua.- HABEren egiaztatze-gintza-deialdiotako aztertzaile-taldeetako tutoreak.

1. Azterketa-deialdiotan, HABEren Zuzendaritza Nagusiak urtero izendatuko ditu aztertzaile-taldeetako tutoreak, HABEren teknikarien, euskaltegi-sareetako irakasleen edo helduen euskalduntzean adituak diren langileen artetik, betiere haien ibilbide profesionala kontuan hartuz.

Beharrezko denetan, HABEren Zuzendaritza Nagusiak ordezkioak izendatuko ditu, egiaztapen-probak bere osotasunean gauzatuko direla bermatzeko.

2. Hauek izango dira aztertzaile-taldeetako tutoreen egitekoak:

- Aztertzaile-talde baten aditu-lanak egitea azterketen ebaluazio-irizpideen aplikazioan.
- Bateratze-saioetako aztertzaileen gidaritzak izan eta eramatea.
- Egiaztatze-proben kalifikazioa berrikusteko eskaerei emandako erantzun teknikoak prestatzea, probak berrikusiz eta, hala badagokio, birkalifikatu ondoren, dagokion mailako epaimahaiburuari jakinaraziz eta Epaimahaiak onartu ondoren, interesdunari tutoreak izenpetuta bidaltzea.

3. Aztertzaile-taldeetako tutoreak mailaz mailako epaimahaiaren esanetara jardungo dute kalifikazioei dagozkien zereginetan, eta gaikuntza eta irizpideen bateratzeari dagokionez, HABEren Curriculum Garapen eta Prestakuntza zein Ebaluazio- eta Egiaztatze Arloetako arduradunen esanetara, hurrenez hurren.

39. artikulua.– HABEren egiaztatzegintza-deialdietako aztertzaileak.

1. Azterketa-deialdietan, HABEren Zuzendaritza Nagusiak urtero izendatuko ditu aztertzaileak, euskaltegi-sareetako irakasleen edo helduen euskalduntzean adituak diren lankideen artetik, betiere aztertzaileon ibilbide profesionala kontuan hartuz.
2. Hauek izango dira aztertzailearen egitekoak:
 - Gaitasun-proben lehen ebaluazio-irizpen arrazoitua ematea.
 - Kalifikazio-orriak eta, dagokionean, aktak zuzen eta egoki betetzea.
 - Azterketa-egunean azterketa-lekuan lurralde-arduradunaren esanetara izatea.

40. artikulua.– Ebaluatzaile ikerleak.

1. HABEren zuzendari nagusiak urtero izendatuko ditu ebaluatzaile ikerleak, denak ere itzal handikoak eta HEOCaren maila jakin bateko hizkuntza-trebetasunen ebaluazioan esperientzia zabalekoak.
2. Ebaluatzaile ikerlearen zereginak ondorengo hauek izango dira:
 - Idazmena ebaluatzeko probaren hirugarren ebaluazioa eta kalifikazioa egitea, eta dagokion mailako epaimahaiari helaraztea.
 - Azterketariak, arrazoituz, berrikuspena eskatu duen idazmen-proben kasuan, probon behin betiko ebaluazio- eta kalifikazio-proposamena mailako epaimahaiari egitea, eta Epaimahaiak onartu ondoren, interesdunari ikerleak izenpetuta bidaltzea.
3. HABEren zuzendari nagusiak izendatutako mailako epaimahaietako kideek eta tutoreek, dagozkien eginkizunez gain, ebaluatzaile ikerlearen egitekoak ere bete ahal izango dituzte.

41. artikulua.– HABEren egiaztatzegintza-deialdietako lurralde-arduradunak.

1. Gaitasun-mailak egiaztatzeko deialdi hauek egoki antolatzeko, HABEren zuzendaritza nagusiak lurralde-arduradun bat izendatuko du urtero HABEren teknikarien artetik, lurralde bakoitzeko. Beharrezko denetan, HABEren zuzendari nagusiak ordezkoak ere izendatuko ditu.
2. Hauek izango dira lurralde-arduradunaren egitekoak:
 - Azterketa-lekuak proposatzea eta haien erabilgarritasuna kudeatzea.
 - Azterketa idatzietako probak antolatzeaz arduratzea, zaintza-lanak barne,

- eta lurraldean eginiko azterketak jasotzeaz eta gordetzeaz arduratzea.
- Ahozko azterketetarako baliabideen prestaketaz eta antolakuntzaz arduratzea, aztertzaileen nahiz azterketarien antolaketa bideratuz, eta probak gauzatzeko erabilitako materialak, egindako grabazioak eta jasotako kalifikazio-fitxak jasotzeaz, biltzeaz eta entregatzeaz arduratzea.
 - Agindu honen IV. kapituluan aurreikusitakoaren araberako behar bereziak dituzten azterketariei erantzutea, eta kasu bakoitzean, baimendutako leku-eta egun-aldaketak antolatzea.
 - Azterketaren eguneko akta idaztea.

42. artikulua.- Antolaketarako laguntzaileak.

Euskarazko komunikagaitasun-mailak egiaztatzeko deialdiak behar bezala antolatzeko, HABEren Zuzendaritza Nagusiak antolaketa laguntzaileak izendatuko ditu, deialdiaren lurralde-arduradunarekin elkarlanean egiaztatze-saioak antolatzen laguntzeko: proba egiteko behar diren elementuak behar bezala prestatzea, hautagaien datuak erregistratzea eta egiaztatzea, proba behar bezala egiten dela gainbegiratzea, azterketak jasotzea...

VII. KAPITULUA

EGIAZTATZEGINTZAKO AZTERKETALDIETAKO AZTERKETARIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

43. artikulua.- Azterketarien eskubide eta betebeharrak.

1. Agindu honen II. kapituluan zehaztutako ebaluazio-prozesuetan parte hartzen duten ikasleek honako eskubideak eta betebeharrak izango dituzte:
 - Euskaltegiaren egutegiaren arabera, egiaztapen-balioa duten mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-jarduerak noiz egingo diren garaiz jakitea.
 - Ebaluazio-jarduera egiteko lekua egokia izatea, espazioaren eta soinu-mailaren ikuspegitik.
 - Ebaluazio-jardueraren osagaiak zeintzuk diren eta denbora-erabileraren aurreikuspena zein den jakitea.
 - Ebaluazio-jardueraren zuzenketan erabiliko diren irizpideen berri izatea.
 - Ebaluazio-jarduera balioduna, fidagarria eta egingarria izatea. Alegia, ikasten ari den mailarekin bat etortzea eta ahalik eta objektiboena izatea.
 - Emaitzen berriak trebetasunez trebetasun bereizirik jakitea.
 - Ebaluazio-jardueraren fitxan, emaitzaz gain, irizpen arrazoitua izatea.
 - Emaitzekin bat ez badator, ezarritako epe eta moduan, euskaltegiaren aurrean nota berrikusteko eskabide-idazki arrazoitua aurkeztea.

- Nork bere espedientea ikusteko aukera izatea.

Betebeharrei dagokienez, berriz, euskaltegiko mailaren atalasearen gaineko ebaluazioan oinarritutako A1 eta A2 mailtako egiaztapena eskuratu nahi duen ikasleak gutxienerako hauek bete beharko ditu:

- Ikas-jardunaren gutxienerako ordu-kopurua betetzea.
- Ikastaroan gutxienerako asistentzia izatea.
- Agindu honen 10. artikuluan adierazitako balio egiaztatzailea duten mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-jarduerak egitea.

Betebehar hauek, betiere, Agindu honetan ezarritakoaren arabera ematen diren epe eta prozedurei jarraikiz bete beharko dira, salbuespenik gabe. Horietakoren bat betetzen ez badu, ezingo du euskaltegiko mailaren atalasearen gaineko ebaluazioan oinarritutako komunikagaitasun-maila egiaztatu, eta ondorioz, ezta egiaztatzea eskuratu ere.

2. Agindu honen III. kapituluaren zerrendatutako egiaztatze-deialdietara aurkeztu diren hautagaiek honako eskubideak eta betebeharrak izango dituzte:

- Gaitasun-proba zein egunetan, zer ordutan, non eta zein ikasgelatan izango den garaiz jakitea.
- Gaitasun-proba egiteko lekua egokia izatea, espazioaren eta soinu-mailaren ikuspegitik.
- Salbuespeneko egoeretan, azterketa-lekua eta eguna aldatzea, betiere deialdi bakoitzaren oinarrietan ezarritako baldintzen eta epe-mugen baitan.
- Gaitasun-probaren osagaiak zeintzuk diren eta denbora-erabileraren aurreikuspena zein den jakitea.
- Gaitasun-probaren zuzenketa erabiliko diren irizpideen berri izatea.
- Azterketa balioduna, fidagarria eta egingarria izatea. Alegia, egiaztatu nahi den mailarekin bat etortzea eta ahalik eta objektiboena izatea.
- Azterketa norena den jakin gabe zuzendua izatea.
- Emaitzen berri trebetasunez trebetasun bereizirik jakitea.
- Gaitasun-probaren kalifikazio-fitxetan, emaitzaz gain, irizpen arrazoitua izatea.
- Gaitasun-proba egiteko onartuen zerrendaren aurrean erreklamazioa egitea.
- Emaitzekin bat ez badator, ezarritako epe eta moduan, mailaz mailako epaimahaiaren aurrean kalifikazioaren berrikuspena eskatzea.
- HABEk emaitzak argitaratu ondoren, nork bere espedientea ikusteko aukera izatea.

Betebeharrei dagokienez, berriz, azterketariak deialdi hauetara biltzen diren gutxienerako hauek bete beharko ditu:

- Deialdiotan ezarritako matrikula-prozesua bere osoan eta, aldi-aldi,

egoki betea izatea, datu ofizialak zuzen eta zehatz emanez.

- Azterketa-eskubideak ordainduak izatea adierazitako modu eta epeetan.
- Azterketa-egunean adierazitako lekuan ordurako izatea.
- Azterketako arduradunen aurrean identifikatzea, nortasun-agiria edo agiri ofizial baliokideren bat aurkeztuz.
- Gainerako azterketariei zor zaien errespetuz jokatzeko eta probaren eskakizunetara egokitzea.

Betebehar hauek betiere Agindu honetan ematen diren epe eta prozedurei jarraikiz bete beharko dira, salbuespenik gabe. Horietakoren bat betetzen ez bada, azterketariak ezingo du azterketarik egin.

VIII. KAPITULUA

EGIAZTATZE-ONDORENGO PROZESUAK ETA PROZEDURAK

44.artikulua.– Gorabeheretarako protokoloa.

Lurralde-arduradunek akta batean jasoko dituzte probetan gerta litezkeen gorabeherak. Horien izaerak edo larritasunak hala eskatuko balu, HABEren zuzendaritza nagusiak proba baliogabetu lezake, dagokion kontrako espedientea bideraturik, eta Azterketa-batzordeak bidalitako txostena aztertu ondoren.

Euskaltegiko mailaren atalasearen gaineko ebaluaziogintzan oinarritzen diren egiaztatze-prozesuetan agerturiko gorabeherari dagokienez, euskaltegietako edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako zuzendaritzei egokituko zaie dagokion akta idaztea halakorik gerta dadinean.

45.artikulua.– Komunikazio-gaitasunaren egiaztagirien ereduak.

1. Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean zehazturiko mailen egiaztatzea Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuak emandako egiaztagiriaren bidez egingo da, hala mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-jardueretan oinarrituriko egiaztatze-prozesuetan, nola egiaztatze-deialdien bidez buruturikoetan.
2. Horretarako sei egiaztagiri-eredu diseinatuko dira, komunikagaitasun-maila bakoitzeko bat, eta Agindu honetan ezarritakoaren arabera idatziko dira.
3. Halaber, zatikako gaitasunen ziurtagiri-ereduak diseinatuko dira, Agindu honetako 4. eta 13. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

4. Desgaitasunen bat dutenentzako berariazko egiaztagiri-ereduak diseinatuko dira. Desgaitasunak hizkuntzaren erabileran makrotrebetasun komunikatibo jakin bat garatzeko ezintasuna dakarrenean, delako trebetasunaren kalifikazioan «ebalatu gabea» islatuko da, eta kalifikazio orokorra gainerako makrotrebetasunetan erdietsitako kalifikazioetatik aterako da. Egiaztatze-proba baldintza hauetan gainditzen denetan, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak ematen duen egiaztagiriak ohar bat izango du, azterketariaren desgaitasunagatik dena delako trebetasuna ebaluatu ez dela adierazten duena.
5. Gaitasun orokorreko proba nahiz zatikakoa gainditu duen azterketariak HABEren aplikazio informatikoaren bidez deskargatu ahal izango du bere egiaztagiria. Ziurtagiri horiek baliozkoak izango dira dokumentuaren titularrak euskaraz duen komunikazio-gaitasuna egiaztatzeko, bertan jasotzen diren baldintzetan.

46. artikulua.- Eraginkortasun-data.

1. A1 eta A2 mailetako atalasearen gaineko egiaztatze-ebaluazioa lau alditan aplikatuko da urtean zehar: lehenengoa, urriaren 1etik abenduaren 31ra bitartean emandako ikastaroak hartzen dituena; bigarrena, urriaren 1etik martxoaren 31ra bitartean emandako ikastaroak hartzen dituena; hirugarrena, urriaren 1etik ekainaren 30era bitartean emandako ikastaroak hartzen dituena; eta laugarrena, uztailaren 1etik irailaren 30era bitartean emandako ikastaroak barne hartzen dituena.
2. Garai horietan erdietsitako agiriek urtarrilaren 30eko, apirilaren 30eko, uztailaren 30eko eta urriaren 30eko eragin-data izango dute, hurrenez hurren.
3. Egiaztatzegintza-deialdien kasuan, ziurtagiriaren eraginkortasun-data azterketaldiaren behin betiko emaitzak argitaratzen diren egunekoa izango da.

47.artikulua.- Ziurtagiriak baliozkotzea.

Agindu honetan araututako sistemaren bidez lortutako ziurtagiriak baliozkotzeko, uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuan xedatutakoa beteko da. Dekretu horren bidez, aldatu egiten da euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko Dekretua.

48.artikulua.- HEOCean zedarrituriko komunikagaitasun-mailen ziurtagiriaren HABEren Erregistroa.

Agindu honetan xedatutakoaren arabera euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleek eta deialdietako azterketariak

egiaztatzen dituzten euskararen gaitasun-mailak HEOCean zedarrituriko komunikagaitasun-mailen ziurtagirien HABEren Erregistroan inskribatuko dira. Erregistro honetan, pertsona bakoitzari buruzko identifikazio-datuekin batera, egiaztatutako HEOCaren gaitasun-maila edo mailak eta egiaztatze-data jasoko dira.

49.artikulua.– Nork bere espedientea ikusteko aukera.

Azterketariak HABEren atarian kontsultatu ahal izango ditu idatzizko eta ahozko adierazpen-proben balorazioari dagozkion irizpen arrazoituak, bere idatzizko ulermen eta adierazpen-probak eta ahozko adierazpen-probaren grabazioa; agiriok osatzen dute hautagai bakoitzaren egiaztatze-probaren espedientea.

50.artikulua.– Datu pertsonalen babesa.

1. Egiaztatze-deialdi hauetan adierazitako datu pertsonalak eta egiaztatze-prozeduran zehar sortzen direnak «Euskara-mailak egiaztatzeko deialdi irekiak», «Euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetao ikaslegoarentzako deialdiak», «Ikasleen dirulaguntzak» eta «Egiaztapen probetarako eskatutako egokitzapenak» izenekoak, edo hauen orde z ezar daitezkeenak, dagokion Tratamendu-Jardueren Erregistroan (TJR) sartuko dira, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Batzordearen eta Europako Parlamentuaren 2016/679 araudian xedatutakoaren arabera. Fitxategi horietan jasotako datuen erabilera ondoren zehazten dena izango da:
 - Deialdi hauetan aurreikusitako egiaztatze-prozeduren kudeaketa.
 - HEOCean zedarrituriko komunikagaitasun-mailen ziurtagirien HABEren Erregistroan inskribatzea, Agindu honen 48. artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratura jaulkitako ziurtagiriak bidaltzea, urriaren 16ko 222/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera, deialdi hauetan gaitasun-maila egiaztatzen duten pertsona guztiei. Erregistro horretako datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren titularra da. Bertan jasotako datu pertsonalen eskubideak Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Zerbitzu Zuzendaritzan gauzatuko dira.
 - Egiaztatze-probak gairiditu dituzten ikasleei zuzendutako dirulaguntzen kudeaketa, deialdia onartzen denean.
2. HABEren zuzendaria izango da tratamenduaren ardura izango duen administrazio-organoa. Beharrezkoa da trataera ematea legezko beharrak betetzeko (HABE sortu eta euskaltegiak arautzeko azaroaren 25eko 29/1983 Legea) eta interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari emandako

botere publikoen alde egindako eginkizuna betetzeko (Euskadiko Ogasun Orokorreko Dirulaguntzei eta Antolarauei buruzko Lege Orokorra).

3. Interesdunek datuetan sartzeko, horiek zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea izango dute, bai eta datuok tratatzearen aurka egiteko eskubidea ere, informazio osagarrian adierazitako moduan. Era berean, helbide honetan beren datuen tratamenduari buruzko informazio osagarria eskuratu ahal izango dute: <https://www.habe.euskadi.eus/datu-pertsonalen-babesa-haben/s23-edukiak/eu/>.
4. Egiatzatze-prozesuaren ondoren, lau hizkuntza-trebetasunak neurtzeko probak prestakuntza-helburuetarako edo ikerketa-lanetarako erabili ahal izango dira, egiatzatze-prozedura amaitu ondoren eta, hala badagokio, barneratuta dituzten datu pertsonalak bereizi ondoren, indarrean dagoen legeriak agintzen duen moduan.

51.artikulua.- Ebaluazio-jarduerak eta gaitasun-probak gordetzea.

HABEren Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzuak ikerketarako gordeko ditu ahozko zein idatzizko ebaluazio-jarduerak eta gaitasun-probak.

Gaitasun-proben eta ebaluazio-jardueren garbiketa egiterakoan, HABEren Hizkuntza Teknologia Arloak, gutxienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eskumena duen Sailak horretarako jarritako epea gordeko du eta garbiketa-akta egingo du.

52.artikulua.- Egiatzatzegintza-deialdietan partaide izateagatik HABEren lankide ez direnei dagokien diru-ordaina.

Agindu honetan aurreikusitako azterketa-deialdietan, HABEren plantillako lankide ez izanik aztertzaile edo tutore aritu den, edo deialdi horiek antolatzeko aurreikusi diren organoetan parte hartu duen, edo Agindu honetara bildutako beste ezin ardura hartzen duen orok izango du dagokion diru-ordaina jasotzeko eskubidea. Diru-ordain horien zenbatekoak, lankidetzak ordaintzeko irizpideak eta zeregin bakoitzari dagokion tarifa HABEren zuzendari nagusiaren Ebazpen baten bidez emango dira jakitera.

IX. KAPITULUA

ONDORIO EKONOMIKOAK

53.artikulua.– Ikasleentzako dirulaguntzak.

1. Agindu honetan ezarritako ebaluazio- edo egiaztatze-gintzaren hariko jarraibideen baitan, euskarazko komunikagaitasun-maila bat gainditu edo egiaztatu dutenek HABEren zuzendari nagusiak urtero egingo duen ikasleentzako dirulaguntza-deialdian parte hartzeko eskubidea izango dute.
2. Urteroko deialdi horrek xede du euskaltegietako ikastaroetan matrikulatutako ikasleei, gehienez ere, azkeneko bi ikasturteetako matrikulengatik egindako diru-ekarpenengatik diru-ordaina ematea.
3. Horretarako, HABEren zuzendari nagusiak, urtero, euskaltegietako ikasleentzako laguntzen deialdiak egingo ditu, aurrekontu-baliabideek horretarako bide ematen badute, dirulaguntza hauek aitortzeko baldintzak eta prozedurak ezarritik eta moduluak eta irizpideak zehaztuz, euskarazko komunikazio-gaitasunen A1, A2, B1 eta B2 mailetako atalasearen ebaluazioa Agindu honetan zehaztutako moduan, euskaltegian gainditu, edota HABEren egiaztatze-proben bidez HEOCaren edozein maila gainditu duten ikasleei, edo, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuaren arabera agiri baliokideak aurkezten dituzten ikasleei zuzenduak.
4. HABEren Erregistroan inskribatutako euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek antolatutako ikastaroetan matrikulatzen diren ikasleentzat artikulu honen 3. atalean zehaztutako dirulaguntzak, ikasleak ordaindutako matrikula-kosteak bere osoan edo zati batean konpentsatu ahal izango dira urteroko deialdietan aurreikusitakoaren arabera.
5. HABEren Kudeaketa Zerbitzuari dagokio, Ekonomia eta Administrazio Unitatearen eta Ikuskatzaitzaren bitartez, deialdi horietan aurreikusitako kudeaketa-lanak burutzea.

XEDAPEN GEHIGARRIETATIK LEHENENGOA

Agindu honetan jasotako kide anitzeko organoek, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko tituluaren II. kapituluan xedatutakora egokituko dituzte funtzionamendu zein erabakien araubidea.

XEDAPEN GEHIGARRIETATIK BIGARRENA

HABEk bere euskarazko komunikazio-gaitasunaren egiaztagirien Erregistroaren egitura Agindu honetako 4. eta 13. artikuluetan xedatutakora egokituko du, Aginduaren indarraldia hasi eta sei hilabetera.

XEDAPEN IRAGANKORRETATIK LEHENENGOA

HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegi-tako eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleek 2019-2020 ikasturtean Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren B1 gaitasun-maila egiaztatu ahal izan dezaten ebaluazio jarraituko jardueri balio egiaztatzailea aitortzeko prozedura, 2019ko azaroaren 13ko HABEren zuzendariaren ebazpenaren I. eta III. eranskinetan zehaztutako ezaugarrien eta baldintzen arabera, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2018ko ekainaren 7ko Aginduan ezarritako laugarren aldiaren bukaerarekin itxiko da, hain zuzen 2019ko urriaren 1etik 2020ko irailaren 30era bitartean emandako ikastaroak hartzen dituen.

XEDAPEN IRAGANKORRETATIK BIGARRENA

Agindu honen 35.3 artikuluan ezarritako erabiltzaile adituaren C2 maila izatearen betebeharrari dagokionez, ondoren xedatzen diren epeetan bete behar izango dute B1, B2 eta C1 mailetako aztertzaileek:

- C1 mailako aztertzaileek 2022ko urriaren 1ean izan beharko dute egiaztatua erabiltzaile adituaren C2 maila, 2022-2023 ikasturtea hastean.
- B1 eta B2 mailetako aztertzaileek 2024ko urriaren 1ean izan beharko dute egiaztatua erabiltzaile adituaren C2 maila, 2024-2025 ikasturtea hastean.

Agindu hau indarrean sartu eta xedapen honetan xedaturiko epeak igaro bitartean, B1, B2 eta C1 mailetako aztertzaileek erabiltzaile gaituaren C1 maila egiaztatua izan beharko dute.

XEDAPEN IRAGANKORRETATIK HIRUGARRENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eskumena duen Sailak egindako azterketak gordetzeko epea zehazten ez duen bitartean, HABEk azterketa eta ebaluazio-jardueren garbiketa egingo du deialdia bere osoan amaitu eta, gutxienez, bost urte pasatu ondoren.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrrik gabe geratzen da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak 2016ko azaroaren 23an emandako Agindua, HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean ezarritako gaitasun-mailen ziurtagiriak eskuratzeko

prozedurak ezartzen dituen, eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak 2018ko ekainaren 7an emandako Agindua, HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean ezarritako gaitasun-mailen ziurtagiriak eskuratzeko prozedurak ezartzen dituen 2016ko azaroaren 23ko Agindua aldatzen duena.

Halaber, indarririk gabe geratzen dira Agindu honetan ezarritakoaren kontra dauden maila apalagoko gainerako xedapenak.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ahalmena ematen zaio HABEren zuzendari nagusiari, berari dagozkion eskumenen eremuan, Agindu honetan ezarritakoa egikaritzeko.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu hau 2020ko urriaren 1ean jarriko da indarrean, beren aplikazio-eremuko zentroetan 2020-2021 ikasturtearen hasierarekin batera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 9a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,

BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.



HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO CURRICULUMA (HEOC)



HABE

2021

ISBN: 978-84-96769-10-6



9 788496 769106